—Gan behar dinat haur sortu berri haren xarmatzerat[2].

Altxatzen du arri bat supazterraren aintzinean. Handik atheratzen du kasola bat zentan beitzen gantzudura[3] bat. Eskoba[4] bat hartu eta ungi arraskatzen[5] du bere buruba erranez(1):

—*Edoi guzien azpitik eta lahar[6] guzien gañetik. Horen erdi bat bideko, bertze bat hango eta bertze bat hunarateko.*

Hori erran orduko gana da.

Ikhusi duenian gaten, atheratzen da gizona gelatik. Ikhusi zuen zer in zuen. Gantzutzen da hura bezala, bañian erraten du(2) tronpaturik:

—*Edoien azpitik eta laharren azpitik ere. Oren laurden bat harat gateko, oren erdi bat hango eta oren laurden bat hunat ethortzeko.*

Arribatzen da bere etxerat bañian funditua. Laharrek xehatu zuten dena. Bañian igual zitzaioien[7]. Ematen da bere emaztearen athe gibelian makil handi batekin eta istantean heldu da gatu xuri handi bat ñau ñau(3). Gizonak hori aditu eta, atheratzen da gordea zen tokitik eta bere makilarekin abantzu hil zuen gatu hura. Eta partitzen da berehala ostaturat bañian ez erreski lahar guzien azpitik. Arribatu zen halere emaztea bañion lehenago. Badoha laster bere ogerat.

Cuando se levanta a la mañana siguiente no ve más que a la hija. Le pregunta dónde está la madre. Que se encontraba dolorida. Que le pagara a ella. Que no, que prefería ver a la madre. Va a donde ésta y la encuentra muy mala. Desde aquél día no volvió más a aquella posada.

En cuanto llegó a casa le cuenta a su mujer qué había pasado y como había salvado al niño.

Biharamunian jekitzen denian ez du ikhusten alaba bertzerik. Galdetzen du non den ama. Miñez dagoela. Pagatzeko hari. Ezetz, nahiago duela ama ikhusi. Badoha harenganat eta atzematen du ungi eri. Egun hartarikan ez zen gehiago gan ostatu hartarat.

Bere etxerat arribatu denian kondatzen dio bere emazteari zer pasatzen zen eta haurra nola salbatu duen.

Pero la cosa no acabo aquí. Iban de desgracia en desgracia. ¡Se les mueren tantas vacas! Y todos los demás animales, igual (también). Se quedan en la pura miseria(4). No sabían qué buscar (por donde tirar).

Andaba el hombre pensando entristecido, cuando se encuentra con una anciana mujer. Ésta le pregunta qué le pasa y le cuenta sus penas, cuántas desgracias había tenido, cuánto ganado había perdido, que había comprado otros y que éstos también se le morirían al instante. Que estaba encantado (por el maleficio de) por la bruja.

—Si es que lo estás, basta con que pongas debajo de un celemín una vela bendita encendida y la encontrarás.

Hace según le había dicho la anciana. Se esconde debajo de un pesebre y a medianoche llega bajo apariencia de gato y poniéndose a horcajadas encima del buey dice:

—Las otras eran hermosas, pero éstas todavía más.

Nada más oír esto sale nuestro hombre de su escondite con su palo y no lo deja hasta después de bien muerto.

Bañian ez ziren fini hortan. Maluru[8] maluruen gañian zuten. Hainbertze behi hiltzen zaiozkate eta zituzten alimale guziak igual. Miseria gorrian gelditzen dire(4). Ez zakiten zer billaka.

Gizon hura pentsaketan zabillan tristerik errekontratzen duenian emazteki xahar bat. Galdetzen dio zer duen eta kondatzen diozka bere penak, zenbat malur izan dituen hainbertze hazienda galdu dituela, erosi dituela bertzeak eta hek ere istantean hillen zaiozkala. Sorginek xarmatua dela.

—Hala bazare aski duzu ematea heian gaitzuru[9] baten azpian xirigo[10] benedikatua piztuba eta atzemanen duzu.

Iten du emazteki xahar harek erran bezala. Gordetzen da mañateraren[11] azpian eta gaberditan heldu da gatuaren itxuran eta ematen da ixtaklok[12] idiaren gañian erraten duelarik:

—Lehengoak ederrak, bañian haukiek ederrago.

Hori aditu eta gure gizona atheratzen da gordia zagoen tokitik eta bere makilarekin ez du uzten arras hilla bertzerik.

A pesar de todo el hombre se encuentra sin recursos, sin pan, y sin tortas, sin vacas, ni cerdos, y su mujer e hijos con hambre. Va pensando en hacer algo. Se encuentra con un hombre y éste le pregunta:

—¿Qué le pasa hombre (para estar) tan triste?

Éste le responde:

—Es la miseria que aflige mucho.

—Si no es más que eso, nos entenderemos bien. Si quieres te daré todo el dinero que quieras, si al cabo de un año aciertas y me dices con que hace verrugas el diablo, y si no lo aciertas para entonces, tu alma será mía.

Hori iñagatik gure gizona deus erresurtsarikan[13] gabe zen, ez ogi[14], ez arto, ez behi, ez xerri eta bere emaztea eta haurra gosiak. Badoha zerbeit iñen othe duen. Errekontratzen du jaun bat eta erraten dio:

—Zer duzu gizona hoin tristerik?

Erraten dio:

—Miseria horrek penatzen du hanitz.

—Hori bertzerik ez baduzu adituko dugu elkar. Nahi baduzu, emanen zaitut nahi duzun bezenbat diru, urthearen buruban phentsatzen baduzu eta neri erraten, debruak zerekin iten duen kalitza[15] eta ez balin baduzu pentsatzen orduko, zure arima neretzat izanen da.

El hombre coge el dinero y va a casa contento, sin pensar en el futuro. Vivía feliz con su mujer y su hija, pero según se acercaba el plazo empieza éste a entristecer y no le cuenta nada a su mujer.

Un día que había llegado lejos buscando y buscando la respuesta, le llega la noche y se queda escondido en un cruce de caminos. (Sabrán ustedes que las brujas se reúnen en los cruces de caminos)(5).

Llegan entonces, soplando por aquí y soplando por allá, bailando. En cuanto se divirtieron lo suficiente, empiezan a contar las noticias. Una dice:

—No sabéis que un hombre ha vendido su alma al diablo. Seguro que no acierta con qué hace el diablo la verruga.

—Yo tampoco lo sé. ¡Dímelo!

—Con las uñas que los cristianos se cortan el domingo.

Gizona, dirua artu eta badoha kontent etxerat geruaz oroitu gabe. Bizi zen urus zenbeit denboraz bere emaztea eta haurrarekin bañian denborak urbiltzerat, tristatzen hari zen eta ez du erraten deus bere emazteari.

Egun batez bazabillan urrun bere sekretua jakin nahiz, billa eta billa. (Gabak atzematen du eta arrastatzen da bide gurutze batean gordea. Badakizue, bide gurutzetarat ethortzen dire sorgiñak elkharrenganat biltzerat)(5).

Arribatzen dire beraz hustan handik eta fusta hemendik, dantzan. Ungi jostatu direnian hala, hasten dire berri kondan. Batek erraten du:

—Ez dakizue holako gizonak saldu duela bere burua debruari. Sehurki ez du pentsatuko debruak zerekin egiten duen kalitza.

—Ez dakinat nik ere. Erran nazan.

—Giristinoek igande egunean pikatzen dituzten beatzekin[16].

El hombre apenas se retuvo de la alegría sin salir de su escondite. Nada más amanecer todas las brujas se fueron a sus casas. Nuestro hombre también se fue a la suya. Ya no estaba triste. Estaba esperando la llegada de aquel día.

En cuanto llego el día señalado se fue al cruce de caminos. Allá estaba ya su señor aquel, que había llegado con muchos diablos porque creía que (nuestro hombre) sería (se lo llevaría) para el infierno. Aquél le pregunta:

—¿Sabes con qué hace (verrugas) el diablo la verruga?

—No lo sé. Me esforzaré. Con las uñas que los cristianos se cortan el domingo.

Nada más decir esto, el diablo se marcha con todos los demás despidiendo fuego y llamas al fondo del infierno.

Nuestro hombre se fue a casa y vivió largo tiempo, feliz con su mujer y su hija. Si bien vivieron bien murieron.

Notas

Leyendas Vascas nº 33. Edit. Miraguano.

(1) Compárese esta escena con la que se relata en el «Asno de oro» de Apuleyo. En los «Romances populares del Oeste de Inglaterra» de Hunt, pág.s. 110-113, aparece un «ungüento de las hadas» similar a éste.

(2) El equívoco es confundir «dessus», sobre, «dessous», bajo. Esto demuestra el origen francés del relato, o al menos de la parte de la bruja, pues un error similar es impensable en la lengua vasca, cuyos términos correspondientes tienen sonidos totalmente distintos: «Gaiñetik» y «azpetik» (azpitik).

(3) Las brujas todavía siguen apareciendo en forma de gatos, generalmente gatos negros. Hace unos dos años nos contaron el caso de un hombre que le arrancó la oreja a un gato negro que estaba hechizando a su ganado a media noche. A la mañana siguiente, ¡la oreja era de una mujer, con pendiente y todo! El hombre la depositó en el Mairie, pero no nos desplazamos a verla pues nos encontrábamos algo lejos.

(4) Literalmente, «roja miseria». En vasco siempre se describe a la desdicha más intensa de cualquier clase como «roja».

(5) Existen varias supersticiones relacionadas con los cruces de caminos en el País Vasco. Cuando alguien muere, en ocasiones se quema su colchón en la encrucijada más próxima, y todos los que pasan por allí rezan un «padre nuestro» en beneficio del finado. Esta costumbre está desapareciendo, pero aún se mantiene en las familias más tradicionales.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 41.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 69.

Gure gizona doi doia egotu zen agertu gabe bozkarioz. Argia ethorri orduko sorgin guziak gan ziren beren etxetarat. Gure gizona ere gan zen bererat. Ez zen gehiago triste. Bazagoen eguna noiz ethorriko zitzaioen.

Ethorri zenian badoha bide gurutze baterat. Han zagoen janeko[17] bere jauna, debru hanitzekin ethorria, pentsatzen beitzuen ifernuko izanen zuela. Galdetzen dio:

—Badakik zerekin debruak egiten duen kalitza?

—Ez dakit. Entsaiatuko naiz. Giristinoek igandetan pikatzen duten beatzarekin.

Hori erran orduko debrua badoha bertze guziekin, su eta kar sistuka, ifernuko zolarat.

Gure gizona gan zen bere etxerat eta bizi izan zen luze, urus bere emaztea eta alabarekin. Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

Hiztegia

1 galde: eskaria; 2 xarmatu: norbait bere meneko egin sorginkeriaz, sorgindu; 3 gantzudura: gorputza igurtzitzeko gai koipetsua; 4 eskoba: erratz, jats, izuzki; 5 arraskatu: hatz egin; 6 lahar: sasi; 7 zitzaioen: zitzaion; 8 maluru: zorigaitz; 9 gaitzuru: gaitzeru, bihiak izartzeko neurri bat; 10 xirigo: zuzi, tortxa; 11 mañatera: behi eta ardien belar aska. 12 ixtaklok: txikoan, zangalatraba; 13 erresurtsa: bizipide; 14 ogi: gari; 15 kalitza: enorra, garitxa; 16 beatz: azkazal; 17 janeko: jadaneko, jadanik.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Arg, 33. zb.

(1) Aldera bedi eszena hau Apuleyo-ren «Asno de oro» delakoan kontatzen denarekin. Hunt-en «Ingalaterrako mendebaleko erromantze herrikoiak» delakoan, 110-113 or.etan, honen antzeko «maitagarrien ukendu» bat azaltzen da.

(2) Nahasmendua «dessus», gainean eta «dessous», azpian bitasuna nahastetik dator. Honek frogatzen du kontakizunaren jatorri frantsesa, edo sorginaren aldetikoa; pentsaezina baita antzeko akats bat euskal hizkuntzan, haiei dagozkien hitzek oso hots desberdinak baitituzte: «Gainetik» eta «azpitik».

(3) Sorginak katu tankeran, normalean katu beltz tankeran azaltzen dira oraindik ere. Orain dela bi urte gauerdian bere azienda sorgintzen ari zen katu beltz bati belarria atera zion gizon baten kasua kontatu ziguten. Biharamun goizean belarria emakume batena zen, belarritako eta guzti! Gizonak Udaletxera eraman zuen, baina ez ginen ikustera joan, urruti samar aurkitzen baikinen.

(4) Hitzez hitz, «miseria gorria». Euskaraz edozein eratako zoritxarrik biziena beti «gorri» bezala deskribatzen da.

(5) Euskal Herrian badira hainbat sineskeria bidegurutzeei dagozkienak. Norbait hiltzen denean, zenbaitetan bidegurutzerik gertukoenean erretzen da haren koltxoia, eta handik igarotzen diren guztiak «Aitagure» bat errezatzen dute zenduaren alde. Ohitura hau desagertzen ari da, baina oraindik ere bizirik dirau familiarik tradizionalenetan.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 41. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 69. or.

Monstruos y personajes de los cuentos

Seres fantásticos y monstruosos. El dragón devora víctimas humanas. La muerte del monstruo.

El hijo de Beltzunze

El hidalgo de Beltzuntze pega sin temor con su gran espada al terrible monstruo que tenía delante y hace rodar una de las cabezas del dragón.

Beltzuntzeko semea

Beltzuntzeko aitoren semeak lotsatu gabe jotzen du bere ezpata handiaz bere aintzinean duben mustro izigarria eta eror arazten du herensugearen zazpi buruetarik bat.

Una chica al año

... y en aquella cueva se escondía una serpiente terrible, de siete cabezas, de nombre *erensuge* (dragón). La gran serpiente devoraba a gente adulta. El pueblo hizo un pacto con el dragón: que tendría una chica al año, a cambio de perdonar a los demás.

Urtean neskatxa bat

... eta leze artan suge izugarri bat, zazpi burukoa, bere izenez erensugea, gordetzen zen. Yende andia iresten zuen sugetzar onek. Erriak erensugearekin kontratu bat egin zuen: urtean neskatxa bat izanen zuela, bertze yendeari parkatzekotz.

Ucello



Ipuinetako munstroak eta personaiak

Fantasiazko izakiak eta munstroak. Herensugeak gizakiak irensten ditu. Munstroaren heriotza.

"Gran animal y túnel".
"Aberetzarra eta tunela"
Gentz del Valle de Lerxundi.

Alegoría del vicio (Ripa).
El dragón de múltiples cabezas es una imagen de simbolismo muy diverso.

Griña txarren alegoria (Ripa).
Buru asko dituen sugetzarrak adierazpen sinboliko anitz ditu.

Hidra de Lerna (Achillis Bocchii, 1555).

La edad del diablo

(R.M.A.)

500. El nombre del ayudante

Un arlote, probablemente por dinero, vendió su alma al diablo. El pobre andaba lleno de miedo, aterrado, cuando a este contrato se le acercó el plazo. El diablo le dijo una vez:

—Si aciertas cuántos años tengo yo, te dejaré libre.

El hombre andaba noche y día quebrándose la cabeza, no pudiendo calcular los años del Malvado. Para esto, se aconsejó con todos los eruditos y sabios de la comarca, y todo en vano. Cuanto más cerca el plazo, tanto estaba el arlote más apurado y acongojado. Una vez se le presentó una anciana y le preguntó qué le tenía tan apurado.

—Tengo vendida el alma y no puedo en manera alguna acertar el único medio de librarme. Este medio es saber cuántos años tiene el diablo.

—Ve tú a casa, rapazuelo, y deja esta tarea a mi encargo.

De allí a poco se presentó el diablo a la anciana. Ésta, desde poco antes yacía en tierra, popa al aire. El diablo, prorrumpiendo en grandes carcajadas, dijo:

—Tengo ciento cincuenta años, pero otro tanto no he visto jamás.

Sabiéndolo así, pudo librarse el vendedor del alma.

Teresa Pagoaga, de Gatzaga (Salinas de Leniz).

Véase L'age du diable, de Cerquand, pág. 144, y Harotxaren Ixtorioa, de Mayi Ariztia (Gure Herria, año 1935, pág. 118).

- Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 343.

Txerrenen adina

(R.M.A.)

500. Laguntzailearen izena

Arlote batek, diruagaitik aurki, arimea Txerreni saldu eutsan. Egiune oni epea urreratu dakanean, bildurrak jota ebilen gaixoa. Txerrenek bein esan eutsan:

—Neuk zenbat urte daukadan igarri badagik, jara egingo aut.

Gizon au gau ta egun burua austen ebilen, Gaizkinaren urteak ainbatu ezinik. Inguruko burutsu ta yakitun guztiakaz itundu zan onetarako ta alperrik guztia. Epea urrago ta arlotea larriago, arminago egoan. Atso bat argitu dakon bein ta ain larri zek eukan itandu eutsan.

—Arimea salduta daukat eta ezetara ezin igarri dot neure yarabide bakarra. Txerrenek zenbat urte dituan yakitea da yarabide au.

—Oa i etxera, mirrin ori; ta itxik neure kabura arazo au.

Arik lasterko agertu Jakon Txerren atsoari. Atsoa lentxoagorik popaz gora lurrean zetzan. Txerrenek barre-zantzo andiak eginaz, esan eban:

—Eun ta berrogei ta amar urte daukanat; baina etxonat beste onenbeste inoiz ikusi.

Onelantxe yakinda, yara egin eban bere burua arima-saltzaileak.

Teresa Pagoaga, Gatzaga.

Ikus L'age du diable, Cerquand, 144. or., eta Harotxaren Ixtorioa, Mayi Ariztia (Gure Herria, 1935, 118. or.).

- Resurrección María de Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 343. or.

La edad del diablo

The devil's age

(W.W.)

500. El nombre del ayudante

Eran un hombre y una mujer. Eran pobres. El hombre se encontraba entristecido en un cruce de caminos. Se le acerca un señor y le pregunta por qué está tan triste. Le responde que no tenía de qué vivir. Entonces el otro le dice:

—Te daré todo el dinero que quieras si aciertas la edad del diablo para una fecha determinada.

El hombre marcha contento. Llevaba una vida feliz con su esposa. No les faltaba de nada. Vivían a lo grande. Pero, tiempo va tiempo viene, aquel hombre recuerda que no se había acordado nada de la edad del diablo. Empieza a pensar. La mujer le pregunta qué le pasaba, a ver si no era feliz. Que no les faltaba nada. Que por qué estaba entonces triste.

Debruaren adina

The devil's age

(W.W.)

500. Laguntzailearen izena

Baziren jaun andre batzuek. Pobreak ziren. Gizon hura bazagoen bide kurutze batean tristerik. Heldu zaio jaun bat eta erraten dio zertako den hain triste. Erraten dio bizitzekorik ez beitu. Erraten dio:

—Emanen zaitut nahi duzun bezinbat diru pentsatzen baldin baduzu debruaren adiña holako denboretako.

Gizona badoha kontent. Erematen du bizi urus bat bere emaztearekin. Deusen eskasik ez zuten. Handieñian bizi ziren. Bañian denborak gan eta denborak ethorri, gizon hura oroitu zen ez zela batere oroitu debruaren adiñaz. Gogoetatzen da. Emazteak galde egiten dio zer duen bada, iyan ez den bada urus. Deusen eskasik ez dutela. Zertako den beraz triste.

El hombre le cuenta como se había vuelto rico y cuál era la condición que había aceptado con un señor. La mujer le dice:

—Si no te pasa nada más, eso no es nada. Entrarás en una barrica de miel. Cuando salgas de ésta, entrarás en otra de plumas y así iras a un cruce de caminos y estarás allí hasta que venga el diablo. Te pondrás a cuatro patas y andarás así corriendo alrededor de él. Pasarás también por entre sus patas.

Hace el hombre según le dijo su mujer. Se le acerca el diablo y se aleja de él, pero nuestro hombre le sigue muy de cerca. El diablo asustado le dice:

—Tengo *tantos* años y no había visto aún a un animal tan terrible como tú(1).

Nuestro hombre ya había oído lo suficiente. Fue corriendo a su casa. Le dijo a su mujer que ya nada les faltaría. Que aunque ella fuera una bruja, había hecho tal como le indicó y que ya no temía al diablo.

Fueron ricos y felices y si bien vivieron, bien murieron.

(Frantxun Beltzagi.
Cerquand cuenta un cuento sobre el puente de Ligi:
Hay que adivinar el nombre del diablo).

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Ver el cuento «The Brewery of Egg-shells» en las «Fairy Legends of the South of Ireland», de Croker, pág.s. 32-36

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 103.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 58.

Erraten dio nola aberastu zen eta zer kondizione egin zuen jaun batekin. Emazteak erraten dio:

—Hori bertzerik ez baduzu ez da hori deusik. Sartuko zare barrika bat eztitan. Handik lekora[1] lumazko bertze batean eta hala jauntzia ganen zare bide gurutze baterat eta egonen zare han debrua ethorri arte. Emanen zare laur paten[2] gainean eta hala ibilliko kurri haren ingurutan. Pasatuko zare ere haren istape[3] tartetan.

Gizonak egiten du emazteak erran bezala. Heldu zaio debrua eta urruntzen da harenganik eta gure gizona badohakio ondo ondorat. Debrua ikharaturikan erraten dio:

—Baditut horrenbeste urte eta ez dut orainion ikhusi holako alimale izigarririk(1).

Gure gizonak aski aditu zuen. Gan zen lasterka bere etxerat. Erran zigoen emazteari ez zutela gehiago deusen eskasik izanen. Harek erran bezala sorgiña balin bazen ere in zuela eta ez zela gehiago debruaren beldur.

Bizi izan ziren aberats eta urus eta ungi bizi izan baziren ungi hil ziren.

(Frantxun Beltzagi
Cerquand-ek kondatzen du Ligiko zubiaren ipui bat:
Debruaren izena asmatu behar da).

Hiztegia

1 lekora: jalgitzean; 2 pata: animalien oina; 3 istape: hanken artea.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Ikus «The Brewery of Egg-shells» ipuina, Croker-en «Fairy Legends of the South of Ireland» delakoan, 32-36. or.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 103. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 58. or.

El señor rey va un día a cazar y atrapa a un Tartalo y lo trae a casa. Lo pone preso en un establo y con sonido de trompeta hace decir que se reúna la corte al día siguiente en casa del rey. Que va a dar una gran comida y después enseñar un animal como nunca han visto.

Jaun errege badoha egun batez ihizirat eta atzematen du Tartaro bat eta ekhartzen bere etxerat. Ematen du estaulia batean preso eta tronpeta soñuz erran arazten du kortea bil dadien biharamunian erregeren etxerat. Behar duela eman bazkari handi bat eta haren ondotik erakutsi alimalia bat, beiñere ikhusi ez duten bezalakoa.

502. THE WILD MAN

502. EL HOMBRE SALVAJE

El rey y sus tres hijos

El Tártaro agradecido y el Heren-Suge
The grateful Tartaro and the Heren-Suge
(W.W.)

502. El hombre salvaje

(Este cuento también pertenece al tipo
314. El joven transformado en caballo)

Como en el mundo somos muchos y hemos sido y seremos, había un rey, su mujer y tres chicos.

El señor rey va un día a cazar y atrapa a un Tartalo y lo trae a casa. Lo pone preso en un establo y con sonido de trompeta hace decir que se reúna la corte al día siguiente en casa del rey. Que va a dar una gran comida y después enseñar un animal como nunca han visto.

Al día siguiente estaban los dos hijos del rey jugando a pelota contra el establo donde estaba el Tartalo. Le entra la pelota en el establo.

Va uno de aquellos chicos a decirle al Tartalo que le tire por favor la pelota. Le dice que sí, si lo libera. Le dice que sí, y al cabo de un instante le tira otra vez la pelota.

Va donde el Tartalo. Se la pide otra vez. El Tartalo le dice que se la dará si lo libera. Le dice el chico que sí. Coge la pelota y se va.

Por tercera vez va también la pelota. Pero el Tartalo no se la quiere dar, que primero lo libere. Le dice el chico que no tiene la llave. El Tartalo le dice que vaya adonde su madre. Que le diga que le mire la oreja derecha, que tiene daño, y que la madre tendrá la llave en el bolsillo de la izquierda, y que se la coja.

Va el chico tal como le ha dicho el Tartalo. Le coge la llave a la madre y libera al Tartalo. Cuando lo libera le dice:

—¿Y qué voy a hacer ahora con la llave? ¡Estoy perdido!

Le dice el Tartalo:

—Vete otra vez donde la madre. Dile que tienes daño en la oreja izquierda, que mire. Y le meterás la llave en el bolsillo.

Y le dice el Tartalo que pronto tendrá necesidad de él, y que le bastará con gritarle. Que siempre lo servirá. El chico hace tal como le ha dicho el Tartalo para devolver la llave.

502. GIZON BASATIA

Errege eta bere hiru semeak

El Tártaro agradecido y el Heren-Suge
The grateful Tartaro and the Heren-Suge
(W.W.)

502. Gizon basatia

(Ipuin hau, 314. Zaldi bihurtutako gaztea
motan ere sailkatzen da)

Asko munduan bezala garen eta izatu eta izanen garen bezala, baziren errege, bere andrea eta hiru mutiko.

Jaun errege badoha egun batez ihizirat eta atzematen du Tartaro bat eta ekhartzen bere etxerat. Ematen du estaulia[1] batean preso eta tronpeta soñuz erran arazten du kortea bil dadien biharamunian erregeren etxerat. Behar duela eman bazkari handi bat eta haren ondotik erakutsi alimalia bat, beiñere ikhusi ez duten bezalakoa.

Biharamuanian hari ziren erregeren bi semeak pillotan, estaulia Tartarua zenaren kontra. Pilota sartzen zaiote estaulian. Badoha mutiko hekietarikan bat Tartaruari erraterat, bota diozala othoi pillota. Erraten dio baietz libratzekotan. Erraten dio baietz eta botatzen dio istant baten buruan berritz ere pillota. Badoha Tartaruarenganat. Galdetzen dio berritz ere. Tartaruak erraten dio libratzekotan emanen dioela. Erraten dio mutikoak baietz. Pillota hartu eta badoha.

Hirugarren aldian ere badoha pillota. Banian Tartaruak ez dio eman nahi, libra dezala lehenbizi. Erraten dio muthikoak ez duela gakorik. Tartaruak erraten dio duala bere amarenganat. Erran diozala billa diozan beharri eskuina, min duela eta amak izanen duela gakoa ezkerreko zarpan eta ar diozala.

Badoha mutikoa Tartaruak erran bezala. Artzen dio amari gakoa eta libratzen du Tartarua. Libratzen duenian erraten dio:

—Zer iñen dut orai gakoa? Xahu[2] naiz!

Erraten dio Tartaruak:

—Zoazi berritz ere amarenganat. Errozu ezkerreko beharrian min duzula, billa dezan. Eta sartuko diozu gakoa zarpan.

Eta erraten dio Tartaruak izanen duela laster haren beharra eta askiko duela hari oihu egitea. Bethi zerbitzatuko duela. Mutikoak iten du Tartaruak erran bezala gakoaren turnatzeko.

Todo el mundo se reunió a comer. Cuando han comido bien el rey les dice que tienen que ir a ver aquella cosa curiosa. Hace llevar a todos al establo. Lo encuentran vacío. Podéis pensar la vergüenza y la cólera del rey. Dice que le gustaría comer el corazón del que lo ha liberado, medio asado, sin sal.

Al cabo de un tiempo los dos hermanos se enfadan delante de la madre, y uno le dice:

—Le voy a decir al padre el asunto del Tartalo.

La madre, al oír eso, se asusta por su hijo y le dice que coja tanto dinero como pueda, y la flor de lis(1), con la cual sería reconocido como rey en todos los rincones.

Mundu guzia bildu zen bazkaiteko. Ederrik jan dutenean erregek erraten diote gan behar dutela gauza kurios haren ikhusterat. Ereman arazten ditu guziak estaulirat. Atzematen dute utsa. Pentsa azube erregeren ahalkia eta kolera. Erraten du hura libratu duenaren bihotza nahi lukela jan erdi errea, gatzik gabe.

Zenbeit denboraren buruan bi anaiak asarratzen dira amaren aintzinian eta erraten dio batek:

—Aitari erranen zioat Tartaruaren afera.

Amak hori aditu duenian izitzen da bere semiarentzat eta erraten dio ar dezala nahi duen bezenbat diru eta fordelisa[3](1), zeñekin bazter guzietan ezagutua izanen beitzen erregetzat.

Va pues Petit Jorge(2) ir, ir, ir. Emplea y derrocha todos sus dineros. No sabía qué hacer ya. Se acuerda del Tartalo. Inmediatamente le grita. Le viene. Le dice Petit Jorge su desgracia, que no tiene más dinero, que no sabe qué hacer. Le dice el Tartalo que haciendo un poco de camino arribará a una ciudad. Que allí hay un rey. Que vaya a su casa y que lo cogerán de hortelano. Que arranque todas las (plantas) que hay en la huerta y que para el día siguiente habrá más hermosas. Que surgirán, también, tres flores hermosas. Que las lleve con gusto a las tres hijas del rey. Que dé la más hermosa a la más joven(3).

Va según lo dicho. Llega a casa del rey. Pregunta a ver si necesitan hortelano. Le dicen que sí ciertamente. Va a la huerta y saca unas hermosas berzas y también hermosos puerros. La hija más joven del rey lo ve y se lo dice al rey, y el rey le dice:

—Dejémosle. Veremos qué va a hacer.

Al día siguiente ven en verdad unas berzas y unos puerros como no habían visto nunca. (Él) Lleva a las mujeres jóvenes una flor a cada una. (De las hijas) la mayor dice que tiene, traída por el hortelano, una flor sin par. La segunda dice que ella también tiene una tan hermosa como hasta entonces no ha visto, y dice la más joven que la suya es aún más hermosa que las de ellas. Las demás también lo reconocen.

Badoha beraz Petit Jorge(2), gan, gan, gan. Enplegatzen eta xahutzen ditu bere diru guziak. Ez zakien gehiago zer egin. Oroitzen da Tartaruaz. Iten dio berehala oihu. Heldu zaio. Erraten dio Petit Jorgek bere desgrazia, ez duela gehiago sosik, ez dakiela zer billaka. Erraten dio Tartaruak bide piska bat egiñ eta arribatuko dela hiri baterat. Han badela errege bat. Duala haren etxerat eta hartuko dutela baratzezaintzat. Athera ditzala baratzean diren gauza guziak eta biharamuneko ederrago izanen direla. Sortuko direla ere hiru lore ederrak. Gogotik erematekо hiru erregeren alaberi. Ederrena emateko gaztenari(3).

Badoha erran bezala. Arribatzen da erregeren etxerat. Galdetzen du iyan behar duten baratzezaiñik. Erraten diote baietz segurki. Badoha baratzerat eta atheratzen ditu aza eder batzuek eta foru[4] ederrak ere. Erregeren alaba gaztenak ikhusi eta erraten dio aitari eta aitak erraten dio:

—Utzagun. Ikhusiko dugu zer iñen duen.

Biharamunian ikhusten dute egiazki aza eta foru batzuek, behin ere ikhusi ez zituzten bezalakoak. Erematen du andre gazteeri lore bana. Zaharrenak erraten du baduela baratzezainak ekharria lore bat parerikan gabea. Bigarrenak erraten du harek ere baduela orainion ikhusi ez duen beziñ ederra eta erraten du gaztenak, harena orainion hekiena bañion ederragoa dela. Aithortzen dute bertzeek ere.

La joven encontraba al hortelano muy de su gusto. Todos los días le llevaba la comida. Al cabo de un tiempo le dice que tendría que casarse con ella. El chico le dice que no es posible. Que el rey no querrá una boda como ésa. Le dice también la chica:

—Bueno, en verdad tampoco vale (merece la pena). Al cabo de ocho días seré comida por la serpiente.

Durante ocho días (ella) le trae la comida. La víspera le dice que le trae la comida por última vez, que al día siguiente será comida (devorada) por la serpiente. Que irá a las diez (horas). Le dice, el chico, que no, que no, que aún se la traerá. Petit Jorge [bajo la apariencia de hortelano] le dice que (ella) no será comida (devorada). Que alguien la ayudará. (Que ya habrá quien le ayude)

Andre gazten harek arras bere gustukoa atzematen zuen baratzezaiña. Egun guziez erematen zioen bazkaria. Zenbeit denboraren buruan erraten dio harekin behar lukela ezkondu. Mutillak erraten dio ez dela posible. Erregek ez duela nahiko holako ezkontza. Erraten dio neskatxak ere:

—Ba egiazki ez du balio ere. Zortzi egunen buruan sugeaz jana izanen naiz.

Zortzi egunez ekhartzen dio bazkaria. Bezperan erraten dio azkeneko aldian ekhartzen dioela biharamunian jana izanen dela sugeaz. Hamar orenetan ganen dela. Erraten dio mutikoak ezetz, ezetz, ekharriko dioela orainion. Petit Jorgek erraten dio, ez dela jana izanen. Norbeitek lagunduko duela.

Biharamunian Petit Jorge badoha zortzi orenetan Tarta-

[Parece necesaria la siguiente aclaración dada la gran economía explicativa de la versión: Será el mismo Petit Jorge, que se oculta bajo la apariencia del hortelano, quien le ayudará. En cada una de sus intervenciones con la apariencia de un caballero diferente. Pero la joven no le reconocerá, y creerá que son caballeros diferentes los que intervienen. No reconocerá que el caballero que la salva, es el hortelano, hasta el final del relato. N. del T.]

Al día siguiente Petit Jorge va a las ocho (horas) a gritar (llamar) al Tartalo. Le dice lo que pasa. El Tartalo le da un hermoso caballo, hermosas vestimentas, una espada. Le dice que vaya a tal sitio, que abra la puerta de la carroza con su espada, y que le quitará dos cabezas a la serpiente.

Va Petit Jorge al lugar dicho. Encuentra a la joven mujer dentro de la carroza. Le dice que abra la puerta. La joven mujer le dice que no la puede abrir. Que hay siete puertas, y que se vaya de allí. Que es suficiente con que coma a una persona. Petit Jorge abre la puerta con la espada y se pone al lado de la joven mujer. Le dice que tiene daño en la oreja; que le mire, y le corta siete trozos, pues tenía siete ropas, sin ser visto por la mujer(4).

En ese momento llega la serpiente. Dice (ésta):

—En vez de uno, tengo tres para comer.

Petit Jorge salta encima de su caballo y le dice:

—No tocarás, ni tendrás, ni siquiera uno.

Empieza a golpes, y con su espada le quita una cabeza, y el caballo con sus patas, otra(5). La serpiente le pide que le de tregua hasta el día siguiente. Petit Jorge le deja.

La joven está muy contenta. Quiere llevar consigo a casa a aquel joven señor, pero (éste) no quiere de ninguna manera. Que no le es posible. Que tiene hecho un juramento para ir a Roma. Pero le dice que mañana vendrá su hermano y que, aquel también, ya hará algo.

La joven mujer va a casa, y Petit Jorge a su huerta. [Con el aspecto de hortelano]

Llega al mediodía con la comida de Petit Jorge [del hortlano]. Le dice:

—Ves que ha ocurrido como yo he dicho, que no te ha comido.

—No, pero me comerá mañana. Cómo quieres si no (¿Acaso puede ser de otro modo?).

—¡No, no! Mañana también me traerás la comida. (Ya) te vendrá alguna ayuda.

Al día siguiente Petit Jorge va a las ocho donde el Tartalo y (éste) le da un caballo nuevo, un manto diferente y una espada hermosa. Llega a las diez donde la joven mujer. Le dice que abra la puerta. Pero le dice que no le es posible de ningún modo. Que tiene catorce puertas y que no puede abrirla. Que se vaya de allí. Que es suficiente con que coma a una persona. Que tiene pena de verle allí.

Pero tan pronto como las toca con la espada abre las catorce puertas. Se pone al lado de la joven mujer. Le dice que le mira a ver qué tiene detrás de la oreja, que le hace daño. Y en ese tiempo (momento) le corta un poco de las catorce ropas que tenía en el cuerpo. Tan pronto como hace eso llega la serpiente, que muy contenta dice:

—¡No uno, no! Pero voy a comer a tres.

Petit Jorge le dice:

—Ni a uno vas a tocar.

Salta encima del caballo y empieza a golpes con la serpiente. El caballo hacía unos saltos tremendos. Tras andar (pelear) mucho, al final Petit Jorge vence y le quita una cabe-

ruari oihu egiterat. Erraten dio zer pasatzen den. Tartaruak ematen dio zaldi eder bat, beztimenta ederrak, ezpata bat. Erraten dio duala holako tokitarat, idek dezala karrosako athea bere ezpataz eta kenduko diozkala bi buru sugeari.

Badoha Petit Jorge erran tokirat. Atzematen du andre gaztea karrosaren barnean. Erraten dio idekitzeko athea. Andre gazteak erraten dio ez dezakela idek. Badirela zazpi athe eta doala handik. Aski dela bat jan dezan. Petit Jorgek bere ezpataz idekitzen du athea eta jartzen da andre gaztearen sahetsean. Erraten dio min duela beharrian; billa diozala eta mozten diozka, zazpi arropa beitzituen, zazpi puska andreak ikhusi gabe(4).

Horrekin batean heldu da sugea. Erraten du:

—Baten plazan baditut hiru jateko.

Petit Jorge saltatzen da bere zaldiaren gañerat eta erraten dio:

—Ez duk ukituko eta ez izanen bat ere xoilki.

Hasten da kolpeka eta bere ezpataz kentzen dio buru bat eta zaldiak bere zangoekin bertze bat(5). Sugeak galdetzen dio kartear[5] biharamun arte. Petit Jorgek uzten dio.

Andre gazte hura lorietan dago. Nahi du jaun gazte hura berekin ereman etxerat, baiñan nihondik ez du nahi. Ez duela posible. Bella bat egiña duela Erromarat gateko. Banian erraten dio bihar ethorriko dela haren anaia eta iñen duela zerbeit harek ere.

Andre gaztea badoha etxerat eta Petit Jorge bere baratzerat.

Heldu da eguerditan Petit Jorgen bazkariarekin. Erraten dio:

—Ikhusten duzu nik erran bezala gertatu dela, ez zaituela jan.

—Ez, bañian bihar janen nau. Nola nahi duzu bertzela.

—Ez, ez! Bihar ere ekharriko nazu bazkaria. Zerbeit laguntza ethorriko zaizu.

Biharamunian Petit Jorge badoha zortzi orenetan Tartaroren-ganat eta ematen dio zaldi berri bat, manto[6] diferent bat eta ezpata eder bat. Arribatzen da hamar orenetan andre gaztearenganat. Erraten dio idekitzeko athea. Bañian erraten dio niondik ez duela posible. Hamalaur athe badituela eta ezin idek dezakela. Dohala handik. Aski dela bat jan dezan. Pena duela hura han ikhustia.

Bere ezpatarekin ukitu orduko idekitzen ditu hamalaur atheak. Jartzen da andre gaztearen aldean. Erraten dio billa diozan beharri gibelian zer duen, miñ ematen dioela. Eta denbora hartan pikatzen diozka hamarlaur arropa soñian zituenen piska bana. Hori egin orduko heldu da sugea lorietan dioelarikan:

—Ez bat, ez! Bañian hiru jan behar ditut.

Petit Jorgek erraten dio:

—Ez eta ukituko bat ere.

Iten du salto bere zaldiaren gañerat eta hasten da kolpeka sugerekin. Zaldiak iten zituen salto batzuek izigarriak. Hañitz aritu eta azkenian Petit Jorgek garraitzen du eta

za. El caballo otra con sus patas. La serpiente pide tregua hasta el día siguiente. Petit Jorge se la da y la serpiente se va.

La joven mujer quiere llevar consigo a casa a aquel joven señor para enseñarle a su padre. Pero el señor no quiere ir de ninguna manera. Le dice que debe ir a Roma. Que tiene que partir aquel mismo día. Que tiene hecho el juramento. Pero que le enviará mañana a su primo, muy valiente y que nada le asusta.

La joven mujer va a casa de su padre. Petit Jorge a su huerta. El padre está asombrado. No puede comprender nada.

Va otra vez la joven mujer con la comida. El hortelano [Petit Jorge] le dice:

—Ves que has llegado hoy también, como yo lo dije. Mañana también vendrás igual.

—Ya me gustaría, pues.

Al día siguiente Petit Jorge va a las ocho donde el Tartalo. Le dice que la serpiente tiene aún tres cabezas por quitar y que tiene necesidad de su gran ayuda. El Tartalo le dice:

—Estate tranquilo, estate. Le vencerás.

Le da una nueva vestimenta más hermosa que la otra. Un caballo más fuerte. Un perro tremendo, una espada y una ampolla de agua de buen olor (de perfume). Le dice:

—Porque la serpiente dirá; «¡ay!, si tuviera una chispa de fuego entre boca y la cola, te podría quemar a ti, a esa mujer tuya, a tu caballo y a ese perro»,

Tú le dirás entonces:

—Y si yo tuviera buen olor (perfume) en las narices, Yo te podría quitar una cabeza, el caballo otra, y el perro otra.

Le darás aquella ampolla a la mujer joven. Ella la guardará en su escote y en el momento en que digas eso, te la arrojará a la cara, y al caballo y al perro.

Va pues sin miedo porque el Tartalo le dio la seguridad (se lo aseguró). Llega pues a aquella carroza. La joven mujer le dice que a ver dónde anda, que la serpiente no tardará. Que es bastante con que la coma a ella. (Él) e dice que abra la puerta. (Ella) le dice que no le es posible, porque tiene veintiuna puertas.

Tocándolas el joven señor con su espada se abren. El joven le dice al darle la ampolla:

—Cuando la serpiente diga «si tuviera una chispa de fuego entre boca y la cola me quemaría», yo le diré, «si tuviera un poco de agua perfumada bajo las narices», (entonces) coges tu ampolla y me la echarás.

En ese momento le hace mirar en la oreja y mientras está mirando le quita un trozo de cada una de las veintiuna ropas que tenía. Al mismo tiempo llega la serpiente, diciendo muy contenta:

— En lugar de uno voy a comer cuatro.

Dice el joven señor:

— Ni a uno vas a tocar.

Salta encima de su fuerte caballo y andan a golpes con más fuerza que nunca. El caballo hacía unos saltos tan grandes como una casa. La serpiente se estaba enrabietando. Le dice:

kentzen dio buru bat. Zaldiak bertze bat bere zangoekin. Sugeak galdetzen du karteer biharamun arte. Petit Jorgek ematen dio eta badoha sugea.

Andre gazteak nahi du jaun hura berekin ereman etxerat bere aitari irakus diozan. Banian nihondikan jaunak ez du nahi. Erraten dio Erromarat gan behar duela. Egun hartan berian behar duela partitu. Bella iña duela. Bañian egorriko dioela bihar bere kusiña[7], hanitz ardita[8] eta deusek izitzen ez duena.

Andre gaztea badoha bere aitaren etxerat. Petit Jorge bere baratzerat. Aita hura loriatua da. Ez dezake deus konpreni.

Badoha orainion andre gaztea bazkariarekin. Baratzezainak erraten dio:

—Ikhusten duzu heldu zarela egun ere nik erran bezala. Bihar ere igual ethorriko zare.

—Nahi nuke bada.

Biharamunian Petit Jorge badoha zortzi orenetan Tartaroarenganat. Erraten dio badituela orainon hiru buru sugeak kentzekoak eta baduela haren laguntza handiaren beharra. Tartaruak erraten dio:

—Ago trankil, ago. Garraituko duk.

Ematen dio bestimenta berri bat bertzea banion ederragoa. Zaldi fierrago bat. Xakur bat izigarria, ezpata bat eta anpulla bat ur usainonekin. Erraten dio:

—Sugeak erranen beitu

—Ai! balin banu su pindar bat agotik eta buztana tartean, erre eginzaket hi, hire andre hori, hire zaldia eta potzu hori.

Hik erranen diok orduan «eta nik banu usainona suhurretan, ken eginzaket buru bat, zaldiak bertze bat eta potzuak bertze bat».

Emanen diok anpolla hura andre gazteari. Atxikiko dik bere paparuan eta hik hori erratearekin batean, botatuko hau bisaiarat zaldiari eta xakurrari.

Badoha beraz beldurrikan gabe zeren Tartaruak eman beitzioen segurantza. Arribatzen da beraz karros hartarat. Andre gazteak erraten dio non dabillan bada, sugeak ez duela tardatuko[9]. Aski dela hura jan dezan. Erraten dio idekitzeko athea. Erraten dio ez duela posible, beituela hogoi eta bat athe.

Jaun gazte harek ukitu eta bere ezpataz idikitzen dire. Jaun gazte harek erraten dio ematean anpolla:

—Sugeak erraten duenian «banu su pintar bat burutik eta buztanerat artean erre nindukela» nik erranen diot «banu ur usaiñon sorta bat sudur azpitan», zure anpolla hartu eta botatuko nazu.

Memento berian beharria billa arazten dio eta billatzen hari delarik kentzen diozka ogoi eta bat arropa beitzituen, puska bana. Horrekin batean heldu da sugea erraten duelarik lorietan:

—Baten plazan lau behar ditut jan.

Erraten du jaun gazteak:

—Ez eta bat ukituko ere.

Egiten du salto bere zaldi fierraren ganeat eta ari dire kolpeka behiñ ere bañion azkarkiago. Zaldiak egiten zituen salto batzuek etxea bezin handiak. Suge errabiatzen ari zen.

—Si tuviera una chispa de fuego entre boca y la cola, te podría quemar a ti, a tu mujer, a ese caballo y a ese terrible perro.

Le dice el joven señor:

—Si yo tuviera agua perfumada en las narices te podría quitar una cabeza, el caballo otra y el perro otra.

Cuando estaba diciendo eso, la joven se levanta y abre la ampolla, y echa perfectamente en el sitio donde convenía. El señor le quita con su espada una cabeza, el caballo otra, el perro otra, y he ahí que matan a la serpiente.

Aquel señor coge las siete lenguas consigo y arroja las cabezas.

Pensad (imaginad) la alegría de la joven mujer. Quiere inmediatamente ir adonde su padre con su salvador. Que el padre también tiene que darle las gracias. Que a él debe su hija.

Pero el joven señor le dice que no le es posible de ninguna manera, que tiene que ir adonde su primo a Roma. Que así han hecho juramento y que al volver irán los tres a casa del padre. La joven mujer tiene pena pero va sin perder tiempo a decirle al padre qué le pasa.

El padre estaba muy contento pues la serpiente estaba totalmente destruida y hace decir en todo el pueblo que aquél que ha matado a la serpiente se presente con sus pruebas.

La joven mujer va otra vez a llevar la comida al hortelano. Le dice:

—Yo decía la verdad pues que no serías comida. ¡Algo ha matado pues a la serpiente!

Le cuenta qué ha pasado.

Así pues, al cabo de unos días aparece un negro carbonero, el cual dice que él ha matado a la serpiente y que viene en busca de la recompensa. Cuando la mujer ve a aquel carbonero dice enseguida que no. Que seguro que no es él, que eran unos hermosos señores caballeros y no una peste de hombre como aquél. Muestra el carbonero las cabezas de serpiente y el rey dice que en verdad tiene que ser él. Que el rey tiene una palabra (dada) y que debe casarse con él.

Aquella joven mujer no quiere de ninguna manera. El padre le insistía en que no aparecía ningún otro. Pero pues la hija no quería, y para alargar hace decir en todo el pueblo que el que ha matado a la serpiente será capaz de hacer alguna otra cosa también (alguna hazaña), y que tal día se reúnan todos los señores jóvenes.

Que pondrá un anillo de diamantes colgando de algo de la torre del campanario, y que al pasar el caballo debajo de aquél quien meta la espada en el anillo será el marido de su hija(6).

De todas partes llegan jóvenes nobles. Nuestro Petit Jorge va adonde el Tartalo. Le dice qué pasa. Que está en necesidad de él. El Tartalo le da un hermoso caballo, una vestimenta soberbia y una espada fina. Vestido así va Petit Jorge. Se presenta como los demás. La mujer joven lo reconoció enseguida y se lo dijo a su padre. Y tiene la fortuna de meter su espada en el anillo, pero sin pararse nada va adelante con su caballo a todo galope.

Erraten dio:

—Balin banu su pintar bat burutik buztana tartean, erre inzaket hi, hire andrea, zaldi hori eta xakur izigarri hori.

Erraten dio jaun gazteak:

—Nik balin banu ur usaiñona sudurretan ken inzaket buru bat, zamariak bertze bat eta xakurrak bertze bat.

Hori erraten ari zelarik, andre gazteak altxatu eta idekitzen du anpolla eta botatzen du ederki behar zen tokirat. Jaun gazteak kentzen dio bere ezpataz buru bat, zaldiak bertze bat, xakurrak bertze bat eta horra non sugea akabatzen duten.

Jaun harek hartzen ditu zazpi mihiak berekin eta botatzen buruak.

Pentsa azue andre gaztearen loria. Nahi du berehala gan bere aitarenganat bere salbatzailearekin. Aitak ere behar dituela eskerrak eman. Hari duela zor bere alaba.

Bañian jaun gazteak erraten dio nihondikan ez duela posible, bere kusiñetarat gan behar duela Erromarat. Hala iña dutela bella eta hunaratekoan ganen direla hiruak haren aitaren etxerat. Andre gazteak pena du bañian badoha denborarik galdu gabe erraterat aitari zer pasatzen den.

Aita kontent zen hañitz zeren arras destruitua[10] beitzen sugea eta erran arazten du herri guzian sugea hil duena ager dadiela bere frogekin.

Andre gaztea badoha berritz ere bazkaria erematerat baratze zainari. Erraten dio:

—Nik egia erraten nuen beraz ez ziñela jana izanen. Zerbeitek hil du beraz sugea!

Kondatzen dio zer pasatu den.

Horra beraz, zenbeit egunen buruan agertzen da ikazkin beltz bat zeniak erraten beitu harek hil duela sugea eta heldu dela sariaren billa. Andre gazte harek ikhusi duenian ikhazkin hura erraten du berehala ezetz. Segurki ez dela hura, jaun kaballera eder batzuek zirela eta ez gizon peste[11] halako bat. Erakusten ditu ikazkiñak suge buruak eta erregek erraten du egiazki hura behar dela izan. Erregek hitz bat duela eta ezkondu behar duela harekin.

Andre gazte harek ez zuen nahi nihondik. Aitak bortxatzen zuen ez zela bertzerikan ageri. Bañian alabak ez beitzuen nahi, eta luzatzeko erran arazten du herri guzian, sugea hil duena, kapable izanen dela egiteko bertze zerbeit ere eta holako egunetan bil deitezala jaun gazte guziak.

Emanen duela ezkilla dorretik zerbeitetarik dilindan erreztun diamanta bat eta zamaria haren azpitik pasatzean sartzen duenak ezpata erreztunian izanen dela haren alabaren senhar(6).

Alde guzietarik heldu dire jaun gazteak. Gure Petit Jorge badoha Tartaruarenganat. Erraten dio zer pasatzen den. Haren beharretan dela. Tartaruak ematen dio zaldi eder bat, bestimendu super bat eta ezpata fin bat. Hala beztitu eta badoha Petit Jorge. Bertzeak bezala presentatzen da. Andre gazteak ezagutu zuen berehala eta erran bere aitari. Eta badu zoriona bere ezpata sartzeko erreztunian, banian batere arrastatu gabe badoha aintziniat bere zaldiaren galupa[12] guzietan.

El rey y su hija estaban en el balcón mirando todos aquellos acontecimientos. Cuando han visto que va hacia delante la joven mujer le dice al padre:

—¡Padre!, llámale.

El padre le dice con aire enfadado:

—Va adelante porque no parece que no te desea.

Y le tira su lanza (al jinete) y le entra por la pantorrilla y (aún así) iba adelante. Imaginate qué pena para aquella joven mujer.

Errege eta bere alaba balkonean zagozin jaun heiek guzieri beira. Ikhusi dutenean aintzinarat duala andre gazteak erraten dio aitari:

—Aita! eginiozu oihu.

Aitak erraten dio aire hasarre batekin:

—Aintzinarat dua ez beitu aparantziaz zure gutiziarik.

Eta botatzen dio bere lantza eta sartzen zaio aztalatik eta bethi bazoan aintzinarat. Pentsa zazu zer pena andre gazte harentzat.

Al día siguiente va con la comida del hortelano. Le ve la pierna vendada. Le pregunta qué tiene. La joven mujer dudaba de algo (sospechaba). Le dice al padre cómo el hortelano tenía la pantorrilla vendada, y que le debe preguntar qué tiene. Que a ella le ha dicho que no tiene nada. El rey no quería ir, (a ver) qué quería sacar de aquel hortelano. Pero para complacer a la hija ha tenido que ir. Va. Le pregunta qué tiene en la pierna. Le dice que se le ha metido un endrino. El rey se encoleriza, que no hay en su huerta ningún endrino, que le dice mentira. La hija le dice:

—Dile que te la muestre.

Se la muestra y petrificado ve que todavía tiene allí su lanza. El rey no sabía qué pensar. Que aquel hortelano le había engañado. ¡Tener que dar su hija a aquél! Pero Petit Jorge abrió su pecho y le muestra su flor de lis. El rey no sabía ya qué decir. La hija le dijo que aquél era su salvador, que no se casaría con nadie más que con él.

Petit Jorge le pide al rey que le haga traer a los cinco sastres más famosos y a cinco carniceros de aquel pueblo. El rey los hace traer (venir). Petit Jorge les dice a los sastres a ver si alguna vez han hecho alguna ropa a la que le faltase un trozo. Le dicen los sastres que no. Hace traer todas las hermosas ropas de la joven mujer. Cuenta sus trozos y se los da a los sastres para mostrar si se las habían entregado (las ropas) a aquella joven mujer así. Le dicen que no, seguro.

Va donde los carniceros. Les dice a ver si han visto nunca algún animal sin lengua. Le dicen que no. Que busquen pues las cabezas de aquella serpiente. Ven que no tienen lengua y entonces (él) saca las lenguas.

El rey, al ver todas aquellas cosas, no tiene otra cosa que decir(se queda sin palabra). Le entrega a su hija. Petit Jorge le dice que tiene que invitar a su padre a la boda, pero de parte del padre de la joven mujer, y que le tienen que hacer servir el corazón de una oveja medio asada, sin sal.

Hacen hermosas fiestas. Ponen aquel corazón delante de aquel padre. Hacen que lo corte él y se arrepintió por ello y dijo su hijo:

—Estaba mirando eso.

Le dice:

—¡Ay, pobre padre!, acaso has olvidado cómo dijiste que comerías el corazón del que liberó al Tartalo medio asado y sin sal siquiera. No es ése mi corazón. Es el de una oveja. He hecho eso para hacerte recordar qué dijiste y para darme a conocer.

Biharamunian badoha baratzezainaren bazkariarekin. Ikhusten dio aztala arrimatua. Galdetzen dio zer duen. Andre gaztea zerbeitetaz dudatzen zen. Erraten dio aitari nola baratzezaiña aztala arrimatua zen eta behar dioela galdetu zer duen. Hari erran dioela, ez duela pitsik. Erregek ez zuen gan nahi, zer nahi zuen atheratu baratze zain hartarik. Bañian alabari atsegin egiteko gan behar izan du. Badoha. Galdetzen dio zer duen zangoan. Erraten dio elorri beltz bat sartu zaioela. Errege koleratzen da, ez dela haren baratzean elorri beltzik, gezurra erraten dioela. Alabak erraten dio:

—Errozu irakusteko.

Irakusten dio eta estonimenduekin ikhusten du oranion han duela haren lantza. Erregek ez zakien zer pentsa. Baratzezain harek tronpatu zuela. Bere alaba hari eman behar izatia! Bañian Petit Jorgek irakusten dio bere paparu[13] ideki eta bere fordelisa. Erregek ez zakien geihago zer erran. Alabak erraten zioen hura zela haren salbatzailla eta harekin bertzeik ez dela ezkonduko.

Petit Jorgek galdetzen dio erregeri ekar araz detzan herri hartako bortz dendaririk famatuenak eta bortz karnazer[14]. Erregek ekhar arazten ditu. Petit Jorgek erraten diote dendarieri iyan egin duten behin ere arropa berririk puska falta. Erraten diote dendariek ezetz. Ekhar arazten ditu andre gaztearen arropa eder guziak. Kondatzen ditu bere puskak eta ematen diote dendarieri irakusterat iyan hala eman zituzten andre gazte hari. Erraten diote ezetz segurki.

Badoha karnazerrenganat. Erraten diote iyan ikhusi duten sekulan alimaliarik mihirikan gabe. Erraten diote ezetz. Billa detzatela beraz suge haren buruak. Ikhusten dute mihirikan ez dutela eta orduan atheratzen ditu mihiak.

Erregek, hoik guziak ikhusi eta, ez du geihago deus erratekorik. Ematen dio bere alaba. Petit Jorgek erraten dio behar duela konbidatu haren aita esposetarat, bañian andre gaztearen aitaren partez, eta behar dioela zerbitza arazi ardi baten bihotza erdi erria, gatzik gabe.

Egiten dituzte besta ederrak. Ematen dute bihotz hura aita haren aintzinian. Pika arazten diote berari eta hañitz damutu[15] zen hortaz eta erran zuen bere semeak:

—Horren beira nagoen.

Erraten dio:

—Ai aita gaixua! ahantzi duzu ote nola erran zinduen, Tartarua libratu zuenaren bihotza janen zinduela erdi errerik eta gatzik gabe ere. Ez da hori nere bihotza. Ardi batena da. Iñ dut hori zuri oroitarazteko zer erran zinduen eta nere burubaren ezagut arazteko.

Monstruos y personajes de los cuentos

Seres fantásticos y monstruosos. Bestias raptoras de muchachas

Ipuinetako munstroak eta personaiak

Fantasiazko izakiak eta munstroak. Basapizti neskatilen bahitzaileak

El sueño mágico de las bestias

Se va el chico.
Al entrar en el bosque ve a todos los animales mirándole a él.
Y le da un golpe al suelo con el palo.
Y el sueño se apodera detodos los animales, quedan dormidos. Y pasa.

La prueba del bosque

Luego, de allí entró en un gran bosque donde no había más que animales salvajes y bramidos, y pasó allí tres noches y tres días.

Basoko neurketa

Gero, handik sartu zen oihan handi batean, ez baitzen han basa alimale eta marrumarik beizik, eta iragan zituen hiru gau eta hiru egun han.

Basapiztien lozorro magikoa

Partitzen da mutiko hoi.
Oihanean sartzian ikhusten ditu alimale guziak hari beira.
Eta ematen dio zigorrarekin zarteko bat lurrari.
Eta loak hartzen ditu alimale guziak. Eta pasatzen da.



Se abrazan entre ellos. Se cuentan uno a otro sus nuevas y qué servicios le hizo el Tartalo. Aquel padre se retiró contento a su casa y Petit Jorge vivió muy feliz en casa de su joven mujer y del rey.

No tuvieron escasez de nada pues tenían siempre ahí al Tartalo a su servicio.

(Laurentine).

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Nuestro narrador suponía que esta Flor de Lis era alguna marca tatuada o impresa en el pecho de todos los hijos de rey.

(2) Se trata, por supuesto, del «Pequeño Jorge», y ello nos hace sospechar que el cuento entero ha sido tomado del francés, aunque es posible que sólo se hayan tomado los nombres y algunos de los incidentes.

(3) Véase «Ezkabi Fidel», pág. 117

(4) En «El cuento de la Sirena», de Campbell, en vez de mirarle el oído, la hija del rey le coloca dos de sus pendientes para despertarle los dos últimos días, y es gracias a ellos y a su anillo que puede después reconocerle, y no a los pedazos de vestido y las lenguas de la serpiente, como ocurre en esta historia.

(5) Campbell, Vol. I, 8, tiene algunos comentarios valiosos sobre las leyendas celtas que demuestran que éstos eran un pueblo amante de los caballos, no del mar; un pueblo de cazadores y pastores, no de marineros. Ocurre exactamente lo contrario en estos cuentos vascos. El lector observará que los barcos no juegan ningún papel extraordinario, mientras que los caballos se comportan de forma excepcional. Y viceversa en los cuentos gaélicos, incluso cuando las leyendas son idénticas en muchos detalles.

(6) Este es un juego mucho mejor que el ordinario de atacar el anillo con una lanza, y constituye además una prueba mucho más severa de maestría para un jinete. Se suspende el anillo, un anillo de mujer común, de un hilo atado a un travesaño, a una altura tal que un hombre pueda alcanzarlo levantándose sobre los estribos. Aquel que, partiendo al galope desde un punto determinado, sea capaz de hacer pasar una púa de puercoespín o una paja a través del anillo y llevárselo de este modo, se convierte en dueño del mismo. Hemos visto este juego en Montevideo, en Sudamérica, e incluso los gauchos lo consideraban una severa prueba de maestría para el jinete. Parece que antiguamente se suspendía el anillo del badajo de una campana, que comenzaría por tanto a tañir al ser arrancado el anillo. La espada era, por supuesto, el mejor instrumento para ello.

(7) Uno de los presentes interrumpió en ese momento el relato: «¿Para qué golpeó a la serpiente en la cola?» «Bueno, para matarla, desde luego», fue la respuesta del narrador. «Pregúntale a Mr. Webster si no se mata a las serpientes golpeándolas en la cola», añadió.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 131.

Trad. J.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 22.

→ Ver Apéndice, pág. 427.

Besarkatzen dute elkar. Kondatzen diozkate elkarri beren berriak eta zer zerbitzuak egiñ ziozkan Tartaruak. Aita hura erretiratu zen kontent bere etxerat eta Petit Jorge bizi izan zen arras urus bere andre gaztearen eta erregeren etxean.

Ez zuten deusen eskasik izatu bethi han beitzuten Tartarua beren zerbitzuko.

(Laurentine).

Hiztegia

1 estaulia: barroku, ikuilu; 2 xahu naiz: nireak egina du; 3 fordelisa: azuzena, fleur de ly. Frantziako eregeen eskudoa; 4 foru: porru; 5 kartear: atsedena, pausa; 6 manto: gaineko; 7 kusiña: gusua, lehengusua; 8 ardit: hardit, ausarta, bihoztuna; 9 tardatu: berandutu; 10 destruitu: suntsitu, xehatu; 11 peste: ezin jasana; 12 galupa: lauhazka, arrapalada; 13 paparu: bular; 14 karnazaer: harakin; 15 damutu: dolutu, urrikitu.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Gure kontalariak uste zuen fordelisa hau errege seme guztien bularrean tatuatu edo inprimatua izaten zen seinalea zela.

(2) Jakina, «Jurgi Txiki» da, eta honek ematen digu susmoa ipuin osoa frantsesetik hartua izan dela, nahiz eta litekeena den izenak eta gertakariren batzuk baino ez diren hartuak izan.

(3) Ikus «Ezkabi F1&1», 117. or.

(4) Campbell-en «Lamiaren ipuina»-ean, belarria begiratu ordez, erregeren alabak bere bi belarritako jartzen dizkio azkeneko bi egunetan esnatzeko; eta horri eta bere eraztunari esker ezagutuko du, eta ez soineko puskei eta herensugearen mingainei esker istorio honetan gertatzen den bezala.

(5) Campbell, l. libk., XXXVII, 8, baditu baliozko iruzkin batzuk zelten elezaharrei buruz, non frogatzen duten hau herri zaldi zale bat zela, ez itsaso zalea; ehiztari eta artzain herri bat eta ez arrantzalea. Euskal ipuin hauetan alderantzizkoa gertatzen da zehazki. Irakurlea konturatuko da itsasontziek ez dutela zeregin berezirik jokatzen, zaldiak aldiz, oso modu ez ohikoan portatuko dira. Eta alderantziz gertatzen da galiarren ipuinetan, baita xehetasun askotan elezaharrak berdin-berdinak direnetan ere.

(6) Lantza batez eraztuna erasotzeko joko arrunta baino askoz hobea da hau, eta gainera maisutasun froga zorrotzagoa gertatzen da zaldun batentzat. Eraztuna, emakume arruntaren eraztun bat, zintzilikatzen da hari batetatik langa bati lotuta; halakoxe garaiera batean, non oin-burdinen gainean zutik jarrita gizon batek iritsi dezakeen. Puntu jakin batetatik lauhazka abiatuta arantzurde baten hortza edo lasto bat eraztunean barrena sartzeko eta gisa honetan eramateko gai den hura bihurtuko da haren jabe. Montevideon ikusia dugu joko hau, Hegoamerikan, eta gautxoek ere maisutasun froga zorrotz bat bezala zuten zaldunarentzat. Badirudi garai batean kanpai baten mihitik zintzilik jartzen zela eraztuna, eta horrela erratura mozten zenean kanpaia joka hasten zelarik. Ezpata zen horretarako, inola ere, tresnarik egokiena.

(7) Hantxe aurkitzen zen batek une honetan eten egin zuen kontakizuna: «Zertarako jo zuen sugea isatsean?» «Beno, hiltzeko, nolanahi ere», izan zen kontalariaren erantzuna. «Webster jaunari galde iezaiozu ea ez ote diren sugeak hiltzen isatsean jotzen direlarik», erantsi zuen.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 131. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 22. or.

→ Ikus Eranskina, 427. or.

503. LOS REGALOS DE LA GENTE PEQUEÑA

Los dos jorobados

(J.F.C.)

503. Los regalos de la gente pequeña

(Versión de Izpura)

En un pueblo había una vieja (que era) bruja. Andaba, como debía ser, en aquelarre.

En aquel mismo pueblo había dos jorobados. Descubrieron que aquella mujer viejecita era bruja, y uno le dice una vez:

—No lo ocultes, ya sé que eres bruja, y quiero venir una noche contigo al aquelarre.

La mujer, habiendo hecho primero un poco de disimulo, le confiesa que era bruja, y le da la palabra de que irán juntos al aquelarre. Solamente le dice aún:

—Haz caso a esto: pues nuestro superior nos hará decir los nombres de los días de la semana a todos, díselos: lunes, martes, miércoles, jueves, viernes, sábado, pero no digas el domingo.

—Está bien –dice el jorobado.

Cuando viene la noche de la reunión la vieja y el jorobado van al aquelarre. Tan pronto como llegan empiezan a decir los nombres de los días de la semana delante del superior. Cuando viene el turno del jorobado, dice:

—Lunes, martes, miércoles, jueves, viernes, sábado, domingo.

—¿Quién es ése que ha hablado del domingo? –dice inmediatamente el superior.

—Ese jorobado –dicen los otros.

—Quitadle enseguida esa joroba de la espalda.

Nuestro jorobado se va alegre a casa. La otra persona jorobada, al verle, le dice:

—¿Cómo (por medio de qué) milagro te has hecho un hombre tan apuesto?

Le cuenta qué pasó y le anima a hacer como él. El jorobado, con el deseo de curarse, va adonde la bruja, quien le dice la misma cosa dicha al otro. Van luego los dos al aquelarre y cuando viene el turno del jorobado, empieza:

—Lunes, martes, miércoles, jueves, viernes, sábado, domingo.

—¿Quién es ése que dice domingo? –dice aún también el superior.

—Ese jorobado de ahí mismo –dicen los otros.

—Ponedle en la espalda esa joroba quitada al jorobado de antes.

El pobre segundo jorobado vino a casa triste y con el doble de carga de antes.

Contado por Pierre Elizalde, de Izpura.
Escrito por el señor Constantin.

503. JENDE TXIKIAREN OPARIAK

Bi ttonttordunak

(J.F.C.)

503. Jende txikiaren opariak

Herri batean bazen atso bat sorgina. Ibiltzen zen, behar zuen bezala, akhelarren.

Herri hartan berean baziren bi ttonttor[1]. Ideran[2] zuten emazteki xaharño hura sorgina zela, eta batak erraiten dako[3] aldi batez:

—Ez zazula gorda[4], badakit sorgina zirela, eta jin[5] nahi niz gau batez zurekin akhelarrerat.

Emaztekiak, disimula puxka bat eginik lehenik, aithortzen dako sorgina zela, eta hitz emaiten dako juanen direla elgarrekin akhelarrerat. Soilki[6] erraiten dako oraino:

—Kasu egin zazu honi: gure gehienak[7] erran eraziko bait derauzku[8] asteko egunen izenak deneri[9], errazkitzu: astelehena, astehartea, asteazkena, osteguna, ostiralea, hibiakoitza[10], bainan ez erran igandea.

—Ontsa da –erraiten du ttonttorrak.

Biltzarreneko gaua jin denean atsoa eta ttonttorra juaiten dire akhelarrerat. Heldu bezain emanik hasten dire asteko egunen izenen erraiten gehienaren aitzinean. Ttonttorraren aldia jin denean, erraiten du:

—Astelehena, astehartea, asteazkena, osteguna, ostiralea, hibiakoitza, igandea.

—Nor da igandeaz mintzatu den hori? –dio hain sarri[11] gehienak.

—Ttonttor hori –diote bertzeek.

—Khen zakozie[12] berehala bizkarreko ttonttor hori.

Gure ttonttorra alagera etxerat juaiten da. Bertze lagun ttonttorrak ikustareki erraiten dako:

—Nola mirakulu holako gizon ederra egin hiz?

Khondatzen dako zer igaran zen eta engaiatzen[13] du harek bezala egitera. Ttonttorra sendatzeko nahikariareki[14] juaiten da sorginagana, zoinek bertzeari erran ber gauza erraiten beit derio[15]. Juaiten dire gero biak akhelarrerat eta ttonttorraren aldia jin denean, hasten da:

—Astelehena, astehartea, asteazkena, osteguna, ostiralea, hibiakoitza, igandea.

—Nor da igandea dion hori?–erraiten du oraino ere gehienak.

—Hortxeko ttonttor hori –diote bertzeek.

—Emakozie[16] bizkarrerat aitzineko ttonttorrari khendu ttonttor hori.

Gaxo bigarren ttonttorra, jin zen etxerat triste eta aitzinetik doble kargarekin.

Izpurako Pierre Elizaldek kondaturik.
Constantin jaunak idatzia.

Notas:

Es innecesario preguntar por qué habiendo cometido los dos jorobados la misma falta uno se cura y el otro, por el contrario, se queda peor que antes, puesto que este relato ha perdido su propia moral. En una versión de Bretaña en cambio, (ver M. de la VILLEMARQUE, Barzaz Breiz, «Les Nains») uno jorobado tiene buen humor y es buen cristiano. Una tarde que los coriles estaba cantando: «lundi, mardi, mercredi», el jorobado añade: «jeudi, vendredi, samedi» y los coriles como premio, contentos por haber alargado su canto, le quitan la joroba. Llega el segundo jorobado, celoso y alocado, y añade: «et le dimanche», dejando de este modo cojo el canto; los coriles enfadados le colocan adelante la joroba del otro.

La versión irlandesa (recogida por CROKER) es muy similar a la bretona. Véase también BRUEYRE, Contes de la Grande Bretagne.

Si se ha perdido la moral en los relatos vascos, es posible que sea por la influencia de la brujería del siglo XVII: se ha puesto el diablo en el lugar de las lamias, desapareciendo así la economía del relato.

- Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 23.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 25 (II, 17-18) 1875-1876. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

Hiztegia

1 ttonttor: konkor(dun); 2 ideran: ¡doro, aurkitu; 3 dako: dio; 4 gorda: izkuta; 5 jin: etorri; 6 soilki: bakarrik; 7 gehien: nagusi; 8 derauzku: dizkigu; 9 -eri: -e¡; 10 hibiakoitz: larunbat; 11 hain sarri: berehala; 12 zakozie: iezaiozue; 13 engaiatu: animatu; 14 nahikaria: gurari, gogo; 15 derio: dio; 16 emakozie: emaiozue

Oharrak:

Ez dugu galdegin behar zergaitik, bi konkordunek falta bera eginik, bata sendatzen da eta bestea, alderantziz, okerrago geratzen den, kondakizun honek bere morala galdu bait du. Bretainiako bertsio batetan, aldiz, (ikus M. de la VILLEMARQUE, Barzaz Breiz, «Les Nains») konkor bat umore onekoa eta giristino ona da. Arrats batez, koril-ak kantuz ari direlarik: «lundi, mardi, mercredi», konkorrak: «jeudi, vendredi, samedi» gaineratzen du; eta koril-ek, beren kantua luzaturik kontent, konkorra kentzen diote saritzat. Bigarren konkorduna heldu da, jalus eta koska, eta: «et le dimanche» gaineratzen du, kantua horrela erren utziz; koril-ek, hasarretuta, bestearen konkorra ezartzen diote aurrean.

Irlandako bertsioa (CROKER-ek bildua) Bretainakoaren antzekoa da. Ikus ere BRUEYRE, Contes de la Grande Bretagne.

Euskal kondakizunean morala galdu bada, XVII. mendeko sorginkeriaren eraginagaitik dateke: laminen lekuan debrua jarri da, eta horrela istorioren ekonomia desagertu da.

- Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 23. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 25 zb. (II, 17-18) 1875-1876. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

Bi kunkurrak

(J.F.C.)

(Donazaharreko bertsioa)

503. Jende txikiaren opariak

Gizon gazte bat, kunkurra, Donibane Garazi inguruetakoa, amoratu zen auzo herri batetako nexkato batez.

Elgarri hitz eman ziren ezkontzaz. Muthikoari debekatia[1] zitzaion emaztegaiaz ikhustera jitea[2] ebiakoitz[3] arratsetan. Lekhu hautan[4], gau hura da amorosgoako gau berezia.

Defendio[5] horrek phentsaketa ilhun batzu emaiten ziozkan[6] gizon gazte horri; phentsatzen zien[7] zenbait partida[8] baziela egun hetan[9] errezebitzen zienik, eta beldurtasun horrek emaiten zien inketadura batzuetan.

Egun batez, bizkitartean[10], nahi ukhan zuen bortxa egin debeku horri. Juan zen nexkatoaren etxera, bainan falta harrapatu zuen. Igurikatu[11] ondoan denbora luzez, bainan debaldetan, itzuli zen bere etxerat, mila phentsaketaz hartua.

Berriz itzuli zen biharamunean. Galdegin zioen[12] bere maiteari nun zen bezpera arratsean. Hainitz dudaren buruan, obligatua egiaren erraitera, aithortu zioen akhelarren zela.

—Sorgina zira, beraz?

—Bai –ihardesten[13] du– eta zutarik doha[14] hala bilhakatzea.

—Zer behar dut egin?

—Sar araziko zitut bilkhurako salan, eta aitzindariak erranen dautzunean[15] apela[16] egiteko, erranen duzu: «astelehena, bat; astehartea, biga; astezkena, hirur; ortzeguna, laur; ortziralea, bost; ebiakoitza, sei». Bara[17] zite[18] erran gabe ondoko egunaren izena.

Hitz eman zuen erran zioten bezala egiteaz.

Heldu ondoan akhelarreko lekhura, gure gizon gaztea eman zuten zokho batean. Haren emaztegaia juan zen sorginen aintzindariarengana, eta mement baten burian[1], gure ttunttura gomitatia[1] izan zen apelaren egitera. Erran zien:

—Astelehena, bat; astehartea, biga; astezkena, hirur; ortzeguna, laur; ortziralea, bost; ebiakoitza, sei; igandea, zaz-pi.

Hitz hortan izan zen salan nahasmendu bat izigarria, dolu[19] arazi zioena gizon gazte hari sorgin izaiteko gutizia[20].

Bizkitartean, buruzagiak deithatzen du bere oinetara, eta ohartzearekin kunkurra zela, oihu egiten du khen dezakotela[21] bere kunkurra, eta ezar dezatela ezpata baten puntan. Berehala haren kunkurra izan zen khendia[1], kolpea sendatia[1], eta gure gizona itzuli zen etxerat, kontent bere pidaiaz.

Biharamunean, igandean, ikhusten zuten xuxen, lerden; eta sendatze horrek fama bildu zuen inguru guzietan. Ondo hartako ttunttur guziek nahi ukhan zuten jakin nola obratu zen sendatze hori, eta ba zenez moienik[22] heiendako ere, itsusgarri hortarik atheratzeko. Erraiten zioten[23] gauza egin ahal zaitekeena zela, bainan behar zela mila luis[24]. Jende beharrek ezin zezaketen ihardets galde horri.

Familia hun batetako seme batek hun-hartu zuen kondizionea. Ikhasi zuen zer behar zuen egin, eta egun izendatian[1], onhetsia[25] izan zen bilkhurako barnean. Galdea egin ziotenean erran zezan apeleko senhalea, izendatu zituen asteko sei egunak eta gero igandea.

Harramantza[26] bera erreberritu zen, eta galdegina aitzindariaren ondora, izan zen kondenatia[1]gure lehen suietaren kunkur ezpataren puntan zagoenaren hartzera.

Izan zen geroztik kunkur aitzinetik eta kunkur gibeletik[27].

Bidart jaunak gogoz transkribatua.

Hiztegia

1 -ja: -ua; 2 jin: etorri; 3 ebiakoitz: larunbat; 4 hautan: horietan; 5 defendio: debeku; 6 ziozkan: zizkion; 7 zien: zuen; 8 partida: etsai, kontrako; 9 hetan: haietan; 10 bizkitartean: bitartean; 11 igurikatu: itxaron; 12 zioen: zion; 13 jhardetsi: erantzun; 14 zutarik doa: zuri dagokizu; 15 dautzu: dizu; 16 apel: deja; 17 bara: geldi; 18 zite: zaitez; 19 dolu: damu; 20 gutizia: gogo, nahi; 21 dezakote: diezaiote; 22 mojen: medio, bide; 23 zioten: zieten; 24 luis: txanpon mota bat; 25 onetsi: onartu; 26 harramantza: zarata; 27 gibel: atze

- Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 25. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 26 zb. (II) 1875-1876. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

Las brujas en el akelarre

El aquelarre de las brujas
The witches at the sabbat
(W.W.)

503. Los regalos de la gente pequeña

(Este cuento también pertenece al tipo
613. Los dos viajeros (la verdad y la falsedad)

Érase una vez un hombre joven, como muchos otros en el mundo.

Un día va a una calera* y a la noche llegan las brujas . Allí, se ponen a bailar. Una de ellas lo hacía como si ella fuera el ama de casa, de una cierta casa, [que estaba] muy enferma: y que al salir de la iglesia cierto día dejó caer al suelo el pan bendito y que lo había recogido un sapo(1) y que éste se encontraba ahora al lado de aquellas puertas, debajo de una piedra, con su pan en la boca. Y la misma bruja contaba además: que hasta que le quitaran de la boca el pan al sapo, aquélla no podría curarse.

Y el hombre joven escuchaba todo.

Cuando pasó la hora de éstas, cada bruja va a su casa, y el hombre joven sale del agujero de su calera y se dirige a casa del ama de casa enferma y le dice:

—Ahora yo ya sé que es lo hay que hacer para curarte.

Y le cuenta todo lo que la bruja había dicho, y además lo hace y queda curada el mismo día. Y a aquel hombre joven fue muy bien pagado.

Y aquella misma noche le visita un jorobado que le dice:

—Me he enterado, joven hombre, que sabes donde se reúnen las brujas.

Aquél le responde que sí.

Sorginak akelarrian

El aquelarre de las brujas
The witches at the sabbat
(W.W.)

503. Jende txikiaren opariak

(Ipuin hau 613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)
motan ere sailkatzen da)

Behin batez bazen, munduan asko dien bezala, gizon gazte bat.

Egun batez gaten da kisulabe[1] baterat eta arratsian heldu die sorginak. Han dantzan hari zien. Batek iten zuen etxe batetako etxeko andre bat bezala, arras eri. Eta elizatik ateatzen hari zelarik egun batez utzi zuela ogi benedikatua lurrerat erortzera eta apho(1) batek altxatu zuela eta apho hura han dela athe hekien onduan, harri baten azpian, bere ogia ahuan. Eta oraino sorginak berak erraten zuen hura ahotik apho hari kendu arte ez zitekela senda.

Eta gizon gazteak guzia aditzen zuen.

Beren aldia in zutenean, sorginak baduazi bakotxa bere etxetarat, eta gizon gazte hura ilkhitzen da bere kisulabe xilotik eta badoha etxekoandre eri den harenganat eta erraten dio:

—Nik orai badakit zer egin behar den zure sendatzeko.

Eta sorginak erran guziak erraten diotza eta egiten ditu, eta egun berian sendatzen da. Eta gizon gazte hura ongi pagatua izan zen.

Eta arrats hartan heldu zaio konkor bat eta erraten dio:

—Aditu dut, gizon gaztea, badakik sorginek non egiten duten akelarre.

Eta erraten dio baietz.

—Estoy pensando que mañana debo de oír lo que dicen las brujas.

Y le muestra el agujero de la calera que anteriormente había estado él. Y a medianoche llegan las brujas enroscándose por aquí y enroscándose por allá, acompañadas de ruidos y espantos. Pero las brujas se dicen mutuamente:

—Tenemos que mirar que hay dentro de ese agujero de la calera.

Empiezan a buscar y encuentran al jorobado que lo mandan de zarzal en zarzal, de matorral en matorral, de abrojo en abrojo, de argoma en argoma, atropelladamente. No podía encontrar de ningún modo su casa. Destrozado por todo, nuestro pobre jorobado llega por fin a la mañana a su casa.

Notas:

*calera (horno para calcinar piedra)

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Esta creencia en la existencia de un sapo, sentado junto a la iglesia, que ha de tragarse al Maligno la encontramos en De Lancre.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 63.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 66.

→ Ver Apéndice, pág. 428.

—Bihar pentsatzen dut behar dutala aditu sorginek zer erraten duten.

Eta erakusten dio bera aintzinean izatu zen kisulabe zilo hura. Eta gauerditan heldu die sorgin guziak biribilli baraballa, bazutela arrabots eta espantu. Bainan sorginek erraten dute batak bertziari:

—Behar dinau bilatu kisulabe zilo huntan zer othe den.

Badohazi bilhatzerat eta atzematen dute konkorra eta egortzen sasiz sasi, berhoz berho[2], laharrez[3] lahar, othez othe, zirripo zarrapo. Ez zuen posible nihundik bere etxea atzematia. Denak funditua[4], gure konkor gaixua azkenean goiz alderat arribatzen da bere etxean.

Hiztegia

1 kisulabe: gisu-labe; 2 berho: sasi; 3 lahar: sasi; 4 fundi: suntsi, honda.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Elizaren ondoan eserita, Gaiztoa irentsi behar duen zapo bat badenaren sineskizuna De Lancre-rengan aurki daiteke.

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 63. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 66. or.

→ Ikus Eranskina, 428. or.

Brujería y brujas en Abadelaueta

(J.M.B.)

503. Los regalos de la gente pequeña

Existe en Zigoitia (Álava) otra variante de la precedente leyenda, que me fue referida en 1919 por una anciana de Etxaguen[1].

Un día iban a por vino a la Rioja con recuas de macho dos arrieros, Joaniko de Estafe y Angel-mala-semana de San Pedro[2]. Y en el camino empezaron a disputar:

Joaniko (sostenía) que primero es la obligación; Ángel, que primero es la devoción, y que le apostaría la recua de machos. Joaniko le contestó que sí.

Después preguntaron a la Justicia a ver quién tenía razón. Les contestó que (la tenía) el que sostenía que primero es la obligación. Con lo cual Ángel perdió la recua.

Uno iba cantando a la Rioja y el otro triste a casa.

Angel llegó de día al prado de «Abadelaueta»[3] y allí se divertían las brujas y oyó (decir) a una bruja que una señora se hallaba enferma.

Otra bruja le preguntó a ver por qué (estaba enferma). Le contestó que un día la señora fue a Misa y que un pedacito de pan bendito se le cayó a la tierra y que por no haberse agachado a levantarlo, no se curaría. Que las hormigas revolvían el pedacito de pan debajo de una losa, y que se curaría (ella) si lo comiese.

Sorginkeria eta sorgiñak Abadelauetan

(J.M.B.)

503. Jende txikiaren opariak

Egun batean yoazen mandazai bi, Joaniko Estabekoa ta Anjel-mala-semana San Pedrokoa (2), mandoerrekoiagaz Erriojara ardootan. Ta bidean asi ziren berbetan:

Joanikok lenau dala obligaziñoa; Anjelek deboziñoa lenau dala, ta apustaukotzala mandoerrekoia. Joanikok erantzun eutsen baietz.

Gero Justiziei galdetu eutsen ia zeinek euken arrazoya. Erantzun eutsen obligaziñoa lenau zala diyoienak irabazi ebala. Orrekiñ Anjelek galdu eban mandoerrekoia.

Bata kantetan yoien Erriojara ta bestea triste etxera.

Anjel yoan zan egunez Abadelaueta'ko (1) landara, t'an, ebizen sorgiñak dibersiñoan, da sorgiñ bateri entzun eutsen: señora bat eguala gaxorik.

Beste sorgiñ batek galdetu eutsen ia zegaitik. Erantzun eutsen señorie egun batean yoan zala Mezata da ogibeinkatu apur bat yauzi yakola lurrera, da ez bajetarren altzetan, etzala osaketa. Ogi apurra iñurriek erebiela losa baten azpien, da yango balau, osatuko lizakela.

Ángel se trasladó a donde la señora, y le dijo que podría curarse.

La señora le rogó que le declarase cómo se podría curar.

(Díjole), pues, que un pedacito de pan se le había caído y que si comiese ese pedacito de pan, se curaría.

Luego, pues, esa señora se fue, y levantó la losa de piedra y comió y en cuanto lo comió, quedó sana.

La señora dio a Ángel una (gran) cantidad de dinero. Ángel compró una recua de machos y después se fue a la Rioja y allí se encontró con Joaniko.

Joaniko le dijo:

—Chico, ¿de dónde te has hecho con esa recua de machos?

Ángel le contó la historia a Joaniko.

Joaniko le dijo:

—Chico, a pesar de haber perdido la apuesta, has quedado mejor que yo.

Después Joaniko fue a Abadelaueta, y las brujas empezaron a divertirse, y empezaron (a decir):

—Lunes y martes, miércoles, tres; jueves y viernes, sábado, seis.

Joaniko les contestó:

—Domingo, siete.

Oyeron la voz (las brujas), y una dijo:

—También otro día uno nos oyó la conversación. El que nos oyó el día pasado, fue a donde la señora y (ésta) se curó.

Hallaron a Joaniko y lo maltrataron completamente.

- José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca I. Edit. Auñamendi, pág. 92.

Anjel yoan zan señore orregan, ta esan eutsen osatu leikela.

Señore orrek erantzun eutsen esan eutsela zelan osatu leiken.

Ba ogi apurre yauzi yakola, da ogi apurre yango balau, osatuko litekela.

Gero señore orrek ba, yoan zan, da alzau eban arrilosie da yan eban da osatuta parau eban yan orduko.

Señore orrek Anjeleri emon eutsen diru kantidade bat. Anjelek erosi eban mandoerrekoia da gero yoan zan Erriojara da an topau eban , Joaniko.

Joanikok esan eutsen:

—Motil, ¿nondi egin az mandoerrekoi orregaz?

Anjelek kontau eutsen historie Joanikori.

Joanikok esan eutsen:

—Motil, posturie galduagaz neu baño obeto parau az.

Gero Joaniko yoan zan Abadelauetara, ta asi ziren sorgiñok euren dibersiñoan, ta asi ziren ze:

—Lunes y martes, miércoles, tres; jueves y viernes, sábado, seis.

Joanikok esan eutsan:

—Domingo, siete.

Entzun eudien boza, da batek esan eben:

—Lengo egunien ere batek entzun euskun konbersaziñoa. Lengo egunien entzun ebena yoan zunan señoriegana, ta osatu zan.

Joaniko bilatu ta yurre-yurre ein eudien.

- Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: El mundo en la mente popular vasca I. Auñamendi, 92. or.

Notas

Existen también otras variantes en el archivo de Eusko-Folklore del Seminario de Vitoria.

Dos versiones interesantes recogí en Ataun.

Una salió a luz en un trabajo que publiqué el año 1920 en colaboración con los Drs. Aranzadi y Eguren[4]. En ella no aparece el tema referente al desacuerdo o diferencias surgidas entre los protagonistas.

En la otra versión, dos hombres salen al monte: uno ha oído misa a la mañana, el otro no. El primero sorprende la conversación de las brujas en que una de éstas declara cuáles son la causa y el remedio de la enfermedad que aqueja a la princesa y cómo se podría alumbrar una fuente de agua fresca que los vecinos de cierto pueblo se afanan inútilmente en descubrir.

En Oyartzun, el tema de la discusión de los protagonistas, que son dos carboneros, va acompañado del de la audición de la misa. El que sostiene que la devoción es antes que la obligación y, consecuente con su doctrina, oye misa dejando otros quehaceres, sorprende el secreto de la curación de la princesa, tema que también allí aparece combinado con el del alumbramiento de una fuente, como en la segunda de las versiones de Ataun.

Goizueta en su obrita *Leyendas Vascongadas* publicó la misma leyenda con retoques y adiciones de carácter puramente literario. Los protagonistas son dos hermanos huérfanos llamados Izar y Lañoa.

De Goizueta debieron tomar sus datos los escritores extranjeros que han hecho alguna referencia a esta leyenda vasca. A este propósito voy a copiar las notas que me enviaba mi distinguido amigo el Dr. Aranzadi en una carta fechada en Barcelona el 5 de marzo de 1921. Dice así:

«...encuentro entre mis papeles una nota tomada de Alexander Francis Chamberlain: The child and childhood in folk-thought (The child in primitive culture), New York, Macmillan 1896, que en la p. 113 habla de que la solicitud cuidadosa de la madre en el cielo sobre sus hijos en la tierra aparece también en el país vasco, según Mis Monteiro Mariana, Legends and Popular Tales of the Basque People, N. York, 1887, VII-274, 8.º p. 73.

En la página 279 dice aquél:

Los héroes de la leyenda vasca de Akelarre los describe así Mis Monteiro (pág. 22):

Izar y Lañoa eran dos niños huérfanos; el primero era de 7 años y el segundo de 9. Estos dos pobres niños, verdaderos bardos errantes, frecuentaban las montañas, ganando la subsistencia por cantar baladas y aires nacionales en dulces voces infantiles, a cambio de una cama de paja y una escudilla de comida. Por todo el país eran estos niños conocidos y estimados a causa de su triste situación, a la vez que de su figura agraciada y encantadoras maneras.

En la pág.ina 337 dice Chamberlain : Aventuras con Satanás y las brujas;

«Izar curó a la princesa y mató el gran escuerzo o sapo, que era la causa de su dolencia; Lañoa desafió a Satanás a la cara, quedó muerto por su acción, pero ganó el cielo».

(1) En Etxaguen hablan todavía el vascuence las personas de más de treinta años; las demás no lo saben.

(2) Estafe y San Pedro son aldeas vecinas a Etxaguen.

(3) Abadelaueta es un prado situado entre San Pedro, Gorostiza y Ollerieta, lugares próximos a Etxaguen.

(4) Exploración de siete dólmenes de la sierra de Ataun-Borunda, pág. 38. San Sebastián, 1920.

506A. LA PRINCESA RESCATADA DE LA ESCLAVITUD

El tonto(1)

Juan Dekos, el zoquete (Tontua)
Juan Dekos, 1 the blockhead (Tontua)
(W.W.)

506A. La princesa rescatada de la esclavitud

Éranse una vez un señor y una señora como tantos otros en el mundo. Éstos tenían un hijo.

Cuando creció el padre no le notaba muy espabilado, a pesar de retenerlo en los estudios. ¿Qué hizo entonces? Se compra un barco, coge un maestro y tripulantes, carga el barco de piedras y manda dentro de ella como capitán a su hijo(2).

Parte y va muy lejos. Llegan a un sitio donde no existen las piedras. Allí las vendieron bien caras y cuando paseaba por aquel lugar, nuestro Jaun Dekos ve un día al pasar delante de una iglesia que toda la gente al pasar escupía a algo. Pregunta acercándose por qué escupen así. Le dicen que se trata de un muerto que está descompuesto y que si nadie pagaba sus deudas, allí se quedaría(3).

¿Qué hizo entonces el Jaun Dekos? Pagó la deuda con todo el dinero que tenía. Sus tripulantes y el acompañante estaban rojos de cólera, pues había gastado en ello todo el dinero.

Vuelve al punto de partida con su barco. Llegaron a su ciudad. El padre conoció desde lejos la embarcación de su hijo y salió a su encuentro. Los tripulantes le dicen desde lejos, qué hizo aquél con el dinero.

El padre no estaba contento con esto, y lo manda de nuevo después de cargar de hierro el barco. Se van y por fin llegan a un lugar y vende por mucho dinero su hierro. Andaba por aquella ciudad cuando ve en la plaza vendiendo cristianos salvajemente. Ocho eran los que estaban en venta y Jaun Dekos compra los ocho. Empleó todo el dinero que sacó vendiendo el hierro para comprar a éstos.

De estos ocho, a siete los manda a sus casas y guarda una chica para él. Ésta se llamaba María Luisa, era muy hermosa. Emprende rumbo a casa con su barco, la tripulación y María Luisa.

El padre le sale al camino de nuevo al encuentro y los tripulantes le dicen, antes que el mismo Jaun Dekos qué había hecho con el dinero. El padre se enfadó muchísimo. No quiere dar nada más a su hijo. Que haga lo que quiera.

Éste llega a un acuerdo con los tripulantes para ir al país de María Luisa. Entonces parten. Jaun Dekos había mandado hacer un retrato de María Luisa para llevarlo en lo alto del barco.

En aquel barco había un ayudante que era manco, que estaba muy celoso de Jaun Dekos y de María Luisa. Éste

506A. ESKLABOTZATIK ASKATUTAKO PRINTZESA

Tontua(1)

Juan Dekos, el zoquete (Tontua)
Juan Dekos, 1 the blockhead (Tontua)
(W.W.)

506A. Esklabotzatik askatutako printzesa.

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Bazuten seme bat.

Handitu zenian aitak ez zuen ernea[1] atzematen, nahiz eskoletan atxiki zuen. Zer iten du? Erosten du untzi bat. Hartzen du mahistruba eta eskipaia[2], untzia harriz kargatzen du eta egortzen du semea haren barnean, hura nausi(2).

Partitzen da eta badoha urrun urrun. Arribatzen dire arririk ez zen toki batean. Saltzen dute gogotik garasti eta han zabillalarik, gure Jaun Dekosek ikhusten du egun batez elizako athean pasatzean jende guziek tu egiten zutela zerbeiti. Galdetzen du urbiltzean zertako iten duten tu. Erraten diote hil bat dela han eta usteldurik ere nihork ez badu haren zorra pagatzen han egonen dela(3).

Jaun Dekok zer egiten du? Zituen diru guziez pagatzen du gizonaren zorra. Bere eskipaia eta ondokua kolera gorrian ziren zeren diru guziak han enplegatu zituen.

Heldu zen bere untziarekin gibelerat. Arribatu ziren beren hirirat. Aitak urrundik ezagutu zuen bere semearen untzia eta heldu da haren biderat. Untziko gizonek erraten diote urrundik zer in duen diruaz.

Aita ez zen kontent eta egortzen du berritz untzia burdinez kargatu eta. Badohazi eta arribatzen dire noizpeit toki batean eta saltzen du diru hanitzentzat bere burdiña. Hiri hartan zabilalarik ikhusten du plaza batean giristinoak saltzen salbaiez. Baziren zortzi saltzeko. Erosten ditu zortziak. Burdiñaz in zuen diru guzia enpleatu zuen heien erosten.

Egortzen ditu zazpi beren etxetarat eta gardatzen du neskatxa bat berekin, izena zuena Marie Louise. Arras ederra zen. Badoha etxerat bere untzia, eskipaia eta Marie Louisekin.

Aita heldu da berritz ere biderat eta erraten diote gizonek Juandekok baino lehenago, zer in duen diruaz. Aita asarre zen gogotik. Ez du nahi geihago eman deusik bere semeari. In dezala nahi duena.

Bere gizonekin akort iten dute ganen direla Marie Louisen herrirat. Partitzen dire beraz. Jaundekok egiñarazi zuen Marie Louisen portreta[3] emateko untzi gainean.

Untzi hartan bazen ondoko bat, mahingua[4], jelosia handia zuena Jaundekoz eta Marie Louisez. Ez zakien zer in. Egun batez ekar arazten du Jaundeko zubi ganiat behar

no sabía qué hacer. Un día manda aviso a Jaun Dekos que viniera sobre el puente, pues le iba a enseñar un gran pez. Cuando hizo que se acercara mucho, lo arroja al agua. Allí no había nadie cuando cometió este acto.

Cuando llegó la hora de comer, todos habían preguntado dónde estaba Jaun Dekos. Nadie sabía lo que había pasado. El manco estaba contento pensando que María Luisa sería para él y le ofrece toda suerte de gentilezas.

En esto, Jaun Dekos había sido rescatado y colocado encima de una roca por un ángel. Y todos los días le llevaba allí la comida necesaria.

Al fin llega un día el barco a la ciudad de María Luisa y como ésta era la hija del rey, todo el mundo la conocía, por eso fue reconocido su retrato desde lejos. El rey lo supo pronto. Sale al encuentro de su hija. Imagínense qué alegría. El rey hizo llegar a su casa a todos los hombres y todos la trataban bien.

María Luisa le cuenta a su padre cómo había sido comprada por Jaun Dekos y lo bueno que había sido para ella, pero no sabía qué le había ocurrido. Le dice también que el ayudante la había cuidado bien y éste quería casarse con ella. El padre también quería mostrarle su agradecimiento, puesto que había sido él quien le había traído a su hija y no había conocido a Jaun Dekos.

Así atormentaban a María Luisa que había prometido que se casaría con él si no aparecía Jaun Dekos pasado un año y un día. Habían pasado ya el año y el día y no había ninguna noticia de Jaun Dekos. Entonces van a casarse y Jaun Dekos seguía como siempre encima de la roca. Le habían crecido algas encima de su ropa. Tenía la barba muy larga. Y en esto el ángel(4) le dice:

—Hoy se casa María Luisa. ¿Te gustaría ir donde ellos?

Le responde que sí.

—Has de prometerme que del primer hijo que tengas al cabo de un año con María Luisa la mitad será para mí.

Le hizo la promesa y él entonces lo coge y lo lleva a la puerta de la casa de María Luisa.

El ángel era el alma de aquél que por las deudas se encontraba a la puerta de la iglesia y él había salvado.

Pide un poco de compasión. El padre de María Luisa era muy bondadoso y por tanto, se lo dieron. Pide todavía si le dejarían entrar a calentarse junto al fuego. Le dijeron que no, que sería un estorbo aquel día. Pero se lo preguntarían al amo. Van a donde él y el amo dice que lo hicieran entrar y dieran también a él una buena comida.

Para entonces María Luisa estaba casada.

Cuando Jaun Dekos llegó, tenía un hermoso pañuelo, regalo de María Luisa, y cuando ésta se la acercaba, éste lo mostraba de modo que lo viera, y ésta lo ve y lo mira bien y conoce a Jaun Dekos. Va María Luisa donde su padre y le dice:

—Padre, has de concederme un gusto.

—¡Sí, sí! si puedo.

—¿Ves a ese pobre hombre? Quisiera que lo pusieras a nuestra mesa.

dioela irakutsi arrain izigarri bat urean. Urbil arazi duenean ungi, botatzen du ureat. Nihor ez zen han, egin zuenean gauza hori.

Jateko tenorea etorri zenian denek galdia zuten non zen Jaundeko. Nehork ez zakien zer billakatu zen. Mahingua kontent zen pentsatzeaz Marie Louise harentzat izanen zela. Iten diozka maña[5] suerte guziak.

Eta Jaundeko artuba izan zen aingeru batez eta pausatua arroka baten gainean eta harat ekhartzen zigoen egun guziez, jateko nezesario zena.

Arribatzen da noizbeit untzia Marie Louisen hirirat eta Marie Louise erregearen alaba beitzen, mundu guziak ezagutzen zuen eta urrundik aise ezagutu zuten haren potreta.Laster jaun erregek jakindu zuen. Heldu da bere alabaren biderat eta pentsa zer bozkariguak[6]! Ereman arazten ditu gizon guziak bere etxerat erregek eta denak ungi tratatzen.

Marie Louisek kondatzen dio nola izatu den erosia Jaundekozez eta zein ona izatu den harentzat eta ez dakitela zer billakatu den. Erraten dio ere ondokoak ungi artatu duela eta nahi zuen osoki ondokoak harekin ezkondu. Aitak ere nahi zigoen ezagutu bere ezagutza[7] zeren harek ekarri beitzigoen bere alaba eta ez beitzuen ezagutu Jaundeko.

Hala tormentatzen zuten Marie Louise non itz eman beitzuen urte bat eta egun bethe eta, Jaundeko ez balin bazen agertzen, ezkonduko zela harekin. Urtea eta egun pasatu ziren eta ez zen Jaundekoren berririk agertu. Ezkontzen dira beraz eta Jaundeko zagoen bethi arroka haren gainean. Itsaso belarrak sortuak zituen bere arropen gainean. Bizarra izigarria zuen. Erraten dio angeruak(4):

—Egun ezkontzen da Marie Louise. Nahi zinduke gan hekienganat?

Erraten dio baietz.

—Eman behar nauzu zure hitza urte baten buruan izaten duzun haurra Marie Louisekin, erdia neretzat izanen dela.

Ematen dio promes eta artu eta erematen du Marie Louisen etxeko atherat.

Aingeru hura zen arima salbatu zuena, elizako athetan zagoena zorrengatik. Galdetzen du karitate piska bat. Marie Louisen aita, hanitz emailea zen. Ematen diote beraz. Galdetzen du orañion iyan ez duten utziko sartzerat, bero dadien su onduan. Erraten diote ezetz, traba iñen duela egun hartan. Baiñan galdetuko dutela nausiari. Badoha eta nausiak erraten du sar arazteko eta emateko hari ere bazkari on bat.

Jadaneko ezkondua zen Marie Louise.

Jaundeko arribatu zenian bazuen mokanes eder bat Marie Louisek emana eta han zabillanean Marie Louise, agertzen zuen harek ikhusteko gisan eta arras ungi ikhusi zuen eta ungi begiratu eta ezagutzen du Jaundeko. Badoha Marie Louise bere aitarenganat eta erraten dio:

—Aita! Behar nauzu egin atsegin bat.

—Ba, ba! ahal badut.

—Ikhusten duzun gizon pobre hori nahi nuke egun gure mahañean ematea.

El padre le responde:

—No se puede, está sucio y asqueroso.

—Yo lo podría limpiar y darle algunas ropas nuevas tuyas.

Por tanto, el padre le dijo que sí. Éste ordena según el deseo de María Luisa. Lo colocan a la mesa y era María Luisa la única que lo conocía.

Al acabar la comida, le dicen a Jaun Dekos, como al resto, que contara una historia. Éste les dijo que sí. Pero que si querían escuchar su historia, deberían cerrar todas las puertas y darle a él todas las llaves. Así se hizo y se las dieron.

Empieza diciendo que ciertos padres tenían un hijo, que no era muy espabilado. Piensan que lo van a enviar de mar en mar. Le cargan un barco con piedras, que los vendió muy bien y con aquel dinero, paga a la puerta de la iglesia las grandes deudas de un hombre muerto.

El ayudante vio después de oír eso que estaba perdido. Que su vida estaba acabada y pide al rey la llave de la puerta. Pues debía de salir. Pero no le era posible dar. Se tuvo que quedar allí obligadamente, pero no cómodo.

Jaun Dekos sigue todavía diciendo que su padre le cargó de nuevo el barco con hierro. Aquel hierro lo vendió muy fácilmente y con el dinero había comprado siete cristianos, y señalándola, «la octava fue su hija, rey». El rey ya sabía por entonces por su hija esta historia.

¿Qué hacen viendo qué malo había sido el ayudante? Ponen un carro de gavillas de haya en medio de la plaza y al ayudante una camisa de azufre y lo quemaron en medio de la plaza. Jaun Dekos y María Luisa se casaron y fueron del todo felices.

Tuvieron un hijo y nada más pasar un año le vino el ángel en busca de la mitad del niño. Grande fue la pena de Jaun Dekos, pero como había dado la palabra, iba a partirlo por la mitad cuando el ángel detiene su brazo, mientras le decía:

— Veo tu obediencia y te dejo a tu hijo.

Si bien vivieron, bien murieron.

Eco bíblico.
El sacrificio de Isaac
Iba a partirlo por la mitad cuando el ángel detiene su brazo.

Bibliaren oiartzuna.
Isaak`en sakrifizioa
Erditik egiterat zuan, aingeruak arrastatu zioenian besoa.

Notas: *Leyendas Vascas* nº 33. Edit. Miraguano.

(1) Este nombre es una transcripción fonética del vasco, y hasta que no vi la versión gaélica no me di cuenta de que se trataba simplemente de «Jean d'Ecosse», «John de Escocia», o «Scotch John». En el relato análogo del cuento de la obra de Campbell, «The Barra Widow's son» («El hijo de la viuda Barra»), Vol II, pág. III, leemos: «Era lain Albanach» (literalmente, Jean d'Ecosse) «el nombre que dieron al chico en un él le dio el nombre de Iain Mac a Maighstir» (el hijo de John el patrón) «pues él mismo era patrón del barco». Esto parece constituir una prueba decisiva de que, de algún modo, los vascos han tomado este relato de los celtas desde su ocupación de las Hébridas. Las versiones españolas, por otro lado, tienen por nombre «La princesa irlandesa» (Patrañas, pág. 234).

Aitak erraten du:

—Ez ditake. Zikiña eta desgustagarriegia[8] da.

—Nik garbi nezake eta eman niotzake zure zerbeit arropa berri.

Aitak erraten dio beraz baietz. Iten du beraz Marie Louisek nahi zuen bezela. Mahañean ematen dute eta Marie Louisek ezagutu zuen bakarrik.

Bazkariaren akabantzan erraten diote bertzeri bezala Jaundekori kondatzeko istorio bat. Erraten du baietz, baiñan nahi badute haren istorigoa aditu, behar dituztela athe guziak zerratu eta gako guziak hari eman. Ematen diozkate.

Hasten da bazutela aita ama batzuek seme bat, ez beitzen ernia hañitz. Egiten dute egorri behar dutela itsasoz itsaso. Untzia kargatzen diote harriz. Ederki saltzen du harri hura eta diru hartaz pagatzen ditu elizako athetan zagoen gizon baten zor handiak.

Ondokoak ikhusi zuen hori aditu eta galdua zela. Haren biziak egin zuela eta galdetzen zuen erregeri atheko gakoa. Hilki[9] behar zuela. Bañian ez zuen posible ematea. Han egon behar izan zuen bortxaz, bainan ez aiseki.

Erraten du oraiñion Jaundekok, aitak berritz ere kargatu zioela untzia burdiñez. Ederki saldu zuela burdin hura eta erosi diru harekin zazpi girixtiño eta, irakustean, «errege, zure alaba zortzigarren». Jadaneko erregek bazakien bere alabaz istorio hori.

Zer iten dute ikhusirik zenien tzarra izatu zen ondokoa? Orga bat fagota[10] plazaren erdian eman eta athorra sufrezko bat eman eta ondoko hura erre zuten plazaren erdian. Jaundeko eta Marie Louise ezkondu ziren eta hañitz urus izan.

Izan zuten haur bat eta urtea pasatu ondoan ethorri zitzagoen aingeruba haurraren erdiaren billa. Penatzen da hanitz Jaundeko, bañian itzemana beitzuen, erditik egiterat zuan, aingeruak arrastatu zioenian besoa, erraten zigoelarikan:

—Ikhusten diat hire obedientzia eta uzten deat hire haurra.

Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

Hiztegia

1 erne: azkar, gertu; 2 eskipaia: untziko gizonak; 3 portreta: erretratua; 4 mahingu: maingu, erren; 5 maña: losentxa, balakua; 6 bozkarigo: poz; 7 ezagutza: esker ona; 8 desgustagarri: higuingarri; 9 hilki: jalgi, atera; 10 fagota: azau.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Izen hau euskarazko transkripzio fonetiko bat da, eta aldaera galiarra ikusi nuen arte ez nintzen konturatu ez zela «Jean d' Ecosse», «John de Escocia», edo «Scotch John» baizik. Campbell-en obrako ipuinaren kideko kontakizunean, «The Barra Widow's son» («Barra alarguntsaren semea») II. libk., III. or., honako hau irakur dezakegu: «Era lain Albanach» (hitzez hitz, Jean d'Ecosse) «mutikoari eman zioten izena en un berak Iain Mac-en izena eman zion Maighstir-i» (John ugazabaren semea) «bera baitzen ontziko patroia». Honek froga erabakigarri bat dirudi, nolabait ere, euskaldunek kontakizun hau zeltengandik hartu dutela Hebridaketako okupaziotik. Espainiar aldaerek, bestalde, «La princesa irlandesa» (Patrañas, 234. or.) dute izena.

(2) Véase la nota precedente y Campbell, op. cit., Vol. II, pág. 3.

(3) No podemos asegurar que este pasaje haga referencia a alguna costumbre real respecto a las deudas de los muertos. Aparece en los relatos gaélicos, en «Ezkabi Fidel» y en otros cuentos y versiones, especialmente en las españolas. Véase el relato mencionado y, más adelante, «El mirlo blanco».

(4) En otras versiones, su salvador es el alma del hombre al que había pagado las deudas, bien en forma de ermitaño o de zorro. En la versión gaélica este personaje no aparece claramente definido. Se le llama «uno», o «el que pide». (Campbell, op. cit., Vol. II, pág.s. 119 y 121). En todos los casos el acuerdo es el mismo que el realizado con el ángel, y con idénticos resultados

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 179.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 146.

(2) Ikus aurreko oharra eta Campbell, op. cit., II. libk., 3. or.

(3) Ezin segurta dezakegu pasarte hau hildakoen zorrei buruzko egiazko ohitura baten erreferentzia denik. Galiarren kontakizunetan agertzen da, «Ezkabi Fidel»-en eta beste ipuin eta aldaeratan, espainiarretan bereziki. Ikus aipatutako kontakizuna eta, aurrerago berriz, «Xoxo xuria».

(4) Beste aldaeratan, bere salbatzailea zorrak ordaindu zizkion gizonaren arima da, bai ermitau modura nola azeri gisa azalduko dena. Galiarren aldaeran pertsonaia hau ez da guztiz definiturik azaltzen. «Bat», edo «eskalea» deitzen zaio. (Campbell, op. cit., II. libk., 119 eta 121. or.). Kasu guztietan ere akordioa aingeruarekin egindakoaren berdina da, eta halakoxe ondorioekin.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 179. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 146. or.

Jaundeko(1)

Juan de Kalais
(W.W.)

506A. La princesa rescatada de la esclavitud

Como hay muchos en el mundo y habrá, había una madre y su hijo. Tenían un poco de fortuna.

Aquel chico no quiso oír nada. Que quería ir a la escuela de marineros. La madre le deja pues hacerlo. Cuando es el recibido maestre (patrón), la madre le da un barco, (con) una valiosa carga, y ahí va.

El chico arriba a una ciudad y mientras estaba allí ve a un grupo de hombres encima de una pila de estiércol que tiraban de allí, tiraban de aquí de un bulto. Se acerca y ve que tienen a un hombre muerto. Pregunta qué andan así, por qué no lo entierran. Le dicen que ha dejado deudas y que no lo enterrarán ni podrido. Pregunta Jaundeko:

—¿Y si alguien las paga, lo enterraréis?

Le dicen que sí. Jaundeko hace proclamar en aquella ciudad que cualquiera a quién aquel hombre debiera aparezca (se presente) ante él. Como pensáis, aparecieron muchos que no tenían nada para recibir. Nuestro Jaundeko vende su carga y, no siendo aún suficiente, vende su barco.

Llega a casa. Le cuenta a la madre qué ha hecho. La madre estaba enfadada (diciendo) que haciendo así no se iban a enriquecer, y como quería irse otra vez, la madre le compra un pequeño y mal barco y le da como carga brea, estopa, resina, y ahí va.

Mientras iba en su camino se encuentra con un gran barco y el capitán de allí le dice que le tiene que comprar una joven mujer. Que es encantadora. Jaundeko le dice que no tiene dinero. Pero le dice (los maestres del otro barco eran ingleses) que por lo menos le diera su carga. Jaundeko le dice que no es valiosa. Le dice qué es y el maestre inglés le dice que precisamente aquello es muy valioso para ellos y hacen el intercambio.

Jaundeko(1)

Juan de Kalais
(W.W.)

506A. Esklabotzatik askatutako printzesa

Asko munduan bezala eta izanen diren bezala baziren ama seme batzuek. Bazuten fortuna piska bat. Mutiko harek ez zuen nahi izatu deus aditu. Mariñel eskolarat gan nahi zuela. Amak uzten du beraz iterat. Errezebitua izaten denian mahistru, amak ematen dio untzi bat, kargazoñ[1] balios bat, eta badoha.

Mutikoa arribatzen da hiri baterat eta han zelarik ikhusten du gizon multso bat ungarri[2] meta baten ganean ari zirela tira handik, tira hemendik bulto[3] bati. Urbiltzen da eta ikhusten du gizon hil bat dutela. Galdetzen du zer ari diren hola, zertako ez duten enterratzen. Erraten diote zorrak utzi dituela eta usteldurikan ere ez dutela enterratuko. Galdetzen du Jaundekok:

—Eta norbaitek pagatzen baditu haren zorrak enterratuko duzube?

Erraten diote baietz. Jaundekok krida arazten du hiri hartan gizon harek zor zuena ager dadiela. Pentsatzen duzuen bezala agertu zen hañitz deusikan hartzeko ez zutenak ere. Gure Jaundekok saltzen du bere kargazoña eta ez aski izanez orainion saltzen du bere untzia.

Heldu da etxerat. Kondatzen du amari zer in duen. Ama asarre zen ez zirela hola egiñez aberastuko eta gan nahi beitzuen berritz, amak erosten dio untzi txiki txar bat eta ematen dio kargatzat breia[4], istupa[4bis], arresiña[5] eta badoha.

Bere bidean zoalarik errekontratzen du untzi handi bat eta hango kapitañak erraten dio behar dioela erosi andre gazte bat. Xarmanta dela. Jaundekok erraten dio ez duela dirurik. Bainan erraten dio (bertze untziko mahistruak anglesak ziren) bere kargazoña eman ziozala bederen. Jaundekok erraten dio ez dela baliosa. Erraten dio zer den eta mahistru anglesak erraten dio preseski[6] arras baliosa dela hura hekientzat eta egiten dute trukada.

Nuestro Jaundeko va a casa de su madre y la madre aún más enfadada, con qué le cargaría el barco. Que no tenía ella nada. Que no le podía dar más. En lugar de enriquecerse, que se iba a empobrecer y que era mejor para él estar en casa.

Al cabo de unos días se casa con la joven mujer que el maestre le dio y, como Jaundeko estaba en penas de no tener carga alguna, le dice su esposa que no necesitaba ninguna carga. Le da una bandera y un fular y le dice al darle su anillo que vaya a la rada de Portugal y que tirase tres piezas (salvas de cañón) y dijera, a la gente que viene que tiene que ver al rey y que se llama María Magdalena.

Ahí va nuestro Juandeko. Arriba a la rada de Portugal y tira tres golpes de pieza (salvas). Todo el mundo se sorprende al oír aquellos fragores. Llega el mismo rey a aquel barco. Pregunta cómo se ha atrevido a tirarlos. Que nadie es más libre (todos son hechos prisioneros)(2). Dice que trae él nuevas de María Magdalena y le enseña la bandera, con su retrato y el fular. El rey no sabía dónde estaba y con júbilo le dice que tiene que ir inmediatamente en su busca.

Gure Jandeko badoha bere amaren etxerat eta orainion ama asarreago, zerekin kargatuko zioen untzia. Ez zuela harek deusik. Ezin eman ziozakela gehiago. Aberasteko plazan, pobretuko iñen zela eta obe zuela etxean egon.

Zenbeit egunen buruban ezkontzen da andre gazte, mahistruak eman zioenarekin eta penetan beitzen Jaundeko kargarik ez izanez, erraten dio bere emazteak ez zuela kargarikan behar. Ematen dio bandera bat eta fular bat eta erraten dio bere erreztuna ematean, duala Portugaleko arradarat[7] eta tiratzeko hiru peza eta ethortzen diren jenderi errateko errege ikhusi behar duela eta duela izena Mari Madalena.

Badoha gure Juandeko. Arribatzen da Portugaleko arradarat eta tiratzen du hiru peza kolpe. Mundu guzia arritzen da aditzearekin arrabots heiek. Errege bera heldu da untzi hartarat. Galdetzen du nola ausartatu den tiratzera. Nihor ez dela gehiago libro(2). Erraten du ekhartzen dituela harek Mari Madaleñen berriak eta irakusten diozka bandera, haren portretarekin eta fularra. Erregek ez zakien non zen bozkarioz eta erraten dio gan behar duela berehala haren billa.

Tenía el rey consigo (a su servicio) a un viejo general(3) que quiso casarse con María Magdalena. Pero ella no lo quiso y le dice al rey si no sería posible que él también fuera, que lo podría hacer más rápido. El rey le dice que vaya si quiere. Y parten.

Cuando estaban en el mar, le dice un día aquel viejo general:

—Mira, Jaundeko, qué pez tan bonito hay aquí.

Mira Jaundeko y no ve nada. Le dice el viejo general:

—Baja la cabeza y mira hacia ahí.

Y en ese momento lo arroja al agua. Va el general adelante. Coge a la joven mujer y va adonde el rey. Les hace creer que Jaundeko se ha ahogado y quería otra vez casarse con María Magdalena, pero (ella) no quiere de ninguna manera, que ya está casada y tenía tal pena María Magdalena que estuvo siete años sin querer salir de su habitación. Ya que su padre decidió así que se casara con aquel general, se decide pues a hacerlo.

Bazuen erregek berekin jeneral zahar bat(3) zeinak nahi izan beitzuen ezkondu Mari Madaleñekin. Bainan ez zuen nahikatu eta erraten dio erregeri iyan ez luken posible harek ere gatea lasterrago iñ lezaketela. Erregek erraten dio doala nahi badu. Eta partitzen dire.

Itsasoan zirelarik erraten dio egun batez jeneral zahar harek:

—Beira zazu Jaundeko zer arraiñ ederra den hemen.

Beiratzen du Jaundekok eta ez deus ikhusten. Erraten dio jeneral zaharrak:

—Burua beheiti zazu eta beira horrarat.

Eta horrekin batean botatzen du urerat. Badoha jenerala aintzina. Andre gazte hartu eta, badoha erregerenganat. Siñits arazten diote ito dela Jaundeko eta nahi zuen berritz ere ezkondu Mari Madalenekin, bainan nihondik ez du nahi, jadaneko ezkondua dela eta halako pena zuen Mari Madalenek non egotu beitzen zazpi urte bere gelatik ilki nahi gabe. Aitak hala dezidatzen beitzuen ere, jeneral harekin ezkontzia, dezidatzen da beraz egiterat.

Vamos ahora adonde Jaundeko. El pobre estaba en aquellos siete años encima de una roca comiendo lapas y bebiendo agua salada. Le viene un zorro(4) y le dice:

—¿No sabes, Jaundeko? Mañana se esposa la hija del rey de Portugal. ¿Qué me darías por ir allí?

—La mitad de todo lo que tengo ahora y la mitad de todo lo que tenga luego.

El zorro lo coge y lo lleva a la puerta de la casa del rey de Portugal y lo deja allí. Jaundeko pregunta si necesitan un mozo. Le dicen que sí, que tendrán trabajo para él también. Que van a tener (celebrar) una boda en casa.

La criada (de María Magdalena) reconoce a Jaundeko. Va corriendo a decírselo a la reina. No lo quiere creer, (dice) que está ahogado. La muchacha, tras verlo otra vez, le reafirma que sí, que es él y aquella princesa, para tener paz, (dice) que va a verlo y rápidamente se asegura que es él, viendo también el anillo dado por ella. Se echa a sus bra-

Goazen orai Jaundekorenganat. Gaizua bazagoen zazpi urte hartan arroka baten ganean lapak[8] janez eta ur gazia edanez. Heldu zaio axeri(4) bat eta erraten dio:

—Ez dakizu Jaundeko? Bihar da espos Portugaleko erregeren alaba. Zer eman ziñezake harat gateko?

—Orai nituzken guziaren erdia eta gero izan netzazken guzien erdiak.

Axeriak hartzen du eta erematen Portugaleko erregeren etxeko atherat eta han uzten du. Jaundekok galdetzen du iyan behar duten mutillik. Erraten diote baietz, izanen dutela lana harentzat ere. Eztaiak[9] behar dituztela etxean.

Filiak[10] ezagutzen du Jaundeko. Badoha lasterka erraterat erregiñari. Ez du nahi sinetsi, itoa dela. Neskatxak berritz ikhusi ondoan finkatzen dio baietz, hura dela eta printzesa harek bakia izateko badoha ikhusterat eta fite segurtatzen da hura dela, ikhusiz harek emanikako erreztuna ere. Botatzen da haren besuetarat eta ereman arazten du berekin

zos y lo hace llevar con ella adonde el rey. El rey dice que harán las fiestas igual.

Cuando estaban a la mesa el rey le dice a Jaundeko que cuente algo. Jaundeko le dice que sí, pero saca su espada y la pone encima de la mesa, diciendo:

—El que diga alguna palabra tendrá noticias de mi espada.

Empieza a contar cómo salvó el cuerpo de un hombre, vendiendo todas sus cosas y pagando la deuda de aquél. Cómo luego hizo un intercambio para salvar a una joven mujer dando toda su carga. Luego cómo fue traicionado por un amigo suyo y arrojado al agua y que vivió con lapas y bebiendo agua salada.

Cuando oyó eso el rey hace apresar a aquel viejo general y lo hace quemar inmediatamente en medio de la plaza. El rey les da las riquezas que tenía suyas y vivían muy felices.

Al cabo de un año tuvieron un hermoso niño y he ahí que le viene el zorro y le dice que llega en busca de lo prometido. Empiezan a poner aparte la mitad de todo. Había dos morillos: uno se ponía a un lado; y así igual (con) todas las cosas.

Cuando acabó de hacer la partición, le dice el zorro que aún hay algo. Que le dijo también que le daría la mitad de lo que tendría. Se acuerda pues de su niño. Coge pues su espada para hacerlo (dividirlo) por la mitad cuando el zorro con su garra le quita la espada.

Que es suficiente. Que ve qué hombre tan fino es y que no quiere nada. Que él era el alma que salvó pagando las deudas. Que ahora está en el cielo gracias a él y que tendrá lista en el cielo su plaza y la de toda su familia.

Dicho eso se levanta al aire en forma de una paloma.

(Laurentina, de su madre).

Entierro

Se acerca y ve que tienen a un hombre muerto.

Ehorzketa

Urbiltzen da eta ikhusten du gizon hil bat dutela.

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Se trata, por supuesto, de «Jean de Calais»-«John de Calais» y este nombre parece señalar que los vascos aprendieron el relato de alguna versión francesa, no española.

(2) Este pasaje parece hacer sido extraído de «Mahistruba».

(3) En la versión gaélica del relato el malvado es un general, como en ésta, y no un segundo oficial cojo, como ocurría en «Juan Dekos». Véase Campbell, op. cit., Vol. II, pág. 118.

(4) Véase la nota que aparece en el relato de «Juan Dekos».

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 119.

Trad. J.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 132.

erregerenganat. Erregek erraten du igual eginen dituztela bestak.

Mahaiñean zirelarik erregek erraten dio Jaundekori konda dezala zerbeit. Jaundekok erraten dio baietz, bañian ateratzen du bere ezpata eta ematen mahañaren ganean erraten duelarik:

—Itzik erraten duenak jakiñen du nere ezpataren berri.

Hasten da kondatzen nola salbatu zuen gizon baten gorputza, bere zituen guziak saldu eta haren zorra pagatuz. Nola gero in zuen trukada andre gazte baten salbatzeko bere karga guzia emanez. Gero nola izan zen trahitua[10b] bere lagun batez eta urerat aurtikia eta bizi izatu zela lapaz eta ur gazia edanez.

Hori aditu zuenian erregek har arazten du jeneral zahar hura eta erre arazten du berehala plazaren erdian. Erregek ematen diozka bere zituen aberastasunak eta bizi ziren arras urus.

Urte baten buruan izan zuten mutiko eder bat eta horra nun heldu zaion axeria eta erraten dio aginduen billa heldu dela. Hasten dire denen erdia aparte ematen. Baziren bi suburdin: bat emana zen sahetserat eta denak berdin.

Finitu zuenian partilla[11] egiten, erraten dio axeriak badela orainion zerbeit. Erran zioela ere izanen zituenen erdiak emanen ziozkala. Oroitzen da beraz bere haurraz. Hartzen du bere ezpata erditik iteko noiz eta axeriak bere pataz kentzen beitio ezpata.

Aski dela. Ikhusten duela zer gizon fiña den hura eta ez duela deusikan nahi. Hura dela salbatu zuen arima hura zorrak pagatuz. Zeruan dela orai hari esker eta haren plaza[12] eta haren familia guziaren plaza zeruan prest atxikiko duela.

Hori erran eta airatzen da uso baten forman.

(Laurentina, bere amarenganik).

Hiztegia

1 kargazon: karga; 2 ungarri: zimorra; 3 bulto: zer den ongi ikusten ez den gauza; 4 breia: bikea, galipota; 4bis istupa: lihoaren hondarkina; 5 arresiña: pinoen izerdia, erretxina; 6 preseski: hain zuzen; 7 arrada: itsasarte, untzi leihor; 8 lapa: txirla; 9 eztai: ezkonjaia; 10 filia: neskato; 10b trahitu: azpikeriaz saldu; 11 partilla: banaketa; 12 plaza: lekua.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Jakina da hau ez dela «Jean de Calais» besterik, «John de Calais», eta erakutsi nahi duela dirudi euskaldunek kontakizun hau Frantzia aldeko bertsio batetatik jaso zutela, ez espainiarretik.

(2) Pasarte honek «Mahistruba» kontakizunetik aterea dela dirudi.

(3) Kontakizunaren bertsio galiarrean gaizkilea jeneral bat da, hemen bezala, eta ez bigarren ofizial herren bat, «Juan Dekos» kontakizunean gertatzen zen bezala. Ikus Campbell, op. cit., II. libk., 118. or.

(4) Ikus «Juan Dekos»-en kontakizunean agertzen den oharra.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 119. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 146. or.

Personajes de los cuentos

Diablos



Una danza misteriosa

Cuando los vio llegar unidos entre sí, y en una sokadantza tremenda... el joven muchacho, el cordero, el cura, la criada, la hoja de berza, las cabras, el panadero, el herrero, las dos mujeres, el perro, el ciego, la pobre Reina joven empezó a reír y reír. Y no podía parar más de reír, siempre riendo a carcajadas como una chiflada...

Soka-dantza misteriotsua

Elgarri lothuak, eta soka-dantza lehergarri batean heldu, ikusi zituelarik... muthil gaztea, bildotcha, apheza, gelaria, aza-hostoa, ahuntzak, okina, harotza, bi emaztekiak, chakurra, itsua, hirri eta hirri hasi zen Erregina gazte gaichoa. Eta hirri egitetik ez ziteken geldi gehiago, choro bat bezala karkaraka ari bethi...

Demonios y brujas

Una por una ya se iban por otra parte las brujas deminios, y habían quedado dos ahora, allí, debajo del árbol. Y he aquí cómo las dos empiezan a charlar:
—¡Di! ¿Sabes, sin duda, cómo la hija del Rey está muy enferma?

Deabru eta sorginak

Bederazka bederazka bazoazin bertzalde sorgin debruak, eta biga ziren orai geldituak, han, arbolaren azpian. Eta biak huna non hasten diren solasean:
—Erran! Badakin, dudarik gabe, Erregeren alaba nola erras eri den?

Ritual de akelarre

Todas las brujas veneran inmediatamente a su ama.
Le traen un sillón rojo-rojo, y se sienta el Ama.
Todas besan el libro, y enseguida empezó el Akelarre
o Noche de las brujas.

Ekelarren erritoa

Sorgin guziek agur egiten diote berehala beren Nausiari.
Jar-alki gorri gorri bat ekartzen diote, eta jartzen da
Nausia. Denek musu emaiten diote liburuari,
eta berehala hasi zen Akhelarre edo sorginen Zaba.

510A. LA CENICIENTA

La cenicienta

(J.M.B.)

510A. La cenicienta

Una vez vivía una madre con dos hijas (llamadas) Juana y María.

Juana era muy fea, y la madre la apreciaba mucho.

Pero María era muy hermosa y la madre no la quería nada.

La madre metía a María en la pocilga, y allí estaba (ésta) con frecuencia, alimentada con unas cortezas de comuña.

En la casa vecina hubo bodas, a donde fueron Juana y la madre, dejando en la pocilga a María.

Se le apareció a María la Madre Virgen y le dio de comer cuanto ella quiso. Después la vistió con traje de plata y oro y la llevó a la casa donde se celebraban las bodas. Ahí bailó con el hijo del rey. Después volvió a casa y la Madre Virgen, dándole de comer, la metió en la pocilga.

Cuando Juana volvió a casa con la madre le dijo:

—¡Nosotras hemos visto cosa digna de verse! Una señorita hermosa vestida con traje de oro ha bailado con el hijo del rey.

Entonces dijo María:

—Quizá habré sido yo.

—¡Ya! ¡ibas a ser tú! ¿Cómo ibas a ser tú, estando en la pocilga?

Al día siguiente fueron también a las bodas como en el anterior; pero esta vez se le perdió a María un zapato en las escaleras.

Encontró el rey este zapato y dijo que él se casaría con aquella a quien viniese bien este zapato.

Todas las muchachas del pueblo probaron ese zapato; pero a ninguna le venía bien.

También Juana hizo lo posible para ponérselo, y por fin, aunque doliéndole los dedos, consiguió ponérselo.

Juana se marchó de viaje con el rey. Pero, entre tanto, apareció un pajarito y dijo que no le venía bien el zapato y que (ella) no estaba hecha para el rey.

Entonces el rey preguntó a Juana a ver si tenía otra hermana.

Juana le dijo que sí tenía una.

El rey le dijo que la presentase a él. Le probó el zapato, y María lo tenía muy bien.

(Comunicado en 1920 por D. Leandro de Igartua, de Oñate).

- José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca III. Edit. Auñamendi, pág. 57.

510A. ERRAUSKINE

Errauskine

(J.M.B.)

510A. Errauskine

Bein batian bizi zan ama bat alaba bikin: Juana ta Maria.

Juana oso zakarra zan, eta amak oso estiman eukan. Maria berriz oso ederra, eta amak bapebe ez eutzan gura.

Amak txarriteixan sartzen eban Maria eta an sarritan egoten zan, tremes azul batzuek janda.

Aldameneko etxian gertatu ziran estaixak, eta ara juan ziran Juana ta ama, Maria txarriteixan itxitta.

Mariari Ama Birjinea agertu sakon, eta jaten eman otzan beak nai zuen guztia. Gero jantxien siderrezko eta urrezko sonekuakin, eta estaiak ziran etxea eruan eban. Eta erregen semiakiakin aginen dantza. Eta gero atzera Ama Birjineak, jaten emanda, txarriteixan sartu eban.

Juana amakin etxera zanian, esan otzan Mariari:

—¡Guk ikusi sonau ikustea! Neskatilla eder bat, urrezko soñekuakin, erregen semiakin egin zon dantza.

Orduan Mariak esan otzan: Akaso neu izango nintzunan.

—Bai, i bentzet. Txarriteixan eguala zelan izango itxanan ba?

Urrengo egunian be, aurreko egunian bezela, juan ziran estaietara; baña orduan Mariari zapatia geatu zakon eskillatan.

Erregeak billatu eban zapati oi, eta esan eban zapata a ondo daukanakin eskonduko zala.

Erriko neskatxa gusiak neurtu euen zapati oi; baña iñori etxakon ondo etorten.

Juanak erebe alegiña egin sartzen, eta, askenean, naiz biatzetan min artu, logratu eban sartzeia.

Juana erregekin joan san biajera. Baña bitartean, urten txontxo batek eta esan otzan zapata ez eukala ondo eta etxala erregendako egindakua.

Orduan erregek Juanari galdetu otzan beste aizparik eukan.

Juanak baietz esan otzan, bat eukala.

Erregek berana eruateko esan otzan. Neurtu zion zapatia eta Mariak oso ederto zeukan.

Eskondu ziran eta ondo euren bisitza pasatu euben.

(Oñatiko Leandro de Igartua jaunak kontatua 1920an).

- Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: El mundo en la mente popular vasca III. Auñamendi, 57. or.

La estrella bajo la escalera

La recluse délivrée
(J.F.C.)

510A. La cenicienta

(Este cuento también pertenece al tipo 480. Las hilanderas en el manantial. La muchacha bondadosa y la cruel)

→ Ver el texto en la pág. 214.

Izarduna eskelazpean

La recluse délivrée
(J.F.C.)

510A. Errauskine

Ipuin hau 480. Iruleak iturrian. Neskato onbera eta ankerra motan ere sailkatzen da)

→ Ikus testua 214. or.

La madrastra y la hijastra(1)

La madrastra y la hijastra
The step-mother and the step-daughter
(W.W.)

510A. La cenicienta

V

Vivían una vez un padre y una hija. La hija le decía a su padre que se casara. El padre le decía:

—¿Para qué? Si podrías ser desgraciada.

—Me da igual. Te prefiero ver feliz.

Y al cabo de un tiempo se casa. Aquella mujer le dice a su marido si le deja el poder para hacer sobre aquella chica lo que quiera. El marido le dice que sí y no se ocupaba más en absoluto (de ella). No la veía tampoco nunca.

Aquella mujer le dice a aquella chica que si hace todas las cosas que le dice ella, saldrá (andará) bien.

El rey vivía cerca de su casa, y una tarde le dice a su hijastra, dándole la llave de la casa del rey, que tiene que ir de noche a tal hora a la habitación del rey y que sin despertarle tiene que traer su fajín. La hija no estaba demasiado contenta, pero a pesar de ello va y llega a su casa sin ser vista por nadie con el fajín.

Al día siguiente le dice la madrastra a su hijastra que esta vez tiene que ir y tiene que traer la cadena del reloj del rey. Cuando la estaba cogiendo el rey se mueve en su cama y la chica, asustada, va corriendo y pierde su zapato en la puerta de la habitación del rey.

Al cabo de unos días, oyen que el rey ha proclamado que andará casa por casa con un zapato y aquélla que lo tenga bien será su mujer. El rey anda pues primero en las casas ricas. Pero dijo que iría a todas las casas. Fue pues también a casa del señor que se había casado dos veces, pues la tenía cerca. Pero sus seguidores (séquito) le decían para qué iba a ir allí. Que eran gentes pobres. El rey quiere ir a pesar de ello. Encuentra a aquella mujer y le dice que son pobres y que tiene vergüenza de recibir al rey en su sala.

Tenía allí muy bien vestida a su hijastra, (con) sólo un zapato puesto. Era maravillosa en hermosura y el rey la encontró muy de su gusto. Se casan enseguida. Hace llevar

Goazama[1] eta alaba ordia(1)

La madrastra y la hijastra
The step-mother and the step-daughter
(W.W.)

510A. Errauskine

B

Bizi ziren batean aita eta alaba bat. Alabak erraten zigoen bere aitari ezkont zadiela. Aitak erraten zigoen:

—Zertako? Malurus zintazke eta.

—Igual zait. Nahiago zeitut urus ikhusi.

Eta zonbeit denboraren buruban ezkontzen da. Andre harek erraten dio bere senharrari iyan uzten digoen podoria neska haren ganean iteko nahi duena. Senharrak erraten dio baietz eta ez zen gehiago batere okupatzen. Ez zuen ere sekulan ikhusten.

Andre harek erraten dio neska hari, harek erraten diozkan guziak egiten baditu, ungi atheratuko dela.

Errege bizi zen jende hekien etxearen sahetsean, eta arrats batez erraten dio bere goazalabari[1b] ematen diolarik erregearen etxeko gakoa, gan behar duela gabaz holako tenoretan erregeren gelarat eta hura atzarri[2] gabe ekharri behar diguela haren gerrikoa. Alaba ez zen sobera kontent, banian hala ere badoha eta nihork ikhusi gabe heldu da bere etxerat gerrikoarekin.

Biharamunian erraten dio goazamak bere alabaordekoari gan behar duela oranion eta ekharri behar duela erregeren muntrako[3] gatea. Hartzen ari zelarik errege igitzen da bere ogean eta neskatxa izitueta badoha lasterka eta galtzen du bere zapata erregeren gelako athean.

Zenbeit egunen buruban aditzen dute erregek kridatu duela ibilliko dela etxez etxe zapata batekin eta hura ungi duena izanen dela haren emazte. Errege badabilla beraz etxe aberatsetan lehenbizi. Banian erran zuen ganen zela etxe denetarat. Gan zen beraz jaun bigarrenean ezkondu zenaren etxerat ere, urbil beitzuen. Banian bere segidakoek erraten zioten zertarat ganen zen harat. Jende pobreak zirela. Erregek gan nahi du hala ere. Atzematen du andre hura eta erraten dio pobreak direla eta ahalke dela errezebitzea errege bere gelan.

Han zuen ederki beztitua bere alabordekoa, zapata bat bakharra soñian. Soragarria zen edertasunez eta erregek arras

con ella a su padre y a su madrastra. Vivían muy felices y a su madrastra debía aquella chica su buena fortuna.

Si vivieron bien murieron bien.

(Louise Lanusse)

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Hay dos curiosas versiones de estos relatos en los «Comes Populaires Recueillis en Agenais» (París, Baer,1874), n. ° 1 y VIII. Quienes deseen compararlas con otras versiones, pueden seguir las referencias que ahí aparecen, escritas por Reinhold Köhler, en las pág.inas 145 y 153; también las que aparecen en las pág.inas 44 y 47 de los «Contes Populaires de la Grande Bretagne», de Brueyre (París, Hacbette, 1875).

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 117.

Trad. J.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 166.

bere gustukoa atzeman zuen. Ezkontzen dire berehala. Ereman arazten du berekin bere aita eta goazama. Bizi ziren urus eta goazamari zuen zor neskatxa harek bere ethorkia.

Ungi bizi izan baziren ungi hil ziren.

(Louise Lanusse)

Hiztegia

1 goazama: ugazama, amaordea; 1b goazalaba: ugazalaba, alabaizuna; 2 atzarri: esnatu; 3 muntra: ordulari.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Kontakizun honen bi bertsio badaude honako «Comes Populaires Recueillis en Agenais» (París, Baer,1874), I. zb. eta VIII. Beste bertsioekin alderatu nahi dituztenek hor azaltzen diren Reinhold Köhler-ek idatzitako erreferentziak jarrai ditzakete, 145 eta 153. or.; baita Brueyre-n «Contes Populaires de la Grande Bretagne» (París, Hacbette, 1875) 44 eta 47. orrialdeetan azaltzen direnak ere.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 117. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 166. or.

La cenicienta (variante)

(J.M.B.)

510A. La cenicienta

(Este cuento también pertenece al tipo 480. Las hilanderas en el manantial. La muchacha bondadosa y la cruel)

→ Ver el texto en la pág. 219.

Errauskine (aldaera)

(J.M.B.)

510A. Errauskine

Ipuin hau 480. Iruleak iturrian. Neskato onbera eta ankerra motan ere sailkatzen da)

→ Ikus testua 219. or.

El triunfo de la sencillez

Al cabo de unos días, oyen que el rey ha proclamado que andará casa por casa con un zapato y aquélla que lo tenga bien será su mujer.

Tenía allí muy bien vestida a su hijastra, con sólo un zapato puesto. Era maravillosa en hermosura y el rey la encontró muy de su gusto. Se casan enseguida.

Xumetasunaren garaipena

Zenbeit egunen buruban aditzen dute erregek kridatu duela ibilliko dela etxez etxe zapata batekin eta hura ungi duena izanen dela haren emazte.

Han zuen ederki beztitua bere alabordekoa, zapata bat bakharra soñian. Soragarria zen edertasunez eta erregek arras bere gustukoa atzeman zuen. Ezkontzen dire berehala.

510B. EL VESTIDO DE ORO, DE PLATA, Y DE ESTRELLAS

Piel de asno(1)

Piel de asno
Ass'-skin
(W.W.)

510B. El vestido de oro, de plata, y de estrellas.

Como muchos en el mundo había un rey y una reina. Les llega un día una chica queriendo emplazarse. Le preguntan el nombre. Dice Fidel(2). El rey le dice:

—¿Eres como tu nombre?

Le dice que sí. Y está allí siete años. El amo le dio todas las llaves, también la del tesoro.

Un día, estando el señor y la señora fuera, va Fidel a la fuente y cuando llegó ve a siete ladrones saliendo de la casa. Pensad cómo estaba aquella pobre chica. Va directa al tesoro y ve que falta más de la mitad. No sabía qué hacer. Estaba asustada.

Cuando el rey y su mujer vuelven les dice qué pasa. Pero no le quieren creer y la echan (meten) presa. Está allí un año. Decía siempre que no era culpable pero no le creían y el rey la condena a morir y la envía con cuatro hombres al bosque a morir, diciéndoles que le traigan su corazón.

Van, pero aquellos hombres tenían pena de matar a aquella chica; era muy bonita y les decía que era inocente de aquel robo. Le dicen los hombres:

—Si no vinieras más a nuestras tierras te podríamos dejar la vida.

Les promete que no aparecerá nunca por aquellos lugares. Los hombres ven un burro y le dicen que llevarán al rey el corazón de aquél. La chica les dice:

—Para que nadie me conozca más, despellejad por favor ese burro y no voy a quitarme la piel de ése nunca más.

Los hombres van adonde el rey y la chica, queriendo (buscar) cobijo, va en la oscuridad. Encuentra una hermosa casa. Pregunta si necesitan algún cuidador de gansos. Le dicen que sí. La ponen con los gansos y le dicen que tendrá que andar con ellos todos los días y que vaya a tal campo.

Por la mañana temprano solía ir y volvía tarde al anochecer. Era la casa de un rey. Vivían la madre y el hijo. Pero piel de burro no veía a nadie más que a la reina.

Al cabo de mucho tiempo, se le aparece un día una vieja mujer. Le grita:

—¡Fidel! Ya has hecho bastante penitencia. Pues el rey hijo

510B. URREZKO, ZILARREZKO ETA IZARREKIKO JANTZIA

Asto larru(1)

Piel de asno
Ass'-skin
(W.W.)

510B. Urrezko, zilarrezko eta izarrekiko jantzia.

Asko munduan bezala baziren errege bat eta erregiña bat. Heldu zaiote egun batez neskatxa bat plazatu nahiz. Galdetzen diote izena. Erraten du Fidel(2). Erregek erraten dio:

—Zure izena bezalakoa zare?

Erraten dio baietz. Eta egoten da han zazpi urte. Nausiak eman ziozkan gako guziak, tresorarentzat[1] ere.

Egun batez jaun andreak kanpoan zirelarik badoha Fidel ithurrirat eta heldu zelarik ikhusten ditu zazpi ohoin etxetikan ilkitzen. Pentsa azue nola zen neskatxa gaixo hura. Badoha zuzen tresorerat eta ikhusten du erdia banion geihago eskas dela. Ez zakien zer billaka. Ikharatua zagoen.

Errege eta bere andrea ethortzen direnian erraten diote zer pasatzen den. Banian ez dute nahi siñetsi eta botatzen dute preso. Han badago urthe bat. Erraten zuen bethi ez zela faltadun[2] banian ez zuten sinesten eta erregek kondenatzen du hiltzerat eta egortzen du lau gizonekin oianherat hiltzerat, erraten duelarik haren bihotza ekar diotzaten.

Badohazi bañian gizon hekiek pena zuten neskatxa hura hiltzea; arras pullita zen eta erraten zioten inoxenta zela ohointza hartaz. Erraten diote gizonek:

—Ez bazine geihago ethortzen gure lurretarat utz ginzazuke bizia.

Agintzen diote sekulan ez dela agertuko alde hekietarat.

Gizonek ikhusten dute asto bat eta erraten diote haren bihotza eremanen diotela erregeri. Neskatxak erraten diote:

—Nihork ez nazan geihago ezagut, larru zazube othoi asto hori eta ez dut horren larruba geihago sekulan kenduko soiñetik.

Gizonak badohazi erregerenganat eta neskatxa, gerize bat nahiz badoha ilhunian. Atzematen du etxe eder bat. Galdetzen du iyan behar duten antzara zaintzallerik. Erraten diote baietz. Ematen dute antzarekin eta erraten diote egun guziez hekiekin beharko duela ibilli eta gateko holako landetarat.

Goizian goiz gaten zen eta arratsean berandu ethortzen. Erregeren etxe bat zen. Ama semeak bizi ziren. Bañian asto larruk ez zuen nihor ikhusten erregiña bertzerik.

Denbora hañitzen buruban, agertzen zaio egun batez atso xahar bat. Iten dio oihu:

—Fidel! In duzu aski penitentzia. Errege semeak eman

va a dar unas hermosas fiestas, tienes que ir adonde ellos. Hoy al anochecer vas a pedir permiso a la mujer y le dirás que le darás noticias de allí. Que te deje ir un poco (por poco tiempo). Y he ahí una avellana. Sacarás de ella las ropas que tú necesitas. Y la romperás al ir al lugar donde es (se celebra) la fiesta(3).

Al anochecer le pide pues a la mujer permiso para ir a ver la fiesta que da el rey, un instante solamente. Que vendrá enseguida decir qué ha visto allí. La mujer le dice que sí.

behar beititu besta eder batzuek, gan behar duzu hekietarat. Egun arratsean galdetuko duzu permisioñea[3] andreari eta erranen diozu emanen diozkatzula hango berriak. Utz zaitzala gaterat piska bat. Eta horra hur bat. Hortarik atheratuko dire zuk behar dituzun arropak. Eta hori hautsiko duzu besta den tokirat gatean[4](3).

Arratsean galdetzen du beraz andreari permisionia gateko erregek ematen duen bestaren ikhusterat, istant bat xoilki. Ethorriko dela kusian erraterat han zer ikhusi duen. Andreak erraten dio baietz.

Al anochecer va pues. En el camino rompe su avellana. De allí saca una ropa de plata. Cuando se la pone encima va, y tan pronto como entra ella todo el mundo queda cautivado mirándola.

El hijo del rey no la deja ni por un instante. Están bailando siempre juntos. El rey no hace nada de caso a las otras mujeres jóvenes. Toman los refrescos muy gustosamente.

Unos amigos suyos llaman al rey y lo llevan, y en ese intervalo nuestra Fidel escapa a casa.

Le dice a la reina cómo una joven mujer ha venido y ha cautivado a todo el mundo y, particularmente, que el rey no se ha ocupado más que de ella. Pero que se le ha escapado.

Cuando llega el hijo a casa, la madre le dice:

—Se te ha escapado pues tu joven mujer. Parece que no te queríai.

Le dice a la madre:

—¿Quién te ha dicho eso?

—Piel de Burro, pues ha querido ir a ver.

Aquel rey hijo va al lugar donde estaba Fidel y le da dos patadas con sus pantuflas, diciéndole:

—Si vienes más, allí mismo te mataré.

Arratsean badoha beraz. Bidean hausten du bere hurra. Handik atheratzen da arropa zilliarrezko bat. Hura soñian ematen duenian badoha, eta hura sartu orduko mundu guzia hari beira soratuba da.

Erregeen semeak ez du uzten istant bat. Ari dire dantzan bethi batean. Bertze andre gazteri ez du erregek batere kasurikan egiten. Freskamenduak hartzen dituzte ederki.

Erregeri bere lagun batzuek oihu egin eta ereman arazten dute eta tarte hartan gure Fidel eskapatzen da etxerat.

Erraten dio erreginari nola andre gazte bat ethorri den eta mundu guzia soratu duen eta partikulazki, errege ez dela hartaz bertzerik okupatu. Banian eskapatu zaioela.

Heldu denian semea etxerat, amak erraten dio:

—Eskapatu zaik beraz hire andre gaztea. Ez zikan aparantziaz hire gutiziarik.

Erraten dio amari:

—Nork erran zaitu hori?

—Astolarruk, ikhusterat nahi izan beitu ethorri.

Errege seme hura badoha Fidel zen tokirat eta ematen diozka bi ostiko bere pantuflarekin, erraten dioelarik:

—Geihago ethortzen balin bahaiz, han berian hillen haut.

Al día siguiente va Piel de Burro con los gansos. Le aparece otra vez la vieja. Le dice que tiene que ir al anochecer también al ballet. Que la mujer le dará permiso.

—He ahí una nuez.

Que ahí tendrá lo que necesite para vestirse y que el rey le preguntará cómo se llama. Y que le dirá: «Braf le mandufle»(4).

Al anochecer pide permiso a la mujer de la casa. Se lo da, pero está sorprendida. Le dice:

—¿No sabes qué te ha dicho el rey?. Si te encuentra allí, que te matará allí mismo.

— No tengo miedo. No me cogerá, seguro.

—Vete pues.

Biharamunian badoha Astolarru antzarekin. Agertzen zaio berritz ere atxoa. Erraten dio gan behar duela arratsean era balerat. Andreak emanen dioela permisioña.

—Horra heltzaur bat.

Hor izanen duela behar duena beztitzeko eta erregek galdetuko dioela nola duen izena. Eta erranen dioela: «Braf le mandufle»[5](4).

Arratsean galdetzen du permisioñea etxeko andreari. Ematen dio, bainan harritua da. Erraten dio:

—Ez dakin zer erran hauen erregek. Atzematen balin bahau han, hillen abela han berian.

— Ez naiz beldur. Ez nau segurki atzemanen.

—Hua beraz.

Va en el camino. Rompe su nuez. Le sale una ropa de oro. Entra el rey. Le viene con mil cumplidos. Le dice cómo se fue pues la víspera sin decirle nada a él. Que estuvo bien apenado. Se divierten bien.

El rey no tiene ojos más que para ella, le pregunta cómo se llama. Le dice «Braf le mandoufle». Toman los refrescos gustosamente y habiéndole llamado unos amigos va adonde ellos y escapa su joven mujer.

Badoha bidean. Hausten du bere heltzaurra. Atheratzen zaio arropa bat urrezkoa. Sartzen da errege. Heldu zaio milla konplimendurekin. Erraten dio nola gan zen bada bezperan hari deusik erran gabe. Ungi penatua izan zela. Ungi jostatzen dire.

Erregek ez du begirik harentzat bertzerik, galdetzen dio nola duen izena. Erraten dio «Braf le mandoufle». Ungi hartzen dituzte freskamenduak eta lagun batzuek oihu iñ

Piel de Burro va a decirle a la reina que le ha venido al rey la misma joven mujer de la víspera, todavía más hermosa que la víspera. Pero que se le ha escapado otra vez en medio de la fiesta. Va adonde sus gansos.

Llega el rey a casa. La madre le dice:

—¡Ha venido pues la mujer que tú amas! Pero ella no te ama tanto pues se ha ido de esa manera.

—¿Quién te ha dicho eso?

—¡Piel de Burro!

Va adonde ella y le da dos patadas con su pantufla y le dice que pobre de ella si va otra vez allí, que la matará allí mismo.

eta badoha hekietarat eta eskapatzen da bere andre gaztea.

Astolarru badoha erraterat erregiñari ethorri zaioela erregeri bezperako andre gaztea, bezperan banion ederrago orainion. Banian eskapatu zaioela orainion bestaren erditan. Badoha bere antzaretarat. Heldu da errege etxerat. Amak erraten dio:

—Ethorri da beraz zuk maite duzun andrea! Banian harek ez zaitu hanbat maite gan denaz geroztik funts[6] hortan.

—Nork erran zaitu hori?

—Astolarruk!

Badoha harenganat eta ematen diozka bi ostiko bere pantuflarekin eta erraten dio, malur harentzat gaten bada berritz harat, hilen duela han berian.

Al día siguiente va con sus gansos. Le viene otra vez aquella vieja. Le dice que pida otra vez permiso para el anochecer, que tiene que ir al baile. Le da un melocotón, que allá tendrá lo que necesita para vestirse.

Va pues a preguntarle a la mujer si le dejará como la víspera ir a la fiesta. Le dice:

—¡Sí, sí! Te dejaré, pero ¿no tienes miedo de que el rey te encuentre? Ha dicho que te matará si vas.

—No me asusto porque estoy segura de que no me encontrará. Ayer también me ha buscado pero no (me ha) encontrado.

Va pues. Abre en el camino su melocotón y saca un ropa toda de diamante. ¡Si antes era hermosa, pensad ahora! Brillaba como el sol.

El rey se puso muy alegre al verle. Estaba cautivado. No quería bailar. Se sentaron a su gusto en unos hermosos sillones; y, los refrescos delante, pasaron mucho tiempo hablando. El rey le pide que le de la palabra de casarse. La joven mujer le da su palabra de que ellos se casarán, y el rey le da, quitándoselo de su dedo, su anillo de diamantes.

Sus amigos le dan un grito, que vaya prontamente a ver una cosa valiosa. Va dejando a su joven mujer y (ésta) se aprovecha de ese momento para escapar a su casa(5).

Biharamunian badoha bere antzarekin. Heldu zaio berritz ere emazteki xahar hura. Erraten dio galde dezan arratseko berritz ere permisioñia, gan behar duela dantzarat. Ematen dio melokoton[7] bat, han izanen duela behar duena beztitzeko.

Badoha beraz andereari galdetzerat iyan utziko duen bezperan bezala gaterat bestarat. Erraten dio:

—Ba, ba! Utziko zaitut, bañian ez zare beldur erregek atzematea[8]. Erran du hilen zaituela gaten balin bazare.

—Ez naiz izitzen zeren segur naiz ez nauela atzemanen. Atzo ere billatu nau bañan ez atzeman.

Badoha beraz. Idikitzen du bidean bere melokotoña eta atheratzen du arropa bat deña diamantezkoa. Lehen ederra balin batzen, pentsa azue orai! Distiratzen zuen iguzkiak bezala.

Errege bozkariotan sartu zen hura ikhustearekin. Soratua zen. Ez zuen hari nahi dantzan. Beren aisian jarri ziren fotil eder batzuetan; eta freskamenduak aintzinian, mintzuan pasatu zuten hainbertze denbora. Erregek galdetzen dio eman diozan ezkontzeko itza. Andre gaztiak ematen dio bere itza ezkonduko direla elkharrekin eta erregek ematen dio bere erritik kendu eta bere erreztun diamanta.

Bere lagunek egiten diote oihu bat, duala laster gauza balios baten ikhusterat. Badoha bere andre gaztea utzirik eta mementu hartaz baliatzen da eskapatzeko bere etxerat(5).

Va a contarle al ama de casa qué pasó, cómo aquella joven mujer arribó con una ropa de diamante y todo el mundo quedó cautivado por su belleza.

No la podían mirar, brillaba de tal modo. El rey no sabía dónde estaba por su alegría. Se han dado la palabra para casarse, y el rey le ha dado su anillo de diamantes, pero el más bonito. Hoy también se le ha escapado.

Llega al instante el hijo del rey. La madre le dice:

—Que no, que no te desea. Se te ha ido escapada con tu diamante. ¿Dónde vas a ir en su busca? No sabes ni dónde suele estar. ¿Dónde vas a preguntar por una joven mujer que se llama «Braf le mandufle»? Y te ha dado también la palabra de casarse, pero no te desea ya que hace (actúa) así.

Badoha etxeko andreari kondatzerat zer pasatu zen, nola andre gazte hura arribatu zen arropa diamant batekin eta mundu guzia soratua zen haren edertasunaz.

Ezin beiratu zitzaioen, hala distiratzen zuen. Erregek ez zakien non zen bozkarioz. Itzak eman dituzte elkharri ezkontzeko eta erregek eman dio bere erreztun diamanta, bañian pullitena. Egun ere ihesi gan zaio.

Heldu da da istantian erregeren seme hori. Amak erraten dio:

—Ez dik, ez dik hire gutiziarik. Ihesi gan zaik hire diamantarekin. Norat ganen haiz haren billa? Ez dakik non egoten den ere. Non galdetuko duk andre gazte bat izena duena «Braf le mandufle»? Eta eman hau itza ezkontzeko ere, banian ez dik hire gutiziarik hola egiten duenaz geroz.

Nuestro señor rey no le preguntó a su madre quién se lo había dicho. Fue a la cama pues estaba enfermo y así, Piel

Gure jaun erregek ez zioen galdetu bere amari nork erran zioen. Oferat[9] gan zen eri zela eta hala, Astolarruk ez zi-

de Burro no tuvo (recibió) dos patadas aquella noche. La reina tenía mucha pena de ver a su hijo así enfermo. Su cabeza estaba siempre en buscando quién podía ser (aquella mujer). Le dice a su hijo:

—Acaso es nuestra piel de burro tu mujer. ¿Ésa cómo va a saber si no qué os habíais dado el uno al otro, y que le diste también el anillo? Debía estar bien cerca de ti. ¿La has visto?

Le dice que no y se pone a pensar. La madre le dice que tiene una cara hermosa debajo de su piel de burro y la madre le dice que la tiene que hacer traer y que ya la verá él. Que tomará el caldo dado por ella. Hace traer a piel de burro a la cocina. Le hace preparar el caldo para su hijo y piel de burro pone dentro del pan el anillo que le dio el rey. Habiendo sido muy bien vestida por la mujer va ante el rey.

Habiéndola visto el rey estaba aún en dudas y bebió su caldo. Cuando lleva el pan a la boca descubre algo y se sorprende bien de descubrir su anillo. No estaba ya enfermo. Va corriendo a decirle su alegría a su madre, que ha encontrado a su mujer. Quiere casarse inmediatamente.

tuen izatu bi ostiko arrats hartan. Erreginak pena zuen hañitz, bere seme ikhustea hala eri. Bethi haren buruba billa zabillan jakiteko nor ahal zitaken. Erraten dio bere semeari:

—Gure astolarru ote da zure andrea. Horrek nola jakinen zuen bertzela elkharri emanak ziñatela eta erreztuna ere eman ziñoela? Ungi urbil behar zuen izan zuen ganik. Ikhusi duk?

Erraten dio ezetz eta badago gogoetan. Amak erraten dio arras bisaia ederra duela bere astolarruaren azpian eta amak erraten dio ekhar arazi behar duela eta ikhusiko duela berak. Salda harek emanik hartuko duela.

Ekhar arazten du astolarru sukalderat. Salda prepara arazten dio bere semearentzat eta astolarruk ematen du ogiaren barnean, erregek eman zioen erreztuna. Andreak ederki bezti arazi eta badoha erregeren aintzinerat.

Erregek ikhusi eta dudetan zen orainion eta edaten zuen bere salda. Ogia eman duenean agorat atzematen du zerbeit eta ungi harritzen da atzematearekin bere erreztuna. Ez zen gehiago eri. Badoha lasterka bere amari erraterat bere bozkarigua, atzeman duela bere andrea. Berehala nahi du ezkondu.

Todos los reyes de los alrededores están convidados. Hacen unas hermosas fiestas y mientras estaban comiendo todos decían alguna bonita historia. Le dicen a la mujer esposa si no sabe pues algo ella también. Dice que sí pero que no puede decir las cosas que ella sabe. Que en aquella mesa todos no estarían contentos. Su marido le dice que hable con valentía. Se quita (saca) su espada y dice:

—El que habla será pasado por esta espada.

Dice pues cómo una chica pobre fue de criada a casa de un rey. Cómo estuvo allí siete años. Que la quisieron mucho y le dieron toda la confianza hasta el punto de darle las llaves del tesoro. Un día en que el rey y su mujer estaban fuera entraron ladrones y robaron casi todo el tesoro. El rey no quiso creer que habían venido ladrones. Tuvo a la chica presa por un año y al cabo de ese tiempo la mandó matar diciendo a sus verdugos que trajeran su corazón a casa. Aquellos verdugos fueron mejores que el rey. Creyeron que era inocente, mataron un burro y llevaron su corazón al rey.

—Y he ahí. Yo soy la criada de aquel rey.

Dice su señor esposo:

—¿Quién es por ventura aquel rey? ¿Este tío mío?

La mujer le dice:

—No sé si es tu tío, pero es ese señor.

El señor esposo coge su espada y lo mata allí mismo, diciéndole a su mujer que no tendrá más miedo de aquél.

Vivían muy felices. Al cabo de un tiempo tuvieron dos niños, un chico y una chica.

Ingurutako errege guziak konbidatuak dire. Egiten dituzte besta eder batzuek eta bazkaiten ari zirelarik denek erraten zuten zerbeit berri eder. Erraten diote andre esposari ere iyan ez dakien bada zerbeit harek ere. Erraten du baietz banian ezin erran ditazkela harek dakizkienak. Mahain hartan denak ez litazkela kontent. Bere senharrak erraten dio mintza dadiela hausarki. Kentzen du bere ezpata eta erraten du:

—Itz egiten duena ezpata huntaz pasatua izanen da.

Erraten du beraz nola neskatxa pobre bat gan zen sehi errege baten etxerat. Nola han egotu zen zazpi urte. Hañitz maitatu zutela eta eman konfidentzia guzia tresoretako gakoak eman artiñon. Egun batez errege eta bere andrea kanpoan zirelarik ohoñak sartu eta ebatsi zuten kasik tresor guzia. Erregek ez zuen sinetsi nahikatu ohoñak ethorri zirela. Eman zuen neskatxa preso urte batez eta denboraren buruan egorri zuen hiltzerat erraten ziotelarik bere burreberi[10] ekhartzeko haren bihotza etxerat. Burreba hekiek errege banion obeak izan ziren. Sinetsi zuten inozent zela, asto bat hil eta ereman zuten haren bihotza erregeri.

—Eta horra. Ni naiz errege haren sehia.

Erraten du jaun esposak:

—Nor ote da errege hura? Nere osaba hau?

Andreak erraten dio:

—Ez dakit iyan zure osaba den, bañian jaun hori da.

Jaun esposak hartzen du bere ezpata eta hiltzen du han berean erraten dioelarik bere emazteari ez duela haren beldurrikan izanen geihago.

Bizi ziren hañitz urus. Zenbeit denboraren buruban izan zituzten bi haur, mutil bat eta neska bat.

Cuando tenía siete años el mayor murió diciendo a su padre y madre que iba al cielo a hacerles un sitio.

Al cabo de ocho días se les muere el otro niño también y

Zazpi urte in zituenean zaharrena hil zen erraten ziotelarik bere aita eta amari zerurat zuala hekien plaza egiterat.

Zortzi egunen buruan hiltzen zaiote bertze haurra ere eta

les dice que también va al cielo y que les tendrá el sitio listo a ellos también. Que vendrán pronto adonde ellos y, tal como había dicho, al cabo de un año justo justo se murieron el señor y la señora y fueron al cielo el señor y la señora.

(Laurentine).



"Sarpedón elevado por Tanatos e Hipnos".

Muerte
Se murieron el señor y la señora
y fueron al cielo el señor
y la señora.

Heriotza
Hil ziren jaun andreak
eta gan zerurat jaun andreak.

Notas:

1 Expresión que significa «golpeada con la zapatilla» (Nota del Traductor).

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) «Peau d'Ane».

(2) «Fidèle».

(3) En ese momento le preguntamos a la narradora: «¿Era el palacio del rey el lugar donde iba a celebrarse la fiesta?» «No», respondió ella muy seria, «era en el mairie» (en francés en el original. «Mairie» es un ayuntamiento o edificio similar de un «arrondissement» o municipio. N.T.). En otros relatos es en la «place», es decir en la plaza de mercado que hay en la mayoría de los pueblos y aldeas del sur de Francia, situada generalmente frente a la iglesia o al mairie.

(4) Se nos explicó que significaba «Golpeada con la zapatilla». Esta versión procedía del Cascarrot, el barrio semigitano de San Juan de Luz, y quizá no sea puramente vasca. Con excepción de una o dos palabras el lenguaje es bastante correcto para tratarse de San Juan de Luz.

(5) Ante la exclamación de sorpresa de uno de los oyentes, el narrador dijo piadosamente: «Fue la Santa Virgen quien permitió todo aquello.»

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 153.

Trad. J.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 158.

→ Ver Apéndice, pág. 428.

erraten diote hura ere zerurat duala eta tokia prest atxikiko diotela hekieri ere. Ethorriko direla laster hekienganat eta erran bezala, urte baten buruan justu justuba hil ziren jaun andreak eta gan zerurat jaun andreak.

(Laurentine).

Hiztegia

1 tresor: altxor; 2 faltadun: hobendun; 3 permisione: baimen; 4 Itzulpenaren notatxo batek dio «Ipuia kondatzen zionari galdetu zioten, erregek ez ote zuen besta bere etxean egiten. Erantzuna: ezetz. Herriko etxean zela»; 5 Braf le mandoufle: «Frappe avec la pantoufle, Kaskaroten mintzairetik?» dio Webster-ek. Bezperan gertatua gatik? 6 funts: molde; melokoton: mertxika, tuaxa; 8 atzeman: harrapatu; 9 ofe: ohea; 10 burreu: urkatzaile, berreroa.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) «Peau d'Ane».

(2) «Fidèle».

(3) Une horretan emakume kontalariari galdetu genion: «Erregeren jauregia al zen festa ospatu behar zen lekua?» «Ez», erantzun zuen berak oso serio, «Udaletxean zen» (jatorrizkoan frantsesez dago. «Mairie» udaletxe edo antzeko eraikin bat da, «arrondissement» edo udalerri batekoa. Itzul. Oh.). Beste kontakizunetan «place», Frantziako hegoaldean herri eta herrixka gehienetan dagoen azokako plazan ematen da, normalean elizaren aurrean edo mairie-aren aurrean.

(4) «Zapatatxoaz jotzea» zer zen adierazi zitzaigun. Bertsio hau Cascarrot-etik zetorrena zen, Donibane-Lohizuneko auzo erdi-ijitotik eta agian ez da euskaldun garbi-garbia izango. Hitz pare baten salbuespenez, zuzen samarra da hizkera Donibane-Lohizune izateko.

(5) Entzule baten harridura-oihuaren aurrean, kontalariak errukiturik esan zuen: «Amabirjina Santua izan zen hura gertatzen utzi zuena».

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 153. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 158. or.

→ Ikus Eranskina, 428. or.

El rey

(W.W.)

510B. El vestido de oro, de plata, y de estrellas

Éranse una vez un rey y una reina, como tantos otros en el mundo. Tenían una hija.

Un día, aquella mujer cae enferma y habiendo empeorado mucho, le dice a su marido que no se casara sino con alguien que se pareciera a ella. Esta mujer murió y al cabo de cierto tiempo el rey quiso casarse. Andaba de pueblo en pueblo buscando a alguien que se pareciera de su mujer, pero no la podía encontrar. Sólo su hija tenía un gran parecido a su madre.

Empieza a dar pregones de pueblo en pueblo, pero era inútil. No encuentra a nadie y se decide a casarse con su

Errege

(W.W.)

510B. Urrezko, zilarrezko eta izarrekiko jantzia

Asko munduan bezala, baziren errege bat eta erregiña bat. Bazuten nexka bat.

Andre hura eritzen da eta arras txar zelarik erraten ziguen bere senarrari ez zadien ezkont haren iduriko norbeitekin bertzeik. Andre hori hiltzen da eta zenbeit denboraren buruban nahi zuen ezkondu. Bazabillan herriz herri bere emaztearen eiteko norbeit atzeman nahiz, bañan ez zezakeen atzeman. Haren haurrak zuen bakarrik bere amaren eite handia.

Kridatzen hasten du herri guzietan, baiñan inutil zen. Ez du kausitzen eta dezidatuba da bere alabarekin ezkontzia,

hija, pues ésta al menos, se parecía a su madre. Esto se lo dice a su hija, ¡imagínense que desgracia suponía esto para ella! no quería ni oírlo.

hura bederen bere amaren idurikua beita. Erraten dio bere alabari hori. Pentsa zazu zer xangriña harentzat. Ez zuen nahi nihondik aditu hori.

Un barco iba a partir y [esta hija] le dijo a su criada que tenía que irse, pero que lo guardara en secreto. Transportaron todos los enseres de más valor de la princesa, y una noche sale. El capitán y su ayudante fueron sumamente honrados con ella.

Bajan del barco y se dirige a un buen hotel. Una vez allí, pregunta si conocían en aquel lugar a alguien que necesitara de una sirvienta. Le respondieron que sí y la condujeron a la casa del rey. Allí preguntó si tenían alguna plaza de sirvienta. Le respondieron que sí. Que precisamente aquella mañana se había marchado la otra ansarera y que podía quedarse en su lugar. Vuelve a su hotel. Allí deja sus pertenencias en una arca. Se viste con una piel de oveja y va al castillo.

Allí solía dormir en un establo con sus gansos y partía a la mañana temprano cantando y cantando, y para la noche volvía a casa. Los demás criados no le querían nada. Siempre se rascaba por debajo de la piel de oveja sentada al lado del fuego y esto disgustaba a los demás.

Aquel rey tenía un solo hijo y pidió a sus padres permiso para hacer unas fiestas para encontrar esposa. Las fiestas duraron tres días. Los demás sirvientes decían que irían a gusto al baile y Marmitón también decía que iría. Marmitón era el nombre que le habían puesto a nuestra princesa. Y pide permiso a su ama para poder mirar por el agujero de la cerradura durante una hora. Le responde que sí.

Untzi bat beitzen abian zena erraten dio bere filiari behar duela partitu, baiñan sekretuba atxik dezan. Garraiatzen dituzte printzesa haren puska baliosen guziak eta gau batez partitzen da. Mahistruba eta ondokua arras gisakuak izatu ziren harentzat.

Jausten dire untzitik eta gida arazten du bere buruba hotel on batetarat. Han galdetzen du iyan badakiten ingurutan sehi beharretan nihor. Erraten diote baietz eta gidatzen dute erregeren etxerat. Eta galdetzen du iyan baduten neskatxa plaza bat. Erraten diote baietz. Preseski goizean gana dutela bertze antzara gardatzailla eta haren plaza hartuko dubela. Badoha bere hotelerat. Han uzten du bere mala. Beztitzen da ardi ille batez eta badoha xatorat.

Establia batean egiten zuen lo bere antzaraekin eta partitzen goizian goiz kantuz errepikaz eta ethortzen hilluneko etxerat. Bertze sehiek ez zuten maite batere. Supazterrian beti hazka egiten zuen bere ardi larrubaren azpian eta bertzeak desgusta arazten zituen.

Errege harek bazuen seme bakar bat eta galdetu zuen besta batzuek itia bere aita ameri emazte bat atzemateko. Hiru egunez izan ziren bestak. Bertze sehiek erraten zuten ganen zirela gogotik balarat eta Marmitonek ere erraten zuen ganen zela. Marmiton eman zioten izena gure printzes hari. Eta galdetzen du permisioñea bere etxeko andreari oren batez, iyan utziko zuen gako zilotik begiratzerat. Erraten dio baietz.

Va al hotel y allí se viste muy bien y se va al baile. Nada más entrar ésta, todo el mundo quedó embobado y particularmente el hijo del rey. Éste quería bailar todos los bailes con ella durante todo el tiempo. Pero viendo en su reloj la joven mujer que ya llevaba allí una hora, quiso salir de allí. Aquel hijo del rey quería retenerla, pero le repetía que tenía una patrona terriblemente mala y cruel. Que no la dejaría volver más. Y no quiso que la siguiese.Va al hotel a desnudarse.

Badoha hotelerat eta han beztitzen da ederki eta badoha balarat. Hura han sartu orduko mundu guzia zoratzen da eta erregeen semea partikularrean. Dantza guzietan harekin ari nahi zuen denbora guzian. Bañean andre harek bere muntran ikhusi eta bazuela oren bat han zela ilki nahi izan zuben. Errege seme harek nahi zuben atxik arazi, bañean erraten ziguen bazuela gaozama bat arras gaxtua eta krudela. Ez zubela gehiago utziko ethortzerat. Eta ez zuen nahikatu segi zezan. Badoha hotelerat billuzterat.

Al llegar a casa cuenta lo que había visto en el baile, cómo vino una hermosa mujer y cuán agradable era ésta al hijo del rey. Y pide permiso a su ama que le dejara volver al día siguiente por dos horas. Se lo da.

Llevaba puesto un vestido todavía más hermoso que el del día anterior. El rey estaba embobado con la hermosura de aquella joven y no la abandonaba. Al ver en su reloj que había llegado su hora, al cabo de dos horas se va.

Bere etxerat gan eta kondatzen du balan zer ikhusi duen, nola ethorri den andre eder bat eta erregeren gustukoa zela hanitz. Eta galdetzen du etxeko andreari biharamuneko permisionia bi orenentzat. Ematen dio.

Ematen du arropa bat, bezperakua bañion ederragua geihago. Erregea zoratuba da haren edertasunaz eta ez du kitatzen. Bere muntran ikhusi bere tenoria ethorria zuela eta badoha bi orenen buruan.

Cuando llega a casa, cuenta qué había pasado en el baile y cómo aquella hermosa mujer estuvo durante dos horas, y pidió permiso de tres horas para el día siguiente. La ama se lo da.

Esta vez lleva puesto un vestido más hermoso que las veces anteriores. Todo el mundo estaba extrañado. El rey le entregó una sortija y ésta se marcha al cabo de tres horas. El hijo del rey la quiso seguir hasta su casa. Pero ella no lo quiso.

Etxerat arribatzen deñian erraten du zer pasatu den balan eta nola andre eder hura egotu den bi oren eta galdetzen du permisionia biharamuneko hiru orenentzat. Ematen dio etxeko andreak.

Ematen du arropa bat bertzeak bañon hanitzez ederragua. Mundu guzia estonitua dago. Erregen semeak ematen dio erreztun eder bat eta hiru orenen buruban badoha. Erregeren semeak nahi zuen segitu bere etxeañion. Bañian ez zuen nahi izan.

Se prometieron ver al día siguiente para ir a alguna parte. El hijo del rey no durmió en toda la noche. Fue al lugar concertado. Pero no le llega nadie a la cita, marcha tristemente a su casa y de día en día su pena fue en aumento.

Su madre le dice:

—¿Qué pasa hijo, te has divertido mucho? ¿Por qué estás tan triste?

Le responde que había conocido a alguien, pero que no sabía a dónde se había marchado, ni tampoco quién era. Y que no tenía a nadie más que a ella en su mente.

La madre buscaba, buscaba y buscaba, averiguando quién debía de ser. Y recuerda cómo Marmitón sabía todo lo referente al baile. Y preguntó a su hijo si podía ser aquélla. Todo el mundo empezó a reír, y el hijo del rey no quería que se hablara de aquello.

La madre le dijo que deberían asegurarse y que el hijo del rey tenía que ir al bosque antes que Marmitón. Y si allí viera construida una casita, ello podía ser una pista.

Va el rey al bosque y allí encuentra debajo de un roble una pequeña y bonita cabaña. Sube encima del roble y oye a lo lejos el hermoso canto de Marmitón. Ella llega a su cabaña. Se quita la piel de oveja y debajo de ésta llevaba una bonita saya blanca.

Así se pone a peinar con un hermoso peine de oro. Al anochecer ella va en busca de sus gansos y entonces baja el hijo del rey, y va a casa de su madre a contar lo que ha visto.

Se siente apenado al pensar cómo la habían dejado en un viejo establo por tanto tiempo. No sabían qué pensar. La madre dice que su hijo debería ponerse enfermo (hacerse el enfermo). Que dirán que no quería tomar el caldo de la mano de nadie, pero sí de la mano de Marmitón.

Hicieron pues según lo acordado. Y Marmitón dice que no lo dudasen, que ella se lo llevaría. Se quita su piel de oveja y se presenta lindamente vestida. La cocinera tenía preparado el caldo.

Coloca Marmitón la sortija que le entregó el rey en el plato y sube arriba. Nada más entrar en la habitación, el rey reconoce a su dama. No tuvo necesidad del caldo para curarse. Mandó llamar a su padre y a su madre y prepararon la boda.

Después de casarse, le dan la noticia al padre de Marmitón. Viene y vivieron felices todos juntos.

La sortija
El rey le entregó una sortija.

Eraztuna
Erregen semeak ematen dio erreztun eder bat.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 113.

Trad. K.U. y E.A.

Este cuento no fue publicado en inglés por Webster.

Biharamuneko elkar ikus zezaten hitz hartu zuten noapeit gatea. Erregen semeak ez zuen lorikan egin gau guzian. Gan zen erran tokirat. Baiñan nihor ez zaio heldu. Badoha tristeki etxerat eta egunetik egunerat haren pena handiago zen.

Bere amak erraten dio:

—Zer bada semea, ungi jostatu zare. Nola zare bada hoin triste?

Erraten dio nola in duben ezagutza bat bañian ez dakiela ez nora gan den eta ez zer den. Eta hura bertzeik ez du dubela goguan.

Ama badago billa, billa, billa, nor izan behar ote den. Eta oroitzen da nola Marmitonek bazakizkien balako berri guziak eta erraten dio bere semeari iyan hura ote litakeen. Denak ematen dira irriz eta erregen semeak ez du nahi erran dezaten hori.

Amak erraten dio behar dutela segurtatu eta gan behar dubela erregen seme harek Marmiton bañion lehenago oihanerat. Eta han ikhusten badu antolatu duela etxe txiki bat, izan ditakela zerbeit.

Errege badoha eta atzematen du haritz azpi batean etxe olha pulli pullit bat. Izatzen da haritz haren ganeat eta aditzen du urrundik Marmitunen kanta ederra. Arribatzen da bere etxeolharat. Kentzen du bere ardi larruba eta bazuen arroba xuri eder bat haren azpian.

Ematen da orraztatzen orraze urre eder batez. Ilhuntzian badoha bere antzaren billa eta orduan jausten da erregen semea eta badoha etxerat amari kondatzerat zer ikhusi duen.

Penatuba da nola utzi duten heia zahar batean hainbertze denbora. Ez dakite zer pentsa. Amak erraten du behar dubela haren semeak eri gelditu. Erranen dutela ez duela nahi nihoren eskutik salda hartu, bañian naski, Marmitunen eskutik hartuko dubela.

Iten dute beraz erran bezela. Eta Marmitunek erraten du eremanen diguela segurki. Kentzen du bere ardi larruba eta agertzen da ederki beztitua. Salda emana zuen kuziñariak prest.

Ematen du Marmitonek trintsonian erregek emanikako erreztuna eta badoha goiti. Erregen gelan sartu orduko ezagutzen du bere andrea. Ez zuen salda beharrik sendatzeko. Ekhar arazten ditu bere aita eta ama eta ezkont arazten dute.

Ezkondu onduan ematen diote parte Marmitonen aitari. Ethortzen da eta elkarrekin urus bizi izan ziren.

Hiztegia

1 eite: antza; 2 kridatu: bandoa egin; 3 filia: sehi, neskato; 4 puska: jauntzi eta beste; 5 mahistruba: barkuko kargua; 6 gisako: zintzo; 7 mala: bere jauntziak barnean dauzkan kutxa; 8 establia: behitegi; 9 bala: dantzaldia; 10 muntra: ordularia; 11 goazama: ugazama; 11b etxe olha: etxola; 12 izatu: igotu, igo; 12b arroba: zaia; 13 heia: behitegi; 14 eri: gaixo; 15 kusiñari: sukaldari; 16 trintsoñia: platera, azita; 17 urus: zoriontsu.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 113. or.

Webster-ek ez zuen inglesez argitaratu.

Personajes de los cuentos

Diablos y brujas

Bein da betiko.

Una vez y para siempre.

Akelarre

En cuanto Ellande sube arriba, en un viento terrible, ahí llegan las brujas encima de las brujas muchas. En mitad de ellas, Sorgin-Nausia o la Bruja Mayor, con un gran libro en el regazo.

Akelarre

Ellande sekulan gainerat orduko, izigarrizko haize batean, hor heldu dira sorginak sorginen gainean. Heien erdian, Sorgin-Nausia, liburu handi bat galtzarpean.

Vuelo de brujas

Luego, frun, frun, frun, la Bruja Mayor pasó a través de las nubes, y allí mismo desapareció inmediatamente...

Sorginen egaldia

Eta gero, frun, frun, frun, hedoietan barna igan zen Sorgin-Nausia, eta hantchet suntsitu berehala...

El viudo

(W.W.)

510B. El vestido de oro, de plata, y de estrellas

Érase una vez un rey. Y tenía una mujer muy hermosa y le quería mucho.

Aquella pobre mujer un día quedó enferma, y el mal la cogió gravemente.

Un día le dijo a su esposo:

—Yo me moriré (voy a morir), pero no debes casarte (de nuevo) mas que con alguien como yo. (que se me parezca). Y aquella mujer se murió.

Tenían una hija que era igual igual que su madre; el padre le dice a su hija que algún día deben casarse los dos. La hija se lo contó enseguida a su abuela. La abuela le dijo:

—Le tienes que decir a tu padre que si quiere casarse contigo, tiene que hacerte un vestido de cien alas de mosca.

Y se lo pide a su padre y éste le dice:

—Pero criatura (querida mía) ¿cómo es eso posible? Pero, aun así, me empeñaré.

Y un día trajo comerciantes de telas. Y entre todos le hacen el vestido con cien alas de mosca.

Va la joven atropelladamente. Se lo dice a su abuela. La abuela le aconseja que vaya de casa en casa preguntando si necesitaban (alguna) criada. Y llega a casa de un rey. Llama a la puerta y pregunta a ver si necesitaban alguna cuidadora de ocas.

—Sí, precisamente: Ayer se marchó (la que teníamos).

Y le hacen entrar. Y matan un burro y lo despellejan, (y) le entregan la piel de aquel de burro con sus orejas. Y así tenía un aspecto del todo desagradable .

Un día hacen una grandísima fiesta en aquella ciudad y aquel hijo de rey estaba en ella. ¿Qué hace aquella chica? Decide que ella también tiene que ir a la fiesta. Y cuando ha anochecido se le aparece una vieja, y le dice:

—Chica (jovencita), ¿qué es esa tristeza?

Le dice:

—Todos en (están) la fiesta y yo aquí estoy sola y triste en casa.

Le dice:

—Pega el agua con un palo.

Pega y le viene una nuez. La abre. Le sale un vestido hermoso, como hasta hoy nadie ha visto. Y todavía no sabía qué hacer.

Pega otra vez la misma agua. Y le ha llegado una hermosa carroza con sus caballos. Se mete adentro, después de tirar su piel de burro.

Cuando ha llegado a la plaza, en cuanto baja de la carroza, le ha venido el hijo de rey (príncipe) que la tenía en casa. En nada le reconocía a aquella fea criada que la tenía en casa desde siempre. La coge y está extrañado de dónde habría llegado una princesa tan hermosa. Todo el mundo la miraba sorprendida. Estuvo bailando con aquel hijo de rey (príncipe).

Alarguntsa

(W.W.)

510B. Urrezko, zilarrezko eta izarrekiko jantzia

Behin batez bazen errege bat. Bazuen andre bat hainitz ederra eta hainitz maite zuena.

Andre gaixo hura egun batez gertatu izan zen eritzia, eta gaitzak hartu zuen arras lanjeroski.

Egun batez erraten dio bere jaunari:

—Ni hilen naiz, bainan ez duzu sekulan ezkondu beharko ni bezalakoarekin baizik. Eta andre hura hil zen.

Bazuten alaba bat, bere ama iduri iduria; aitak erraten dio bere alabari egun batez biak behar diela ezkondu. Alabak erraten dio kuxian bere amatxiri. Erraten dio amatxik:

—Erran behar diozu zure aitari, nahi bada zurekin ezkondu, behar duela egin zuretzat ehun uli hegalezko soin bat.

Eta galdetzen dio bere aitari, eta erraten dio:

—Bainan ene haurra, nundik dun posible? Bainan hala ere enseiatuko naun.

Eta egun batez ekhartzen ditu ehun dendari. Eta guzien artean egiten diote uli hegalezko soina.

Badoha andre gazte hura tarrapataka. Erraten dio bere amatxiri. Amatxik kontsultatzen dio gateko etxez etxe heian behar zen sehirik. Eta arribatzen da errege baten etxean. Jotzen du athea eta galdetzen du heian behar zuten antzara zainik.

—Bai, preseski. Atzo gana dugu.

Eta sar arazten dute. Eta asto bat hil eta larrutu, ematen diote astolarru hura bere beharriekin. Eta gero arras aire desgustagarria zuen.

Egun batez hiri hartan egiten dute terriblezko besta handia eta errege seme hura han zen. Zer iten du neskatxa harek? Deliberatzen du gan behar dela hura ere. Eta arratsa ethorri denian agertzen zaio atso zahar bat eta erraten dio:

—Neskatxa, zer duzu tristezia hori?

Erraten dio:

—Guziak bestan eta ni hemen naiz bakharrik triste etxean.

Erraten dio:

—Jo zazu makil batekin ura.

Jotzen du eta ethortzen zaio heltxaur bat. Idekitzen du. Atheratzen zaio egundaino nihork ikhusi ez duen abilamendu ederra. Eta oraino ez zakien zer egin.

Berritz jotzen du hura bera. Eta heldu zaio karrosa eder bat bere zaldiekin. Sartzen da haren barnean bere asto larrua botatu eta.

Plazan arribatu denian, karrosatik jaustiarekin heldu zaio etxean zuen errege seme hura. Ez zuen batere ezagutzen bethiko bere etxeko sehi afrus hura zela. Hartzen du eta estonitzen da nondik heldu othe zen halako printzesa ederra. Jende guzia harritua hari beira. Dantzan aritu zen errege seme harekin.

Al tocar (sonar) la medianoche, dice de debe marchar a casa. Él le dice que no. Pero se le va enseguida, y le da dos anillos.

Llega a la orilla de su agua (lago). Deja allí su hermoso vestido. Y para cuando el hijo de rey (príncipe) llegó a casa se había puesto (echado) ya su piel encima de la espalda.

El hijo del rey (el príncipe) aquél ya no veía a aquélla su joven y hermosa dama y, de aquel dolor se enferma.

Un día les dice aquella criada:

—Yo ya conozco un buen remedio para curar al joven señor

—¿Qué sabrás tú? Tú no sabes nada, sino andar (llevar) tu piel (pellejo) de burro. Apártate de aquí.

Ella les dice:

—Si yo le hago un bollo de pan, pronto estará curado.

Y le hace.

Para cuando empezó a comer el bollo de aquélla, encuentra sus anillos allá dentro. Se extraña y les dice:

—Pido que aquella criada venga a mi presencia , pero para que yo no me disguste que se quite de la espalda su piel de burro.

Ya viene y le dice a la chica joven:

—¿Eras tú la que en tal hora estabas bailando conmigo en la plaza?

Le dice enseguida que sí. Y:

—¡Pues bien (entonces)! Nos casaremos los dos.

Se casan. Ella mostró una hermosura mayor todavía y el castillo fue para ellos.

Si bien vivieron, bien murieron.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 51.

Trad. K.U. y E.A.

Este cuento no fue publicado en inglés por Webster.

Gauerdi jotzian erraten dio partitu behar dela etxerat. Erraten dio ezetz. Bainan abiatzen zaio kusi kusian, eta ematen diotza bi erreztun.

Arribatzen da bere uraren hegirat. Uzten du han bere abilamendu ederra. Eta errege seme hura arribatu zen etxean eta ordukotzat emana zen bere asto larrua bizkarretik.

Errege seme harek ez zuen gehiago ikhusten bere andre gazte eder hura eta xangrin hartarik eritzen da.

Egun batez erraten diote neskatxa harek:

—Nik badakit jaun gazte hori sendatzeko erremedio ona.

—Hik zer dakin? Ez dakin fitsik, hire asto larrua ibiltzen baizik. Aparta hadi hemendik.

Erraten diote:

—Nik egiten badiot ogi olata bat, laster sendatuko da.

Eta egiten dio.

Haren olata jaten hasi zueneko, atzematen ditu bere erraztunak haren barnean. Estonitzen da eta erraten diote:

—Galdetzen dut sehi hura jin dadiela ene aintzinerat, bainan ni sobera desgusta ez nadien, bota dezala bere astolarrua bizkarretik.

Badoha eta neskatxari erraten dio:

—Zu zinden halako orduan enekin plazan dantzan hari zindena?

Erraten dio berehala baietz. Eta:

—Ebien! Biak ezkonduko gare.

Ezkontzen die. Atheatu zuen oraino tualeta ederragokua eta beren xatua berentzat izatu zuten.

Ungi bizi bazien, ungi hil zien.

Hiztegia

1 eritu: gaixotu; 2 lanjeroski: irriskurekin; 3 idurikoa: antzekoa; 3b amatxi: amona; 4 dendari: jostuna; 5 aire desgustagarri: itxura nardagarri; 6 heltxaur: intxaur; 7 afrus: oso itsusi, izigarria; 8 kusian: berehala, bertan.

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 51. or.

Webster-ek ez zuen inglesez argitaratu.

Erregea ala gatza (el rey o la sal)

(J.M.B.)

510B. El vestido de oro, de plata, y de estrellas

Hubo un rey que tenía tres hijas, a las que planteó este problema:

—¿Qué os parece: yo o la sal es cosa más necesaria en el mundo?

La hija mayor le contestó:

—Tú eres más necesario que la sal.

La segunda contestó como la primera.

Erregea ala gatza

(J.M.B.)

510B. Urrezko, zilarrezko eta izarrekiko jantzia

Mundûn beste asko bezela, errege atek ementzeuzken iru alaba.

Beiñ alaba zârrenâri galdetu ementzion:

—¿Zer deizkion: ni ala gatza da bearrâgoko gauzea mundûn?

—Zu bearrágokoa zea gatza baño –eantzu' ementzion.

Galdêra berbera eiñ ementziên besta bi álabârirê,

La menor contestó:

—El mundo podría ser sin ti, pero no sin sal.

Entonces, por la respuesta de su hija menor, se enfadó el rey y ordenó a sus criados que, llevando a esa hija a una montaña lejana de todo poblado, le quitasen la vida, y que, arrancándole los ojos y el corazón, se los trajesen a él.

Conforme a lo ordenado por el rey, los criados llevaron al monte a esa hija del rey. También un perro fue con ellos.

Compadecidos de aquella joven, los criados se dijeron mutuamente:

—¿Por qué quitar la vida a esta desgraciada niña? Mejor será matar ese perro y llevar al rey sus ojos y corazón.

En efecto, despellejaron el perro, le arrancaron el corazón y los ojos y, dejando a la joven en el monte, fueron a entregar al rey los supuestos ojos y corazón de su hija.

Zârrenak bezela eantzu'ementzion batek; baño gaztênak esa'ementzion ze:

—Mundue zu bae izan litteke; baño ez gatz bae.

Urdûn errege oi erabat sutu ementzan, eta bê mórroiai aindu ementziên ze: alaba gaztênâri, urrutiko mendi'atea eaman-da, an bizie kentzêko; ta aren begik eta biotza atâ-ta, beâri ekartzeko.

Erregek aindu bezela, alaba oi môrroiak mendia eaman ementzoon.

txakur bat ê âkiñ batên jûn ementzan.

Mórroiak oso errukittu t'alkarri eitte ementzioên:

—¿Zetâko kendu bizie neskato gaixo oni? Obea dek, orroko zakur oi il-da, beorren begik eta biotza erregêri eamatea.

Baitta esan da eiñ ê. Narrutu zakurre, ta kendu biotza ta bi begik eta, neskea mendiñ utzitta, jûn ementzien erregeana.

La desgraciada niña andaba allá de la ceca a la meca.

Una vez vio una casa y se acercó a ella. Era el palacio de un potentado de aquella región.

La señora de aquella casa estaba a la sazón fabricando pan con sus criadas.

Llamó a la puerta y preguntó si necesitaban criada.

Las viejas criadas le ponían cara oscura y aun a la señora parecía aquella niña demasiado fina para labores de sirvienta.

La niña rogaba repetidas veces que la tomara como criada. La señora, compadecida, la tomó para que sirviera de zagala.

Diariamente la enviaban al monte a apacentar ovejas.

Mientras las ovejas pacían, ella se ocupaba en recoger flores para adornar la efigie de la Madre Virgen que era venerada en un ermita que había en aquel paraje.

Neskato gaixoa an ementzeillen mendiñ, jo batea ta jo bestea.

Alako'atên etxe txuri'at ikusi ementzôn ta autza jûn ementzan. Aundizki'aten Palazioa ementzan ue.

Ango etxekoandrea bê neskamêkiñ labe sue eitten ementziellen garai artan.

Deittu ementzôn atên eta baitta galdetûre ea neskameik beartzoên.

Lêngo neskamêk aurpegi illune jartze ementzioên, eta etxekoandrêi beai ê neskametzâko neskato apaintxoa zala ue iruitze'ementzitzaion.

Baño neskatôk beiz ê ue neskametzat artu zezala erregu eitte'ementzion. Etxekoandrêk, errukittuta, aitzenên artu eiñ ementzôn.

Eunero-eunero mendia bialtze' ementzoen artzai.

Ardîk larrên zeiltzen bittartên, bea lora biltzen ibiltze'ementzan. Ta lora oríkiñ ango ermintta 'ateko Amaberjiñea apaintze ementzôn.

Un día la Madre Virgen le dio una bolsita llena de sal. Y le dijo:

—Esta bolsita la has de llevar siempre en el pecho y, cuando por las noches vayas a casa y te coloques junto al fogón, has de lanzar al fuego un grano de sal de vez en cuando.

Como la Madre Virgen se lo dijo, todas las noches, mientras se hallaba junto al hogar, arrojaba al fuego, de tanto en tanto, un grano de sal sacándolo del pecho.

Las demás criadas y criados observaron luego que aquella chica arrojaba algo al fuego y pensando que arrojaba piojos, la trataban de piojosa.

Pero la señora le tenía mucha compasión y la trataba bien.

Bein Amaberjiñék poltsa txiki'at gatzez betea ema'ementzion. Eta esa'ementzion ze:

—Poltsatxo au kolkôn eaman beâzu beti, eta gauetan etxea jûn-da sutondôn jartzen zeanên, aldiñ-áldiñ gatz ale'at sutâ bota beâzu.

Amaberjiñêk esan bezela, gauero, sutondôn zeôn bittârtên, aldîñ-aldiñ, kolkoti atâ-ta, sutâ gatz ale'at botatze'ementzôn.

Besta neskame-morroi danak bêla oartu ementzien zerbait sutâ botatzen zôla, eta zorrik kolkoti atâtzen zittûla-ta zorritzuka ebâltze' ementzoên.

Baño etxekoandrêk beti erruki aundie izete ementzion eta beti ondo artze'ementzôn.

Una vez que la zagala fue a adornar la ermita con flores, la Virgen Madre le dijo:

—Hoy es fiesta en el pueblo vecino y tienes que ir allá.

—Pero ¿cómo apacentaré las ovejas, yéndome allá?

—Yo las apacentaré, –le dijo la Madre Virgen.

Lorâkiñ erminttea apaintzea jûntzan batên, Amabergiñêk esa'ementzion ze: gaur ôloko

errittan pesta da, t'autza jûn beâzu.

—Baño nola ardîk zânduko 'ittut autza jûn da?

—Nik zanduko dittut.

—Pero tampoco tengo traje.

—Mira. Toma esta nuez y ábrela.

Tomó la nuez, la abrió y dentro estaban plegados traje y calzado hechos de hilo de plata.

Los vistió y fue a la fiesta. Ella era niña muy hermosa y, además, viéndola con aquel traje, toda la gente se maravillaba.

El hijo mayor de la señora de la casa donde la zagala servía, bailó con ella y después, hacia el crepúsculo vespertino, empezó a seguirla, pretendiendo acompañarla hasta su casa.

Cuando hubieron salido del pueblo, la joven dijo al muchacho:

—Descansemos aquí sentados, pues yo me he fatigado.

Se sentaron y luego el muchacho se durmió.

Entonces la joven subió a su monte, vistió su viejo traje y, como siempre, volvió a casa con su rebaño.

También aquella noche arrojaba al fuego granos de sal. Estos crepitaban y toda la servidumbre se mofaba tratándola de piojosa.

—Jantzîk ê eztauket ordea.

—Beida. Artu onoko intxaurrale au eta zâldu zazu.

Artu intxaurre ta zâldu ementzôn, t'alllako zillarr-ariz eindako soñeko ta oñetakôk ementzêren toloztauta barrûn.

Jantzi âtxek eta pestâ jûn ementzan. Berez neskato ederra ementzan oso, ta, gañeara alako soñekôkiñ ikusitta, jende guzie arritze' ementzan.

Bê etxekoandrên seme zârrenak beâkiñ dantza eiñ ementzôn, ta geo illuntzealdên aren ondoen abittu ementzan, etxeaño laundu bear ziola-ta. Baño ez ementzôn ezautu zeiñ zan.

Erritti atâ zienên, neskato orrek motillêri esa'ementzion ze:

—Atsei'zaun ementxe eseitta, ni nekau naiz ta.

Esei ementzien, da motill oi lôk artu ementzôn.

Urdun neskêk bê mendia aldeiñ ementzôn. An jantzi bê soñeko zârra, ta beti bezela artaldêkiñ etxea jûn ementzan.

Gau artan ê, kolkoti atâta, gatz alêk aldiñ-aldiñ sutaa botatze'ementzittûn. Gatzak zirt-zart eitten sutan, da besta neskamemorroiak, sutil zorrik botatzen zittûla-ta, zorritzuka ebâli ementzoên.

Otro día en que fue con flores a adornar la ermita de la Madre Virgen, ésta le dijo:

—Hoy es fiesta en otro pueblo de la comarca y es preciso que vayas allá.

—Pero ¿cómo apacentar las ovejas yendo allá?

—Yo las apacentaré, le dijo la Virgen.

—Pero no tengo traje para ir a tal fiesta.

—Trae una avellana, quitándosela a ese avellano.

Se la trajo, pues. La Madre Virgen le ordenó que la abriese. La abrió y dentro estaban doblados traje y zapatos de oro.

—Vístelos y marcha a la fiesta, –le dijo la Madre Virgen.

Bajó, pues a la fiesta. Y viendo a una joven tan hermosa y elegante, estaba maravillada la gente.

También en aquel día bailó con el hijo mayor de su señora. El muchacho no la conoció tampoco entonces; pero le regaló una sortija.

Cuando atardecía, ese muchacho, pretendiendo acompañarla hasta su casa, empezó a seguirle.

Cuando hubieron salido del pueblo, la joven le dijo:

—Descansemos aquí sentados, pues yo me he fatigado.

Se sentaron y luego se durmió el muchacho y la joven subió a su monte.

Después, cuando fue a la ermita a tomar su vieja vestimenta, la Madre Virgen le dijo:

—Mañana harán el pan en tu casa y has de pedir a la señora que te deje hacer un panecillo. En el centro de ese panecillo has de meter la sortija que te ha dado el hijo de la señora.

Volvió la joven a casa con su rebaño.

Besta'atên, bê lorâkiñ erminttea apaintzea jûntzan batên, Amaberjinêk esa'ementzion ze:

—Ôloko errittan gaur pesta da bâ, t'autza jûn beâzu.

—Baño nola zandu ardik autza jûn ezkeo?

—Nik zânduko 'ittut.

—Ez dauket ordea nik soñekoik ê ôloko lekua jûteko.

—Orroko urritz orri kenduta ekai eazu ur ale'at.

Ekai ementzion bâ. Ta Amaberjiñek ur ale ue zâltzeko aindu emantzion. Zâldu ementzôn da aalako urrezko soñeko ta oñetako ederrak emen zêren barrûn toloztauta

—Orîk jantzi-ta zoatz –esa'ementzion Amaberjiñek.

Jin ementzan bâ pestâ. T'alako neskagazte ederra ta dotorea ikusitta, arrittuik ementzeôn jende guztie.

Eun artan ê bê etxekoandrên seme zârrenâkiñ dantza eiñ ementzôn. Motillek ez ezautu ue urdun ê; baño eun ortan eaztun bat ema'ementzion.

Illuntzealdea motil oi, etxeaño laundu bear ziola ta, ondoen asi emenzitzaion.

Erritti atâ zienên, neskêk esa'ementzion ze:

—Ementxe atsei'zaun eseitta, ni nekau naiz ta.

Esei ementzien bâ; ta geo motill oi lôk artu ementzôn, da neskea bê mendia jûn ementzan.

Geo bê jantzi zârrak artzea erminttâ jûn zanên Amaberjiñêk esa'ementzion ze:

—Biar zue etxekoandrêk labesue do, ta opil bat eitten zui uztêko esan bear diozu. Eta opil orren erdiñ sartu etxekoandrên semêk eman dizun eaztun oi.

Geo, bê artaldea aurreti zôla, etxea jun ementzan.

A la mañana siguiente rogó a la señora que le dejara amasar un panecillo.

Urrungo goizên etxekoandrêi erreguka asi emenzitzaion, opil bat eitten ari uztêko esanez.

Personajes de los cuentos

Las brujas y sus recursos mágicos



Morgan Le Fay, Frederic Sandys.

El filtro de amor. Evelyn De Morgan



Medea, Frederic Sandys.

La bruja reina Eleanor y la inocente y bella Rosamuna. Evelyn De Morgan



Las otras criadas empezaron a reprenderla, diciendo a ver quién iba a comer un pan amasado por una piojosa.

Con todo, la señora le permitió que hiciera un panecillo.

Hízolo, pues, y metió en la masa la sortija.

Cuando sacaron del horno los panes, el más hermoso resultó el amasado por la zagala. Y la señora hizo que lo llevaran al hijo mayor para que lo consumiera en la comida.

Cuando el muchacho cortó el pan y halló la sortija, avisó que se presentara la persona que había amasado aquel pan.

Al saber esto, toda la servidumbre entonces presente en la casa se alborotó. Todos pensaban que, sin duda, el mayorazgo habría hallado dentro de panecillo algún piojo.

Se hizo que viniera la zagala que luego se presentó a la mesa del muchacho. Este se enteró del misterio de la zagala y ambos tomaron el acuerdo de casarse.

Y en breve se casaron.

* * *

El novio era potentado e invitó a la boda a muchos reyes y a otros personajes y familias ilustres de los contornos. Entre ellos estaba el padre de la novia.

Ésta ordenó que a su padre sirvieran la comida sin sal.

Después de la comida, se acercó ella a su padre y le preguntó si estaba buena la comida.

—Ha sido buena la comida; sólo que estaba sin sal, le contestó su padre.

—¿No te acuerdas de cómo me enviaste de tu casa para ser muerta, porque dije que la sal era más precisa en el mundo que un rey?

Cuando el rey oyó esto, un síncope le dio y allí mismo quedó muerto.

Después los nuevos esposos vivieron felices.

(Recogido en Atáun hacia el año 1902).

• José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: Mitología de Pueblo Vasco II-Euskal Herriaren Mitologia II. Edit. Etor-Ostoa, 401 or.

Fuente original: J.M. de B., O.C. II, pág. 294.

Besta neskame guztîk muturka asi emenzitzaion, ea segurotxôn ê ziñek jan bear zôn zorritzu arek eindako opille.

Alaxêrê orrâtio etxekoandrêk opil bat eitten utzi ementzion.

Ein ementzôn bê opill oi, eta baitta barru-nen eaztune sartûrê.

Labeti opillek atâ zittuenên, danetan opillik ederrena neskato arek eindakoa gertau ementzan. Ta beure, igurdiñ jateko, eaman âziñ ementzôn etxekoandrêk seme zârrenântzat.

Motill orrek, maien jarri zan urduko, opille erdibittu ementzon. T'antxe billau eaztune. Urdûn abixau ementzôn opill ue eintzôna jûteko bereana.

Au neskame-jendêk jakintzônen, an ementzan ixkimillea. Zorrin bat billauko zôla segurôrê opillên barrunen, ementzioên danak.

Neskato gaixo ue jûn ementzân bâ motill aren maia, t'urduti artu ementzoon ezkontzeko lana.

Andi bêla ezkondu ementzien.

* * *

Gizona aundizkie zan, da inguruko errege ta besta aundizki askoi eztaietâ deittu ementziên.

Andragaiên aittêrê an ementzan. Andragaiek, bê aittêri jana gatz bae jartzêko, aindu ementzôn.

Geo bazkâlondôn jûn ementzan bê aitte orreana ta ea bazkârie ona altzeôn galdetu ementzion.

—Bazkâri ederra zan; gatzik bae eoteaze –eantzu'ementzion.

—¿Ez altzea akordatzen nola iltzeko bialdu ninduzun, gatza mundûn bearrâgoa zala errege'at baño, esan nôlako?

Au aittu zônen, errege orri naigabe'atek eman ementzion, eta bertan il ementzan.

Neska ue erregearen alaba zala, urdûntxe azaldu ementzan.

Geo senar-emazte orik ondo bizi ize'ementzien.

Oi ala bazan sartu deilla kalabazan.

(1902. urte aldera Ataunen bildua).

• Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: Mitología de Pueblo Vasco II - Euskal Herriaren Mitologia II. Etor-Ostoa Argitaletxea, 401. or.

Jatorrizko iturria: J.M. de B., O.C. II, 294. or.

El rey o la sal

Ésta ordenó que a su padre sirvieran la comida sin sal.
Después de la comida, se acercó ella a su padre
y le preguntó si estaba buena la comida.
—Ha sido buena la comida; sólo que estaba sin sal, le contestó su padre.

Erregea ala gatza

Andragaiên aittêrê an ementzan.
Andragaiek, bê aittêri jana gatz bae jartzêko, aindu ementzôn.
Geo bazkâlondôn jûn ementzan bê aitte orreana ta
ea baz-kârie ona altzeôn galdetu ementzion.
—Bazkâri ederra zan; gatzik bae eoteaze –eantzu'ementzion.

Seis amigos de novedades

(R.M.A.)

513. Compañeros extraordinarios

En una aldehuela de muchos prados situada entre montañas vivía un cazador muy hábil. No se le conocía otra aptitud, por lo menos digna de mención, sino para la caza.

Había muchísimos que le ganaban a los bolos y también perdía casi siempre que jugaba a la raya; para el mus, cierto que no era de los más topos, pero tampoco astuto como ningún otro.

En matar, lo mismo liebres que perdices, codornices, sordas y aun jabalíes, en eso, sí; no tenía rival por aquellos contornos. ¿Dónde no se oía entonces el nombre del cazador de Zelayeta?

Al parecer por haber oído a algún extranjero, surgió en su mente y corazón un vivo deseo de ausentarse lejos, el deseo de saber cosas nuevas. Para eso quería alguno que otro amigo que tuviese alguna aptitud. En su aldeíta no había quien le llenara el ojo o le satisficiera, y empezó a caminar solo.

Hubo un hombre que le causó admiración, un hombre alto y erguido, que llevaba una piedra de molino atada al pie. Desde bastante lejos comenzó a hablarle:

—Hombre, ¿qué haces o qué es lo que te tiene ahí parado?

—Por no andar demasiado a prisa, de vez en cuando tengo necesidad de atar al pie esta piedra de molino. Que vea yo alguna liebre correr cuesta arriba, empezaré a andar tras ella y porque ando demasiado ligero, comienza para abajo y con frecuencia me escapa. Naturalmente soy yo así.

—¿Quieres venir conmigo a saber y ver lo que pasa en el mundo?

—A donde tú quieras. ¡Ea!

Van, van, van... y al borde de una heredad ancha llena de hermosos nabos vieron una sima que tenía tres leguas de profundidad, y junto a ella a un hombre musculoso que la había agujereado, el cual tenía la oreja tocando el suelo.

—¿En qué andas o en qué te ocupas, muchacho? ¿Tienes, acaso, dolor en la oreja? –le preguntó el cazador.

—¿No sabes que una semilla que se siembra en tierra comienza pronto a pudrirse? ¿Y que la podrida se fortalece de nuevo y que empieza a brotar nueva vida en el regazo de la muerte? ¿No sabes esto?

—Nosotros no hacemos caso de semejantes niñerías.

—Cuando la semilla muerta resucita poco a poco y aparece en la corteza de la tierra se le llama germen. Y yo suelo estar oyendo el apenas perceptible ruidito que producen estos gérmenes cuando vienen para arriba. Oídos más finos que los míos, ni tanto siquiera, no tiene ni ave alguna

Sei barrizale

(R.M.A.)

513. Lagun berdingabeak

Mendi-arteko basauritxo zelaitsu baten eiztari errime bat bizi zan. Ez dakon beste gaitasunik, esatekorik beintzat, ezagutzen, eizarakoa izan ezik.

Bolaka ari irabaztekoak aurrez egozan, parratean asten zan geienetan galdu egiten eban; muserako etzan ustelena, egia da; baina besterik ez lako amarrutsua bere ez.

Erbi nai eper nai galeper nai oilagor nai basaurde ilten, orretan bai, inguruetan ezegoan bere negurrikorik. ¿Zelayetako eiztariaren izenak nun ezeban orduan ots egiten?

Arrotzen bati entzunda edo, urrunetara yoateko gogo bizi-bizi bat buru ta biotzean erne dakon, gauza barriak ezagutzeko guraria. Orretarako lagun bat edo beste nai ebazan, zerbaiterako gai ziranen batzuk. Bere yaioturitxoan ezegoan berari begia betetekorik iñor ta bakar bakarrik biderrik bidarte ibilten asi zan.

Bera arritzeko zer barririk gizon bat izan zan, ibilten asi ta bigarren egunean errotari bat ankan lotuta eukan gizon andi lerden-lerden bat. Urrun-txotik izketan asi dakon:

—To, ¿zetan diarduk edo zek auko olan geldi?

—Bizkorregi ez ibiltearren, noizik noizera errotarri auxe ankeari lotu bear izaten dautsat. Erbiren bat aldatz goran arineketan ikusi dagidala, bere atzetik ibilten asiko nok eta bizkorregi ibilten noalako, berantz asita sarri iges egiten daustak. Neurez nok ni onelakoxea.

—Neugaz munduan ze barri dan yakitera ta ikustera, ¿etorri gura dok?

—Euk gura doan lekura. ¡Aurra!

Badoaz, badoaz, badoaz ta arbi ederrez beteriko solo zabal baten egalean iru legua sakon zan leza bat ikusi eben, leza-ondoan bera zulatu eban gizon soskotsu bat, belarria lurra yoten eukala.

—¿Zetan abil edo zeri akio, mutil? ¿Belarrian min edo? –itandu eutsan eiztariak.

—¿Eztakik azi bat lurrean erein ta lastertxo usteltzen asten danik? Eta ustela barriro zindotzen eta zindotuz bizi barria eriotzearen altzoan erneten? ¿Au ezaldakik?

—Olako umekeriai etxautsegu yaramoten guk.

—Azi ila birbiztuz birbiztuz birbiztuz lur-azalean agertzen danean, ernamiña dok izena. Ta ni ernamin onetxek gorantz datozela egiten daben intziritxo motel-motela entzuten egoten nozue. Nire belarriak baino zurragorik, ez ain zurrik, etxaukak ez odeietako egaztik, ez basoetako erbik, ez lorarteko erlek, ez legearen igesi bizi dan lapurrek.

de las nubes, ni liebres de los bosques, ni abeja de entre flores, ni ladrón que vive de espaldas a la ley.

—Si quieres venir con nosotros, servirá acaso para algo esa tu aptitud. Yo, si alcanzo con mi vista la paloma torcaz que anda a tres leguas de aquí, le disparo, ¡zast!, un dardo afilado y pronto la haré caer en tierra. Éste, mi compañero, ¿sabes cuán ligero, cuánto corre hacia el Norte el humo que sale de la chimenea de una panadería en los días de viento Sur? Éste anda aun más ligero que ese humo de los días de viento tierra. ¿Quieres ser el tercero en saber y hacer saber las novedades del mundo?

—¡Ea! Vámonos a donde se quiera.

—Geugaz etorri gura badok, zetarako edo atarako izango aldok ire gaitasun ori. Nik emendik iru leguan dabilen basusoa begi-barruan artu badagit, ¡zist!, yaurti gezi txiki zorrotz bat eta laster lur yo eragingo dautsât. Nire lagun au, ¿badakik okintza batetik urteniko kea errekaize egunetan iparraldera zein arin, bizkor yoaten dan? Au errekaize egunetako ke orixe baino bere bizkorrago ibilten daku. ¿Gura dok munduan ze barri dan yakiten eta yakinarazoten irugarren izan?

—¡Aurra! Goazen noranai.

No tuvieron necesidad de subir y bajar grandes cuestas para encontrar un compañero como ellos. Junto a un árbol bravío de esos que nunca han sido podados vieron a alguien haciendo algo.

—Muchacho, ¿qué traes ahí? –le preguntó el cazador.

—Estoy haciendo un atadero con el eje de este árbol bravío.

—¿Para qué quieres tal atadero?

—Quisiera hacer un molino bajo mi techo. Para eso necesito agua. Yo, si conservo la fuerza que hasta ahora tuve en los brazos, llevaré la casa junto al río, sujetándola bien con este atadero.

—Eso podrás hacer al volver para acá. Ven ahora con nosotros, pues vamos a ver lo que pasa en el mundo.

Ezeben aldatz andirik gora ta bera igaro bear izan euren antzeko lagun bat aurkituteko. Garrazta baten ondoan, inoiz inausi bagako zugatz andi baten ondoan, zerbait egiten, norbait ekusen.

—¿Mutil, zer darabilk or? –itandu eutsan eiztariak.

—Zugatz tantai onetxen zilaz bigur bat egiten diarduat.

—¿Zetarako gura dok bigur ori?

—Neure telapean errotea egin gura naieukek. Orretarako ura bear. Nik, orainarteko indarra besoetan badaukat, bigur onezaz zuztar-zuztarretik ondo lotuta errekondora eroango doat etxea.

—Ori onazkoan egin al izango dok. Ator orain geugaz, mundu zabalean ze barri dan ikustera gaioazak-eta.

Después de salir de aquella arboleda silvestre, se les apareció el que iba a ser su quinto compañero. Era risible la ocupación que tenía.

—Oye, tú, que comes las piedras de las canteras, ¿están sabrosos esos pedruscos? ¿Qué pensamiento te ha movido para estar comiendo piedras cual si fueran pedazos de borona?

—Si yo, en comiendo todas las piedras que quiero, doy el trasero y empiezo a arrojar piedras, soy capaz de hacer huir a un ejército.

—¡Por vida de...! Entre todos haremos alguna cosa grande, y ven con nosotros.

Garraztadui atatik urtenda gaintxo bateko arrobian boskarren lagun izango ebena agertu daken. Barregarria zan berak erabilen arazoa.

—To, arrobiko arri-yale, ¿gozo aldagozak arkosko orrek? ¿Ze burutasunek yarri au, arto-zatiak bailirean, arri-yaten egoteko?

—Nik gura gaiña arri yanezkero, atzea emon ta arri-urtika asitakoan, gizalde osoari iges eragingo neuskio.

—¡Arranoa! Guztion artean gauza andiren bat egingo doagu ta ator geugaz.

Pronto encontraron al sexto compañero. Cuando, al verle sostener con los hombros una montaña, le preguntaron para qué estaba así, contestó que estaba sosteniendo la montaña para que no coja debajo ese lindo pueblo vecino. Y después de consentir ir con ellos, antes de empezar a andar, tuvo que dar un empujón a la montaña.

He aquí, pues, nuestros seis amigos de novedades: el Cazador, el Andarín, el Oyente, el Forzudo, el Apedreador y el Defensor de pueblos.

Seigarren laguna laster aurkitu eben. Mendi bati sorbaldaz eusten ikusita, zetarako egoan itandu eutsenean, alboko uri polit ori azpian artu eztaian, mendiari eusten egoala erantzun eban. Eurakaz yoatea ontzat artuta, ibilten asi-orduko bultzada bat emon bear izan eutsan mendiari.

Ona bada gure sei barrizaleak: Eiztaria, Lasterkaria, Entzulea, Indartsua, Arrikalaria ta Uri-yagolea.

Cuando empezaron a andar, y cada cual estaba dando a conocer su aptitud...

—A callar, muchachos –dijo el Oyente–. De aquí a tres leguas está el rey dando a conocer un pensamiento suyo.

—¿Qué dice el rey?

Ibilten asi ta bakoitzak bere gaitasuna yakinarazoten ziarduala,

—Ixo, mutilak –esan eban Entzuleak–. Emendixek iru legua bidean erregek bere asmo bat erakusten diardu.

—¿Zer diñok erregek?

—Que al que traiga de tal fuente un cántaro lleno de agua tan pronto como una criada suya, le dará tanto dinero como pueda levantar un hombre.

El Cazador, al oír esto, dijo al segundo amigo de novedades:

—Tú Andarín suelta esa piedra de molino que tienes atada al pie y en un momento preséntate delante del rey.

Se presentó éste ante el rey, y llegando en un momento a la fuente con el cántaro a la cabeza, cuando volvía más ligero que el humo con el cántaro lleno de agua, la criada del rey, que era bruja, para hacerle perder la apuesta, le puso en las narices un narcótico.

—Estamos perdidos ahora –dijo el Cazador de vista de lince–. Nuestro compañero el Andarín está dormido. No apurarse por eso. Yo lo despertaré.

Colocando en aquella dirección el arma que llevaba cruzada al hombro y disparándola, le quitó de la nariz el narcótico e hizo que llegara a la meta antes que nadie, llevando el cántaro en la cabeza. Estando los seis curiosos allí, el rey, con el deseo de cumplir la palabra empeñada, preguntó a los que estaban alrededor quién llevaría el dinero que había prometido como premio.

El Forzudo, instruido de antemano, probablemente por el Cazador, tenía preparado un descomunal saco hecho con piel de seis bueyes. En cuanto le llenaron de dinero ese gran saco, con él al hombro, y con los cinco compañeros a los lados, se alejó del pueblo hacia el monte.

El rey, con el deseo de quitarles el dinero, envió tras ellos un cuerpo de ejército. El Cazador, en cuanto les vió desde lejos, al Apedreador le dijo:

—Ea, compañero, ahora es la tuya.

Después de pasar un cuarto de hora en comer piedras, dio el trasero a los soldados del rey y los deshizo a pedradas: a cuatro dejó heridos; a los demás, muertos.

Cuando estaban descansando en la falda de una gran montaña repartiendo el dinero sin ningún otro cuidado, vio desde lejos el Cazador venir un ejército mayor que el anterior y dijo al Defensor de pueblos:

—Ahora es también la tuya.

Éste, cuando llegaron aquellos soldados a la falda del monte se fue al otro lado, le dio un empujón al monte y debajo de él quedaron aplastados todos los soldados enviados por el rey.

Oído brevemente a María Martina Maruri,
hija de Murelaga.
Este cuento es semejante al llamado «Alkartuak».

- Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 321.

—Bere mirabe batek baizen bizkor, pedar bete ur ain iturritik dakarrenari, gizon batek yasoala diru emongo dautsala.

Eiztariak, au entzueran, bigarren barrizaleari:

—I, Lasterkari –esan eutsan–, askatuik ankan lotuta daukan errotarri ori ta arrapaladan erregeren aurrean agertu adi.

Agertu zan au erregeren aurrean ta pedarra buruan ebala iturrira beingo baten elduta, urez bete ta kea baino lasterrago etorrela, erregeren mirabe sorginak, temea galdu eragitearren, lo-bedarra surrean ipini eutsan.

—Galduak gara oraintxe –esan eban Eiztari begi-zurrak–. Gure lagun Lasterkaria lo dago. Ez orregaitik larritu. Neuk iratzarriko dot.

Sorbaldan zearka eroian iskilua araxe begira ipini ta bunp eginda lo egoan Lasterkariari, lo-bedarra surretik kenduaz, inor baino lenago, urdun pedarra buruan ebala, azkenera eldu eragin eutsan. Sei barrizaleok an egozala, erregek, emoniko itza bete bear ebala-ta, saritzat eskiniriko dirua nok eroango etêban itandu eutsen ingurukoai.

Indartsuak, aurretiaz Eiztariak esanda edo, sei idiren narruzko zorro andi itzal bat gertu eukan. Zorrotzar ori diruz bete eutseneko, lepoan artuta, bost lagunak alboetan ebazala, uritik mendialderatu zan.

Erregek dirua kendu gurarik gudaritalde bat bialdu eban euren atzetik. Eiztariak, urrundik ikusi ebazaneko, Arrikalariari

—Aurra, lagun; ortxe aiz ba –esan eutsan.

Arkoskoak yan ta yan ta yaten ordu-lauren bat igarota, erregeren gudariai atzea emon ta arrika birrinduta itxi ebazan; lau zauriturik, ilda beste enparauak.

Mendi andi baten egalean atseden artu ta dirua banatzen beste ezeren ardura bagarik egozala, Eiztariak urrundik len baino bere gudari-talde andiagoa etorrela ikusi ebanean,

—I –esan eutsan Uri-yagoleari– ortxe aiz i bere.

Onek, gudari arek mendi-barrenera eldu ziranean, beste aldera yoan ta bultzada bat mendiari emon ta bere azpian zapal zapal eginda geratu ziran erregek bialduriko soldau guztiak.

Murelagako alaba Maria Martina Marurigandik
labur-laburrik arturikoa.
Alkartuak deritxon ipuina onetxen antzekoa da.

- Resurrección María de Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 321. or.

Hombres maravillosos

(J.M.B.)

513. Compañeros extraordinarios

Juan-soldado era hombre forzudo gran amigo de San Pedro.

Cuando Jesucristo llevó a San Pedro para apóstol, se separaron entrambos.

Después Juan-soldado salió a buscar compañeros.

Halló a Juanito el cazador, acechando el paso de las liebres, con una piedra de moler atada a la pierna.

Preguntó a éste a ver por qué tenía la piedra de moler atada a la pierna. Juanito le contestó que, sin la piedra de moler se adelantaba, al saltar, a la liebre, y que por ella (la piedra) cazaba la liebre cuando viniese.

Juan-soldado le dijo que viniera a recorrer el mundo.

Iban los dos; hallaron a un hombre que igualaba los montes martillándolos con el trasero. Juan-soldado le dijo que viniera con ellos a recorrer.

Iban adelante los tres. Hallaron al cuarto que tenía cincuenta arrobas de lana en cada ventana de la nariz.

Le preguntaron a ver para qué tenía aquéllas (lanas).

Les contestó que (las tenía) para contener el aire, a fin de que no hiciese averías.

Juan-soldado dijo: también ese es buen compañero para nosotros.

Le invitaron a que hiciese prueba con una fosa nasal (abriéndola).

Y cuando abrió una fosa, derribó los árboles que había allí alrededor.

Juan-soldado, le ordenó la cerrase. Después le invitó a que fuese con ellos.

Se iban adelante a buscar al quinto. Hallaron a un hombre haciendo leña, que arrancaba árboles como puerros, y los colocaba en haz para llevarlos a casa.

Juan-soldado le preguntó a ver qué jornal ganaba.

El hombre le contestó que ganaba cuatro maravedises diarios.

Juan-soldado le dijo que fuese con ellos a recorrer el mundo.

Se conformó a ir con ellos.

Andaban recorriendo el mundo; mas no tropezaron durante mucho tiempo con ningún contrincante.

Uno de ellos se les puso sediento.

Se paró a beber agua en la barra de Bermeo con una pierna en Sollube, la otra en Ereñusarre y la mano en la peña de Izaro.

Empezó a beber agua, y una embarcación iba de viaje allí, y la bebió en el trago que hizo.

Después le dio el cólico y murió.

Gizon arrigarriak

(J.M.B.)

513. Lagun berdingabeak

Juan-Soldau gixon indartzue zan, San Pedroen lagun andije.

Jesukristok eruebanien San Pedro apostolu, apartau ziren alkarreandik.

Gero Juan-soldau urte eban lagun bile.

Topau eban Juanito kaserue, erbijen paradan errotarri bat kaderan amarraute.

Oneri preguntau eutzon zetako eban errotarrije kaderan amarrauta.

Juanitok esautzon ze errotarrije barik erbie saltoan pasaten dabela da arexegaz atrapetan dabela datorreniän erbije.

Juan-soldauk esa'eutzen ze etorteko mundue errekorritetako.

Bajoitzen bijek, topau eben bat mendijek eperdijagaz jota berdinduten. Juan soldauk esa' eutzen etorteko eurekin errekorriduten.

Bajoizen eurrera irurek. Topau eben laugarrena, surzilo bakotxean berroeta amar arroa lanie zittuzela.

Preguntau eutzen zetako zittuen arek.

Erantzu'eutzen ze aizie eukitteko, aberijek eiñ ez dejen.

Juan soldauk esa' eban ze orixe be lagun ona dogu geuretzako.

Esan eutzen oprobie ein dejela surzillo bategaz.

Da surzillo bata zabaldu ebanien, bertan ingeruen egozan tantaiak lurrera bota zituzen.

Juan-soldauk eginddu eutzen zerratuteko. Gero esa'eutzen eurekin juateko.

Bajoizen eurrera bosgarrenen billa. Topau eben gixon bat egurretan, tantaiek, porruen letxerik ataraten, da kargan imini etzera eruateko.

Juan-soldauk preguntau eutzen ze jornal euken.

Gixonak erantzu' eutzen egunien lau mari irabazte ebala.

Juan-soldauk esa' eutzen eurekiñ etorteko mundue errekorriduteko.

Konformau zen eurekiñ joateko.

Beebixen mundue errekorriduten; baya kontrariorik ez eben topeten denpora luzien.

Bat egarrittu ein jaken.

Parau zen ur edaten Bermioko barran, kadera bata Solluben, bestie Ereñusarren da eskue Izaro'ko atxien.

Asi zen ur'edaten, da barku bat joien biejan antxe parien, da ei'eban zurruztadiez iruntzi eban.

Gero kolikuek artu aban, da ill ein zen.

Cuando aquél murió los otros se fueron cada cual a su tierra.

(Contado en 1920 por Matías de Aranaz de Kortezubi).

- José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca III. Edit. Auñamendi, pág. 38.

A ill zanian bakotxa bee lekura juen ziren bestiek.

(Kortezubiko Matias Aranaz-ek kontatua 1920an).

- Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: El mundo en la mente popular vasca III. Auñamendi, 38. or.

Hachko y sus dos amigos

Hachko et ses deux compagnons

(J.B.)

513. Compañeros extraordinarios

Allá en el País Vasco, en un pueblo de Navarra vivía una familia muy pobre.

Un día, faltando leña, el padre fue acompañado de su hija hacia el bosque, para traer un fardo de leña cada uno.

Llegados al bosque, cada uno tomó su camino, habiendo acordado esto: aquél que recogiera el fardo primero, estaría al tanto del otro, esperaría en un lugar dicho.

¡Los bosques eran enormes en aquel entonces!

Acababa la joven de recoger su fardo de leña, cuando se le apareció, desde el interior del bosque, Basajaun, el cual cogió a la joven y se la llevó a su morada subterránea. ¿Cómo explicar el espanto de la pobre niña y el desconsuelo de sus padres, que habían perdido a su hija?...

* * *

Con el paso del tiempo, en la guarida de Basajaun nació Hatchko. Era un niño despierto a más no poder, con el cuerpo entero cubierto de pelo, tanto que no necesitaba vestido para cubrir su piel.

Pasaron los años sin que madre e hijo salieran de bajotierra. Para entonces la criatura había cumplido siete años.

Un día, Hachko echó a andar, curioso por saber adónde iba (solía ir) Basajaun.

Subió, subió y subió, y finalmente llegó hasta arriba. Allí vio una luz muy brillante y hermosa, y, admirado por dicha luz, bajó nuevamente y se dirigió a su madre para contárselo todo. Su desgraciada madre le dijo asustada:

—¿No habrás, acaso, movido la piedra? ¡Estamos perdidos si el padre se da cuenta!

El niño, entonces, respondió que no tenía por qué temer nada.

En ese momento llegó Basajaun un tanto inquieto y les dijo:

—Aquella piedra de allá arriba, ¿la habéis movido vosotros? –Respondieron que no. Basajaun se tranquilizó y se fue.

* * *

Del todo impresionado con la luz que ha visto, el chiquillo le dijo a su madre que debían irse de allí.

—¿Pero quién va a mover la gran piedra?

—¡Yo, madre!.

Hachko eta haren bi lagunak

Hachko et ses deux compagnons

(J.B.)

513. Lagun berdingabeak

Hor, Eskual-Herri Nabarroako herri batean bizi zen familia bat arras beharra.

Egun batez, etchean egurra eskasturik, aita, bere alaba lagun harturik, gan zen, zama bana behar zutela oihanetik ekarri.

Oihanera heldu direlarik, badoazi biak bi alde, elgar hola aditurik: bere zama lehenik eginen zuenak, bertzearen begira behar zuela egon, hitz hartu toki batean.

Oihan izigarriak ziren orduko oihanak!

Neska gazteak bere zama egintche dueneko, hor, oihanetik atheraturik, heldu zaio Basa-Jauna, neska hartu'ta eremaiten baitu berekin, lurpean egina zuen egoitzarat. Nork erran haur gaichoaren izialdura eta burhasoen bihotzmina, beren alaba galdurik?...

* * *

Demboraren buruan, basa-jaunaren ziloan sortu zen beraz Hachko. Haur bat zen ezin gehiago hazkarra, gorphutz guzia dena ile, haimbertzetaraino non, larruaren estaltzeko, ez baitzuen soineko beharrik batere.

Urtheak hola egon ziren ama-semeak lurpetik atheratu gabe. Ordukotz, haurrak zazpi urthe eginak zituen.

Egun batez, abiatzen da Hachko, basa-jauna norat gaten den ikusi beharrez. Goiti gan, gan, gan, noizbeit heltzen da gaineko burura. Ikusten du alimaleko argi eder bat, eta ikusi duenaz harritua, jausten da berriz eta badoako amari, guzien erraitera. Ama gaichoak ikararekin erraiten dio:

—Ez ahal duzu bederen harria lekuz aldaratu? chahu dira, zerbaiti ohartzen bazaio gero aita!

Haurrak, orduan, ihardesten dio ez duela zeren batere beldurti.

Haimbertzenarekin heldu zaiote Basa-Jauna, halako kechu batean erraiten diotela:

—Gaineko harri hura zuek higitu othe dautazue? –Heiek ezetz. Basa-Jauna sosegatzen da eta badoa.

* * *

Ikusi duen argiaz arras hartua, muthikoak erraiten dio orduan amari: behar dutela handik gan.

—Bainan nork higi harri handia?

—Nik ama!.

—¡Tú no puedes, niño!

—Sí, madre, sí, lo haré; aunque no te lo haya confesado, la moveré tal y como lo he hecho últimamente...

Así pues, comenzaron a subir. Hachko cogió la piedra entre sus manos peludas y primeramente la puso en posición vertical. Luego, girándola continuamente, la dejó caer montaña abajo. La piedra se despeñó con gran ímpetu, destruyendo todo lo que encontró a su paso.

Al escuchar aquel tremendo estrépito, Basajaun, el Hombre del Bosque, se asustó, temiendo que la peña arrojada fuera la de su guarida... Después, viendo lo hecho por Hachko, fue a la búsqueda de la madre y el niño.

Estando ya cerca del pueblo, la pobre madre se dio cuenta de que Basajaun les perseguía y, ¿qué es lo que hizo entonces? Comenzó a gritar con gran angustia...

Al oír aquellos gritos, y pensando que pudiera ser cosa del diablo, los atabales y las campanas del pueblo comenzaron a sonar con gran estrépito, y Basajaun, al escuchar semejante ruido, se dio a la fuga, y abandonó el lugar para siempre.

* * *

Así llegaron al pueblo. ¡Qué alegría la de aquella infeliz madre!... Sin embargo, todo el mundo miraba asombrado al niño. Por entonces tenía ya ocho años. Lo vistieron y lo llevaron a la escuela.

Los primeros días, todos los niños estaban asombrados, preguntándose qué demonios era aquel niño tan feo; y es que bajo la ropa se le entreveían unos pelos increíblemente largos. Después, al conocerse mejor, comenzaron unos y otros a tirarle del pelo. Durante unos días Hachko lo aguantó. Pero al final nuestro Hachko se enfadó y un día le dijo a su madre:

—Madre, unos mocosos están siempre tirándome del pelo. Ya verás, ¡un día voy a matar a la mitad de ellos!

—¡Ni se te ocurra hacer eso!

Al día siguiente, todos fueron de nuevo a la escuela. Pero otra vez comenzaron a tirarle del pelo. Hachko se enfadó; agarró a un niño de la cintura y con él golpeó a diestro y siniestro... los gritos que se escuchaban eran estremecedores. Algunos, muertos, otros malheridos; el agresor escapó por la ventana como alma que lleva el diablo. Hachko no regresó a la escuela.

* * *

Tras permanecer unos años en casa, un día le dijo a su madre que debía irse a hacer fortuna, y que le hiciera un bastón robusto. Le trajeron uno de unos dos quintales. Pero aquel no le servía de nada. Le trajeron otro de un peso de doce quintales. Lo probó; le pareció adecuado, y así emprendió el camino, volteando el bastón.

En el camino se topó con un hombre:

—¡Saludos, amigo!

—¡Igualmente!...

—Eres un hombre fuerte, desde luego, para manejar esbastón con tanta facilidad.

—Ezin dirok, haurra!

—Bai, ama, bai, eginen dut; zuri ez aithorturik ere, azken aldian ja egin izan dutan bezala....

Badoazi beraz ziloari gora. Hachkok bere esku iletsuetan hartzen du harria, eta lehenik chutik emaiten. Gero, biraka, biraka, lerrarazten du mendiari beheiti. Harria badoha oldar gaitzean, bidean atchemanak oro porroskatzen dituela.

Harrabots izigarri hek aditurik, beldurtzen da Gizon basa, ez ahal dutela bederen haren ziloko harri-peña aurdiki... Eta gero, Hachkoren lana ikusi orduko, amari eta haurrari ondotik abiatzen zaiote.

Herrirat ja hurbilducheak direlarik, ohartzen da ama gaichoa, Basa-Jauna ondotik dutela, eta zer egiten du orduan? Lotzen da garrasiarik saminenetan...

Garrasia hek entzutearekin, zerbeit debrukeria bazitekela han gaindi, herriko atabal eta ezkila errepikak hasten dire zapartaka, eta basa gizona, hek oro aditzearekin, ihesari eman zen, eta toki hek hustu ere zituen behin bethikotz.

* * *

Huna herrirat non diren helduak. Ama gaicho haren bozkarioa!... Jende guzia harritua bizkitartean haurrari beha dago. Zortzi urthe zituen ordukotz. Beztitzen dute eta eskolan emaiten.

Lehen egunetan, haur guziak harrituak zagozin, zer demuntre zen muthiko itsusi hura; soinekoen artetik izigarrizko ile luzeak ageri zituen alabainan. Gero, elgar hartuche dutelarik, lotzen zaizko, batek iletik tira, bertzeak tira. Zombait egunez jazan ere zituen Hachkok hoik oro. Bainan azkenean, kechatu gure Hachko, eta, egun batez, bere amari erraiten dio: «Ama, haur mukizu batzu bethi ari zaizkit, batek iletik tira, bertzeak tira. Ikusiko duzu oraino erdiak hilen baititut!». —«Ez gero holakorik egin niri!».

Biharamunean, badoa beraz berriz eskolara. Bainan, bethiko tira-mietan hasten zaizko, egundaino bezala. Kechatzen da gure Hachko; hartzen du bat gerritik eta harekin bat jo, bertzeak jo... hango garrasien parerik ez zen. Batzu hilak, bertzeak uspelduak; erakuslea leihotik eskapatu zen, eta ez nahi baino lasterrago... Hachko ez zen gehiago eskolarat itzuli.

* * *

Hola zombait urthez etchean egon ondoan, egun batez, amari erraiten dio: fortuna egitera behar duela gan, eta beraz moldatzeko harentzat makila bat hazkarra. Ekartzen diote bat bi kintal heintsu hortakoa. Bainan, hura deus ez zitzaion. Bertze bat ekartzen diote, hamabi kintal pisu duena. Haztatzen du; hura nombait han duela iduritzen zaio, eta abiatzen da bideari, bere makila firurikatuz.

Hola doalarik, buruz-buru egiten du gizon batekin:

—Agur, adichkidea!

—Bai zuri ere!...

—Gizon hazkarra zaitut, hatik, zu, holako makilaren hoin errechki erabiltzeko.

—Ciertamente; no es precisamente ligero, anda por los doce quintales.

—Sí, pues yo también tengo mi fuerza. Si quisiera, te derribaría de un (*sudur-haize*) resoplido; pero no; prefiero lanzar esa roca de ahí.

Y, tapándose una ventana de la nariz, krask, ¡ahí fue la piedra arrancada de cuajo!...

Viendo su fortaleza, Hachko le dijo si quería ir con él; que había partido a hacer fortuna. El otro respondió que sí, que iría con él muy a gusto.

—Bai, pitta bat; ez da ez hala erraiteko pisua; hamabi kintal nombait han.

—Bai, ni ere hazkarra naiz bai. Nahi balimbanu, sudur-haize batez aurdik zintzazket lurrerat; bainan ez; nahiago dut hortcheko haitz ondo hori aurdiki.

Eta, sudur zilo bat tapaturik, hasten da. Krask, haitza hor badoa, erroz gora!...

Ikusirik hola hazkarra dela, Hachkok erraiten dio: heian nahi duenez harekin etorri; fortuna egiterat abiatu dela. Bertzeak baietz, arras gogotik joanen dela harekin.

Partieron pues los dos, y andando el camino alegremente encontraron un hombre que jugaba con una rueda de molino y unos grandes troncos.

—¡Saludos, amigo!

—¡Igualmente!

Despues de conversar y conversar, Hachko le dijo:

—Tú también tienes que venir con nosotros; veo que te arreglas bien con nosotros...

—¿Adónde vais, pues?

—A hacer fortuna...

—Sí, sí, muy a gusto.

Badoazi beraz biak, eta hola ongi alegera doazilarik, hor atchemaiten dute gizon bat, errota edo eihera harri eta buchon handi batzuekin jostetan ari dela.

—Agur, adichkidea!.

—Bai zueri ere.

Solas eta solas elgarrekin aritu ondoan, Hachkok erraiten dio:

—Gurekin ethorri behar duzu zuk ere; ikusten dut gurekilako on zarela....

—Norat zoazte bada?

—Fortuna egitera....

—Bai, bai, arras gogotik.

Así pues, Hachko y sus amigos se fueron tras la (en busca de) fortuna.

Ya, andado un buen trecho y cuando empezaba el hambre, ven una chabola de ovejas. Van y se se encuentran con el pastor, que estaba atendiendo a sus ovejas:

—¡Saludos, amigo!

—Y también a ustedes, señores.

Después de saludarse, y sin ganas de hablar, le preguntan al pastor si tiene algo de comer, que estan desfallecidos de hambre.

—No tengo gran cosa; pero tengo un cuarto de maíz recién traído del molino, y con ello haré algunas tortas, si les parece bien.

—Sí, a gusto.

Empezó el pobre pastor a hacer tortas. Mientras las hacía los otros las comían, y así comieron diecisiete, dejando al pastor totalmente asombrado.

Una vez saciados, Hachko le dijo al pastor que habían partido a hacer fortuna, y le preguntó dónde le parecía a él que la harían más fácilmente. El pastor les dijo que cerca de allí, bajando un poco, verían un hermoso palacio con todo el entorno cerrado por hierros y unos grandes portalones en la parte delantera.

—Pero les he de decir que hasta hoy nadie ha conseguido entrar allí; el palacio está habitado por demonios. Como veo que son ustedes unos hombres fuera de lo común, me parece que, si alguien puede adueñarse de él, serán ustedes...

Así pues, nuestros hombres partieron hacia allá.

Horra beraz Hachko eta haren lagunak, fortunaren ondotik doazila.

Ja, bide puska bat egina eta gosetzen ere hasiak, ikusten dute ardi-borda bat. Badoazi eta atchemaiten dute artzaina, bere ardien moldatzen ari dela:

—Agur, adichkidea!

—Bai zueri ere, Jaunak.

Beren agurrak egin eta, ez baitziren batere solas gura, galdegiten diote baduenez deus jatekorik, goseak hamikatuak direla.

—Ez dut gauza handirik, ez; bainan kuarto bat artho baitut aichtiantchet ekarria errotatik, talo zombait eginen ditut, nahi baduzue.

—Baietz, gogotik.

Hasten da artzain gaizoa talo egiten. Harek egin eta bertzeek jan, holachet hamazazpi jan ziozkaten, non artzaina harritu baitzen sekulakotz.

Aseche direlarik, Hachkok erraiten dio, hola fortuna egitera abiatuak direla, eta heian non iduritzen zaion egin lezaketela errechenik. Artzainak erraiten diote, hantchet, beherachago jautsi eta, ikusiko dutela jauregi eder bat, inguru guzia dena burdinez zerratua, aintzinean portale eder batzuekin.

—Bainan erran behar dautzuet, egundaino nehor sekulan ezin sartu dela han; debruak egoten dire jauregi hartan. Nola ikusten baitut zuek gizon batzu zaretela nihon guti diren bezalakoak, iduritzen zaut, nihor jabetzekotz, zuek eginen zaretela....

Badoazi beraz gure hiru gizonak.

* * *

Siguiendo las instrucciones del pastor, llegaron frente al palacio. Cavilando acerca del modo más fácil para entrar, Sudur-Haize, con un resoplido, lo intentó primeramente, pero en vano. Les dio una buena sacudida a los portalones, pero quedaron en pie.

Llegó el turno de Buchun. Cogió su piedra de molino, y dándole vueltas la lanza con gran ímpetu. Cayó un trozo de muro, pero todavía no bastaba para poder entrar.

Esta vez lo intentó Hachko. Va veinte pasos hacia atrás para tomar impulso, y lanzó la palanca (el bastón) con todas sus fuerzas... Brau! Ahí van al suelo los portalones.

Entraron los tres. No había nadie. Miraron y rebuscaron aquí y allá: había sacos llenos de oro por todas partes. Fueron a la cocina: cinco o seis ollas al fuego; en una había gallina, en otra pato, en otra pollo, y no se sabe cuántas cosas más... Llevaron la comida a la mesa. Al mediodía comenzaron a comer como si antes no se hubieran zampado diecisiete tortas. Cayó la tarde y seguían sin levantarse de la mesa.

Tras conversar un rato, se retiraron y cada uno escogió una hermosa habitación. ¡Qué felicidad! ¡Después de una comida así, dormir en una gran cama de sábanas blancas! Disfrutaron de la mejor noche de su vida.

* * *

Al día siguiente, se levantaron hacia las ocho.

Sudur-Haize se quedó en casa haciendo la comida, y los otros dos fueron de caza, quedando de acuerdo que Sudur-Haize, haciendo sonar la campanilla que allí había, les llamaría para volver. Así pues, Sudur-Haize se puso a preparar la comida con lo que había en la casa.

Hacia las diez, toc, toc, toc, oyó llamar a la puerta. Abrió; era un viejo mendigo. Le dio una rodaja de pan. El pan se le escapó al mendigo de las manos y cayó al suelo. Compadeciéndose de su edad, Sudur-Haize se agachó para devolverle el pan. Tan pronto como se agachó, brau, se le abalanzó el demonio. Tras luchar igualados durante un rato, gana el mendigo. Cogiendo el gran cuchillo que Sudur-Haize tenía justo justo en sus manos, despieza al pobre hombre y lo pone dentro de una olla. Luego se va. Para entonces eran alrededor de las dos.

* * *

Nuestros cazadores, al no oír la campanilla y estando hambrientos, llegaron para ver qué era lo que había ocurrido.

Su hombre no apare por ningún lado, miran en las ollas. ¿Qué ven? ¡A su amigo cortado en pedazos! Hachko tenía el poder de resucitar a los muertos, por lo que, recogiendo todos los pedazos con cuidado y recitando sus propias letanías, resucitó al muerto. Así se puso pues Sudur-Haize en pie otra vez. Inmediatamente contó a sus amigos lo que le había ocurrido.

Al día siguiente, le tocó a Buchun hacer la comida.

Y a éste le ocurrió lo mismo.

* * *

Artzainak erran bezala, heltzen dire delako jauregiaren aintzinera. Gogoetan egonik nola duketen errechkienik, Sudur-Haize lotzen da lehenik; bainan debalde. Inharros aldi bat ona emaiten diote, bainan portaleak chutik gelditu ziren.

BUCHUNEN alde orai. Hartzen du bere errota-harria, firurikatuz arthikitzen du, oldar gaitzean. Pareta puska bat badoa lurrerat, bainan, oinon, sartzeko ez aski.

Hachkoren aldi beraz. Oldarraren hartzeko, badoa hogoi bat urhats gibelerat, eta palenga izigarria arthikitzen du bere ahal guziarekin... Brau! badoazi portaleak lurrerat!

Sartzen dire hiruak barnera. Nehor ez ageri. Hemen mia, han ikher: non nahi zakuak, urhez betheak. Badoazi sukaldera: bost-pasei eltze suaren aintzinean; batean oiloa, bertzean ahatea, bertzean oilaskoa, nik ez dakit zer eta zer oraino... Funtsean mahaina emaiten dute. Eguerditan, hasten dire bazkaltzen, hamazazpi talo ja garbituak ez baluzte bezala. Jan eta jan, Jainkoak daki zer garbitu zuten oraino. Arratsa jin zitzaioten, mahainetik altchatu gabe.

Aphur bat solasean egon ondoan, abiatu ziren, bakotcha bere gambara ederra hautatu beharrez. Halako bazkariaren ondotik ohe churi ederrean lo egitea! Zer zoriona heientzat! Gau bat iragan zuten beren biziko ederrena.

* * *

Biharamunean, jeiki ziren zortziak aldera.

Sudur-Haize gelditzen da etchean, jatekoaren egiteko, eta bertze biak badoazi ihizira, Sudur-Haizek, chilintcha bat baitzen han, hura adiaraziko diotela, noiz ethor gibelera. Hasten da beraz Sudur-haize bere lanean, hau-zer-da-ko bazkari bat behar duela arthatu.

Hamarrak inguruan, kach, kach, kach, aditzen du norbeit athean. Badoa; eskale chahar bat zen. Ogi zerra bat zarrastan pikaturik, emaiten dio. Alegia eta eskuetarik eskapatu, eskale chaharrak lurrerat uzten du ogia. Haren adinaz urrikaldurik, kurtzen da Sudur-haize, berriz emaiteko. Kurtu deneko, brau, jauzi egiten dio debruak gainera. Aphur bat elgar ezin garhaituz aritu ondoan, nausitzen da eskalea. Doi-doia Sudur-haizek eskuetan zuen ganibet handia harturik, gizon gaichoa puskatzen du debruak eta emaiten eltze baten barnean. Gero, badoa. Ordukotz bi orenetara zoan.

* * *

Gure ihiztariak, chilintcharik ez entzutearekin, eta gosetuak ere zirelakotz, heldu dira zer iragaiten den behar dutela ikusi.

Beren gizona nihon ez ageri; eltzeak miatzen dituzte. Zer dute ikusten? Beren laguna pusketan emana! Nola Hachkok baitzuen hilen phizteko ahala, phuska guziak artharekin bildurik, bere gisako sinfoniak eginik, gure hila hor phizten du. Huna beraz Sudur-haize chutik. Bere laguneri berehala erraiten diote zer gerthatu zitzaion.

Biharamunean, Buchunen aldi zen jatekoaren egiteko.

Eta horri ere gauza bera gerthatu zitzaion.

Al no oír nada y estando hambrientos, los cazadores volvieron impacientes por la tardanza. ¡Buchun estaba para entonces hirviendo en el puchero! Una vez más, Hachko lo resucitó.

En esta ocasión, correspondía a Hachko estar en casa. Sus amigos no querían dejarle solo, ya que si mataban a Hachko, ¡ellos no lo podrían resucitar! Pero Hachko los despachó sin miedo alguno, diciéndoles que marcharan tranquilos.

Como siempre, toc, toc, toc, llamaron a la puerta. Era el mismo viejo mendigo de siempre. Hachko le dio una buena rodaja de pan con gesto seco:

—¡Ahí tienes, amigo!

El viejo dejó caer el pan al suelo, y suplicó a Hachko que por favor lo recogiera. Hachko, con gran sequedad, respondió:

—Si tanta necesidad tienes, ¡ya lo recogerás tú mismo! –y volvió a su trabajo.

Pero el viejo demonio se le acercó y lo agarró con fuerza. ¡En balde¡ No pudo dominarlo como a los demás. Tdespues de una pelea terrible durante un rato, el demonio desiste y empieza a escapar por la chimenea. Entonces, Hachko coge su palanca, se la clava por detrás, y así lo desgarra.

Luego vuelve sibando a su trabajo, ya que quería preparar la comida a tiempo. Cuando la comida estaba casi lista, va a ver qué hora era:

—¡Las doce menos cuarto! ¡Ya es hora de que vuelvan!. Tilin, talan, tilin, talan –comenzó a voltear la campanilla.

¡Los cazadores sorprendidos, mirándose entre ellos! No saben qué pensar. Van cuanto antes, tienen que ver qué ha ocurrido. Encuentran a Hachko en mesa, que está sirviendo caldo.

—¿Qué ha pasado, hoy no ha venido el mendigo?

—¿Será posible que ese pobre hombre desvalido os haya vencido? ¡Sentaos, por Dios!, y comed tranquilos, que aquél ya no os va a hacer daño. ¡Ahí lo tengo, tirado en loa huetrta!... –y mientras están comiendo les cuenta lo que le había pasado.

* * *

Transcurridos algunos días de ese modo, uno preparando la comida y los otros cazando, ya que todavía no habían mirado entera la casa empiezan a mirar un rincon, a mirar el otro (rincón). Al llegar a la parte más alta, se toparon con doce hombres viejos, con barbas hasta el suelo, que estaban sentados alrededor de una mesa. Con la intención de acabar con todos ellos, Hachko y Buchun fueron en busca de sus instrumentos. Armados pues Sudur-Haize con su resoplido, Buchun con su piedra de molino y Hachko con su palanca, en un abrir (y cerrar) de ojos acabaron con todos los viejos demonios (diablos).

Desde entonces fueron los dueños del palacio. Pero aún así se cansaron de la situación, ya que no veían nunca a nadie. Así que decidieron volver al pueblo.

Cogieron tres sacos de oro cada uno y, acordándose del pastor de la montaña, le dieron mil libras.

Deus ez aditzen eta gosetuak, ihiztariak ethorri ziren berantetsirik. Gure Buchun tupinan emana orduko, irakitzen ari! Hachkok pizten du hura ere.

Oraikoan, Hachkoren gain etchean egoitea. Bere lagunek ez dute bakarrik utzi nahi: alabainan Hachko hiltzen badute, hek ez dute phizten ahal! Bainan, beldur ttipiena gabe, igortzen ditu Hachkok, doazila deskantsuz.

Bethiko tenorean, kach, kach, kach, athean. Badoa Hachko. Bethiko eskale chaharra zen berriz ere. Ogi zerra eder bat emaiten dio aire idor batekin:

—Ori, adichkidea!

Ogia lurrerat erortzerat uzten du chaharrak, eta Hachko othoizten altcha dezon fagorez. Hachkok, idor idorra: —Ori, ongi beharretan balinbazira, altchatuko duzu zuhaurek! –eta itzultzen da bere lanera.

Bainan debru zaharra heldu zaio ondotik, eta azkarki lotzen. Debalde! Ez du bertzeak bezala garhaitzen ahal. Buelta bat borroka izigarrian aritu ondoan, etsitzen du debruak, eta, suphizkiari goiti abiatzen da, iheska. Hachkok, orduan, hartzen du bere palenga; sartzen dio gibel aldetik, eta hantchet porroskatzen du.

Gero, bere lanerat itzultzen da chichtuetan, bazkaria tenoreko nahizik moldatu. Egintche duelarik badoa orenari behatzera:

—Eguerdi laurden guti! Ba, hek hunarat orduko... tenorea! Dilin, dalan, dilin, dalan –hasten da chilintcharen harat hunat erabiltzen.

Ihiztariak harrituak, elgarri beira! Ez dakite zer asma. Badoazi lehen bai lehen, behar dutela ikusi zer iragaiten othe den. Atchemaiten dute Hachko mahaina emanik, saldaren atheratzen ari dela.

—Zer bada, eskalerik ez da beraz egun ethorri?

—Othe ditakena da, gizon herbail tchar harek garhaitu zaituztela? Jar zaizte, hots! eta jan zazue deskantsu; ez dautzue harek gehiago minik eginen. Hortchet dut, baratzeko alderat botaia!... –eta, bazkaltzen ari direlarik, kondatzen diote zer gerthatu zaion.

* * *

Hola zombait egun iragan ondoan, batek jatekoa egin, bertzeak ihizin, nola ez baitzuten oraino etche guzia ikusia, abiatzen dire, barne bat mia, bertzea mia. Gain gainera direnean, kausitzen dituzte hamabi gizon chahar, lurrerainoko bizarrekin, mahain baten inguruan dagozila. Oro behar dituztela garbitu, badoazi Hachko eta Buchun beren tresnen bilha. Lotzen dira beraz Sudur-Haize bere sudur haizearekin, Buchun bere errota-harriarekin, Hachko bere palengarekin, eta begiak hesteko artean, garbitzen dituzte hamabi debru chaharrak.

Ordutik, jauregiaren jabe ziren. Bainan, hola ere lasterchko unhatu ziren, nihor sekulan ikusi gabe. Egin zuten herrirat behar zutela itzuli.

Hartzen dituzte bizpahiruna zaku urhe, eta mendi gaineko artzainaz orhoiturik, hamabi mila libera emaiten diozkate hari ere.

Y así fue como nuestros hombres, habiendo hecho fortuna, enriquecidos, regresaron a su pueblo.

* * *

La noticia tuvo gran repercusión en todo el pueblo, y también en los alrededores.

Con permiso del cura y las autoridades del pueblo, los tres hombres se casaron.

Y como vivieron muy bien, de la misma manera murieron.

• Jean Barbier

Nuestra fuente: Légendes Basques. Edit. Elkar, pág. 129.

Trad. J.A.

Eta huna gure gizonak, fortuna eginik, aberats handi beren herrirat itzuliak.

* * *

Berri horrek haro handia egin zuen herri guzian, bai eta ere inguruetan.

Herriko aphez eta bertze buruzagiek hala argiturik, ezkondu ziren hiruak.

Ongi bizi izan balinbaziren, arabera hartara hil ziren.

• Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 129 or.

Los asociados

(R.M.A.)

513. Compañeros extraordinarios

Un rico, habiéndose propuesto conocer el mundo, salió de casa, y, según iba andando, encontró a un hombre haciendo una enorme carga de leña. Para atarla agarró al roble más grande, lo sacó de raíz y lo retorció. Viendo esto díjole el rico:

—Tienes que venir conmigo.

De allí a poco encontró a otro mirando arriba.

—¿En qué te ocupas? –le preguntó aquél.

—Hace una hora que he disparado un tiro: bajará dentro de otra hora.

—Ven también tú con nosotros.

Encontraron a un tercero que tenía sus oídos pegados a la tierra.

—¿Qué traes, muchacho? –preguntole el rico.

—Yo, gracias a los oídos, sé noticias de todos los sucesos del mundo.

Sin embargo, ignoro uno.

—¿Cuál es ése que ignoras?

—El ruido que al brotar hace el trigo.

—Debes (venir) con nosotros.

Encontraron a un cuarto teniendo cerrada con un dedo una de las fosas de su nariz.

—¿En qué te ocupas de esa manera? –le preguntó el más viejo.

—Con el viento de una fosa nasal muevo yo el mazo y los ejes de la herrería de ahí al lado. Si abriera las dos, esa fábrica, sacada de raíz, iría volando.

—Ven con nosotros también tú.

Al llegar a la ciudad del rey, empezaron a dar gritos de desafío.

—Si hay algún levantador de cargas como nosotros, véngase a medio camino.

Alkartuak

(R.M.A.)

513. Lagun berdingabeak

Aberats batek mundua ezagutu gura ebala ta etsetik urtenda bidez yoala gizon bat aurkitu eban egur txondor eskerga bat egiten. Bera lotzeko aritzik andienari oratu, sustarretik atara ta bidurtu eban. Au ikuseran

—Neugaz bear dok –esan eutsan aberatsak.

Arik lasterrean beste bat aurkitu eben gora begira.

—¿Zetan diarduk? –itandu eutsan ak.

—Ordu bete da bunpada bat yaurtigi dodala: beste ordu bete barru yatsiko da.

—Ator geugaz i bere.

Irugarren bat, belarriak lurrean ebazala, aurkitu eben.

—¿Zer darabilk, mutil? –itandu eutsan aberatsak.

—Munduko yoan-etorri guztien barri dakit nik, belarriai eskerak. Bat eztakit orregaitino.

—¿Zein dok eztakian ori?

—Gariak ernekeran egin daroen zaratea.

—Geugaz bear dok.

Laugarren bat aurkitu eben, atz bategaz surzilo bat itxita eukala.

—¿Zetan daragoiok olan? –itandu eutsan zarrenak.

—Surzilo baten aizeaz alboko ola orretxen gabi ta ardatzak darabildaz. Biak zabaldu banegiz, ola ori sustraitik atara ta egaz leioake.

—Ator i bere geugaz.

Errege-urira eldutakoan, aupadaka asi ziran.

—Gu lango zama-yasotzailerik badago, betor bide-erdi.

Cuando este desafío llegó a oídos del rey, hizo que trajeran a la plaza de frente a su palacio al hombre más forzudo de la ciudad. Allí estaban ya los cuatro asociados. Hizo (el rey) que llenaran por completo de oro y plata unos grandes sacos y los llevaran a la plaza. Un cortesano de su majestad les dijo a los cargadores:

—Podéis ya empezar (liter.: «Ahí sois, hombres»).

El forzudo de la ciudad (pudo levantar) algún saco que otro, pero todos, ni siquiera moverlos. El asociado retorcedor, en cambio, echándose a la espalda, como si fuera de plumas, todo el conjunto, ganó todo el dinero.

Los cuatro volvían hacia casa llenos de dinero y de regocijo.

Aupada au Erregeren belarrietara eldu zanean, uriko gizonik indartsuena bere yauregi-aurreko zelaira (plazara) erakarri eban. An egozan lau alkartuak. Urre-zidarrez zorro andi batzuk txiltxil bete ta zelaira ekarri eragin ebazan.

—Or zare, gizonok –esan eutsen yasotzaileai erregeren inguruko batek.

Uriko indartsuak, zorro bat edo beste bai, baina guztiak ezta lokatu bere. Bidurdun alkartuak barriz, pilo guztia lumazkoa bailitzan leporatuta, diru guztia irabazi eban.

Pozez ta ondasunez beterik etserantza etozan laurak.

El tercer asociado, el taimado, por lo que pudiera suceder, aplicó el oído a la tierra para saber lo que en el mundo ocurría.

—Muchachos: somos perdidos –les dijo a los compañeros.

—¿Pues qué?

—El rey trae hacia acá un número indecible de guerreros. Somos perdidos.

Irugarren alkartuak, zurrak, zerren arren, lurrean belarria ezarri eban, munduan ze barri etezan yakiteko.

—Mutilak: galduak gozak –esan eutsen lagunai.

—¿Zer ba?

—Erregek ezin esan alako beste gudari dakazak onantza. Galduak gozak, izan.

El segundo asociado, el de la escopeta, les dijo:

—No os asustéis, muchachos, no os asustéis. Quietos aquí mismo y veremos luego la capacidad de cada uno.

Pronto estuvieron delante de ellos los guerreros enviados por el rey. Según aparecían, así los mató el escopetero.

Bigarren alkartuak, eskopetadunak:

—Ez ikaratu, mutilak, esan eutsen, ez bat bere ikaratu. Geldi berton ta nor noraginokoa dan laster ikusiko dogu.

Laster ziran euren aurrean erregek bialduriko gudariak. Zelan agertu alan il ebazan eskopetadunak.

Después tuvieron que viajar por mar. El rey envió para perseguirles buques llenos de combatientes marinos. El de los finos oídos les dijo:

—Compañeros: aquí tenemos a otros.

Gero itsasoz ibili bear izan eben. Erregek ontziak betean bialdu ebazan euren yarraika itsasgudariak. Belarri-zurrak orduan,

—Lagunak, esan eutsen, emen doguz beste batzuk.

Entonces, el cuarto asociado, habiendo esperado a que aquéllos estuviesen delante, abrió sus dos fosas nasales y, dándoles viento por un lado y por otro, hundió al rey con todos sus guerreros y buques.

Los ocho asociados, valiéndose cada cual de su peculiar habilidad, consiguieron el triunfo anhelado.

Celestina Menika, de Lemona.

Este cuento y el titulado «Sei baàizale» (Seis curiosos se parecen).

Orduan laugarren alkartuak, arek noiz aurrean izango begira egonda, surzilo biak zabal-zabal ebazala, aizea ortik aizea emendik emonaz, errege ta bere gudari ta ontziok ondatu ebazan.

Celestina Menika (Lemona).

Ipuin au ta Sei barrizale alkarren antzekoak dira.

Entre los años 1919 y 1922 publicó la casa editorial de Jena Exigen Diederichs, una colección de cuentos en doce tomos titulada Die Märchen der Weltlitteratur (Los Cuentos en la literatura mundial). En el cuarto tomo, en que se exponen cuentos caucásicos (Kauhasische Märchen), hay unos pocos que tienen algún parecido con los de esta colección vasca. A este cuento nuestro, Alkartuak (Los asociados), se asemeja Der Träumer (El soñador), quinto de los cuentos del Cáucaso. Este soñador, por unas cuantas habilidades suyas, logra casarse con la hija del rey de Occidente. Al enviarle su suegro a luchar contra el rey del Oriente, se encuentra: 1.°, con uno que al labrar la tierra devoraba y digería un terrón y luego otro y otro, por cuya habilidad le llevó como socio; 2.°, con un hombre que a orillas del mar bebía gran cantidad de agua salada, al cual también le metió en sociedad; 3.°, con uno que, por no correr demasiado, tenía atado a sus pies una piedra de molino, también le hizo socio; 4.°, con uno que tenía un oído arrimado al suelo para hacerse cargo de una guerra que sostenían las hormigas entre sí; 5.°, con uno que tenía arco en mano y miraba al aire, esperando a que bajara una flecha que tres días antes había lanzado; 6.°, con uno que entraba en un palomar y, sin que las palomas lo advirtieran, les quitaba sus plumitas; 7.°, con un sacerdote que a su espalda llevaba atado un templo y donde mejor le parecía hacía alto para celebrar función eclesiástica.

- Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 26

- Resurrección María de Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 26. or.

Personajes de los cuentos

Gigantes y hombres selváticos

Erraldoiak eta bas-gizonak

Hombres selváticos:
Sileno-caballo en actitud de danza.
Pintura griega en vasos, c. 450 a.C.



Basajaun

Hombres selváticos:
Hombre selvático y su niño.
H. Schäuffelen, c. 1520.

Coloso.

Maidagan

Medidas de un gigante

Se paró a beber agua en la barra de Bermeo
con una pierna en Sollube, la otra en
Ereñusarre y la mano en la peña de Izaro.

Erraldoi baten neurriak

Parau zen ur edaten Bermioko barran, kadera
bata Solluben, bestie Ereñusarren da eskue
Izaro'ko atxien.

Hombres maravillosos

(J.M.B.)

513. Compañeros extraordinarios

Un rey se hallaba enfermo. Según cierta versión, era rey de España que vivía en Madrid.

Un carrerista emprendió un viaje a la corte pensando que sus servicios podrían ser precisos para la curación del monarca.

Según andaba en el camino, vio a un hombre echado en un prado aplicando su oído a la tierra.

Y le preguntó:

—Hombrecito, ¿qué haces ahí?

—Estoy escuchando el ruido de la semilla que germina aquí.

Maravillado del caso, le dijo el carrerista:

—Eres más hábil que los demás hombres. ¿Quieres venir conmigo a la corte? Como el rey está enfermo, quizá nos necesitarán.

—Bueno, bueno, vámonos –dijo el del oído acechador.

Viajaban, pues, ambos aventureros. Vieron luego a otro hombre con una escopeta, muy quedo, apuntando el cañón hacia arriba. Le preguntaron:

—¿Qué haces ahí?

—Acabo de herir en los aires a aquel animal que ya desciende. ¿No lo veis?

Los aventureros no lo veían por lo lejano que aún se hallaba el animal cazado. Pero, admirados de la vista del cazador, le dijeron:

—Pero ¿dónde pues?

—Allá, allá, les dijo el cazador ¿No lo veis?

Pero admirados del suceso le dijeron:

—Hombrecito, no hay otro que pueda realizar hazaña como la tuya. ¿Quieres venir con nosotros que vamos a la corte por si nos necesitan, puesto que el rey se halla enfermo?

—Bueno, bueno –dijo y partió con ellos.

Iban, pues, los tres y vieron a otro hombre que estaba sonándose violentamente por la nariz.

—¿Qué haces, buen hombre, en esa forma? –le preguntaron.

—Soplando en esta forma, muevo ese molino que está ahí.

Les pareció un sujeto extraordinario, y le dijeron:

¿Quieres venir con nosotros a la corte? Como el rey está enfermo, tal vez nos necesiten.

—Conforme –dijo el molinero.

Emprendieron la marcha los cuatro aventureros.

Luego hallaron a otro hombre que estaba cortando con el hacha un grueso madero. Y le preguntaron:

Gizaki harrigarriak

(J.M.B.)

513. Lagun berdingabeak

Errege bat gaixorik egon zan denbora batian korrikari bat Madrillera oñez abittu omen zan (denbora aitan ez zegoan, orain bezela, ez trenik ez automobilik eta orrelako gauzarik).

Eta zijuala beste gizon bat ikusi omen zuan soro batian makurtuta, belarriya lurraren gañian jarrita.

Ta galdetu omen ziyon:

—Gizontxo, ¿zertan zaude or?

Eta erantzun omen ziyon:

—¿Ni? Otsa aditzen, noiz lertzen dan onera botatako aziya.

Arrituta galdetu omen ziyon korrikariyak:

—Ta otsa, noiz lertzen dan aziya, aditzen al dezu?

—Bai, gizona, bai.

—Orduban besteak baño azkarragoa zera, ta nai baldin badezu, nerekin batian goazen Madrillera baezpaare. Errege gaixo dago ta akaso beartuko dira gutzaz eta.

—Bueno, bueno, goazen ba –esanda abittu ziran biyak.

Bazijoazen eta beste gizon bat ikusi omen zuen eskupetarekin, geldi-geldi, kañoia gora begira jarrita.

Eta galdetu omen ziyoten:

—¿Zer egiten dezu or?

Eta erantzun omen ziyen:

—Oraintxen jo det goiko pixti ura, eta badator bera.

Eta bi gizon ayek ezin ikusi omen zuten iñolako moduz ere, ta galdetu omen ziyoten:

—Baña ¿nun da ba?

—An, an –esan omen ziyen eiztariak– ¿ez aldezue ikusten?

Gertaera onezaz arrittuta, esan omen ziyoten:

—Gizontxo, ez dago zuk bezelako aziyua egingo lukenik, eta gurekin batian nai badezu juan, gu Madrillera guaz, Errege gaixo dago ta baezpaare gutzaz beartzen badire.

—Bueno, bueno –esan da, be eskupetiakin abittu omen zan.

Irurak bai omen zijuazen, eta beste gizon bat ikusi omen zuen, sudurrarekin zink eta zink ai zala, eta galdetu omen ziyoten:

—¿Ze al zea orla, gizon?

Eta erantzun omen ziyen:

—¿Ze al naizen? Esango dizuet: baa nik orrela jardun da, ibiltzen da or dagon errota ori.

—Bai zea!

—Ba, bai.

—Bueno, ondo da. Nai badezu Madrillera gurekin jun, errege gaixo dago ta, baezpaare...

—Bueno.

Laurak orain abittu omen ziran.

Beste bat berialaxen topau omen zuen, aizkoraz egur lodi bat ebakitxen ai zala. Eta galdetu omen zien:

—Cuando hayas cortado eso ¿cómo lo vas a llevar?

—Al hombro –les contestó.

Se admiraron mucho de sus fuerzas y le dijeron:

—¿Quieres ir con nosotros a la corte? Tal vez nos necesiten, puesto que el rey está enfermo.

—Sí, iré –les contestó.

—Eta ori ebakitzen dezunian ¿nola eraman biar dezu?

—Bizkarrian artuta.

Oso arritu omen ziran aren indarrarekin, eta esan omen ziyen:

—Nai badezu gurekin batian Madrillera jun, errege gaixo dago ta beartzen badirare...

—Bai, bai –esan da.

Los cinco se marcharon hasta el portal de la casa real.

Luego entró el médico a visitar al rey. Le prescribió el agua de un balneario lejano y mandó que la trajesen urgentemente.

Los palaciegos acordaron dar siete pellejos de buey llenos de oro a quien más pronto trajera esa agua.

En cuanto oyeron esto los aventureros, uno de ellos –el carrerista– se prestó a ir a dicho balneario y traer el agua para el rey. Al instante partió.

También partió una mujer que, como ellos, estaba allí a la expectativa.

Salieron, pues ambos, provistos de vasijas. Los otros aventureros allí quedaron esperando ver qué pasaba.

Bostak juan omen ziran Errege bizi zan etxeko ate ondoraño, ta zai jarri omen ziran.

Berialaxe medikua sartu omen zan Erregian etxera, gaxua ikustera, eta urruti zegon bañuetxe bateko uya agindu omen ziyon, eta azkar ekartzeko.

Etxekuak beriala esan omen ziyen, ariñena ui ari ekartzen zuanari zazpi iri-larru bete arre emango ziyela.

Au aditu zuanian beriala prestatu omen zan juateko bost ayetatik bat, nola bai zan korrikariya...

Juan omen zan beste emakume bat ere azkarra, ayetxek bezelaxe an zai zegoana.

Biyak irten omen ziran zeiñ baño zeiñ, ontzik artuta. Beste gañontzekoak zai, zer pasatuko ote zan.

El carrerista se adelantó presto a la mujer.

Y cuando provisto de agua en el balneario, regresaba, se encontró con la mujer. Ésta le invitó a descansar un poco. Quedó, pues, con ella.

La mujer puso la adormidera al carrerista y éste se puso luego dormido con la cabeza apoyada sobre un peñasco.

Entonces la mujer dejó allí su vasija y, tomando la vasija del carrerista corrió hacia la corte.

Baño gizonak berialaxe pasatu omen zuun emakumea.

Bañu-etxian uyak artuta zetorrela gizonak topo egin omen zuan emakumearekin.

Eta emakumeak esan omen zion:

—Gizon, errez irabazten didazu, ta garen pixka batian kontu batzuk esaten.

Ta ala gelditu omen ziran biyak kontu kontari.

Baño emakumeak, apustuba irabazi nairik, lo-belarra ipiñi omen zion gizonezkoari. Baita lo artu ere azkar gizonak arri koxkor baten gañian buruba zuela.

Orduan emakumeak gizonaren ontzi betetakuak artu omen zituan, eta beste ustu bat utzita, abittu omen zan korrika Madrillera.

Los compañeros del carrerista estaban inquietos por saber quién sería el primer portador del agua.

El de oído avizor oyó pasos de la mujer que se acercaba. Era de ver el desconsuelo de los aventureros.

El compañero cazador miró y vio cómo estaba dormido el carrerista. De pronto disparó un tiro y rompió el peñasco en que aquél tenía apoyada su cabeza, y le despertó.

Besteak larri omen zeuden zai, zeñen otsa adituko ote zuen.

Eta aziya noiz lertzen zan otsa aditzen zun gizon arek emakumearen pauso otsa aditu zuanian, esan omen ziyen:

—Eztigu gauza onik, emakumea zetorrek aurrena, galdu digu.

¡Eta orduban ango estuasunak!

Beste gizon eiztariyak begiratu omen zuen eta ikusi omen zuun nola zegoon bere laguna lo, arri koxkor baten gañian buruba zuala. Beriala tiatu omen ziyon tirua eta puskatu ere bai azpiyan zeukan arriya.

El carrerista, tomando la vasija vacía que había dejado a su lado la mujer, volvió al balneario, tomó las aguas y llegó a la casa real antes que la mujer.

Cobró el premio, siete pellejos de buey llenos de oro, y se lo cargaron al forzudo leñador de la compañía y volvían a su tierra cantando.

Los cortesanos pensaron que habían pagado demasiado aquella hazaña, y con numerosa tropa de guerreros, partieron en persecución.

Orduban esnatu omen zan gizona, eta ontzi uts ura artu ta juan omen zan berriz bañu etxera: artu uyak eta allegatu ere bai Madrillera emakumea baño lenago.

Jornala, zazpi idi-larru bete urre, artu omen zuun eta karga asko eramaten zunari jarri omen ziyoen bizkarrian eta bai omen zetozen etxera kantari.

Baño Madrildarrak pensatu omen zuten dire geyegi eman ziyoela eta kendu egin biarr ziyela. Eta soldadu tropa aundi bat artuta abittu omen ziran usaka.

El molinero soplador abrió las narices, aventó a los perseguidores como si fueran hojas secas.

(Comunicado en 1921 por D. Juan Mendizábal, de Vidania).

• José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: Mitología de Pueblo Vasco II-Euskal Herriaren Mitologia II. Edit. Etor-Ostoa, pág. 396.

Fuente original: J.M. de B., O.C. II, pág. 284.

Baño sudurrarekin zink-zink egiñez errotia ibiltzen zun gizon arek, danak bialdu omen zitun orbel ostro igarra bezela.

Eta gero naiko dirukin ondo bizi izan omen ziran beti.

(Bidaniko Joan Mendizabal jaunak 1921.ean kontatua).

• Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: Mitología de Pueblo Vasco II - Euskal Herriaren Mitologia II. Etor-Ostoa Argitaletxea, 396. or.

Jatorrizko iturria: J.M. de B., O.C. II, 284. or.

514. THE SHIFT OF SEX

•

514. EL CAMBIO DE SEXO

Historia de una madre y su hija

Histoire d'une mere et de sa fille

(M.A.)

514. El cambio de sexo

Había, con la madre, unos hermanos; no tenían padre.

El hijo cayó en quintos (tenía que ir de soldado).

La hermana le dijo al hermano:

—Si tú te vas de aquí, cómo vamos a mantener nosotros a nuestra madre; yo iré de tu parte como soldado, y tú estarás aquí, ayudando a la madre.

Llegaron al cuartel, y allí pasaron revista a los soldados.

Al capitán le gustó mucho aquel nuevo soldado; le parecía que era inigualable, y le entró el deseo de que lo debía coger para su servicio.

Les vino la revista de un Ministro (vino un ministro a pasar revista).

El Ministro llegó a (pasar) esa revista con su hija.

Le dijo a su padre:

—¿Ese soldado no tiene escuela, o cómo lo tienes como soldado raso?

Aquel Ministro inmediatamente pasó a aquel soldado a otra compañía.

Mientras pasaban revista a aquella compañía, la chica encontró hermoso al oficial de la compañía, pero más hermoso al soldado.

Y, otra vez le dijo al padre:

—¿Qué, padre, un soldado así, no lo puedes pues elevar de grados?

El padre lo puso general.

514. SEXU-ALDAKETA

Ama alaba batzuen ixtorioa

Histoire d'une mere et de sa fille

(M.A.)

514. Sexu-aldaketa

Baziren, amarekin, anai arreba batzuek; aitarik etzuten.

Seme hori kintuan erori zen.

Arrebak egin zion anaiari:

—Hi hemendik gan eta, guk nola behar diagu ama hazi; ni, goanen nauk hire partez soldadu, eta hi egonen haiz hemen, amaren laguntzen.

Kazernarat ailiatu eta, eman zioten soldadueri errebua*.

Kapitaina gustatu zen ainitz soldadu berri hartaz; iduritzen zitzaion pare gabea zela, eta gutizia etorri zitzaion behar zuela hartu bere zerbitzuko.

Etorri zitzaioten Ministro baten errebua.

Ministro hori etorri zen errebuo hortarat, bere alabarekin.

Egin zion aitari:

—Soldadu horrek eskolarik ez du, edo soldado xoil, nola daukazu?

Pasatu zuen soldadu hura berehala bertze kompañia baterat, Ministro harek.

Errebua konpañia hartakua pasatzen hasi zirelarik, kompañiako ofizialia ederra atxeman zuen neskatxak, bainan soldadoa ederragokoa.

Eta, berriz ere erran zion aitari:

—Zer, aita, holako soldadoa, ez dezakezu bada graduetan altxa?

Eman zuen aitak general.

Cuando el Ministro y su hija tornaron a casa, ésta le dijo al padre:

—Padre, ya me casaría yo, con gusto, con ese general.

Se casaron.

Etxeat turnatu zirenean Ministroa eta bere alaba, hunek erran zion aitari:

—Aita, esposatuko nindake, ni, gogotik, general horrekin.

Esposatu izan ziren.

Pasado un tiempo, aquella chica, sin embargo, se descontentó.

Había guerra en las Italias, y nombraron a aquel general para que fuera a la guerra, con las tropas y armadas que necesitara.

Aquel general le dijo al Ministro que no cogería hombres, que tendría suficiente con los de allí, y que iría él.

Partió en (habiendo cogido) su carroza.

Zenbeit denboren buruan, neskatxa hura, alainanba, deskontentatu zen.

Italietan gerla zen, eta izendatu zuten general hori gan zadin gerlarat, behar zituen tropa, armadekin.

Ministroari erran zion general harek etzuela hartuko gizonik, hangoak aski izanen zituela, eta bera goanen zela.

Partitu zen, bere karrosa hartuta.

Le sale al camino una anciana. Le pregunta aquella anciana:

—¿Adónde vas, desgraciado?

—El Ministro me ha nombrado para (ir a) la guerra.

La anciana le dijo:

—En tu camino te encontrarás con tres hombres: te preguntarán adónde vas y si necesitas ayuda.

Ocurrió así mismo y el general dijo a los hombres:

—Sí, voy a mal sitio, y si tenéis esa voluntad, venid conmigo.

Uno le dijo:

—No te asustes; yo haré el viaje de aquí a allá, para ver cómo están todas las cosas; seré espía.

Otro le dijo:

—Las bombas de los enemigos, con (soplando) aire, se las tiraré otra vez a ellos, encima de ellos.

El tercero, por su parte, le dijo:

—Todas las torres, ciudadelas de los enemigos se las tiraré al suelo.

Ateratzen zaio bidean atxo bat. Galdetzen dio atxo harek:

—Norat zoazi, tristea?

—Gerlarat izendatu nau Ministroak.

Atxoak erran zion:

—Zure bidean atxemanen dituzu hiru gizon: galdetuko darotzute eian norat zoazin eta laguntzarik behar duzun.

Hala hala gertatu zen eta generalak erran zioten gizoneri:

—Bai, toki txarrerat noha, eta hala balinbaduzue bolontatia, zatozte nirekin.

Egin zion batek:

—Etzaitela izi; han hemen eginen dut nik piaia, ikusteko denak nola diren; espia izanen naiz.

Bertzeak egin zion:

—Etsaien bonbak, haize batez, berritz botako diozkatet bereri, beren gainerat.

Hirugarrenak berritz erran zion:

—Etsaien dorre, zitadela guziak botako diozkatet lurrerat.

Se presentaron los cuatro hombres al lugar de la guerra.

Les dieron a los soldados muestras (maniquíes) de grandes tropas, como si llenaran todos los rincones por todos los lados.

Entonces, los enemigos la emprendieron a tiros contra esas muestras por todos lados.

Aquel hombre que soplaba el aire les envió mediante un (resoplido de) aire a los enemigos todo lo que descargaban encima de ellos.

En media hora, el enemigo fue destruido.

La guerra acabó así, y el general quería venir de vuelta con sus tres amigos; pero los tres le dejaron y desaparecieron, diciéndole que le deseaban buen viaje.

El general, bien apenado de dejar a sus amigos, llegó a casa con su carroza.

Presentatu ziren lau gizonak gerla lekurat.

Eman ziozkaten etsaieri soldadu tropa handi batzuen mustrak, alde guzietarik bazter guziak betetzen balituzte bezala.

Orduan, lotu zitzaizkoten etsaiak alde guzietarik mustra hoiki tiroka.

Haize emaile gizon harek, igorri ziozkaten haize batez etsaieri deskargatzen zuten guzia beren gainerat.

Oren erdi baten buruko, izan zen etsaia suntsitua.

Gerla, hortan bururatu zen, eta generalak nahi zuen etorri gibelat, bere hiru lagunekin; bainan, hiruek utzi zuten eta suntsitu zitzaizkon, erraten ziotelarik desiratzen ziotela piaia on bat.

General hori, ongi penarekin utzirik bere lagunak, heldu zen etxerat, bere karrosarekin.

Se encontró con la anciana en el camino, y le preguntó si había hecho bien el viaje.

Le dijo el general:

—Nunca voy a pagar las deudas en favor de mis amigos.

La anciana le dijo:

Atxoa atxeman zuen bidean, eta galdetu zion eian piaia ongi egin zuen.

Erran zion generalak:

—Sekulan ez ditut ene lagunen alderako zorrak pagatuko.

Atxoak erran zion:

—Sí, las pagarás: cuando te acuerdes te bastará decir un Pater, un Ave y una Gloria, y tendrás tus obligaciones pagadas (cumplidas).

El general vino (volvió) adonde su familia.

El marido y la mujer se arreglaron perfectamente.

Aquella anciana dio al general todas las cosa que necesitaba, tanto para ganar la guerra como para vivir bien en familia; y, desde entonces, vivieron muy bien y criaron una hermosa familia.

Si no es así, que así ocurra.

Contado por Josepe Amorena, lo aprendió en Alemania de un prisionero vasco, cuando en 1870, en tiempo de guerra, estuvo prisionero durante nueve meses y medio.

Esos detalles me fueron dados por el propio Josepe Amorena, en 1924.

• Mayi Ariztia

Nuestra fuente: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Edit. Elkar, pág. 50.

Trad. J.A.

—Bai, pagatuko dituzu: oroitzen zarenean, aski dituzu Pater, Ave eta Gloria erratea, eta zure obligazioneak pagatuak izanen ditutzu.

Generala etorri zen bere familiarat.

Senar emazteak ederki antolatu ziren.

Atxo harek eman ziozkan generalari behar zituen guziak, bai gerlarien irabazteko, bai familian ongi bizitzeko; eta, ordutik, ederki bizi izatu ziren eta familia eder bat hazi zuten.

Hala ez bada, hal gerta dadiela.

Josepe Amorenak emana, Alemanian ikasia zuen, eskualdun prisioner baten ganik 1870ean, Alemanian, bederatzi hilabete eterdi prisioner egon zelarik.

Xehetasun horiek, Josepe Amorenak berak emanak dauzkit. 1924ean.

Errebua: begiraldia

• Mayi Ariztia

Gure iturria: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Elkar Argitaletxea, 50. or.

Guarin

(R.M.A.)

514. El cambio de sexo

Un padre caballero tenía tres hijas. Era él magnate de la Corte y con frecuencia tenía que presentarse en palacio. El rey, teniendo idea de armar nuevos caballeros, le preguntó a ese padre:

—¿Qué familia tiene usted?

—Señor, tres hijas.

—¿Algún hijo?

—Uno, un gentil muchacho que se llama Guarin.

Al oír esto, la reina (de la que decían que era bruja o medio bruja) le dijo al rey al oído:

—Ése no tiene hijo.

Envió el rey al caballero a su casa en busca del hijo. Apurado iba él, cuanto más cerca de casa, tanto más apurado. Al llegar a casa, la primera a quien vio fue la hija mayor.

—¿Qué le pasa, padre, para estar tan triste?

—¿Que qué tengo? He dicho al rey que tengo hijo. El me ha replicado que se lo presente, y estoy apurado.

Cuando, al hacer la misma pregunta la segunda hija, contestó el padre lo mismo que a la mayor:

—Mejor que decir eso, ¿no hubiera sido, padre, que nos trajera un buen novio a cada una?

Al tener noticia la tercera hija de la ansiedad del padre,

—No se apure, padre –le dijo. Yo me presentaré al rey disfrazada de muchacho.

Guarin

(R.M.A.)

514. Sexu-aldaketa

Aita zaldun batek iru alaba eukazan. Erregeren inguruko andikia zan bera ta sarri yauregian agertu bear izaten eban. Erregek, zaldun barriak egiteko asmotan ebilela, aita orreri:

—¿Zuk ze familia dozu? –itandu eutsan.

—Iru alaba, yauna.

—Semerik?

—Bat, Guarin deritxon mutil eder bat.

Au entzueran, erreginak (sorgina edo erdi sorgina eizan bera) erregeri belarrira

—Orrek eztauko semerik –esan eutsan.

Erregek zalduna bere etxera semearen bila bialdu eban. Larri yoan bera, etxerago ta larriago. Alaba zarrena ikusi eban lenengo, etxeratu zanean.

—Zer dozu, Aita, orren ilun etorteko?

—¡Zer dodan! Erregeri semea daukadala esan dautsat. Berak niri eroan dagiodala ta ni larri.

Bigarren alabäak itaune bardina eginda, aitak zarrenari legez erantzun eutsanean:

—¡Ori! esan baiño ezalzan, aita, oba izango geuri senargai on bana ekartea?

Irugarren alabäak aitaren estutasunaren barri artuta,

—Aita, ez larritu –esan eutsan–. Neu yoango naz erregerengana mutil yantzita.

Se van ambos, padre e hija, a caballo, adelante y adelante. Cuando llegaron a palacio y se presentaron al rey, llamando éste a la esposa:

—He aquí a Guarin –le dijo–, aunque tú digas que no.

—¿Ese Guarin? Esa es mujer.

Envíala a aquel extenso prado.

Había en aquel prado lino a un lado, hierba al otro. La reina bruja se decía entre sí:

—Por lo mismo que es mujer, no querrá pisar el lino.

Le comunicó después esta idea al esposo.

A Guarin, o al tenido por tal, se le apareció la Madre Virgen cuando iba al prado y le dijo:

—Vete al linar.

El jinete andaba al galope en el linar.

—Mira ahí –le dijo el rey a la esposa–; anda en el linar: es muchacho.

—Que no, hombre, que no. Dile ahora que venga hacia acá y que prepare nuevamente el caballo. Tú lo verás. Por ser mujer, arreglará el caballo dentro de la cuadra. Si fuera muchacho, lo haría fuera.

Entonces llamando el rey al jinete, le dijo:

—Ve, Guarin, ve a poner al caballo nuevas correas.

Cuando iba hacia la cuadra le salió nuevamente la Virgen y le dijo al oído lo que debía hacer. Guarin entró en la cuadra en busca de las correas y con ellas preparó al caballo fuera.

—¿Lo ves? –repuntó el rey a la esposa–. Es muchacho.

—No es muchacho, sino muchacha.

Para saber si es o no lo es, envíala a la fuente con el botijo. Si trae agua, es muchacho; de lo contrario, no.

Cuando iba hacia la fuente con el botijo en la mano, la Virgen le dio este consejo al supuesto muchacho:

—En el pozo que hay junto a la fuente verás una culebra con los ojos abiertos, pero dormida. Toma en la mano este mimbre. Con él atarás bien esa alimaña en la parte trasera del caballo y después de llenar bien el botijo ven a palacio.

Sucedió esto. Al venir hacia palacio, la culebra, que venía encima del caballo, soltó una carcajada, al poco tiempo otra y otra algo más tarde. El del botijo oyó, aturdido, estas risotadas.

Apareciendo nuevamente la Virgen le dijo:

—Cuando llegues a la presencia del rey pregunta tú a la culebra la causa de esas carcajadas.

Para entonces estaban en palacio, en el balcón más espacioso, el rey, la reina y muchos cortesanos. Al llegar allí pidió Guarin al rey permiso para hablar y, obtenido, dijo a la culebra:

—Culebra: ¿por qué has hecho esas tres carcajadas?

—La primera porque he visto el tejado del palacio de mi señora madre.

La segunda, cuando he visto a mi señora madre junto al rey, su esposo, siendo dueña de todas las llaves.

Badoaz bata ta bestea, aita-alabak, zaldiz, aurrera ta aurrera. Yauregiratu ta erregerenganatu ziranean, erregek emazteari ots eginda

—Ona emen Guarin –esan eutsan–, zuk ezetz esanarren.

—¿Ori Guarin? Emakumea dozu ori.

Bialdu egikezu arako landa andi aretara.

Landa aretan aide baten linoa egoan, bestean bedarra. Erregina sorginak bere artean zinoan:

—Emakumea dan aldetik eztau linoa zapaldu nai izango.

Senarrari erakutsi eutsan gero uste au.

Guarin edo Guarintzakoa ara yoala, Ama Birjinea agertu dakon.

—Zoaz linotzara –esan eutsan. Linotzan lauroinka ebilen zaldizkoa.

—Aor bada –esan eutsan erregek emazteari–, linotzan dabil: mutila dozu ori.

—Ezetz, gizona, ezetz. Esaiozu orain datorrela onantz ta zaldia barriro atondu dagiala. Zeuk ikusiko dozu. Emakumea dalako, korta-barruan atonduko dau zaldia. Mutila balitz, kanpoan egingo leuke.

Erregek orduan, zaldizkoari beragana dei eginda,

—Zoaz, Guarin –esan eutsan–, zoaz zaldiari ugel barriak ipintera.

Kortarantz yoala Andra Mariak barriro urtenda, egin bear ebana belarrira esan eutsan. Guarinek kortan ugel-bila sartu ta kanpoan zaldia eurakaz atondu eban.

—¿Badakutsu? –itandu eutsan erregek emazteari–; mutila da.

—Ezta mutila, neskäa baino.

Dan ala eztan yakiteko bialdu txongilaz iturrira. Ura badakar, mutila da; ostean ez.

Txongila eskuan artuta iturrirantza yoala, Ama Birjineak Mari-mutillari burubide auxe emon eutsan:

—Iturri-ondoko osinean suge bat ikusiko don, begiak zabalik, baiña lo. Eutsi eskura zume au. Onetxegaz, Aitearen eginda gero, ondo lotu egikena pisti ori zaldiaren atzeko aldean, gero txongila ondo bete ta etorri adi yauregira.

Auxe yazo zan. Badatoz yauregirantza ta zaldi-ganeko suge lotuak barre-algara bat, gerotxoago beste bat, beste bat geroago. Txongildunak arriturik entzun eutsazan barre-zantzo andiak.

Andra Mariak barriro agertuta esan eutsan:

—Erregeren aurrera eldutakoan itandu egion sugeari barre-algarok zegaitik egin dabezan.

Orduko, yauregian, balkoirik andienean errege, erregina ta ondorengo asko egozan. Ara elduta Guarinek erregeri zerbait esateko eskubidea eskatu eutsan ta eskubide ori artuta, sugeari

—Suge –esan eutsan–, ¿zegaitik egin dozak iru barre-algarok?

—Lenengoa neure Ama Andrearen yauregiko telatua ikusi dodalako.

Bigarrena neure Ama Andrea bere senar erregeren alboan giltz guztien yaube eginda ikusi dodanean.

La tercera, porque una doncella como usted (esto decía por la Virgen María) me ha derrotado.

Al saber el rey a quién tenía por esposa, hizo encender un gran fuego en la misma plaza delante del palacio e hizo tostar allí a la esposa bruja. Luego, sabiendo quién era Guarin, el rey se casó con ella.

Oído en Lequeitio de labios de Dolores Echebarría.

- Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 158.

Irugarrena zeu lakoxe dontzela batek (Andra Mariagaitik zinoan au) galdu nabelako.

Erregek, emaztea nor eban yakinda, yauregi-aurreko zabalean bertan su andi bat biztu-arazo ta antxe kiskaldu eragin eban emazte sorgina. Gero Guarin nor zan yakinda, beragaz ezkondu zan errege.

- Resurrección María de Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 158. or.

531. FERDINAND THE TRUE AND FERDINAND THE FALSE

•

531. FERNANDO EL VERDADERO Y FERNANDO EL FALSO

La mujer del pelo de oro

La belle aux cheveux d'or
(J.F.C)

531. Fernando el Verdadero y Fernando el Falso

Había antes una mujer que tenía el pelo de oro. Todos los reyes y príncipes de todos los rincones pedían su mano, pero nadie le podía agradar.

Había de entre todos ellos un rey que hacía todo lo que se puede pensar para tenerla, pero en vano.

Un día, cuando dicho rey ya estaba con toda la esperanza perdida, un pequeño muchacho que estaba a su servicio dice:

—Si el rey me enviara a mí, le traería la mujer del pelo de oro.

El rey pregunta:

—¿Qué dice ese chico?

Le dan respuesta:

—Dice que no es necesario que la mujer del pelo de oro sea para ti.

El rey enseguida:

—Que lo pongan (metan) en el castillo.

Abela se llamaba aquel chico. De noche, estaba llorando en el castillo mientras decía:

—Yo aquí estoy, porque he dicho que si el rey me enviara a mí, le traería la mujer del pelo de oro.

El guardián del castillo, habiendo oído esas palabras se las dice al rey. Entonces el rey inmediatamente hace sacar a Abela del castillo, y lo envía en busca de la mujer del pelo de oro, y dice que si no la trae, perderá la vida. Parte.

531. FERNANDO EGIAZKOA ETA FERNANDO FALTSUA

Andere urre bilo

La belle aux cheveux d'or
(J.F.C)

531. Fernando Egiazkoa eta Fernando Faltsua

Bazen lehenago andere bat, bilhoa[1] ürhez[2] beit zin[3]. Bazter orotako errege ete printze orok galthatzen zien[4] haren eskia[5], bena ihurk[6] ere ez zin[3] gogatzen[7] ahal.

Bazen, orotan gati, errege bat zuinek egin beit zütin[8] phentsa ahalak oro haren ükheiteko, bena ezdeusetan.

Egün batez, errege hori esparantxak oro galdürik zelarik, haren zerbützian[5] zen muthiko xipi batek erraiten dü:

—Ni erregek igor[10] banentza, ekhar neikio[11] andere ürhe[2] bilho[1].

Erregek galthatzen dü:

—Zer dio mithiko horrek?

Arrapostia[5] emaiten deje:

—Erraiten dizü[12] ez dela nezesari andere ürhe bilho zuretako izan dadin.

Erregek berhala:

—Gaztelian[5] ezar dezela[13].

Abela deitzen zen muthiko hura. Gaian[14], gaztelian[5] nigarrez ari zen erraitez:

—Ni heben[15] niz, erran düdalakoz ni igorten[10] banendin[(a)] erregek, andere ürhe ekharriko niola.

Gaztelü zainak, entzünik elhe[16] horik erregeri erraiten deitzo[17]. Ordian[5] erregek berhala jelkh-erazten du Abela gaztelütik, eta igorten[10] andere ürhe bilhoren xerkara[18], erraiten dilarik[19-(b)] ez badü ekhartzen, bizia galdüko dila[19]. Phartitzen da.

En el camino se encuentra con un pez muriendo allí a la orilla del agua, y lo pone en el agua. El pez le dice:

—Hoy me has salvado la vida, pero yo también algún día quizás haré te lo mismo.

Más adelante ve un cuervo, atrapado en una red. Lo libera. Aquél también le dice como (lo mismo que) el pez. Más adelante ve una cabra siendo muerta por un águila. Espanta al águila y libera a la cabra. Aquélla también le dice como (lo mismo que) el pez y el cuervo.

Finalmente llega a la casa de la mujer del pelo de oro, y le dice a qué viene. La mujer no le quiere ni mirar. Por ello, tal como pedía siempre, finalmente le dice:

—Tengo un diamante en el fondo del mar, si me lo traes me tendrás.

Abela va al borde del mar, y en cuanto llega, el pez le trae el diamante.

Lleva el diamante a la mujer, pero aquélla:

—No has hecho lo suficiente; hay en este pueblo un gigante que tiene a todas las gentes asustadas, tienes que matarle.

Va Abela, y se encuentra con el cuervo, quien le dice:

—Coge una vara, y pégale en las piernas, yo le sacaré los ojos.

Así le hace y Abela le lleva la cabeza a la mujer.

Pero aquélla le dice:

— No has hecho lo suficiente. Hay al fondo de una cueva una fuente vigilada por cuatro (perros) alanos, y como el agua de aquella fuente mantiene a las gentes siempre jóvenes, me tienes que traer este frasco lleno de aquella agua.

El chico va con el coraje perdido, y ve a su cabra, quien le dice:

—Dame a mí ese frasco. Yo entraré al fondo de la cueva, y cuando aquellos alanos estén dormidos, de noche, lo llenaré.

Así hace, y la mujer del pelo de oro finalmente le dice que ha hecho bastante.

Van, pues, adonde el rey, quien hizo a los dos felices.

Contado por Mariane Etxebarne (74 años), de Sarrikota. Transcrito por el señor Malet.

Bidean batzen[20] dü arrain bat hur[21] bazterrean hiltzen an, eta hurealat[21-22] ezartzen dü. Arrainak erraiten beit deio[17]:

—Egün bizia salbatü deitak[23], bena nik ere egün batez agian ber gisan eginen deiat[9].

Aitzinago ikhusten dü bele bat, sare batetan atzamanik. Libratzen dü. Harek ere arrainak bezala erraiten deio[17]. Aitzinago ikhusten dü hüntz bat arrano batek ehaiten[24]. Arranoa ohiltzen[25] dü eta hüntza libratzen. Harek ere arrainak eta beleak bezala erraiten deio[17].

Azkenekoz heltzen da andere ürhe[2] bilhoren[1] etxera, eta erraiten zertara jiten den. Andereak ez dü nahi behatü[26] ere. Hati[27] nula bethi othoizten beit zin[3] azkenean erraiten deio[17]:

—Badiat diamant bat itsaso zolan[28], hura ekharten badeitak[23] ükhenen naik[29].

Abela juiten da itsaso bazterreala[22], eta hara deneko, arrainak diamanta ekharten deio[17].

Diamanta andereari eramaiten dü, bena harek:

—Ez dük aski egin; beit da herri huntan gigant bat jenteak oro izitürik etxekitzen[30] ditina[11], behar dük hura erho[24].

Juiten da Abela, eta batzen[20] dü belea zuinek erraiten beit dero[17]:

—Har ezak makhila bat, eta zankhoetan jo zak, nik begiak elkiko[32] ditzoat[33].

Hala egiten dio eta Abelak büria[5] eramaiten andereari.

Bena harek erraiten deio[17].

—Ez dük aski egin. Beit da leze baten zolan üthürri bat lau alanok[34] begiratzen, eta üthürri hartako hurak[21] jentiak bethi gazte etxekitzen[30] beit dütü, behar dütak[22] ekharri hur[21] hartarik fiola[35] hunen bethea.

Mithikoa juiten da koraia galdürik, eta ikhusten dü bere hüntza zuinek erraiten beit dero[17]:

—Emak eni fiola[35] hori. Ni sarthüko nük[36] lezearen zolala[28-22], eta alano hurak lo direlarik, gaiaz[14], betheko diat.

Hala egiten dü, eta andere ürhe[2] bilhok[1] azkenean erraiten deio[17] aski egin dila[19].

Juaiten dira, arren, errege gana, zuinek biak irus[37] egin beit zütin[8].

Sarrikotako Mariane Etxebarnek (74 urte) kondatua. Malet jaunak transkribatua.

Pelo de oro - Urrezko ilea

Había antes una mujer que tenía el pelo de oro.

Bazen lehenago andere bat, bilhoa ürhez beit zin.



Hiztegia

1 bilho: ilo; 2 ürhe: urre; 3 zin: zuen; 4 zien: zuten; 5 -ia: -ua; 6 ihur: inor; 7 gogatu: agradatu; 8 zütin: zituen; 9 deiat: diat; 10 igor(ri): bihal(du); 11 neikio: nenkio(ke); 12 dizü: du (alok.); 13 dezela: dentela; 14 gai: gau; 15 heben: hemen; 16 elhe: hitz; 17 deitzo, dejo: dizkio, dio; 18 xerkha: bila; 19 dila: duela; 20 batu: topatu; 21 hur: ur; 22 -alat: -rat; 23 deitak, dütak: didak; 24 ehain, eho, erho: hil; 25 ohildu: uxatu; 26 behatü: begiratu; 27 hati: hargatik; 28 zola: fondo; 29 naik: nauk; 30 etxeki, atxiki: eutsi; 31 ditin: dituen; 32 elki: jalgi, irten; 33 ditzoat: zizkioat; 34 alano: txakur alano; 35 fiola: frasko; 36 nük: nauk; 37 irus: zoriontsu

Notas:

Ver ERBEN, «Dieva Zlato Vlaska» en Codsko; LUZEL, «La princesse de Trémènezacur»; Mme. d' AULNOY, «La belle aux cheveux d'or».

Este tema también se encuentra en la historia de Tristan: Marc es el rey, Iseo Cabellos Dorados y los alcaides son los caballeros de Marc.

• Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 67.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 102 (IV) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 435.

Oharrak:

Ikus ERBEN, «Dieva Zlato Vlaska» in Codsko; LUZEL, «La princesse de Trémènezacur»; Mme. d'AULNOY, «La belle aux cheveux d'or».

Gai hau Tristanen istorioan ere aurkitzen da: Mark da erregea, Iseo Urre Bilo eta gaztelu zainak Mark-en zaldunak.

Hizkuntza:

(a) Nendin ordez, nentza behar luke, gorago bezala.

Transkripzioa:

(b) dilarik: orig. delarik. Originalean -ea, -ia eta -ua, -i idatziak dira (zerbitzin, gaztelin, agin, belik, jentik: zerbitzuan, gazteluan, agian, beleak, jenteak (Pettarrako hizkera).

• Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 67. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 102 zb. (IV) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 435. or.

545. THE CAT AS HELPER

•

545. EL GATO DE AYUDANTE

El molinero

(R.M.A.)

545. El gato de ayudante

Una vez, tenía tres niños un molinero. Estando juntos los tres niños, se les murieron el padre y la madre. Sus bienes eran un molino, un mulo y un gato. Y habiéndose repartido los bienes, a uno le correspondió el molino, al otro el mulo y al otro el gato.

El dueño del gato estaba muy triste. Le dijo el gato:

—¿Qué te pasa que estás tan triste?

—¡Ay! ¿Cómo podré yo vivir contigo?

—No serás tú el más triste. Hazme un par de zapatos.

En medio de un bosque había un palacio, y en aquel palacio, un señor. Tenía fama aquel señor de que era duende. Se fue el gato a aquel señor y le dijo:

—Dicen que eres duende.

—Sí; así lo soy.

—Dicen que los duendes se ponen en cualquier forma.

—Sí; así es.

—¿A que no te pones en figura de león?

Y el duende se puso en figura de león.

Se espantó el gato y le dijo nuevamente:

—¿A que no te pones en figura de ratón?

545. KATUA LAGUNTZAILE

Eiherazaina

(R.M.A.)

545. Katua laguntzaile

Behin eiherazain batek hirur haur zitzin. Hirur haurrak elgarrekin zirelarik, aita-amak hil zitzazkozien. Beren ontasunak eihera bat, mando bat eta gathu bat zitzien. Eta ontasunak zatitu baitzituzten, batek eihera hartu zizin, bertzeak mandoa, bertzeak gathüa.

Gathu-yabea biziki triste zuzun. Gathuak erran ziakozun:

—¿Zer duk horren triste?

—¡Ai! ¿Ni hirekin nola bizi ahal izanen nuk?

—Ehiz hi tristena izanen. Egin ezadak bota pare bat.

Oihan baten erdian yauregi bat zuzun eta yauregi hartan yaun bat. Yaun harek gizotso-fama zuzun. Gathua yaun harenganat yoan zen eta erran ziakon:

—Gizotsoa hizala erraiten die.

—Ba, hala nuk.

—Gizotsoak nahi duten irudian yartzen omen tuk.

—Ba, hala duk.

—Ehizala yartzen.

Eta gizotsoa lehoin bezala yarri zen.

Gathüa izutu zuzun eta berriz erran:

—Ehizala yartzen sagu baten irudian.

Y el duende se puso en tal forma que parecía un ratón. Entonces, lanzándose el gato sobre él, le ahogó.

Y luego, haciéndole venir a su amo, vivieron juntos en el palacio.

Michel Gombault, de Donazaharre (Garazi).

• Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 390.

Eta gizotsoa sagu bat zirudiela yarri zen. Ordüan gathüak gainera yauzt eginik itho zizin.

Eta gero, bere nausia ekharrarazirik, yauregian elgarreki bizi izan zitzun.

Michel Gombault, Donazaharre (Garazi).

• Resurrección María de Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 390. or.

550. SEARCH FOR THE GOLDEN BIRD

•

550. LA BÚSQUEDA DEL PÁJARO DORADO

El mirlo blanco

The white blackbird
(W.W.)

550. La búsqueda del pájaro dorado

Como tantos otros en el mundo había un rey. Éste tenía tres hijos y era ciego.

En cierta ocasión éste supo que un rey tenía un mirlo blanco, el cual devolvía la vista.

Cuando el hijo mayor oyó esto, dijo a su padre que tenía que partir en busca de aquel mirlo blanco. El padre le dice que prefiere ser ciego a perder un hijo. Éste le responde que no tema por él. Que encontraría el mirlo, con un caballo cargado de dinero.

Va por consiguiente lejos, muy lejos. Se paraba cuando caía la noche. Una noche se dirige a una posada. Allí había tres malas mujeres muy hermosas. Éstas le dicen que después de cenar van a jugar a las cartas. El joven dice que no. Pero le ruegan tanto que al fin empieza a jugar. Pierde todo el dinero que tenía y su caballo y se adeudó todavía más de palabra.

En aquel pueblo había una costumbre, de llevar preso a quien tuviera deudas. Si no pagaba en un determinado plazo, lo mataban y todavía aun lo ponían a las puertas de la iglesia hasta que alguien pagara aquellas deudas(1). Por tanto, llevaron preso a este hijo del rey.

El segundo hijo viendo que su hermano no había regresado, le dice a su padre que le gustaría ir, que le daría un caballo y mucho dinero, pues era seguro que no perdería el tiempo. Salió éste y por fortuna se fue a aquella posada donde habían arruinado a su hermano. Después de cenar, aquellas jóvenes mujeres le invitaron a jugar a cartas. Éste dice que no.

Pero estas mujeres lo envuelven y adulan tan bien que termina diciendo que sí. Empieza por tanto, y éste también

550. URREZKO TXORIAREN BILAKETA

Xoxo xuria

The white blackbird
(W.W.)

550. Urrezko txoriaren bilaketa

Asko munduan bezela bazen errege bat. Bazituen hiru seme. Errege hura itsua zen.

Jakindu zuen egun batez bazuela errege batek xoxo xuri bat zeinak bista ematen beitzuen.

Seme zaharrenak aditu zuenian hori, erraten du bere aitari gan behar duela lehenbailehen xoxo haren billa. Aitak erraten dio nahiago duela itsu izan eziñez eta haur hartaz gabetu. Erraten dio semeak ez beldurrik izateko hartaz. Zaldi eder bat diruz kargatuarekin atzemanen duela eta ekharriko xoxua.

Badoha beraz gan gan gan. Gaba ethortzen zenian arrastatzen zen. Arrats batez badoha ostatu baterat. Baziren hiru andre gaxto arras ederrak. Afal ondoan erraten diote, hari behar duela jokotan. Erraten du ezetz. Bañian hainbertzetan othoizten dute non hasten da. Galtzen ditu zituen diru guziak, bere zaldia ere eta zor hanitz egin bere hitzaren ganean.

Herri hartan usaia zen zorrak zituena preso emana izatia. Ez baldin bazuen pagatzen holako denboretan hiltzen zuten eta gero oraiñion ematen elizako athetan norbeitek zor hura pagatu arte(1). Ematen dute beraz errege seme hura preso.

Bigarren semeak ikhusirik anaia ez dela heldu gibelerat, erraten dio aitari nahi lukeela gan, emateko zaldi bat eta diru hañitz eta ez duela segurki denbora galduko. Partitzen da. Eta, hala beharra, badoha anaia errobiñatu[1] zuten ostatu hartarat. Afal ondoan andre gazte hekiek erraten diote behar duela ari jokotan. Erraten du ezetz.

Bañian andre gazte hekiek haren ungi itzultzen dute eta mañastatzen[2] non finitzen beitu erratean baietz. Hasten da beraz eta harek ere galtzen ditu bere diru guziak, bere

pierde todo su dinero, su caballo y todavía aun hace más deudas. A éste lo llevan preso, como a su hermano.

Pasa el tiempo y el rey y el hijo joven entristecen pensando que les habría ocurrido alguna desgracia, y el hermano joven dice a su padre:

—Tienes que dejarme ir por favor, padre. Te aseguro que yo sí haré algo. No te preocupes por mí.

Aquel pobre padre le dejó ir. Pero no de buena gana. Siempre le decía que prefería seguir siendo ciego.

Pero el hijo no le escuchaba, quería irse. Le da el padre un hermoso caballo y tanto dinero como éste podía acarrear y su corona.

Va, ir, ir, ir. Se detenía todas las noches, y como sus hermanos llegó también a la misma posada. Después de cenar le dicen aquellas mujeres que era costumbre jugar. Que todo el mundo jugaba. Éste dice que no se extraña. Aquellas mujeres le rogaron mucho pero con este no lograron nada, de ningún modo. No les fue posible.

A la mañana siguiente se levantó temprano. Cogió su caballo y se iba cuando ve que a dos hombres los llevaban a matar. Pregunta cuál es el delito (reconoce a sus hermanos). Le responden que no pagaron las deudas a tiempo y que los llevaban a matar. Éste paga las deudas de los dos y marcha adelante.

Al pasar por la puerta de la iglesia ve que escupían a algo. Pregunta de qué se trataba. Le responden que se trata de un hombre muerto. Que tiene deudas y que lo dejarán allí mismo hasta que alguien los pague. Aquél paga también las deudas de éste.

Sigue adelante y por fin, llega a la casa del rey que tenía el mirlo. El hijo del rey le pregunta si tenía al mirlo blanco que devolvía la vista. Éste le responde que sí.

Le cuenta nuestro joven cómo tenía un padre ciego y que llegaba de muy lejos en busca de aquél. El rey le responde que le dará el mirlo blanco en cuanto le traiga de la casa de tal a una joven mujer que se encontraba en ella.

Nuestro muchacho va, ir, ir, ir.

Cuando llega cerca de la casa del rey, se le acerca un zorro(2) y le dice:

—¿Adónde vas?

Y le responde:

—Busco a una joven de la casa del rey.

Éste le da el caballo al zorro para que lo guarde y aquél le dice:

—Irás a tal habitación. Allá estará la joven mujer que necesitas. No la reconocerás porque está vestida con ropas viejas. Pero en su habitación cuelgan unas muy hermosas. Pídele que se ponga una de ellas. En cuanto se la ponga empezará a cantar y hará despertar a toda la gente de la casa.

Va pues adentro tal como le había dicho el zorro. Encuentra a la joven mujer. Le manda vestir un bonito vestido y nada más ponerlo empieza a cantar repetidas veces. Todos vienen a la habitación de aquella joven mujer. Y el rey entra en cólera y quería llevarle preso a aquél.

zaldia eta zor hanitz egiten oraiñon. Bertze anaia bezala ematen dute preso.

Noizpeit errege eta seme gaztena xangrintzen dire malur gertatu zaiotela eta anaia gaztenak erraten du bere aitari:

—Behar nazu othoi utzi gaterat aita. Seguratzen zaitut nik eginen dutala zerbeit. Ez griña nere gainean.

Aita gaixo harek uzten du gateat. Bañian ez bihotz onez. Erraten zigoen bethi, nahiago zuela bethi itsu egon.

Bañian semeak ez du entzuten. Nahi du gan. Ematen dio aitak zaldi eder bat eta harek altxa ahala urre, eta bere korona.

Badoha gan gan gan. Pausatzen zen gau guziez eta arribatzen da bertze anaiak bezala ostatu hartarat. Afal ondoan andre gazte hekiek erraten diote usaia dela jokotan haritzeko. Denak haritzen direla. Erraten du ez dela haritzen hura. Andre gazte heiek egiten dute hainbertze othoitz bañian ez zuten erreusitu harekin nihondikan. Ez zuten posible izan.

Biharamunian jeikitzen da goiz. Bere zaldia artu eta bazuan eta ikhusten ditu erematen ari zituztela bi gizon hiltzerat. Galdetzen du zer egin duten. (Ezagutzen ditu bere anaiak). Erraten diote zorrak ez dituztela pagatu denboran eta hil behar dituztela. Pagatzen ditu harek bien zorrak eta badoha aintzinerat.

Elizako athean pasatzean ikhusten du zerbeiti egiten dutela tu. Galdetzen du zer den. Erraten diote gizon bat dela hila. Zorrak badituela eta norbeitek pagatu arte han utziko dutela. Pagatzen ditu haren zorrak ere.

Badoha aintzinerat eta arribatzen da noizpeit xoxua zuen erregeren etxerat. Galdetzen dio gure errege semeak iyan ez duen xoxo xuria, bista ematen duena. Erraten dio baietz.

Kondatzen dio gure jaun gazteak nola aita itsua duen eta harentzat heldu den billa hainbertze bidetan. Erregek erraten dio emanen diola xoxo xuria ekhartzen digoenian holako erregeren etxetik andre gazte, han den bat.

Gure muthiko badoha gan gan gan.

Urbildu denian erregeren etxe ondorat atheratzen zaio axeri(2) bat. Erraten dio:

—Norat zuazi.

Erraten dio:

—Erregeren etxetikan behar dut andre gazte bat.

Ematen dio zaldia gardatzera axeri hari eta erraten dio axeriak:

—Ganen zare holako geletarat. Han izanen da zuk behar duzun andre gaztea. Ez duzu ezagutuko, zeren arropa xahar batzuek izanen beititu. Bañian haren gelan badire ederrak dilindan. Eman araziko diozu hekietarikan bat. Hura eman orduko asiko da kantaz; atzar araziko ditu etxeko jende guziak.

Badoha barnerat axeriak erran bezala. Atzematen du andre gaztea. Eman arazten dio arropa ederra eta jauntzi orduko hasten da kantaz errepikaz. Denak ethortzen dire andre gazte haren gelarat. Errege koleran, nahi zuen preso eman arazi.

El hijo del rey enseña su corona y dice que ha sido enviado por tal rey en busca de aquella joven mujer. Que si la llevaba le prometían el mirlo blanco para devolver la vista a su padre.

Este rey le dice entonces:

—Tienes que ir a casa de un tal rey y traerme de allá un hermoso caballo blanco.

Erregeren semeak irakusten du bere korona eta erraten du nola egorri duen holako erregek andre gazte haren billa. Hura ereman eta agindu diotela xoxo xuria bere aitaren begien argitzeko. Erraten dio orduan erregek:

—Gan behar duzu holako erregeren etxerat eta handik ekharri behar nazu zaldi xuri eder bat.

Nuestro joven señor parte.

Va, ir, ir, ir. Y al acercarse a la casa de aquel rey se le acerca el zorro. Y le dice:

—El caballo que necesitas está en tal sitio. Pero lleva una vieja montura. Le pondrás una hermosa y brillante montura que cuelga por allá. En cuanto se la pongas el caballo empezará a relinchar(3), como si no pudiera callar. Llegará todo el servicio del rey a ver qué pasa. Pero tu corona te salvará.

Va entonces, tal como le había indicado el zorro, y encuentra al caballo con una vieja montura. Éste le coloca la nueva y empieza el caballo a relinchar, como sin poder detenerse. La gente llega. Lo querían llevar preso.

Pero éste muestra la corona, y cuenta qué rey lo había mandado a por aquel caballo, para conseguir a la joven mujer.

Partitzen da gure jaun gaztea.

Badoha gan, gan, gan. Eta urbiltzean erregeren etxerat agertzen zaio axeria. Erraten dio:

—Holako tokitan da zuk behar duzun zaldia. Bañian zela xahar batekin da. Emanen diozu dilindan den zela eder eta distirant bat. Hura eman orduko asiko da zaldia irrintzinaz(3), ezin arrastatu gisan. Erregeren jende guziak ethorriko dire ikhusterat zer pasatzen den. Bañan zure koruarekin libratuko zare.

Axeriak erran bezala badoha eta atzematen du zaldia zela xahar batekin. Ematen dio ederra eta hasten da irrintzinaka, ezin arrastatu bezala. Heldu dire jendeak. Nahi dute mutil hura preso eman.

Bañian irakusten du korua eta kondatzen du zeñ erregek egorri duen zaldi haren billa, izateko andre gaztea.

Le entregan el caballo y éste marcha así. Llega a la casa del rey donde se encontraba la joven. Enseña a éste el caballo con su hermosa montura y le propone al rey si no querría ver a aquella joven mujer dar una vuelta delante de casa montada sobre aquel hermoso caballo. El rey le responde que sí.

Aquella joven mujer iba elegantemente vestida. En cuanto sube encima del caballo le da un tortazo con la fusta y éste sale como un rayo. El hijo del rey le sigue y van los dos a donde el rey que tenía el mirlo blanco. Llegan el señor y la señora. Le preguntan al rey por el mirlo. (El mirlo blanco, por su parte, va al regazo de la joven que está montada a caballo. El hijo del rey le da un tortazo y marchan a galope. El señor también escapa con ellos). Y se marchan.

Ematen dio zaldia eta partitzen da. Arribatzen da andre gaztea zen erregeren etxerat. Irakusten du zaldia bere zela ederrarekin eta erraten dio erregeri iyan ez luken nahi ikhusi andre gazte hura basakurte[3] hartan tornu bat egiten zaldi eder haren ganean. Erregek erraten dio baietz.

Ederki beztitua zen andre gazte hura. Izatu denian zaldiaren gañerat ematen dio zarta bat bere makillarekin eta partitzen da ximixta bezala. Erregeren semeak segitzen du eta badohazi biak errege xoxua zubenarenganat. Arribatzen dire jaun andreak. Galdetzen dio xoxua. [Eta xoxoa badoha bere baitarik andrearen altzorat, zaldiz zegoelarik. Erregeren semeak zarta bat ematen dio eta badoazi lauhazka. Bera ere eskapatzen da haien ganat.][3b] Eta partitzen dire.

Van, ir, ir, ir. Cuando se acercaron a su ciudad los hermanos recibieron la noticia de que su hermano había llegado con el mirlo blanco.

Estos hermanos por fin llegan a casa del padre y le contaron a éste cien mentiras. Que el dinero que les había dado les habían robado unos ladrones y muchas cosas parecidas.

Estos hermanos se ponen de acuerdo en que iban a hacerle retroceder a su hermano, impidiéndole volver a casa y le iban a robar el mirlo. Andaban vigilantes.

Un día lo ven llegar y se dicen mutuamente que debían arrojarlo a un pozo(4).

Hacen según lo acordado. Les quitan el mirlo, arrojan al señor y a la señora al pozo y dejan fuera los caballos.

Badohazi gan, gan, gan. Urbildu zirenean beren hirirat anaiek artu zuten berria nola heldu zitzaioten anaia xoxo xuriarekin.

Noizpeit bertze anaiak heldu ziren beren aitaren etxerat eta erran zioten ehun gezur. Ohoñek hartu ziotela beren dirua eta holako gauza hanitz.

Bi anaiek elkar aditu eta egiten dute behar dutela anaia gibelatu etxerat ethortzetik eta ebatsi behar diotela bere xoxua. Badohazi bethi beira.

Egun batez ikhusten dute ethortzen eta elkharri erraten diote behar dutela ziterna[4] baterat botatu(4).

Egiten dute erran bezala. Hartzen diote xoxua eta botatzen dituzte jaun andreak urerat eta uzten zamariak kanpoan.

Se acerca el zorro a la orilla del pozo y les dice:

—Yo saltaré ahí. Os ataréis primero a uno y después al otro a mi cola y os salvaré.

Heldu zaiote axeria ziternako bazterrerat eta erraten diote:

—Nik egiñen dut horrarat salto. Lotuko zarezte bapanazka nere buztanari eta salbatuko zaituztet.

Personajes de los cuentos

Gigantes, ogros y forzudos



El soplador

—El rey trae un número indecible de guerreros.

Entonces, el cuarto asociado, abrió sus dos fosas nasales y, dándoles viento por un lado y por otro, hundió al rey con todos sus guerreros y buques.

Putsegilea

—Erregek ezin esan alako beste gudari dakazak.

Orduan laugarren alkartuak, surzilo biak zabal-zabal ebazala, aizea ortik aizea emendik emonaz, errege ta bere gudari ta ontziok ondatu ebazan.

Hamalau

Cogió un haya entera a la espalda, talada desde el pie.

Hartz-kume se dijo para sí:

—¡Yo ya soy, pues extraordinario!

¡Pero, cuidado, que ése también tiene algo de eso!

Fago ondo bat osorik hartu zuen bizkarrean, ipurditik pikatuta.

Hartz-kume horrek egin zuen bere buruari:

—Ni banauk, baina baduk haatik hori ere!

Botas mágicas

Los tres hermanos, contentos de haber escapado. Como saben del poder de la bota del tartalo, se acercan a su enemigo, y suavemente, sin hacerle despertar, le sacan las botas.

Vuelven al castillo del tartalo y le dicen a la criada:

—Venimos de parte del señor a entregar sus botas; te manda que nos des a nosotros los dineros de su armario, pues está contento de que nosotros las hayamos encontrado.

La criada hizo como le dijeron, y nuestros chicos fueron a casa cargados de dinero y habiendo hecho fortuna.

Bota magikoak

Hirur anaiak, kontent espakatuz, bazuatzin. Apertzebitzen dute tartaroa lo dagola. Nola beit dakite tartaroaren botaren botherea, hurbiltzen dire bere etsaiarengana, eta eztiki, iratzar arazi gabe, atheratzen diozkite botak.

Turnatzen dire tartaroaren'gaztelura eta erraiten neskatoari:

—Orizu, heldu giutzu jaunaren phartez haren boten errendatzera; igortzen dautzu haren kamineteko diruak guri emaiteko, zeren kontent bait da guk horik idirenik.

Neskatoak, heiek erran bezala egin zuen, eta gure muthikoak etxerat juan ziren diruz kargaturik eta fortuna eginik.



Los dos malos hermanos cogen al mirlo, pero nada más entrar en casa se les escapa. Y vino a posarse encima del caballo blanco.

Imagínense la alegría de éstos (del hermano pequeño, de la joven etc), que no les faltaba de nada. Van de esta forma adonde el rey. Nada más entrar en casa, la joven señora empieza a cantar repetidas veces. También el mirlo y el caballo a relinchar. El mirlo por su parte va al regazo del rey y empieza a cantar; éste con su canto le devuelve la vista al padre.

El hijo le cuenta las penalidades que ha tenido que sufrir hasta conseguir estas tres cosas. También le cuenta como había salvado a dos hombres que iban a matarlos pagando sus deudas, y éstos eran sus dos hermanos. Que también había pagado las deudas de otro hombre que para entonces estaba muerto. Y era el alma de aquél quien lo había salvado del pozo que sus hermanos lo habían arrojado.

Se imaginan la alegría de ver cuan hábilmente había actuado aquel joven hijo y, al mismo tiempo, la pena de ver lo malos que habían sido los dos hijos mayores.

Y como lo tenía bien merecido se casó con la joven mujer y vivió feliz y contento.

Y a los dos hermanos los mandó el padre al desierto a hacer penitencia.

Y si bien vivieron, bien murieron.

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Edit. Miraguano.

(1) Véase más arriba «Ezkabi Fidel» y «Juan Dekos». Existe cierta similitud entre este relato y «Mac Ian Direach», en Campbell, op. cit., Vol. II, pág. 328. Compáreselo también con «La princesa griega y el joven jardinero», relato de las «Fireside Stories of Ireland», de Kennedy. De éste relato solamente conocemos la traducción francesa que aparece en el libro de Brueyre, pág. 145. (Existe una traducción al castellano en «Cuentos Celtas», recopilados por Joseph Jacobs, y editados por Miraguano Ediciones. N. del E) «Le Mirle Blanc» es uno de los cuentos franceses más conocidos.

(2) Véase «Juan Dekos» en lo tocante al pago de deudas y al zorro. En la versión gaélica el zorro se llama «An Gille Mairtean» (Campbell, op. cit., Vol. II, pág. 329 y siguientes).

(3) Véase el robo del potro bayo en «Mac lain Direach», de Campbell, op. cit., Vol. II, Pág. 334.

(4) En el País Vasco son muy comunes las enormes cisternas semienterrradas en el suelo que se utilizan para recoger el agua de lluvia.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 1.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 182.

Bi anaia gaistoek artu zioten xoxua bainan eskapatu zitzaioten etxean sartu orduko. Eta ethorri zen zaldi xuriaren gainerat.

Pentsa zazu hekien bozkarigua[5] deus ez eskas izatea. Badohazi erregerenganat. Etxean sartu orduko asten da andre gazte hura kantaz errepikaz. Xoxua ere eta zamaria irrintziñaka. Xoxua bere beitharikan badoha erregeren altzorat eta hasi kantaz; xoxuak bere kantez eman zioen bista aitari.

Semeak kondatzen diozka zenbat pena pasatu dituen atzeman arte hiru gauza heiek. Erraten dio ere nola hiltzerat zaramaten bi gizon salbatu zituen hekien zorrak pagatuz eta hekiek zirela bere bi anaiak. Bertze gizon baten zorrak ere pagatu zituela, hila zena jadaneko eta haren arimak salbatu zuela anaiek bota zuten ziternatik.

Pentsazube aitaren atsegiña eta pena denbora berian ikhustearekin seme gazte hura zenien ungi eta prestuki ibilli zen bethi, eta ikhustia bi zaharrenak zenien tzarrak izan ziren.

Ungi irabazia izan beitzuen, ezkondu zen ekharri zuen andre gazte harekin eta bizi izatu hurus eta bozkariotan.

Eta bi anaiak egorri zituen aitak deserturat penitentzia egiterat.

Eta ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

Hiztegia

1 errobiñatu: arruinatu, ontasunak galdu; 2 mañastatu: lausengatu; 3 basakurte: etxe aintzin; 3b Krakoen arteko lerroak, frantsesez baizik ez dira. Itzulpena egin dugu; 4 ziterna: uhaska; 5 bozkarigua: bozkario, poztasun.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

(1) Ikus atzerago «Ezkabi Fidel» eta «Juan Dekos». Bada halakoxe antzekotasun bat kontakizun honen eta «Mac Ian Direach»-en artean, Campbell-en, op. cit., II. libk., 328. or. Aldera bedi, baita «La princesa griega y el joven jardinero»-rekin, Kennedy-ren «Fireside Stories of Ireland»-eko kontakizunekin. Kontakizun honetaz ez dugu frantses itzulpena baizik ezagutzen, Brueyre-ren liburuan, 145. or. azaltzen dena. (Bada gaztelerako itzulpen bat «Cuentos celtas», Joseph Jacobs-ek bildu eta Miraguano Argitaldariak argitaraturikoa. Argit. Oh.) «Le Mirle Blanc» da frantses ipuinik ezagunenetariko bat.

(2) Ikus «Juan Dekos» zorrak ordaintze kontutan eta azeriarenean. Galiarren aldaeran azeriak «An Gille Mairtean» du izena (Campbell, op. cit., II. libk., 329. or. eta hur.).

(3) Ikus zaldi horixkaren lapurreta Campbell-en «Mac lain Direach»-en, op. cit., II. libk., 334. or.

(4) Euskal Herrian oso arruntak dira euri-ura biltzeko erdi-lurperaturik erabiltzen diren askatzarrak.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 1. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 182. or.

El pájaro que curaba a los enfermos

L'oiseau dont le chant guérit
(J.F.C.)

550. La búsqueda del pájaro dorado

Un padre tenía tres hijos, el último cojo.

El padre enfermó, y oído que un pájaro cantor curaba a todos los enfermos que lo tocaban, envió a su hijo mayor a coger aquel pájaro, después de darle una gran suma de dinero. El chico partió, y fue a una ciudad donde gastó rápidamente su dinero, pues llevaba una mala vida.

Como el mayor no regresa, el padre envía al segundo hijo, tras darle de la misma manera a aquél también mucho dinero. El segundo hijo partió y se encontró en aquella ciudad con su hermano, con quien se unió, y gastó de la misma manera todo su dinero.

El tercer hijo, viendo que sus hermanos no regresaban, le dice a su padre que él quería ir a buscar al pájaro cantor.

Deja la casa, y al pasar por un pueblo, en la puerta de la iglesia ve un cuerpo muerto que no querían enterrar. Pregunta por qué no quieren enterrar a aquel muerto. Le responden que sus acreedores no quieren dejar que sea enterrado. Entonces el cojo dice que los acreedores sean hechos venir, que él quería pagarles. Los acreedores vinieron. El cojo les repartió todo el dinero que tenía con él, y se pudo enterrar al muerto.

Mientras iba por el camino, aquel cojo se encuentra con un zorro, quien le pregunta adónde iba. El cojo le responde que tiene que buscar un pájaro cantor, para curar a su padre enfermo. El zorro le recomendó que no pasara por tal ciudad, donde sus hermanos se encontraban empobrecidos, porque, si le veían, le matarían.

Con la esperanza de ver a sus hermanos, y a pesar de la recomendación del zorro, el cojo va a aquella ciudad, y tras apercibirse de ello sus hermanos, lo agarraron y echaron al agua.

¡El pobre cojo se encontraba en el agua, debajo de un puente, sin nadie que viniera a sacarle de allí!

Se le apareció el zorro y le dijo:

—¡Qué! ¿Tú ahí? ¿No te dije que no fueras al encuentro de tus hermanos? ¡Mira lo que te ocurre! ¿Quieres salir de esa agua?

—Sí —le da respuesta el cojo.

Entonces el zorro le ofrece su rabo y le dice que lo agarre con sus manos, a fin de que pueda salir del agua.

Tras salir del agua, el zorro le dice:

—Vete a tal lugar, a tal establo. Allá encontrarás dos jaulas, una nueva, donde se encuentra el pájaro que tienes que coger. Pero estate atento para que no toques primero la jaula nueva, porque si no el pájaro podría empezar a cantar y podría escapar. Toca primero la jaula vieja, y entonces cogerás fácilmente el pájaro.

Eriak sendatzen zituen txoria

L'oiseau dont le chant guérit
(J.F.C.)

550. Urrezko txoriaren bilaketa

Aita batek ba züten[1] hirur seme, azkena txainkü[2].

Aita eritü zen, eta entzünik txori khantari batek, hura hunkintzen zien eriak oro sendatzen zütela[1], igorri zin bere seme zaharrena txori haren atzamaitera, eman ondoan diharü[3] suma handi bat. Mothikoa phartitü zen, eta jun hiri batetara nun fitez despendiatü beit zin[4] bere diharia[3-5] bizitze gaixto bat eramaiten zilarik[4].

Zaharrena ez jiten izanez, aitak igorten[6] dü bigarren semea, eman ondoan ber gisan hari ere diharü[3] hanitx. Bigarren semea phartitü züzün[7] eta errenkontratü hiri hartan bere anaia, zuineki ligatü beit zen, eta despendiatü ber gisan bere diharia[3-5] oro.

Hirurgarren semeak, ikhustez ez zirela bere anaiak jiten, erraiten deio[39] bere aitari hura nahi zela jun txori khantariaren txerkhatzera[8].

Etxea kitatzen[9] dü, eta herri batean igaraitean, eliza bhortan[10] ikusten dü khorphitz hil bat zuina ez beit zien[11]nahi ehortzi. Galthatzen dü zergatik ez dien[12] nahi hil hura ehortzi. Arrapostü emaiten dereie[13] haren hartzedünek ez direla nahi ützi ehorztera. Ordian[5] txankiak erraiten dü jin eraz zitzen hartzedünak, harek nahi zütila[7] phakatü. Hartzedünak[14] jin ziren. Txankiak[2-5] phartitü zieien[15] beraki zin diharia oro, eta hila ehortzerik izan zen.

Bidea gainti[16] juiten zelarik, txankü[2] harek errenkuntratzen dü axeri bat zuinek galthatzen beit deia[39] nurat juiten zen. Txankiak[2-5] arrapostü emaiten dio ba duala txori khantari baten txerkhara[8], aita eriaren[17] sendo arazteko. Axeriak gomendatü ziozün[18] ez zedin igaran holako hiritik, nun haren anaiak edireiten[19] beit ziren praubetürik, ezi[20], ikhusten balin ba zien[11], hilen ziela[11].

Bere anaien ikhusteko esparantxan, eta axeriaren gomendia gatik, txankia[2-5] badoha hiri hartara, eta bere anaiek aperzebitü ondoan, atzaman zizien[21] eta urthuki[22] hurealat[23-24].

Gaixo txankia[1-5] hurean[23] edireiten[19] zen, zübü[25] baten pean, ihur[26] ere jin gabe haren hantik idekitzera[27]!

Axeria agertü ziozün[18] eta erran:

—Zer! Hi hor? Ez neiana[28] erran ez juiteko hire anaien errenkontriala[24-5]? Horra zer heltzen zaian! Nahi hiza[29] jalki[30] hur hortarik?

—Bai —arrapostü emaiten deio[7] txankiak[2-5].

Ordian axeriak presentatzen diozü[31] bere büztana eta erraiten atzaman dezan bere eskiez[5], amorekatik[32] eta idok[27] ahal dezan huretik[23].

Huretik[23] ideki[27] ondoan, axeriak erraiten diozü[31]:

—Abilua[33] holako lekhiala[24-5], halako establiala[24]. Han edirenen dütük bi kaiola, batea berria, zuintan edireiten bait da hik atzaman behar dian[34] txoria. Bena untsa abisa adi ez dezaian[35] hunk[36] lehenik kaiola berria, bestela txoria has litakek khantatzen eta eskapa litatek. Hunk[36] ezak lehenik kaiola zaharra, eta ordian aisa[37] atzamanen dük txoria.

Al pasar por un pueblo, ve en una galería a una joven mujer que estaba cosiendo, y se enamoró de ella.

En ese mismo lugar se topa con el zorro, quien le dice si fue contento o no con el pájaro, y si quería o no alguna cosa más. El cojo le da respuesta que vio en tal lugar una hermosa mujer joven que le agradaba mucho. El zorro le dice que vaya a tocar la puerta de aquella mujer, que bajaría, y que le seguiría.

El cojo iba, al fin, a casa con el pájaro y con la mujer joven.

Se encuentra otra vez con el zorro, quien le dice si no quería alguna otra cosa.

El cojo le dice que en tal establo había visto un hermoso caballo y que lo quería. El zorro le aconseja que vaya a aquel establo, que vaya primero al establo viejo que había al lado, que si no el caballo empezaría a relinchar, y que no podría alcanzarlo.

El cojo siguió las instrucciones del zorro y volvió con el pájaro, la mujer y el caballo.

Mientras pasaba por el pueblo donde estaban sus hermanos, se encuentra con ellos, y tras tratarle mal los hermanos, lo echan, se llevan consigo el pájaro, la mujer y el caballo y parten hacia la casa del padre.

El zorro se le aparece de nuevo al pobre cojo y le dice:

—¡Qué! ¡Ahí estás tú todavía en esa situación! Tus hermanos ya están en casa y están intentando hacer curar a tu padre tocando (éste) el pájaro. Pero no lo pueden conseguir, y el pájaro, la mujer y el caballo están terriblemente tristes. Si quieres que te libre de esa situación, me tienes que dar la palabra de (que me darás) la mitad del hijo que vas a tener de aquella mujer.

El cojo le dio la palabra, y tras ser liberado de su mala posición partió y fue a casa de su padre.

Al entrar en casa el pájaro se puso a cantar, la mujer a reír y el caballo a relinchar. El cojo cogió el pájaro y tocó con aquél a su padre, quien fue total y completamente curado.

El padre, tras conocer la conducta de sus dos primeros hijos en comparación con la de su hermano, los hizo poner en prisión. Tal y como le dijo el zorro, el cojo tuvo un hijo.

* * *

Un domingo la madre del niño fue a oír misa, mientras el cojo cuidaba al niño. El zorro le vino y dijo a ver si se acordaba o no de la promesa que le había hecho a él de darle la mitad del hijo; que ahora había llegado el momento de dárselo.

El cojo le responde que sí, y entonces se pone a afilar un cuchillo, para cortar al niño en dos pedazos. Pero el zorro le dijo:

—Ahora conozco (sé de) tu fe, y conserva tu hijo. Yo soy el alma del cuerpo que hiciste enterrar al pasar por tal pueblo. Ahora ya voy al cielo, donde te prepararé una butaca a mi costado.

Contado por Marider Aroztegi (74 años). Transcrito por el señor Dugué (Santa Grazi).

Herri batean igaraitean, ikhusten dizü[38] galeria batean andere gazte eder bat josten ari zela, eta hartaz amorostü zen.

Ber lekhian[5] errenkuntratzen dizü[38] axeria, zuinek erraiten beit deio[39] eia kuntent juiten zenez txoriareki, eta ez zinez[4] desiratzen besterik deus ere. Txankiak[2-5] arrapostü emaiten diozü[31] ikhusi zila[4] holako lekhian[5] andere gazte eder bat zuina hanitx agradatü beit zitzeion[40]. Axeriak erraiten dio jun dadin andere haren bortharen[10] joitera, eraitseko[41] zela, eta jarraikiko zitzaiala[40].

Txankia[2-5] ba zuan [42], arren, etxerat txoriareki eta andere gaztearekі.

Berriz ere errenkuntratzen dizü[38] ber axeria, zuinek erraiten beit deio[39] ez zinez[4] besterik deus ere desiratzen.

Txankiak erraiten diozü[31] holako establian ikhusi zila[4] zamari eder bat eta desiratzen zila[4]. Axeriak kontseilatzen diozü[31] jun dadin establia hartara, juiten delarik lehenik khantian[43-5] zen establia zaharreala[24], bestela zamaria zinkhaz[44] hasiko zela, eta ez zila[4] atzaman ahal ükhenen.

Txankiak jarraiki zitizien[45] axeriaren instrükzioneak eta ützüli txoriareki, anderearekі eta zamariareki.

Igaraiten zelarik bere anaiak ziren hirian, errenkontratzen ditüzü[46], eta anaiek gaizki tratatü ondoan, urthukitzen[22] dizie[47], bere batetarat eramaiten txoria, anderea eta zamaria eta phartitzen beren aitaren etxerat. Axeria berriz agertzen zaio gaixo txankiari eta erraiten deio[39].

—Zer! Horra hi orano posizione hortan! Hire anaiak deja[48] etxen dütük eta eseiatzen[49] dütük hire aitaren sendo eraztera txoriaz hunkitzez[36]. Bena ez die[12] erreusitzen[50] ahal, eta txoria, anderea eta zamaria izigarri triste dütük. Nahi badük libra hezadan posizione hortarik, behar deitadak[51] hitz eman andere haren ganik ükhenen dian[34] haurraren erdia.

Txankiak hitz eman zion, eta bere posizione gaixtotik libratürik izan ondoan phartitü, eta jun bere aitaren etxerat.

Etxen sartzean txoria jarri zen khantatzen, anderea irriz eta zamaria zinkhaz[44]. Txankiak hartü zizün[52] txoria eta hartzaz hunki[36] bere aita, zuina osoki sendorik izan beit zen.

Aitak, jakin ondoan bere bi lehen semeen kondüta beren anaiaren eretzean[53], presuntegian izar[64] erazi zitizün[54]. Axeriak erran zeien[62] bezala, txankiak ükhen zin[4] seme bat.

* * *

Igante batez haurraren ama jun züzün[7] mezaren entzütera, txankiak haurra begiratzen zin denboran. Axeria jin ziozün[18] eta erran orhitzen[55] zenez egin zion promesaz hari haurraren erdiren emaiteko, mementa jinik zela orai emateko.

Txankiak arrapostü emaiten diozü baietz, eta hainbestenareki, jarten düzü nabela[56] baten zorrozten, haurraren bi buxitan[57] muzteko. Bena axeriak erran ziozün[18]:

—Ezagützen diat orai hire fedea, eta kontserba ezak hire haurra. Ni nük[58] hik holako herrian igaraitean ehortzi erazi hin khorpitzaren arima. Orai ba niuak zelialat[60], nun prestatüko beit deiat[62] fotuil[63] bat ene saihetsean.

Marider Aroztegik (74 urte) kondatua. Dugué jaunak (Santa Garazi) transkribatua.

El zorro servidor
Se encuentra otra vez con el zorro,
quien le dice si no quería alguna otra cosa.

Axeri laguntzailea
Berriz ere errenkuntratzen dizü ber axeria,
zuinek erraiten beit deio ez zinez besterik
deus ere desiratzen.

Notas:

Véase GRIMM, «L'oiseau d'or»; KENNEDY, «La princesse grecque» y «Le jeune jardinier»; ERBEN, «Ohnivak» en Chodsko; SEBILLOT, «Le petit roi Jeannot». Y también el cuento francés «Jean de Calais»

• Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 64.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 101 (IV, 87-92) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 435.

Hiztegia

1 züten, züti(e)n: zituen; 2 txa(ilnkü: erren; 3 diharü: diru; 4 zin: zuen; 5 -ia, -ie: -ua, -ue; 6 igorri: bihaldu; 7 züzün: zen (alok.); 8 txerka: bila; 9 kitatu: utzi; 10 bortha: ate; 11 zien: zuten; 12 die: dute, ditek; 13 dereie: diote; 14 hartzedün: akreedore; 15 zieien: zien; 16 gainti: zehar; 17 eri: gaiso; 18 ziozün: zion (alok.); 19 ediren: ¡doro, aurkitu; 20 ezi: zeren; 21 zizien: zuten (alok.); 22 urthuki: jaurtiki; 23 hur: ur; 24 -ala: -ra; 25 zübü: zubi; 26 ihur: inor; 27 ideki, idoki: atera; 28 neiana: al nian; 29 hiza: al haiz; 30 jalki: irten; 31 diozü: dio (alok.); 32 amoreakatik: afin (de) que: 33 abilua: habil-hoa; 34 dian: duen; 35 dezaian: dezaan; 36 hunk(itu): iku(tu); 37 aisa: errez; 38 dizü: du (alok.); 39 deio, deia: dio; 40 zitzeion, zitzaian: zitzaion; 41 eraitse: jetsi; 42 zuen: zoan, zihoan; 43 khantü: alde, ondo; 44 zinkha: irrintzi; 45 zitizien: zituen (alok.); 46 ditüzü: ditu (alok.); 47 dizie: dute (alok.); 48 deja: jadanik; 49 eseiatu: salatu; 50 erreusitu: lortu; 51 deitadak: didak; 52 zizün: zuen (alok.); 53 eretzean: aldean; 54 zitizün: zituen (alok.); 55 orhit: oroit, gogora; 56 nabela: haizto; 57 buxi: zatitxo; 58 nük: nauk; 59 hin: huen; 60 zelü: zeru; 61 deiat: diat; 62 zeien: zion; 63 fotuil: besalkia; 64 izar: ezar

Oharrak:

Ikus GRIMM, «L'oiseau d'or»; KENNEDY, «La princesse grecque» eta «Le jeune jardinier»; ERBEN, «Ohnivak» in Chodsko; SEBILLOT, «Le petit roi Jeannot». Baita ere «Jean de Calais» Frantziako ipuina.

• Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 64. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 101 zb. (IV, 89-92) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 435. or.

Historia de un chico

Histoire d'un jeune homme

(M.A.)

550. La búsqueda del pájaro dorado

Como muchos otros, había en Urdax una madre y dos hijos.

Como nosotros, era gente bastante necesitada.

El hijo mayor le dijo a la madre:

—Madre, debo irme, a ver si encuentro la manera de ganar algo de dinero.

La madre tenía un pequeño pan; se lo dio para el camino.

Le vino a este chico un gato maullando. Le dijo:

—¡Ah, pobre, tú también tienes hambre!

Y le dio un cuarto del pan.

Mientras iba adelante, le sale un pollo.

Le da a aquél, pues el hambre le perseguía por detrás, otro cuarto.

Un poco después, le viene un pobre perro.

Le da el tercer cuarto a aquél.

Mutil baten ixtorioa

Histoire d'un jeune homme

(M.A.)

550. Urrezko txoriaren bilaketa

Asko bezala, baziren Urdazurin hiru ama seme.

Gure kontuan, jende beharxkoak ziren.

Seme zaharrenak erran zion amari:

—Ama, goan* behar dut, zenbeit sosen irabazteko manera atxemanen ote dudan.

Olata* ttiki bat bazuen amak; hura eman zion bideko.

Etorri zitzaion mutil han gattu bat ñauka. Erran zion:

—A gaixoa, hi ere gosea!

Eta, eman zion olatatik lauetarik bat.

Zoalarik aintzinat*, ateratzen zaio oilaxko bat.

Ematen dio, han, ondotik segitzen baitzion goseak, bertze laurden bat.

Geroxeago, etortzen zaio xakur gaixo bat.

Hirugarren laurdena, ematen dio hari.

De debajo de un espino blanco le sale una mujer muy-muy vieja (era la Virgen):

—Estoy muy débil; ¿no tienes, por ventura, un poco de comer, para dármelo a mí?

—Sí, mujer.

Le da el último cuarto de pan a aquélla.

Le preguntó aquella anciana al chico adónde iba así...

—Pues, he salido a ver si encuentro una plaza como criado, un modo de ganarme la vida.

Le mostró un hermoso palacio.

Fue hacia allá; y preguntó al amo a ver si necesitaban (algún) mozo:

—Precisamente, se me ha ido ayer, y necesito (uno), –le dijo el amo.

Le dio de cenar y un sitio para dormir.

Al día siguiente por la mañana, le preguntó cuánto necesitaba (pedía) como sueldo: si quería un celemín de oro, o la gracia de Dios...

El chico le dijo:

—Necesitamos el oro, pero la gracia de Dios, ¡todavía más!

Le dio el amo un caballo blanco; que fuera encima del caballo blanco, y que le llevaría el caballo blanco al lugar que necesitaba.

Se paso encima del caballo blanco y éste lo llevó a una capilla.

Le salió una vieja mujer, y le dio aquella letra a la vieja mujer.

La anciana le dijo si veía una hermosa piedra plana que había en mitad de un campo.

Aquel campo estaba lleno de ganado, y aquel mozo debía cuidar aquel ganado desde aquella piedra.

Aquella anciana le dio una rama de espino blanco.

Le dijo:

—Guárdate de dormir. Oirás una voz: no te asustes; ¡le responderás fácilmente!

Le salió el demonio delante y le dijo:

—Ya he llegado.

Y el chico, medio dormido:

—¡¡¡Ven si quieres!!!

Le vino; y los dos se pusieron a pelear.

Se le había olvidado el espino blanco dado por la anciana, y casi estaba vencido.

Se le ocurrió que le hacía falta su espino blanco; lo cogió y, con aquél, le dio tres golpes, y lo ahuyentó.

El demonio le tiró todas las llaves y los derechos de aquel campo de los que se había apropiado.

Como había tantas vacas y bueyes allí, [que eran personas] convertidas en ganado porque el demonio se había apropiado de ellos porque fueron malos, se transformaron otra vez en personas.

Elorri xuri baten azpitik, ateratzen zaio emazteki xahar xahar bat (hura zen Ama Birjina):

—Arras ahuldua naiz; ez duzu, ordian suertez, jateko pixka bat, niri emateko?

—Bai andre.

Azkeneko olata laurdena eman zion, hari.

Galdetu zion atxo harek mutilari eian non zabilan hola...

—Ba, nonbeit sehi* lekua, irabaz bidea atxemanen dudan, ateraia naiz.

Irakutsi zion jauregi bat.

Goan zen harat; eta galdetu zion nausiari eian behar zuen mutilik:

—Preseski, atzo goana dut, eta behar dut –egin zion nausiak.

Eman zion afaiterat eta Io egiteko lekua.

Biharamun goizean, galdetu zion zenbat behar zuen soldata: eian nahi zuen gaitziru* bat urre, edo Jainkoaren grazia...

Egin zion mutilak:

—Urrea behar dugu, bainan Jainkoaren grazia, beharrago!

Eman zion nausiak zaldi xuri bat; goan zadila zaldi xuriaren gainean, eta eremanen zuela, zaldi xuriak, behar zuen lekurat.

Eman zen zaldi xuriaren gainean eta ereman zuen kapera baterat.

Atera zitzaion atxo xahar bat, eta eman zion letra hura atxo xaharrari.

Atxoak erran zion eian ikusten zuen soro baten erdian zagon harri xabal eder bat.

Soro hura aziendez* betea zagon, eta mutil harek behar zituen harri hartarik azienda hek zaindu.

Atxo harek eman zion elorri xuri adar bat.

Erran zion:

—Behautzu loharka. Adituko duzu boz bat: etzaitela izi; errepoila* diozu aise!

Atera zitzaion debrua, karretan, eta erran zion:

—Heldu nauk.

Eta mutilak erdi lotarik:

—Ator nahi baduk!!!

Etorri zitzaion; eta biak lotu ziren borrokari.

Atxoak emanikako elorri xuri hori ahantzi zitzaion, eta ia, bentzutua zaramakan.

Gogoratu zitzaion behar zuela bere elorri xuria; hartu zuen eta, harekin, eman ziozkan hiru kolpe, eta kasatu zuen.

Debruak botatu ziozkan soro hartako beretuak zituen gakoak eta dretxo guziak.

Hainbertze behi eta idi baitziren han, debruak beretuak eta tzarrak zirelakotz azienda eginak, berriz jende bilakatu ziren.

El joven muchacho los salvó gracias al espino blanco dado por la Virgen, y porque prefirió la gracia de Dios que un celemín de oro...

* * *

El chico estaba allí, sin saber qué hacer ni qué imaginar, al ver a aquellos ganados convertidos en personas; y le llega su anciana.

Aquella anciana coge las llaves y guía al chico a la cueva que había debajo de la hermosa piedra plana.

Cuando entraron allí, las cosas bellas de allí no tenían par en ningún lado: un montón de oro, un montón de plata, había de todo ahí.

Cuando llegaron a la última habitación, encontraron tres caballos, toda la montura hecha de diamantes.

En la plaza había una llave colgada de una cuerda, y el que la cogiera se casaría con una hija del conde.

La anciana le dijo al chico que debía ir hacia aquel juego, y en uno de aquellos hermosos caballos hizo la anciana montar al chico; y bien preparado, lo envió al lugar.

Le dijo que se presentara detrás de todos.

Le dio un aguijón, para que al partir el caballo lo azuzara con aquél.

Fue pues el chico y cogió fácilmente aquella llave que estaba colgada de la cuerda; y, en ese mismo instante, aquel hermoso caballo por sí mismo se volvió hacia el balcón, pues allí estaban el conde en el balcón con su mujer e hija.

El caballo se puso pues a mirarles, inmóvil; y deslumbrados los ojos por su montura, no podían conocer a aquel chico, y no lo veían bien.

El conde supo de algún lado que había llegado a aquel lugar un Vasco, queriendo colocarse como criado.

Pues nuestro Dios, que siempre es recto, guía bien, resultó que el conde, que andaba queriendo descubrir al que ganó el juego, llegó a la capilla de la vieja mujer, con su hija.

Aquella anciana llama al chico, y da luz (informa) a aquel señor, de dónde era y quién era.

El chico mostró a padre e hija sus bienes, los que había en aquella cueva y, después de haber vencido al demonio, los que le dio la vieja mujer.

Se casó con la hija del conde, tuvo familia y mandó a su madre y hermano lo que se necesitaba para vivir.

Y, si vivió bien, murió bien.

Tuvo a mejor la gracia de Dios que el oro.

Contado por Josepe Amorena de Sara, con 80 años, en 1923.

• Mayi Ariztia

Nuestra fuente: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Edit. Elkar, pág. 10.

Trad. J.A.

Mutil gazteak salbatu zituen Ama Birjinak emanikako elorri xuriari esker, eta nahiago izan baitzuen Jainkoaren grazia, gaitziru bat urre baino...

* * *

Mutiko hori han zagon, ez jakin zer egin, ez jakin zer asma, harritua ikusiz azienda hek jende eginak; eta, heldu zaio bere atxoa.

Atxo harek, hartzen ditu gakoak, eta mutikoa gidatzen harri xabal ederraren azpian zagon lezerat.

Han sartu ziren denboran, hango edergailuen parerik nihon* etzen: urre pila, zilar pila, zernahi bazen hor.

Azkeneko ganbararat* ailiatu* zirenean, atxeman zituzten hiru zaldi, montadura guzia dena diamantez egina.

Plazan bazen sokan emana gako bat, eta hura atxemanen zuena esposatuko zen kondearen alaba batekin.

Atxoak erran zion mutilari, joko hartarat goan behar zuela, eta zaldi eder hetarik batekin montatu zuen berak atxo harek mutila; eta ederki antolaturik, igorri zuen plazarat.

Erran zion presenta zadiela denen gibeletik.

Eman zion exten bat, zaldia partitzean sista zezala harekin.

Goan zen beraz mutila eta aise atxeman zuen sokan emana zen gako hura; eta, orduan berean, bere baitarik zaldi eder hura itzuli zitzaion balkoinerat, han baitzauden kondea balkoinean, bere andre eta alabarekin.

Ezarri zen beraz zaldia hekien begira, geldirik; eta haren montadurak begiak lilluraturik, etzezaketen mutil hura ezaut, eta etzuten ongi ikusten.

Konde horrek nonbeitik jakin zuen bazela toki hartarat etorria Eskualdun bat, sehi plazatu nahiz.

Gure Jainkoak, beti, xuxen dabilana, ongi gidatzen baitu, suertatu zen konde hori, jokoa irabazi zuen atxeman nahiz zabilalarik, atxo xaharraren kaperat ailiatzea, bere alabarekin.

Atxo harek mutiko hura deitzen du, eta argitasuna ematen dio jaun hari, nongoa zen eta zer zen.

Mutikoak irakutsi ziozkaten aita alaberi, bere ontasunak, leze hartan zirenak eta, debrua bentzuturik, atxo xaharrak eman ziozkanak.

Esposatu zen kondearen alabarekin, familiatu zen eta bere ama eta haurrideri bizitzeko behar zena igorri zioten.

Eta, ongi bizi bazen, ongi hil zen.

Jainkoaren grazia gaitziru bat urre baino hobea izan zuen.

Josepe Amorena, Saratarrak errana 80 urtetan 1923an.

Hiztegia

goan:joan; olata: ogitto, opil aitzinat: aurrera; sehi: neskato; gaitziru: gaitzuru, bihi neurtzeko kaxa azienda: etxabere; errepoila: ihardets, erantzun; nihon:inon; ganbara: logela; ailiatu: allegatu, heldu

• Mayi Ariztia

Gure iturria: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Elkar Argitaletxea, 10. or.

El árbol que cantaba, el pájaro que dice la verdad y el agua que rejuvenece

(W.W.)

550. La búsqueda del pájaro dorado

(Este cuento también pertenece al tipo 707. Los tres hijos dorados)

→ Ver el texto en la pág. 414.

Kantatzen zuen zuhaitzak, egia esaten zuen txoriak eta gaztetzen zuen urak

(W.W.)

550. Urrezko txoriaren bilaketa.

(Ipuin hau, 707. Urrezko hiru semeak motan ere sailkatzen da)

→ Ikus gaztelerazko testua 414. or.

551. THE SONS ON A QUEST FOR A WONDERFUL REMEDY FOR THEIR FATHER.

•

551. LOS HIJOS EN LA BÚSQUEDA DE UN REMEDIO MARAVILLOSO PARA SU PADRE

La historia de un rey ciego y sus tres hijos

D'un roi aveugle et de ses trois fils

(M.A.)

551. Los hijos en la búsqueda de un remedio maravilloso para su padre

Como hay muchos en el mundo y ahora también mejor sería que hubiera uno así en Francia, para que las cosas vayan bien, había un rey viudo y al mismo tiempo ciego; y en los diarios, se quiere decir en los periódicos, decían que había un agua que curaba a los ciegos.

Un día pues, le dice el hijo mayor al padre:

—Padre, es una gran pena verte de esa manera; yo debo partir en busca de aquella agua.

Así pues, eligió un día para la partida, e hizo una comida con los amigos que escogió, no por supuesto parecidos a mí, sino del estilo de él.

Pasó tres días en coche para (hacer) ese viaje.

Luego, pasó tres noches y tres días en un bosque negro donde no había más que animales salvajes y bramidos.

Pasados esos días, apareció un palacio a la vista.

Le pareció que se le abría el cielo al verlo, al salir de aquel bosque.

Allí encontró a tres hermosas mujeres paseando en un jardín.

Eran tres mujeres jóvenes, las tres hermanas, que se habían quedado tras haber muerto los padres.

Aquel muchacho se acercó a ellas y le preguntó la mayor adónde iba así:

—He visto en los diarios que hay en tal lugar un agua que da la vista, y he partido en su busca para mi padre ciego.

—¡Ay, mi querido hombre! Hemos visto a veinticinco almas pasando como tú por aquí, pero a ninguna viniendo atrás (volviendo); todos se pierden allí.

551. SEMEAK AITARENTZAKO SENDABIDE MIRAGARRI BATEN BILA

Errege itsu baten eta bere hiru semen ixtorioa

D'un roi aveugle et de ses trois fils

(M.A.)

551. Semeak aitarentzako sendabide miragarri baten bila

Munduan bertze asko den bezala eta orai ere hobe bailitake holako bat izatea Frantzian, gauzak ongi gatekotan, bazen errege bat alargundua eta denbora berean itsutua zen; eta diaroetan, erran nahi baitu kazetetan, atxematen zuten bazela ur bat itsuak sendatzen zituena.

Egun batez beraz, erraten dio seme zaharrenak aitari:

—Aita, pena handia da zu planta hortan ikustea; nik partitu behar dut ur hartarik bilat.

Beraz, egun bat berexi zuen partiadako, eta egin zuen bazkari bat, ez naski ni bezalakoekilako, bainan bere gisakoekilako hautatu zituen lagunekin.

Hiru egun pasatu zituen kotxean, piaia horri buruz.

Gero, pasatu zituen hiru gau eta hiru egun basa alimale eta marruma beizik etzen oihan beltz batean.

Egun hekien buruan, agertu zen xato baten bixtarat.

Iduri zitzaion zerua idekitzen zitzaiola hura ikustean, oihan hartarik lekorat.

Han arrapatu zituen hiru andre eder loretegi batean pasaietan.

Hek ziren hiru andre gazte, hiruak ahizpak, burasoak hil eta geldituak zirenak.

Heki buruz hurbildu zen mutil hura eta galdetu zion zaharrenak eian norat zoan hola:

—Diariotan ikusi dut badela holako tokitan ur bat bixta ematen duena, eta bila abiatu naiz nere aita itsuarentzat.

—Ai, nere gizon maitea! Hogoita bortz arima ikusi ditugu zu bezala hemendik pasatzen, bainan ez bihirik gibelat etortzen; denak hantxe galtzen dire.

Al escuchar eso, al muchacho se le rompió el corazón y se quedó en aquel palacio con la chica mayor.

Hori aditzearekin, mutilari bihotza hautsi zitzaion eta xato hartan gelditu zen neskatxa zaharrenarekin.

Viendo que su hijo se había perdido así, el padre se entristeció mucho e hizo proclamar en todo el reino e hizo publicar en todos los periódicos que había perdido a su hijo.

Pero el hijo no apareció por ningún sitio; y, viendo al padre siempre ciego y triste, el segundo hijo le propuso al padre:

—Padre, yo iré y te traeré aquella agua.

El padre no le quería dejar; se entristeció más que antes, que se quedaría como antes ciego, el hijo mayor perdido y el segundo también con riesgo de perderse.

Pero al final el hijo hizo como el otro hermano, una gran comida con amigos de su estilo, ¡y partió!

Semea hola galdua zela ikusi eta, aita ainitz xangrindu zen eta erresuma guzian kridarazi zuen eta kazeta guzietan publikarazi semea galdua zuela.

Bainan, semea nihon ez ageri; eta, ikusirik aita beti itsu eta triste, bigarren semeak proposatu zion aitari:

—Aita, ni goanen naiz eta nik ekarriko dauzut ur hartarik.

Aitak etzuen utzi nahi; lehen baino gehiago tristatu zen, gelditu behar zuela lehen bezala itsu, seme zaharrena galdua eta bigarrena ere galtzeko irriskuan.

Bainan, azkenean semeak egin zuen bertze anaiak bezala, bere gisako lagunekilakoekin bazkari handi bat, eta partitu zen!

Pasó tres días en coche y un día en tren para ir a una aldea.

Luego, de allí entró en un gran bosque donde no había más que animales salvajes y bramidos, y pasó allí tres noches y tres días.

En apariencia, pues los dos seguían parecidamente, la tercera tarde llegó aquél también a la vista de un hermoso palacio, (tanto) que le pareció que llegaba a otro mundo.

Iragan zituen hiru egun kotxean, eta egun bat treinean herrixka baterat goateko.

Gero, handik sartu zen oihan handi batean, ez baitzen han basa alimale eta marrumarik beizik, eta iragan zituen hiru gau eta hiru egun han.

Aparantziaz, biek berdintsu segitzen baitzuten, hirugarren arratsaldean ailiatu zen hura ere jauregi eder baten bixtarat, iduritu baitzitzaion bertze mundu baterat ailiatzen zela.

Allí vio, en un hermoso jardín, a dos mujeres jóvenes y a un señor y una señora del brazo que estaban paseando.

Cuanto más se acercaba más le parecía su hermano.

Al final se acercó mucho y vio que era su hermano, y enseguida le preguntó:

—¿Qué te ha pasado, hermano? ¿Cómo estás aquí? Nuestro padre está muy entristecido, ha hecho proclamar en todo el reino que ha perdido a su hijo. ¡Perder el hijo y él como siempre ciego!

La segunda mujer le preguntó adónde iba así.

Y, al responderle el muchacho (dijo):

—¡Ay, mi querido hombre! Hemos visto a veinticinco almas pasando como tú por aquí, pero a ninguna viniendo atrás (volviendo).

Y al escuchar eso, al segundo hijo también se le rompió el corazón, y se quedó allí, con la segunda chica.

Han ikusi zituen loretegi eder batean, bi andre gazte eta jaun andre batzuek besoz beso pasaiatzen hari zirela.

Harat hurbilduago eta bere anaia iduriago.

Azkenean arras hurbildu eta, ikusi zuen bere anaia zuela, eta bereala galdetu zion:

—Zer gertatu zauk, anaia? nola hago hemen? Gure aita arrunt xangrindua duk, erresuma guzian kridarazia bere semea galdua duela. Semea galdu eta hura berdin itsu!

Bigarren andreak galdetu zion eian norat zoan hola.

Eta, mutilak errepusta eman eta:

—Ai, nere gizon maitea! Hogoita bortz arima ikusi ditugu zu bezala, hemen gaindi iragaiten, bainan ez bihi bat ere gibelerat itzultzen.

Eta bigarren semeari ere hori aditzearekin, bihotza hautsi zitzaion, eta hantxe gelditu zen, bigarren neskatxarekin.

El viejo padre, al perder al segundo hijo, aún se entristeció más; perdido el segundo hijo, y él como siempre ciego.

De nuevo hizo proclamar y publicar en todo el reino que el segundo hijo también se había perdido. Pero el hijo no apareció por ningún sitio.

Aquel rey tenía un tercer hijo, y aquélla era una persona sana-sana como tú.

Aquél también, como sus dos hermanos, le propuso al padre la misma cosa.

Pero el padre no le quería dejar, pues al final se quedaría sin ninguno de sus hijos, y como siempre ciego.

—No, padre, no, mis hermanos no te han traído el agua, pero yo te la traeré, no tengas miedo.

Antes de partir, aquél también hizo una enorme comida, pero reunió a todos, gente necesitada y rica.

Aita xaharra, bigarren semea galdurik, oraino gehiago xangrindu zen; bigarren semea galdua, eta, hura, berdin itsu.

Berriz ere kridarazi zuen eta publikarazi erresuma guzian bere bigarren semea ere galdua zela. Bainan, semea behinere ez ageri.

Errege harek bazuen hirugarren seme bat, eta hura zen zure gisako jende sano sano bat.

Harek ere, bere bi anaiek bezala, gauza bera proposatu zion aitari.

Bainan, aitak etzuen utzi nahi, azkenean bate semerik gabe gelditukо zela, eta berdin itsu.

—Ez aita, ez, nere anaiek ez dautzute ekarri ura, baina nik ekarriko dautzut etzazula beldurrik izan.

Abiatu baino lehenago, harek ere egin zuen bazkari bat gaitza, bainan harek, jende behar eta aberats, denak bildu zituen.

Personajes de los cuentos

Princesas bellas y muchachas humildes

Hermosura

Había antes una mujer que tenía el pelo de oro.
Todos los reyes y príncipes de todos los rincones
pedían su mano, pero nadie le podía agradar.

Edertasuna

Bazen lehenago andere bat, bilhoa ürhez beit zin.
Bazter orotako errege ete printze orok galthatzen zien
haren eskia, bena ihurk ere ez zin gogatzen ahal.

Ipuinetako personaiak

Printzesa ederrak eta neskato apalak

"La nuit". Kandinsky.

"Muchacha sentada". "Neskatoa eserita". Ramiro Arrue .

Fue por el mismo camino que los anteriores, tres días en coche y un día en tren para llegar a una aldea.

En aquella aldea pensó que debía quedarse un día descansando.

Andaba pues de un lado a otro, paseando, y vio un cuerpo que iba a ser llevado a enterrar y sus acreedores lo impedían, persiguiendo a sus parientes para que pagaran sus deudas, que hasta pagar no le iban a dejar ir.

Se acercó el chico joven y, pidiendo perdón, entró entre aquellas personas y les preguntó quién tenía allí que cobrar.

¡Uno tanto, el otro esto otro!

Pagó a todos, cubrió todas las deudas y les preguntó:

—¿Ahora no tiene nadie nada más que cobrar?

Todos callaron, nadie tenía nada más que cobrar; y entonces les dijo que siguieran, que ahora podían ir a enterrar aquel cuerpo.

El joven muchacho entró entonces en una fonda, y allí les contó, riendo, qué milagro ocurrió allí, que al ir a enterrar un cuerpo sus acreedores lo tenían trabado en medio del camino.

Al día siguiente partió, y por el mismo camino recorrido por sus hermanos, llegó a aquel desierto, tres noches y tres días en aquel lugar donde no había más que animales salvajes y bramidos, ni casas, ni personas, no había nada allí.

Y, pues aparentemente todos andaban parecido, al tercer día llegó a aquel hermoso palacio, donde creyó que el cielo se le abría allí.

Vio paseando en un jardín a una mujer joven y dos parejas absolutamente iguales.

Cuanto más se acercaba más le parecían sus dos hermanos.

Cuando llegó adonde ellos, les dijo a sus hermanos:

—¡Arrea, vaya hombres vosotros, a nuestro padre lo tenéis terriblemente entristecido, habiendo hecho proclamar en todo el reino que tiene a sus dos hijos perdidos y él como siempre ciego!

La tercera mujer le pregunto adónde iba.

Respuesta de aquél:

—Nuestro viejo padre está ciego y voy en busca de agua para curarlo; mis hermanos no se la han traído, pero yo se la llevaré.

—¡Ay, mi querido hombre! Hemos visto a veinticinco almas pasando por aquí, pero a ninguna viniendo atrás (volviendo).

El chico joven pasó allí la noche, pero al día siguiente partió.

Estaba muy cerca del lugar del agua, y antes de llegar, en el borde del camino, se encontró con un zorro.

Le preguntó el zorro:

—¿Adónde vas así?

—Pues, así y así, tenemos al padre ciego y voy a tal sitio a buscar agua para curar sus ojos.

Goan zen, lehengoen bide berez, hiru egunen kotxea, eta egun baten treina, herrixka baterat heltzeko.

Herrixka hartan gogoatu zitzaion gelditu behar zuela egun bat pausan.

Bazabilan beraz alde batetik bertzerat, pasaietan eta ikusi zuen gorputz bat enterratzerat eremaki eta haren zor-hartzek zaukatena trabatua, jazartzen haren jendekieri paga zetzatela haren zorrak, pagatu arte etzutela utziko goaterat.

Hurbildu zen mutil gaztea eta barkamendua galdetu eta, sartu zen jende hekien arterat, eta, galdetu zioten eian nork zuen han hartzeko.

Batek hunenbertze, bertzeak horrenbertze!

Denak ordaindu zituen, berdindu zituen zor guziak eta galdetu zioten:

—Orai ez du nihork hartzekorik gehiago?

Denak ixilik zagotzin, nihork etzuen gehiago hartzekorik; eta orduan erran zioten segi zezatela, goaten ahal zirela orai, gorputz hura enterratzerat.

Mutil gaztea sartu zen orduan ostatu batean, eta han kontatu zioten, irriz, zer mirakuilu gertatu zen han, gorputz bat ehortzerat goaki eta bere zor-hartzek bidearen erdian zaukatena trabatua.

Biharamunean partitu zen, eta bertze anaiak ibili bide beretik, ailiatu zen desertu hartarat, hiru gau eta hiru egun, basa alimale eta marruma beizik etzen lekuan, ez etxe, ez jende, deusik etzen han.

Eta, denek aparantziaz ongi berdin kurritzen baitzuten, hirugarren egunean ailiatu zen jauregi eder hartarat, uste baitzuen zerua idekitzen zitzaiola han.

Ikusi zituen loretegi batean pasaiatzen andre gazte bat eta bi pareilla berdin berdinak.

Hurbilago eta bere bi anaiak iduriago.

Hetarat ailiatu zenean, erran zioten bere anaieri:

—To, zer gizonak, zuek, gure aita ez daukazue gaizki xangrindua, erresuma guzian kridarazia, bere bi semeak galduak dituela eta hura berdin itsu!

Hirugarren andriak galdetu zion eian norat zoan.

Harek errepusta:

—Aita xaharra itsua dugu eta haren sendatzeko ur bila noha; nere anaiek ez diote ekarri, bainan nik eremanen diot.

—Ai, nere gizon maitea! Hogoita bortz arima ikusi ditugu hemendik iragaiten; bainan ez bihi bat ere gibelerat itzultzen.

Mutil gazteak gaua han pasatu zuen, bainan, biharamunean, partitu zen.

Uraren tokirat arras hurbildua zen, eta ailiatu baino lehenago, bide bazterrean, arrapatu zuen axeri bat.

Galdetu zion axeriak:

—Norat goaki haiz hola?

—Ba, hola eta hala, aita itsutua diagu eta holako tokirat banioak, urketarat haren begien sendatzeko.

—Si haces las cosas que te digo, irás bien; pero no harás las cosas que te diga.

—Que sí, que las haría.

—No, no, no vas a hacerlas.

—Que sí, que las haría, si le decía quién era.

Entonces el zorro le dijo:

—Te acuerdas que tal día, en una aldea encontraste un cuerpo que lo llevaban a enterrar, y que sus acreedores tenían trabado en mitad del camino; tú pagaste todas sus deudas y lo enviaste así a ser enterrado en paz.

Yo soy aquel cuerpo muerto, enviado por nuestro Dios a este mundo, en forma de zorro, para ayudarte.

—Nik erranak egiten baituk, goanen haiz ongi; bainan, ez dituk eginen nik erranak.

—Baietz, eginen zituela.

—Ez, ez, ez dituk eginen.

—Baietz, eginen zituela, erraten bazion eian hura nor zen.

Orduan axeriak erran zion:

—Oroitzen haiz holako egunean, herrixka batean atxeman huela gorputz bat ehortzerat zaramakatena, eta bere zor-hartzek bidearen erdian trabatua zaukatena; hik pagatu iozkan bere zor guziak eta igorri huen hola bakean ehortzerat.

Ni nauk gorputz hil hura, gure Jainkoak mundu huntarat igorria, axerri baten itxuran, hire laguntzeko.

Desde el mediodía hasta las dos, entra por el portalón (eran unos portalones de hierro como los de aquí ahora); ve arriba por unas escaleras de piedra, encontrarás tres habitaciones, una toda llena de oro, otra toda llena de diamantes y en la tercera descubrirás a una chica joven haciendo el descanso del mediodía, con una manzana de oro colocada entre los dos pechos.

Fue el joven muchacho, y encontró las tres habitaciones mencionadas.

En ese momento tuvo el joven muchacho el deseo vehemente de dar a la chica un beso, pero fue adelante.

Encontró otras escaleras de piedra, y bajando por ellas entró en el huerto.

Había allí toda suerte de frutas de este mundo, todas amarillas-amarillas, todas maduras-maduras, y tuvo gana-gana de comer unA.

Pero fue adelante sin comer ninguna, y llegó a aquella agua.

Vio alrededor de aquella agua, en forma de todos los animales salvajes de este mundo, a los demonios dormidos.

Llenó su botella con esa agua.

A la vuelta, le dio un mordisco a una pera y en ese mismo momento encegueció.

Se acordó entonces que tenía en la mano aquella agua y, cogiendo un poquito en la mano, se frotó los ojos; y como antes le vino la vista inmediatamente.

Fue por las escaleras de piedra y entró otra vez en aquellas hermosas habitaciones y quitó a la chica que dormía la manzana de oro y la metió en el bolsillo.

En ese momento el zorro le gritó desde la parte de fuera del portalón:

—Rápido, rápido.

Salió fuera aprisa.

Eguerditik bi orenak artean, sar hadi portaletan (orai hemengo bezalako portale burdinezko batzu ziren); oh harri eskaleer batzu goiti, atxemanen dituk hiru gela, bat dena urrez betea, bertzea dena diamantez betea eta hirugarrenean atxemanen duk neskatxa gazte bat, eguerdiko pausaren egiten, urrezko sagar bat bere bi bularren artean emana.

Goan zen mutil gaztea, eta atxeman zituen erranikako hiru gelak.

Izan zuen mutil gazteak orduan berean neskatxari musu baten emateko gutizia bat, bainan goan zen aintzinat.

Atxeman zituen bertze harri eskaleer batzu, eta hetan beiti sartu zen baratzean.

Bazien han mundu huntako fruitu suerte guzietarik, denak hori horiak, denak ondu onduak zirenak eta izan zuen baten jateko gana gana bat...

Bainan, goan zen aintzinat batere jan gabe, eta ailiatu zen ur hartarat.

Ikusi zituen ur horren inguruan, mundu huntako basa alimale guzien itxuran, debruak lo.

Bere botoila bete zuen ur hortan.

Gibelaratekoan, egin zion udare bati asiki bat eta denbora berean itsutu zen.

Oroitu zen eskuan ur hartarik bazuela, eta eskuan ttinta bat hartu eta, torratu zituen begiak; eta lehen bezala bixta etorri zitzaion berehala.

Harri eskaleretatik gan eta berritz sartu zen gela eder hetan eta pausan Io zagon neskatxari kendu zion urre sagarra eta sartu zuen sakelan.

Denbora berean axeriak oihu egin zion portalearen kanpoko aldetik:

—Fite, fite.

Presatuz ateratu zen kanporat.

El portalón le cogió justo-justo un poquito del tacón de la pierna; entonces estaban tocando las dos, y por poco no quedó allí preso.

El zorro le dijo:

—Antes tampoco has hecho bien las cosas dichas por mí, y luego tampoco las harás.

—Tú no llevarás esa agua entera adonde tu padre.

—Irás adonde tus hermanos y ellos te perderán.

—Ve directo adonde tu padre, sin ir adonde los hermanos, si no ellos te perderán.

Portaleak zango takoina doi doia, pitta bat, arrapatu zion; denbora pasatzerat zoan: bi orenak orduan jotzen ari, eta gutiz etzen han gelditu preso.

Axeriak erran zion:

—Lehen ere ez dituk ongi egin nik erranak, eta gero ere, ez dituk eginen.

—Hik ez duk ur hori eremanen osorik hire aitaren ganat.

—Goanen haiz hire haurridetarat eta hek galduko haute.

—Oha xuxen hire aitari buruz, anaietarat goan gabe, bertzenaz hek galduko haute.

Pero, como pensó el zorro, fue adonde sus hermanos, pasó la noche allí y en esa ocasión, los hermanos le cambiaron el agua y le llenaron la botella con otra agua.

Luego partieron adonde su padre, los hermanos y mujeres, todos, porque no querían que el padre supiera, dicho por el hermano más joven, cómo se habían quedado ellos.

Cuando llegaron, el hijo más joven le dio el agua al padre:

—Toma, padre, yo te he traído el agua: frótate enseguida los ojos y te curarás.

El padre lo hizo, pero como no era ésa el agua nativa (original), no le hizo nada.

El hijo mayor le dijo al padre:

—Toma, padre, yo te traigo el agua que necesitas; ¡ése te traiciona! Con la mía, frótate los ojos y te curarás.

El padre lo hizo e inmediatamente se le iluminaron los ojos.

El padre, enfadado porque lo traicionó, desterró al hijo más joven, lo mandó fuera de su reino, que no quería oír ni su nombre nunca más.

Al mismo tiempo, le vino al rey una joven mujer a la puerta en una carroza, carroza negra, cochera negra, caballos negros, todo negro.

Todo el palacio fue rodeado por unas tropas negras: por la apariencia de las tropas, todos eran demonios.

Aquella mujer joven le dijo al rey que aquellas tropas negras le quemarían el castillo entero, si en tres días no traía a aquel chico joven otra vez a casa.

El padre rey propagó diarios acerca de su hijo, que por favor se presentara a él en el plazo de tres días.

Aquel hijo ya se había ido fuera del reino y andaba de cochero.

Le llegó uno de aquellos diarios a la mano y vio el deseo del padre.

Partió, tras pedir al jefe un permiso de dos días. El jefe le quería dar dinero.

Que no, que no tenía necesidad de dinero alguno, que tenía bastante.

Llegó adonde su padre bastante pronto, y al mismo tiempo apareció otra vez aquella joven mujer con su carroza, cochero y caballos negros.

Aquella pobre chica había ido adonde los demonios por una maldición, por la maldición de algunas malas lenguas.

Sabía pues bien acerca de los demonios.

La chica le preguntó al rey:

—¿Qué hijo te ha curado, en el tiempo en que estabas ciego?

— Me ha curado el hijo mayor.

— No, no te ha curado el hijo mayor: te ha curado el hijo más joven. ¡En tal tiempo, se llevó de mí, de entre los dos pechos, una manzana de oro!...

— ¿Es posible, hijo, que tú le hayas sacado, a ésta, una manzana de oro de entre los pechos?...

— Sí, Señor...

Bainan, axeriak pentsatu bezala, goan zen bere anaietarat, gaua pasatu zuen han eta arte hartan, anaiek trukatu zioten ura eta botoila bete zioten bertze ur batez.

Gero, partitu ziren aitari buruz, anaiak eta andriak, denak, zeren etzuten nahi aitak jakin zezan, anaia gaztenak erranik, hek non eta nola geldituak ziren.

Ailiatu zirenean, seme gaztenak eman zion ura aitari:

—Tori, aita, nik ekarri dautzut ura: torra zatzu berehala begiak eta sendatuko zare.

Egin zuen aitak, bainan nola ez baitzen ur hori ur natifoa, deusik etzion egin.

Seme zaharrenak erran zion aitari:

—Tori, aita, tori, nik ekartzen darotzut behar duzun ura; horrek traitzen zaitu! Nerearekin, torra zatzu begiak eta sendatuko zare.

Egin zuen aitak eta berehala, begiak argitu zitzaizkion.

Seme gaztena, aitak hasarreturik zeren eta traitu zuen, desterratu zuen, igorri zuen bere erresumatik kanpo, etzuela aditu nahi gehiago, haren izenik ere.

Denbora berean, etorri zitzaion erregeari, andre gazte bat aterat, karrosa batean, karrosa beltza, kotxera beltza, zaldiak beltzak, denak beltzak.

Jauregi guzia inguratu zioten tropa beltz batzuek: tropen itxuran, denak debruak ziren.

Jauregi guzia erreko ziotela, tropa beltz hek, erran zion andre gazte harek erregeari, hiru egunen barnean ez bazuen bere seme gazte hura berritz etxerat biltzen.

Aita erregeak, kazetak hedatu zituen bere semeari buruz, otoi presenta zadila haren ganat, hiru egunen barnean.

Seme hura goana zen erresumaz kanpo eta kotxerkoan hari zen.

Kazeta hetarik bat etorri zitzaion eskurat eta ikusi zen aitaren desira.

Partitu zen, nagusiari bi egunen permisionea galdetu eta. Nagusiak nahi zion dirua eman.

Ezetz, etzuela batere beharrik, bazuela aski.

Ailiatu zen aitaren ganat aski goiz, eta denbora berean, berritz agertu zen andre gazte hura, bere karrosa kotxer eta zaldi beltzekin.

Neskatxa gaixo hura zen, madarizionez debruen ganat goana, mihi gaxto batzuen madarizionez.

Bazakien beraz ongi debruen berri.

Neskatxak galdetu zion erregeari:

—Zein semek sendatu zaitu, itsu zinen denboran?

— Seme zaharrenak sendatu nau.

— Ez, etzaitu seme zaharrenak sendatu: seme gaztenak sendatu zaitu. Hulako denboraz, ereman daot niri, bi bularren artetik, urre sagar bat!...

— Bada posible, seme, hik ateratu diokala, huni, sagar urre bat, bular artetik?...

— Ba, Jauna...

Y del bolsillo le sacó la manzana de oro.

Entonces partieron, perdida la chica, con un ruido terrible parecido al de un trueno, todos aquellos demonios negros con aspecto de tropas negras, lejos de allí: la carroza, el cochero, los caballos, todos partieron con un fragor terrible.

El rey quemó en un tonel de aceite a los dos hijos mayores y a las tres mujeres.

Como el padre estaba envejecido, le dio el trono al hijo: el hijo rey, la chica joven reina.

Cuando yo los vi por última vez, tenían tres hijos, encantadores.

Yo también paseaba, en aquel tiempo, joven y alegre con un hermoso caballo.

Ahora, envejecido y triste, con zuecos, sin poder seguir me planto.

Contado por Extebe Intxaurgarat, pastor de Itsasu, a los 60 años, en Sara, mientras apacentaba su rebaño de ovejas en los prados de Lehetchipi, el 6 de abril de 1925.

• Mayi Ariztia

Nuestra fuente: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Edit. Elkar, pág. 122.

Trad. J.A.

Eta, sakelatik atera zion urre sagarra.

Orduan, partitu ziren, neskatxa galdurik, ihartzuri izigarri batzuen idurizko karraska batean, tropa beltzen itxurako debru hek guziak, handik urrun: karrosa, kotxer, zaldi, denak partitu ziren, arrabots ikaragarri batean.

Bi seme zaharrenak eta hiru andreak, gupela bat oliotan erre zituen erregek.

Nola aita zahartua baitzen, eman zion tronua semeari: semea errege, neskatxa gaztea erregin.

Nik azkenik ikusi nituenian, bazituzten hiru seme alaba, xarmantak.

Ni ere, denbora hartan, gazte eta alegera zaldi ederrarekin, promenatzen nintzen.

Orai, zahartu eta tristatu, orai eskalapoinekin, ezin segituz plantatu.

Extebe Intxaurgarat, Itsasuar artzainak errana, hiruetan hogoi urtetan, Saran, Lehetchipko sorrotan bere artaldea alatzen zuelarik. 1025-eko Apirilaren 6an.

• Mayi Ariztia

Gure iturria: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Elkar Argitaletxea, 122. or.

El rey que quería rejuvenecer

(W.W.)

551. Los hijos en la búsqueda de un remedio maravilloso para su padre

Una vez había un rey, como son (hay) muchos en el mundo. Tenía tres hijos.

Un día que estaba leyendo en un periódico, encuentra (una información acerca de) que existe un agua que es para (tiene el poder de) rejuvenecer. Y empieza a reír.

Y el hijo mayor le pregunta:

—¿Qué le pasa, *aita* (padre)?

—He encontrado una noticia curiosa.

—¿Qué es *aita* (padre)?

—Que, en un país lejano, existe un agua que rejuvenece a todos los hombres viejos; pero muy lejos.

—Pues bien (Entonces) aita, yo mismo iré a buscarla para usted.

Le dice el padre:

—No, hijo mío. Está demasiado lejos.

—¡Si aita (padre)!

Y se va. Pero no daba ninguna señal y el padre empezó a preocuparse.

El segundo de los hijos le dice:

—Aita (padre), yo tengo que partir.

Errege baten gaztetzea

(W.W.)

551. Semeak aitarentzako sendabide miragarri baten bila

Behin batez bazen errege bat, asko munduan dien bezala. Bazituen hiru seme.

Egun batez xurnal[1] baten irakurtzen hari zelarik, atzematen du badela ur bat, gaztetzeko dena. Eta hasten da irriz.

Eta seme zaharrenak galdetzen dio:

—Zer duzu aita?

Erraten dio:

—Atzeman diat berri drole[2] bat.

—Zer da aita?

—Ur bat badela hainitz urrun, gizon zahar guziak gaztetzen dituena, bainan hainitz urrun.

—Ebien[3], aita, ni ganen naiz zuretzat bila.

Erraten dio.

—Ez, ene seme. Sobra[4] urrun da.

—Bai aita.

Eta partitzen da. Bainan ez zen fitsik[5] ageri eta aita arras xangritzen hari zen.

Bigarren semeak erraten dio:

—Aita, ni behar naiz partitu.

Y se va con algún dinero. Al llegar a la primera ciudad encuentra a su hermano mayor y le dice:

—¿Que estás haciendo aquí? Tú no sabes qué palabra le diste (le prometiste) a tu padre?

—Y le dice:

—Todos los dineros que me dio, los tengo gastados.

Y los dos estaban gastando todo el dinero que tenían, y luego no tenían nada.

Empiezan a trabajar como hombres pobres (necesitados, indigentes).

* * *

Pero, volvamos a donde se encuentra el rey.

El hijo más joven le dice:

— Aita (padre), los otros hermanos no han hecho nada. Pero yo si que lo haré. Déjame ir.

Y se va con una buena cantidad de dinero y en el camino encuentra una mujer vieja que le pregunta:

—¿Adónde va joven señor?

Y aquél le dice:

—A buscar (por) una botella de agua.

Ella le dice:

—Ese bosque lo tiene lleno de animales.

Y él le dice:

—¿Cómo tengo que pasar?

—Vaya a las diez.

Y pasa cuando todos los animales estaban dormidos. Y no sabía, luego, qué hacer.

Encuentra otra anciana y le pregunta a aquélla:

—¿Ha visto (usted) a dos hijos de tal rey?

Le dice:

—Sí, los he visto. Se han dado a la borrachera (Han tomado inclinación a la bebida). Déjalos, (que anden) a su aire.

Pero éste le dice:

—Pero, son mis hermanos.

Y ella le pregunta:

—¿Adónde va?

Y él le dice:

—Es que he oído que ya hay en cierto lugar un agua que rejuvenece a cualquier viejo.

Y le dice:

—De aquélla (agua) tengo que llevar una botella para el padre.

Ella le dice:

—¡Pero criatura!, un solo sorbo le es suficiente (a usted) para hacerle volver a su padre a los veinte años.

Y le dice (además):

—Vete, una hora después de medianoche. Hay un hermoso castillo. Allí encontrarás a todos dormidos; una mujer dormida al lado de la ventana y toda clase de animales dormidos. Pero sal enseguida enseguida de allí. Déjalo todo (no toques nada) (no te entretengas con nada). Allá

Eta partitzen da diru puska batekin. Lehenbiziko hiriratu denean atzematen du bere anaia zaharrena eta erraten dio:

—Zer hari haiz hemen? Ez dakik zer hitzeman diokan hire aitari?

Eta erraten dio:

—Eman dauztan diru guziak enplegatuak ditiat.

Eta biak hari ziren zituzten diruen xahutzen eta gero fitsik ez zuten.

Hasten die gizon behar batzu bezala lanian.

* * *

Bainan guazin gure erregerenganat.

Seme gaztenak erraten dio:

—Aita! Bertze anaiek ez dute fitsik egin. Bainan nik eginen dut. Utz nazazu partitzerat.

Eta partitzen da diru puxka batekin eta bidian dohalarik atzematen du emazteki zahar bat eta galdetzen dio:

—Norat zoazi jaun gaztea?

Eta erraten dio:

—Botolla bat uren bilha.

Erraten dio:

—Baduzu oihan hortan alimalez leher[6].

Eta erraten dio:

—Nola behar naiz pasatu?

—Zuazi hamar orenetan.

Eta pasatzen da alimale guziak lo zielarik. Eta ez zakien gero zer egin.

Atzematen du bertze emazteki zahar bat eta galdetzen dio hari:

—Ikhusi duzu hulako erregeren bi seme?

Erraten dio:

—Bai ikhusi ditut. Hordi[6b] banda bat hartua dute. Utz atzu hek bere gisan.

Bainan erraten dio:

—Ene anaiak ditut.

Eta galdetzen dio:

—Nohat zuazi?

Eta erraten dio:

—Aditu baitut hulako tokitan badela zahar guzien gaztetzeko ura.

Eta erraten dio:

—Hartarik botolla bat behar dut ereman aitarentzat.

Erraten dio:

—Ene haurra aski duzu hurrupa[7] bat zure aitaren hogoi urtetarat turnatzeko.

Eta erraten dio:

—Zuazi gauerditik oren batean. Xato eder bat bada. Han atzemanen dituzu guziak lo, andre bat leiho baten onduan dagoela lo eta alimale suerte guziak lo. Bainan handik atera zaite kusi kusian. Utz atzu guziak. Han izanen da xori

habrá un pájaro, el mejor cantor y un caballo el que mejor relincha, pero que se queden todos en su sitio.

bat kantari ederrena, zaldi bat irrintzinari ederra. Bainan bego guziak bere tokietan.

Va ese joven y encuentra dormidos todos animales, dormida la mujer. Y luego coge el agua. Pero no estaba contento todavía. Roba aquel pájaro hermoso y aquel caballo hermoso. Y va a su casa.

(Pero) en el bosque encuentra despiertos a todos los animales; y estaba triste sin saber qué hacer.

Se le ha acercado aquella anciana y le dice:

—¡Desdichado! (¡Desgraciado!)¿Tú para qué has cogido todo eso? ¿No te dije yo a ti que no tocaras nada más que el agua?

Y le dice (además):

—Tú ahora coge un palo y al entrar en el bosque pegas un golpe en la tierra . El sueño les cogerá a todos los animales (se quedarán dormidos). Pero tus hermanos están allá en un sitio. Tú no te quedes mirándoles. Tú déjales como están.

Partitzen da jaun gazte hori eta atzematen ditu alimale guziak lo, andre hura lo. Eta gero hartzen du ura. Bainan oraino ez zen kontent. Ebasten[8] ditu xori eder hura eta zaldi eder hura. Eta partitzen da bere etxerat.

Atzematen du oihaneko alimale guziak atzarriak eta bazagoen triste, ez jakin zer egin.

Heldu zaio emazteki zahar hura eta erraten dio:

—Malurusa! Zertako hartu dituk horiek guziak. Nik ez hinduan erran bertze fitsik ez ukhitzeko ura baizik?

Eta erraten dio:

—Orai har zak zigor bat, eta emok oihanian sartzean harekin zarteko[8b] bat lurrari. Alimale guziak loak hartuko dituk. Bainan hire anaiak hulako tokitan dituk. Ez zatekela hekier beira. Utz azik bere gisan.

Se va el chico. Al entrar en el bosque ve a todos los animales mirándole a él. Y le da un golpe al suelo con el palo. Y el sueño coge (se apodera de) a todos los animales (quedan dormidos). Y pasa. Y se va muy contento por el camino, cantando el pájaro, relinchando el caballo, y su agua en el bolsillo.

Partitzen da mutiko hoi. Oihanean sartzian ikhusten ditu alimale guziak hari beira. Eta ematen dio zigorrarekin zarteko bat lurrari. Eta loak hartzen ditu alimale guziak. Eta pasatzen da. Eta badoha bidian arras alegera[9], xoria kantuz, zaldia irrintzinaka, eta bere ura sakelan.

Encuentra a sus hermanos. Se extrañan. Les abraza y les dice:

—Vayamos a casa. ¿Qué estáis haciendo aquí? Venid a casa.

Y le responden:

—No tenemos dinero y no hemos ido a buscar el agua tal como le dimos la palabra (le prometimos) al padre.

—Da igual. Yo sí la tengo; iremos todos juntos a casa. Y se van.

Y cuando iban por un río le tiran a un pozo (a este hermano más joven) y allí se queda todo triste. Y los dos hermanos mayores se van, pero entonces (quedan) el caballo callado, el pájaro triste. Entran en la casa y el caballo relinchos, no, no y el pájaro cantos, no, no. Al padre le dan de beber el agua, pero seguía como antes; triste y viejo. No, no, sin rejuvenecer nada.

Atzematen ditu bere anaiak. Estonitzen dire. Besarkatzen ditu eta erraten diote:

—Guazen etxerat. Zer hari zarete hemen? Zatozte etxerat.

Eta erresponditzen diote:

—Ez dugu dirurik eta ez gara izatu aitari hitzeman gindion uraren bilha.

—Higual duk. Nik badiat eta ganen gaituk denak elkharrekin etxerat. Eta partitzen die.

Eta erreka batian zohatzilarik botatzen dute putzu batetarat eta han zagoen tristerik. Eta bi anaia zaharrenak partitzen die, bainan zaldia orduan ixil, xoria triste. Etxian sartzen die eta zaldiak ez ez irrintzinarik eta xoriak ez ez kanturik. Eta aitari eman dute ura edaterat, bainan lehen bezala bethi; triste eta zahar. Ez, ez, batere gaztetu gabe.

* * *

Vamos ahora donde el hermano joven. Estando triste en su agujero, no comer, no beber, estaba derrotado por completo. Y se le aparece aquella anciana suya y le dice:

—¿Tú qué estas haciendo ahí?

—Aquí estoy, tirado al pozo por mis hermanos.

—¡Ah! Desgraciado (¡Desdichado!) ¿No te dije que dejaras a tus hermanos a su aire (antojo)?

—Te lo ruego, ayúdame, a subir fuera de aquí.

—¿Por dónde? No me es posible. ¿Tú no lo ves (es que no lo ves)? He envejecido y estoy imposibilitada. Pero te enviaré a un zorro, y tú te atas a su rabo. Y se ata y sale. Se fue a su casa.

* * *

Guazan orai gure anaia gaztenarenganat. Bere ziloan tristerik zagoelarik, ez jan, ez edan, arras bentzutua[10] zen. Eta agertzen zaio bere emazteki zahar hura eta erraten dio:

—Zer hari haiz hor?

—Hemen naiz ene anaiek botatua putzurat.

—A! Malurusa! Nik ez hinduan erran uzteko hire anaiak bere gisa?

—Othoi lagun nazazu hemen goiti atheratzen!

—Nundik? Ez diat posible. Ez duk ikhusten? Zahartu nauk, ezindu[11] nauk. Bainan egorriko haut axeri bat. Eta haren buztanetik lotuko haiz.

Eta lotzen da eta atheratzen da. Partitu zen bere etxerat.

En cuanto él entra en casa el caballo empieza a relinchar, el pájaro venga a cantar y el padre asombrado; y le da al padre su agua para beber.

Ya tenía su padre ciento cuatro años y con solo darle su hijo el agua, aquel rey se vuelve de veinte años.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 29.

Trad. K.U. y E.A.

Este cuento no fue publicado en inglés por Webster.

Hura etxean sartziarekin hasten da zaldia irrintzinaka, xoria kantuz errepikaz eta aita estonitzen da eta ematen dio bere ura edatera aitari.

Bazituen haren aitak ehun eta laur urte eta harek ura ematiarekin ethortzen da errege hura hogoi urtetan.

Hiztegia

1 xurnal: kazeta, egunkaria; 2 drole: bitxi; 3 ebien: beraz; 4 sobra: gehiegi; 5 fitsik: deusik, ezer ez; 6 leher: gainezka; 6b hordi: mozkor; 7 hurrupa: tragua; 8 ebatsi: lapurtu; 8b zarteko: kolpea; 9 alegera: alai; 10 bentzutu; 11 ezindu: ahalik gabe geratu,

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 29. or.

Webster-ek ez zuen inglesez argitaratu.

554. THE GRATEFUL ANIMALS

•

554. LOS ANIMALES AGRADECIDOS

Historia de Kuiatxo(1)

Histoire de Kouyatcho

(M.A.)

554. Los animales agradecidos

Una vez había un hombre; se llamaba Kuiatxo. Sin duda, le dieron ese nombre porque el vino se daba en calabacines, y porque a aquél también le gustaba.

Un día salió hacia Cambo; que tenía que robar vino.

Mientras iba en camino, encontró una vara; y entonces sin duda, pues las cosas y los animales hablaban como los hombres –y acaso mejor–, le preguntó la vara:

—¿Adónde vas, Kuiatxo?

—A Cambo, a robar vino; ¿quieres venir conmigo?

—Sí, vamos.

Fueron un poco más lejos y se encontraron con una larga aguja.

Aquélla también:

—¿Adónde vas, Kuiatxo?

—A Cambo, a robar vino; ¿quieres venir con nosotros?

—¡Sí, vamos!

Un poco más lejos se encontraron con un limaco (babosa).

—¿Adónde vas, Kuiatxo?

—A Cambo, a robar vino; ¿quieres venir con nosotros?

—¡Sí, vamos!

554. ESKER ONEKO ANIMALIAK

Kuiatxoren ixtorioa

Histoire de Kouyatcho

(M.A.)

554. Esker oneko animaliak

Behin bazen gizon bat; izena zuen Kuiatxo. Dudarik gabe, izena hala emana zioten kuiatxotan ematen zelakotz arnoa, eta harek ere maite zuelakotz.

Egun batez abiatu zen gan behar zuela arno ebasterat Kanborat.

Bidean zoalarik, atxeman zuen makil bat; eta orduan dudarik gabe, gauzak eta alimaliak mintzatzen baitziren gizonak bezala –eta behar ba hobeki– galdetu zion makilak:

—Norat oha Kuiatxo?

—Kanborat, arno ebasterat, nahi duk etorri nerekin?

—Ba, goazen.

Urrunxoago gan eta atxeman zuten orratz luze bat.

Harek ere:

—Norat oha Kuiatxo?

—Kanborat, arno ebasterat; nahi duk etorri gurekin?

—Ba, goazen!

Urrunxoago atxeman zuten bare bat.

—Norat oha, Kuiatxo?

—Kanborat, arno ebasterat; nahi duk etorri gurekin?

—Ba, goazen!

Un poco más lejos se encontraron con un gallo.

—Kukuruku, ¿adónde vas, Kuiatxo?

—A Cambo, a robar vino; ¿quieres venir con nosotros?

—¡Sí, vamos!

Un poco antes de llegar a Cambo, escondida en un rincón en los matorrales, se encontraron con una caca.

—¿Adónde vas, Kuiatxo?

—A Cambo, a robar vino; ¿quieres venir con nosotros?

—¡Sí, vamos!

Todos fueron juntos y como para entonces estaba oscuro, entraron en esa casa sin duda (y) sin llamar a la puerta:

—¡Estaría abierta!

Kuiatxo colocó a todos sus amigos como a él le pareció, cada uno en su sitio, como un general coloca a sus tropas.

Colocó a la babosa a la entrada de la casa, encima del umbral, la vara en el rincón la puerta, la caca junto al fuego, en el polvo; la aguja, en la paja y el gallo en la punta de la chimenea.

Y él fue a la bodega, a robar el vino.

El hombre de esa casa percibió algo, y pues debía verlo, se levantó.

Y para encender la luz, fue junto al fuego, sin duda (pensando) que todavía habría un poco de fuego.

Empezó a remover el polvo para que mostrar el fuego...y puso la mano...en aquello...¡que sabes!

—Buf, (esto) sucio, ¿qué es?

No sabía en qué secar la mano, la pasó por la paja y se metió la aguja hasta el fondo.

Sorprendido con lo que pasaba, miró chimenea arriba; y el gallo le hizo caca a los dientes.

El pobre, asustado, (por) qué era lo que pasaba, brujas o demonios, fue corriendo fuera.

Al pasar por la puerta, se resbaló encima de la babosa y cayó patas arriba.

Y en ese momento, salió la vara de su rincón, y «pinpiti, panpata, pum», molió a nuestro hombre.

Y el pobre no escapó tan rápido como quiso, en busca de los gendarmes.

En aquel intervalo, Kuiatxo volvió de la bodega, bien colmado de vino, el calabacín lleno, y cogiendo a (acompañado de) sus amigos –no por supuesto el que estaba en el polvo– desapareció se fue antes de venir los gendarmes.

Contado por Juan Elizagarai, viejo médico de Sara, a los 83 años, el 13 de marzo de 1931.

N. del T.: (1) *Kuiatxo*: calabacín.

• Mayi Ariztia

Nuestra fuente: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Edit. Elkar, pág. 56.

Trad. J.A.

Urruntxoago atxeman zuten oilar bat.

—Kukuruku, norat oha Kuiatxo?

—Kanborat, arno ebasterat; nahi duk etorri gurekin?

—Ba, goazen!

Kanborat heltzeko aintzintxean, sasi xoko baten gordea, atxeman zuten k.k. mokordo bat.

—Norat oha, Kuiatxo?

—Kanborat, arno ebasterat; nahi duk etorri gurekin?

—Ba, goazen!

Denak gan ziren elkarrekin eta iluna baitzen ordukotz, sartu ziren etxe hortan dudarik gabe aterik jo gabe:

—Zabalik izanen zen!

Kuiatxok eman zituen bere lagun guziak, zitzaion bezala, bakotxa bere tokian, jeneral batek bere tropak ematen dituen bezala.

Eman zuen barea etxearen sartzean, atalapustaren gainean, makila ate xokoan, k. k. mokordoa su pazterrean, hautsean; orratza, lahatzian eta oilarra ximinearen punttan.

Eta bera gan zen xaiarat, arno ebasterat.

Etxe hortako gizonak, zerbeit sumatu zuen, eta behar zuela ikusi, jeiki zen.

Eta argiaren pizteko, gan zen su pazterrat, dudarik gabe oraino, su pixka bat izanen zela.

Hasi zen hautsaren higitzen suaren agertzeko... eta oratu zuen eskua... dakizun... hartan!

—Fu zikin, zer da?

Ez jakin zertan xuka eskua, pasatu zuen lahatzian eta sartu zuen orratza ondoraino.

Harritua zer pasatzen zen, begiratu zuen ximinea gora; eta oilarrak egin zion hortzetarat k.k.

Giza gaizoa izitua, zer ote zen, sorginak edo debruak, abiatu zen lasterka kanporat.

Atian pasatzean, lerratu zen barearen gainean eta erori zen, erroz gora.

Eta hainbertzenarekin, makila ateratu zen bere zokotik, eta «pinpiti, panpata, pum», eho zuen gure gizona.

Eta giza gaizoak, etzuen nahi baino lasterrago ihes egin, jandarmen bila.

Tarte artan, Kuiatxo etorri zen xaiatik, ederki arnoz eserik, kuiatxoa beterik, eta bere lagunak harturik, –ez naski hautsean zen hura, hura barraiatuxea izanen zen –ihesi gan zen jandarmak etorri aintzin.

Juan Elizagarai, Sarako midiku xaharrak emana - 83 urtetan 1931ko Martxoaren 13.

• Mayi Ariztia

Gure iturria: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Elkar Argitaletxea, 56. or.

Hoz

Príapo, con hoz, asno y macho cabrío.

560-649 MAGIC BJECTS

560-649 OBJETOS MÁGICOS

560-649 OBJKETU MAGIKOAK

La tabaquera (1)

Tabakiera, the Snuff-box
(W.W.)

560. El anillo mágico

Érase una vez un chico (chaval) joven como otros muchos en el mundo.

Andaba viajando y yendo (cuando iba) encuentra una tabaquera. La abre y le dice la tabaquera:

—¿Zer nahi dozu? (¿Qué quieres?) Ke kieres

Se asusta y la mete rápido en su bolsillo. Feliz, no la tiró.

Ya va yendo, yendo, yendo y dice en su interior:

—Si otra vez me dice (pregunta) «qué quieres» ya sabré qué decir (responder).

Coge su tabaquera y la abre y otra vez le dice:

—Ke kieres (¿Qué quieres?)

El muchacho le dice (responde):

—Mi boina llena de oro.

Y se le llena. Estaba encantadísimo (como loco) nuestro chico (muchacho) pensando que ya no tendría nunca falta de nada.

Ya va yendo, yendo, yendo y pasa unos bosques y llega a un palacio hermoso. Allá solía estar el rey. Va dando la vuelta, vuelta, vuelta, mirando a todas partes con un aire atrevido. El rey le pregunta dónde anda.

—Mirando a su castillo. Qué más quisiera que tener yo un palacio como éste. Me gustaría tener un castillo como éste.

El chico se queda callado callado. Cuando llega la noche nuestro muchacho coge su tabaquera y le dice:

—Tú haz aquí mismo un castillo, con remates de oro, tejas de diamantes y todo el resto de adornos de oro y plata(2).

Para cuando termina de decir, ve delante de la casa del rey un castillo como él lo había pedido.

Cuando el rey se levanta se queda de piedra al ver aquella maravilla. Se le salían los ojos con la luz del sol. Todas las muchachas también allá estaban mirando aquello.

Le va el rey y le dice que es un hombre que tiene mucho poder(3) (poderoso) y que tiene que venir con ellos a casa y vivir juntos. Que también tiene una hija y que se casarán. Sucede como dice el rey y van todos a aquella maravillosa casa. Se casa con la hija del rey y vivían felices.

* * *

La mujer del rey tenía muchos celos por el muchacho y su hija. Ya sabía (dicho) por su hija cómo tenían aquella tabaquera y que todas las cosas que querían las hacían. Habla

Tabakiera[1]

Tabakiera, the Snuff-box
(W.W.)

560. Eraztun magikoa

Asko munduan bezala bazen mutiko bat.

Biaietan zuan eta bazualarik atzematen du tabakiera bat. Idekitzen du eta erraten dio tabakierak:

—Ke kieres.

Izitzen da eta sartzen du fite bere zarparat. Uruski ez zuen botatu.

Badoha gan, gan, gan eta erraten du bere beithan:

—Berritz erraten banau «Ke kieres» jakiñen dut zer erran.

Artzen du bere tabakiera eta idekitzen du eta berritz erraten dio:

—Ke kieres.

Mutillak erraten dio:

—Ene xapela urrez bete.

Eta betetzen zaiyo. Xoratuba da gure mutilla ez duela gehiago deusen eskasik izanen.

Badoha, gan, gan, gan eta oian batzuek pasatu eta arribatzen da jauregi eder batean. Errege han egoten zen. Badoa bira, bira, bira aire ausart batekin denetarat beira. Erregek erraten dio non dabillan.

—Zure xatoaren ikusten. Naiago nuke banu nik ere olako jauregi bat.

Mutilla badago ixil ixila. Arratsa ethorri denian gure mutillak artzen du bere tabakiera eta erraten dio:

—Ke kieres?

—In zak hemen berian xato bat, latak urrez, tellak diamantez eta gañeratiko furnisment guziak urrez eta zillarrez[2].

Erran orduko ikhusten du erregearen etxearen aintzinian, harek galdetu bezalako xato bat.

Errege jeikitzen denian arrituba da etxe zoragarri hura ikhustia. Begiak athera nahi zituen iduzkiaren argiarekin. Neskato guziak ere han zagotzin hari beira.

Errege badohako eta erraten dio hura gizon podore[3] handitakua dela eta behar duela hekien etxerat ethorri edo elkarrekin bizi. Baduela alaba bat ere eta ezkonduko direla. Erregek erran bezala gertatzen da eta denak badoazi etxe zoragarri hartarat. Ezkontzen da erregeren alabarekin eta bizi ziren urus.

* * *

Erregeren emazteak bazuen jelosia handi bat mutiko harentzat eta bere alabarentzat. Bazakien bere alabarenganik nola zuten tabakier hura eta nahi zituzten guziak egiten

con un sirviente suyo y que tienen que tratar de robarles. (Pero éstos) cuidan bien dónde recogen por las noches la tabaquera aquella.

Una vez, pues, (éstas) lo vieron y a medianoche cuando estaban dormidos, les coge la sirvienta aquélla (la tabaquera) y se la lleva a su vieja ama. ¡Qué alegría para ella! Abre (la tabaquera) y (ésta) le dice:

— ¿Qué quieres? (Zer nahi dozu?)

—Tienes que llevarme, con mi marido y todos mis sirvientes, en esta hermosa casa, al otro lado del mar rojo(4) [del mar bermejo, donde se pone el sol] y que queden aquí mi hija y su marido.

zituztela. Bere zerbitzari batekin aditu eta ensaiatu behar dutela hekieri ebastia. Ungi ematen dute kontu nun haltzatzen duten arratsetan tabakier hura.

Noizbeit bada ikhusi zuten eta gabaren erditan lo zagotzilarik, artzen diote neskato harek eta erematen bere andre zaharrari. Zer loria harentzat!

Idekitzen du eta erraten dio:

—Ke kieres?

—Behar nauzu ereman nere senharrarekin, nere zerbitzari guziekin, etxe eder huntan, itsaso gorriz[4] bertze alde eta nere alaba eta bere senharra, hemen dagozila.

* * *

Cuando los señores jóvenes se despiertan, se dan cuenta, (que) ellos (están) en el viejo castillo y (que les) falta su tabaquera. Buscar, pero era en balde. El muchacho, no quiere estar en casa (ni) un momento más. Tiene que ir a buscar su castillo y aquella tabaquera.

Coge un caballo y todo el oro que puede levantar y va, va, va.

Los buscó en todas las ciudades del entorno. Anduvo hasta acabar su dinero. Pero no (los) encontraba en ningún sitio.

Pero el andaba siempre alimentando a su caballo como podía, y él pedía (mendigaba).

Alguien le dice que tiene que ir a donde la luna. Que aquélla suele hacer un recorrido bastante extenso y que aquélla le guiará.

Atzartzen direnian jaun andre gazteak, atzematen dute beren buruba jauregi zaharrean eta beren tabakiera falta. Bilhatzen dute, bañian inutil zen. Gizon gazteak ez du egon nahi memento bat etxian. Gan behar duela berehala bere xatoa eta tabakier haren billa.

Hartzen du zaldi bat eta harek altxa ahala urre eta badoha gan, gan, gan.

Billatu zituen ingurutako hiri guziak. Bere diruak finitu arte ibili zen. Bañean ez zuen nihon atzematen.

Bañean beti bazabillan bere zamaria ahal bezela haziz eta bera eske.

Norbeitek erraten dio gan behar duela ilhargiaren ganat. Harek iten duela bidaia bat aski edatuba eta harek gidatuko duela.

Va pues ir, ir, ir, y en una de éstas (por fin) llega.

Encuentra una mujer anciana. Le dice:

— ¿Qué andas aquí? Mi hijo se come todas las razas y si tienes prudencia (si eres prudente) te es mejor irte antes de que él venga.

Le cuenta todas sus desdichas, cómo tenía una tabaquera poderosa y que le han robado. Que ahora, está sin nada, lejos de su esposa y despojado de todo. Y que seguro que su hijo ya habrá visto su palacio en algunos de sus viajes, con remates de oro, tejas de diamantes y los adornos restantes de oro y plata.

En ese momento, aparece la luna. (Ésta) le dice a su madre que (sentía) olía a alguien. La madre le cuenta cómo es (se trata de) un hombre que era un desdichado, que ha perdido todas las cosas (que tenía) y que ha llegado donde ella. Creyendo que ella le guiaría. Le dice que se lo presente.

Llega y (él) le pregunta si no ha visto pues una casa con rebordes de oro, tejas de diamantes y el resto de adornos de oro y plata; cómo se la han quitado. Le dice (la luna) que no, pero que un mayor recorrido y de mayor extensión hace el sol, y que le es mejor ir adonde él.

Badoha gan, gan, gan eta noizpeit arribatzen da.

Atzematen du emazteki xahar bat. Erraten dio:

—Non zabiltza hemen? Nere semiak jaten ditu arraza guziak eta zuhur baduzu, hura ethorri gabe obe duzu gan.

Erraten diozka bere malurrak, nola zuen tabakier podoros bat eta ebatsi diotela. Orai, deus gabe dela, bere emaztiarenganik urrun eta denetaz gabetuba. Eta haren semeak naski ikhusi duela bere biaietan haren palazioa, latak urrez, tellak diamantez eta gañeatikuak urrez eta zilarrez.

Horrekin batean agertzen da ilhargia. Erraten dio bere amari sentitzen duela norbeit. Amak erraten dio nola den gizon malurus bat denak galduak, harenganat heldu dela. Harek gidatuko duelakuan. Erraten dio ager dadiela.

Heldu da eta galdetzen dio iyan ez duen bada ikhusi latak urrez, tellak diamantez eta gañeratekuak urrez eta zilarrez dituen etxe bat. Nola kendu dioten. Erraten dio ezetz, bañion harek bañon bide handiyaguak eta edadura geiago egiten dituela iduzkiak eta obe duela harenganat gan.

Va pues, va, va, va alimentando a su caballo como podía y él pidiendo (mendigando). Llega alguna vez (por fin) a la casa del sol.

Se encuentra a una vieja. (Ésta) le pregunta en qué anda (qué busca). Que se marche pues de allá, a ver si es que no

Badoha beraz, gan, gan, gan, bere zaldia ahal bezala aziz eta bera eske. Arribatzen da noizpeit iduzkiaren etxerat.

Atzematen du atxo xahar bat. Erraten dio non dabillan. Duala bada handik, iyan ez dakien haren semeak giristiño guziak jaten dituela.

sabe que su hijo come a todo cristiano. Le dice (responde) que no, que no quiere irse. Que es tan desgraciado que le daba igual morir también. Ya que lo ha perdido todo. Que tenía una casa como no hay otra, con remates de oro, tejas de diamantes y el resto de los adornos de oro y plata; y que para entonces llevaba tanto tiempo buscándola. Que no hay hombre tan desdichado como él.

Aquella mujer lo guarda. Llega el sol y le dice a su madre que sentía olor a cristiano y que lo tiene que comer. La madre le dice cómo es (que se trata de) un hombre desdichado que ha llegado a hablar con él después de perder todo y que se apiade de él (el sol). Que le haga salir.

Llega el joven y le pregunta al sol si no había visto una casa sin igual en ningún sitio, con remates de oro, tejas de diamante y adornos de oro y plata.

El sol le dice que no. Pero que el viento sur suele encontrar cosas que él no ha podido ver. Que aquél entra en todos los rincones. Y que de saberlo alguien, aquel lo sabrá.

Erraten dio ezetz, ez duela gan nahi. Haren malurus dela, igual zaioela hilikan ere. Nola galdu dituen denak. Bazuela etxe bat, nihon ez beita halakorik, latak urrez, tellak diamantez eta gañeatiko guziak urrez eta zilarrez, eta haren billa dabillala harenbertze denbora hartan. Ez dela hura bezin gizon malurusik.

Gordetzen du emazteki harek. Arribatzen da iduzkia eta erraten dio bere amari sentitzen duela giristiño usaiña eta jan behar duela. Amak erraten dio nola gizon malurus bat den, denak galdurik haren mintzatzera etorria eta urrikaltzeko hartaz. Ager arazteko beraz.

Heldu da mutilla eta erraten dio iduzkiari iyan bada ez duen ikusi etxe bat niyon parerik ez duena, latak urrez, tellak diamantez eta gañeatikuak urrez eta zillarrez.

Iduzkiak erraten dio ezetz. Bañean egoak atzematen dituela harek ezin ikusitako gauzak. Zoko guzietan sartzen dela hura. Eta nihork jakitekotz, harek jakiñen duela.

Parte nuestro infeliz alimentando a su caballo como podía, y él pidiendo (mendigando). Llega alguna vez (por fin) a la casa del viento sur(5).

Encuentra una mujer anciana que está acarreando agua para llenar muchas barricas. Ella le dice que se piensa viniendo allá, que su hijo se come a todos. Que llegará furioso de sed y que hay que tener cuidado con él. Le dice que ya (para ahora) le da igual, que es tan desgraciado (desdichado) que no está de miedo de nada.

Le cuenta cómo le han quitado una casa que no tiene igual, y con ella todas sus riquezas. Que abandonando a su mujer andaba buscando (la casa) y que ha llegado a consultarle al viento sur enviado por el sol.

Ella le hace esconder debajo de la escalera y llega el viento sur, sediento, como si fuera a sacar de cuajo aquella casa. Pero antes de empezar a beber, huele la raza cristiana. Le dice a su madre que saque al que tiene escondido. Que tiene que empezar comiendo a aquél.

La madre le dice que coma y beba lo que tiene delante, y le cuenta las desgracias de aquel hombre, cómo el sol le ha dejado con vida para venir a consultarle a él. Entonces, hace que venga aquel hombre. Éste le dice cómo anda queriendo buscar una casa y que de saberlo alguien, él lo sabrá. Que le han robado la casa, la cual tiene los remates de oro, tejas de diamante y el resto de los adornos de oro y plata. A ver si no la ha visto en ninguna parte.

Le dice:

—Pues sí. He pasado todo el día encima de ella, sin poder arrancarle una teja.

— ¡Si me dijera dónde está!

Le dice que al otro lado del mar rojo (mar bermejo), bien (muy) lejos.

Cuando nuestro hombre oyó eso, no le asustaba el camino. ¡Había hecho ya tanto para entonces! Salió pues y alguna vez (por fin) llega a aquella ciudad. Pregunta si en alguna parte han oído de algún puesto (de trabajo) de jardinero. Y le responden que el del castillo (del rey) se les ha marchado y que seguro que allí podrían cogerle. Ya va y reconoce su casa. Pensar (imaginad) su consuelo y alegría.

Partitzen da beraz gure giza gaxua bere zaldiarekin ahal bezala hura aziz eta bera eske. Arribatzen da egoaren etxerat noizpeit[5].

Atzematen du emazteki xahar bat hari dela ur garraiyon barrika hanitzen betetzen. Erraten dio zer pentsatzen duen harat ethortzea, haren semeak denak jaten dituela. Arribatuko dela egarriak furian eta kontu eman behar dela hari. Erraten dio igual zaioela janik ere, haren malurus dela, ez dela deusen beldur.

Kondatzen dio nola etxe eder bat parerik ez beitu, kendu dioten eta harekin bere aberastasunak. Bere emaztea abandonaturikan, hura ezin atzemanez dabillala eta haren kontsultatzerat heldu dela, iduzkiak egorririk.

Gorde arazten du eskaleer azpian eta arribatzen da egua, etxea errotik ereman nahi balu bezala, egarria. Edaten asi baiñon lehenago sentizen du giristino arraza. Erraten dio bere amari, athera dezan gordea duena. Haren jaten hasi behar duela.

Amak erraten dio jan eta edan dezala aintzinian dituenak eta kondatzen diozka gizon haren malurrak, nola iduzkiak utzi dioen bizia haren kontsultatzerat etortzeko. Orduan ekhar arazten du gizon hura. Erraten dio nola dabillan etxe bat atzeman nahiz eta nihork jakitekotz harek jakinen duela. Ebatsi diotela bere etxea, zeñak beititu latak urrez, tellak diamantez eta ganeatikoak urrez eta zilarrez. Iyan ez duen bada nihon ikusi.

Erraten dio:

—Ba, ba. Egungo egun guzia, haren ganean pasatu dut ezin tella bat hari atheratuz.

—Erraten baninduzu non den!

Erraten dio itsaso gorriz bertze alde dela, ungi urrun.

Gure gizonak hori aditu zuenean, ez zuen izitzen bideak. Hainbertze egin zuen jadaneko! Partitzen da beraz eta noizpeit arribatzen da iri hartarat. Galdetzen du iyan senti duten nihon baratze zain tokirikan. Erraten diote xatuan partitua dutela eta naski han har lezaketela. Badoha eta ezagutzen du bere etxea. Pentsa haren loria eta bozkarigua.

Galdetzen du iyan behar duten baratzezainik. Erraten diote baietz. Ungi kontent zen gure mutilla. Zenbeit denbora

Pregunta a ver si necesitan jardinero. Le dicen que sí. Bien contento estaba nuestro chico. Pasa un tiempo así así (aguantó como pudo cierto tiempo). Habla con una criada sobre las riquezas y el poderío de aquellos señores. Así se pone de acuerdo con aquella chica. Bien le picaba (provocaba) para sacarle la historia de la tabaquera, hasta que una vez dice que le gustaría verla bien. Una noche se la trae para verla y nuestro joven toma buena cuenta (tiene mucho cuidado) de ver dónde la guarda en la habitación de su ama.

A la noche cuando todo el mundo duerme, va y coge su tabaquera. Comprendéis con qué alegría la abrió. Cuando le dijo:

— ¿Qué quieres?(6) (Zer nahi dozu?)

— Llévame con este castillo a mi lugar de antes, y al rey con su mujer y toda la servidumbre ahógalos en ese mar rojo (mar bermejo).

Para cuando lo dijo (Nada más decir esto) le lleva a donde su mujer y allí vivieron contentos y los otros se murieron dentro de aquél, como jamás otro, (inmenso) mar(7).

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(*) «¿Qué quieres?», en castellano, en el original (N.T.).

(1) También nos fue relatado en vasco «La linterna poderosa», que era la historia de la lámpara de Aladino, con excepción de un incidente. El presente relato se parece mucho más a la versión gaélica, aunque en ésta última (Campbell, Vol. II, págs. 297 a 299) hay una dama que entrega la tabaquera al protagonista. Al ser abierta, la tabaquera dice «Eege gu djeege», respecto a lo que Campbell comenta: «La explicación a estos sonidos fue que «era como si la tabaquera estuviese preguntando». Los sonidos carecen de significado, que yo sepa, en lengua alguna».

(2) Véase la versión de MacCraw en el trabajo de Campbell, nota, Vol. II, pág. 301.

(3) «Poder», en estos relatos, en la lengua vasca, siempre parece significar «poder mágico», aludiendo a cierta capacidad de hechizar o al don de realizar proezas.

(4) En la versión de Campbell se habla del «reino del rey bajo las olas», o «reino de las ratas». Una rata ocupa el lugar de la criada que le roba la tabaquera al héroe. Los «Deccan Tales» también mencionan el Mar Rojo.

(5) El viento del sur es el más temido de los vientos locales en el País Vasco. Es siempre caliente, y en ocasiones muy violento. Tras soplar durante dos o tres días suele traer lluvia y una fuerte tormenta, pág. 105.

(6) El hombre se dirige cariñosamente a la tabaquera, como si «qué quieres» fuese su nombre.

Nota del editor: En la versión de Edit. Miraguano el protagonista llamándole a la tabaquera «Qué quieres, qué quieres».

(7) Las semejanzas y diferencias de este relato respecto del gaélico «The Widow's Son», de Campbell, Vol. II págs. 293-303, demuestran que ambos deben ser versiones independientes de algún cuento original como «La lámpara de Aladino», pero no simples copias de él.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 143.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 94; «Le Folk-Lore Du Pays Basque», pág. 63; BPB pág. 140.

pasatzen ditu hala hala. Zerbitzari batekin mintzo da nagusien aberastasunez eta heiek zuten podoriaz. Hala akort zen neskatxa harekin. Ungi zirikatzen zuen hari ateratzeko tabakieraren historiua, non behin erraten beitio ungi ikhusi nahi lukeela. Arrats batez ekhartzen dio ikhusterat eta gure mutillak ungi kontu ematen du non gordetzen duen bere etxekandrearen gelan.

Gabaz, mundu guzia lo delarik, badoha eta hartzen du bere tabakiera. Konprenitzen duzue zer loriarekin ideki zuen. Erran zioenian:

—Ke kieres?[6]

—Eraman nazak xato hunekin nere lehengo plazarat eta errege eta bere andrea beren sehi guziekin ito arazkik itsaso gorri hortan.

Harek erran orduko eramaten du bere emaztearenganat eta han bizi izan ziren urus eta bertzeak sekulako itsasuaren barnean hil ziren[7].

Hiztegia:

1 tabakier: tabakontzi; 2 fite: laster; 3 xapela: kapela; 4 lata: teilatuohola; 5 furnisment: beharrezko gauzak; 6 ebastia: lapurtzea; 7 haltzatu: gorde; 8 edatuba: hedatua, zabala; 9 malur: zorigaitz; 10 urrikaldu: errukitu; 11 egoa: hego aldetik datorren haizea; 12 jadaneko: ordurako, lehenago.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. znb.

(*)«¿Qué quieres?», jatorrizko gaztelerazkoan (Itzul.Oh.).

(1) Euskaraz ere kontatu izan zaigu «Linterna ahaltsua», Aladinoren lanpararen istorioa, gorabehera bat izan ezik. Oraingo kontakizun hau bertsio galiarraren oso antzekoa da, nahiz eta azkeneko honetan (Campbell, II. libk., 297tik 299rako or.) baden tabakontzia protagonistari ematen dion andere bat. Irekitzean, honela esaten du tabakontziak «Eege gu djeege», Campbell-ek egiten duen iruzkinaren arabera: «Hots honen azalpena hauxe izan zen «tabakontzia galdezka ari balitz bezala zen». Ez dute esanahirik hotsek, nik dakidanez, inongo hizkuntzetan».

(2) Ikus MacCraw-en aldaera Campbell-en lanean, oharra, II. libk., 301. or.

(3) «Ahalmena», euskaraz eta kontakizun hauetan, badirudi beti «ahalmen magiko» duela esanahia, sorgintzeko edo balentriak burutzeko dohaina aipatuko balu bezala.

(4) Campbell-en aldaeran «uhinen azpiko erregeren erreinuaz hitz egiten da», edo «arratoien erresumaz». Heroiari tabakontzia osten dion neskamearen lekuan arratoi bat dago. «Deccan Tales» haiek ere aipatzen dute Itsas Gorria.

(5) Hegohaizea Euskal Herriko haize indartsuenetarikoa da. Beroa izaten da, eta batzuetan oso bortitza. Bi edo hiru egunetan egon ondoren euria eta ekaitza ekartzen ditu, 105. or.

(6) Tabakontziari amultsuki zuzentzen zaio gizona, «zer nahi duzu» bere izena balu bezala.

(7) Kontakizun honek Campbell-en «The Widow's Son» II. libk., 293-303. or. galiarrarekiko dituen antzekotasunek eta desberdintasunek, argi uzten dute biak ere jatorrizko beste ipuin baten aldaera lotura gabeak izan behar dutela, «Aladinoren lanpara» bezalakoenak, baina ez bere kopia soilak.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 143. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 94. or.; «Le Folk-Lore Du Pays Basque», 63. or.; BPB 140. or.

563. LA MESA, EL ASNO Y EL PALO

El mantel, el burro y la vara

La nappe, l'âne et le bâton
(J.B.)

563. La mesa, el asno y el palo

En otro tiempo, en una casa había tres hijos.

Un día, el mayor le dice a la madre:

—Madre, haz pronto panecillos, para que vaya luego a hacer fortuna.

La madre hace los panecillos, y el hijo parte de camino en camino. Mientras iba, en la orilla (de un río) se encuentra con el Señor Jesús y San Pedro.

El Señor Jesús le dice a gritos:

—Dime, muchacho, a cambio de un pago, ¿nos llevarás al otro lado?

—¡Que sí, seguro!. Y nuestro muchacho los llevó pues al otro lado.

El Señor Jesús, entonces, le dio como pago un mantel, diciendo:

—Ten, coge este mantel. Todas las veces en que tengas hambre o sed, te bastará con decir:

—¡Mantel, extiéndete!, y encima de ese mantel tendrás, enseguida, todo lo que necesites de comer y beber.

Nuestro muchacho, alegrado de que ya había hecho fortuna, parte seguidamente hacia casa.

Ir, ir, siempre ir, por la tarde llega a una posada, y al ir a dormir, les da el valioso mantel para guardarlo a las gentes de la posada, diciendo:

—Cuidado, por favor, con no decirle a este mantel: ¡Mantel, extiéndete!

—¡Que no, seguro!

Pero en cuanto el muchacho se fue a la cama, los posaderos le dijeron al mantel:

—¡Mantel, extiéndete!

¡Y, enseguida, encima del mantel, brist y brast (en un santiamén) se pusieron (aparecieron) estupendas cosas de comer y beber! Y no se sorprendieron poco aquellas gentes.

Enseguida, cambiando aquel mantel por otro parecido, callando-callando, embobados de contento, fueron luego a la cama.

Al día siguiente, en cuanto se alejó de la posada, pues nuestro muchacho estaba hambriento de pan, extendió el mantel debajo de un árbol, diciendo:

—¡Mantel, extiéndete!.

Pero, a pesar de andar diciendo y diciendo aquello, la base del mantel quedó vacía, y nuestro muchacho, atontado (apenado) con su dolor de corazón, volvió a casa sin hacer fortuna.

563. MAHAIA, ASTOA ETA MAKILA

Dafaila, astoa eta makila

La nappe, l'âne et le bâton
(J.B.)

563. Mahaia, astoa eta makila

Bertz orduz, etche batean, baziren hiru seme.

Egun batez, zaharrenak erraiten dio bere amari:

—Ama, egitzu laster opilak, joan nadin gero fortuna egitera.

Amak egiten ditu opilak, eta semea abiatzen da bidez-bide. Zoalarik, ur-bazter batean kausitzen ditu Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak oihuz erraiten dio:

—Errak, muthikoa, saritan truk, eremanen gaituk bertze aldera?

—Baietz segurki!. Eta gure muthikoak ereman zituen beraz bertze aldera.

Jesus Jaunak, orduan, saritzat eman zion dafail bat, erranez:

—To, harzak dafail hau. Gosetzen edo egarritzen haizen aldi guziez, aski dukek erraitea:

—Dafaila, heda hadi!, eta dafail horren gainean, izanen duk, berehala, behar dukan jateko edo edateko guzia».

Gure muthikoa, fortuna jada egina zuela loriatua, abiatzen da kuchean etche-alde.

Joan, joan, bethi joan, arratsean heltzen da ostatu batetara, eta oherakoan, dafail baliosa emaiten diote altchatzera ostatuko jendeeri, erranez:

—Dafail huni ez gero erran, othoi: Dafaila, heda hadi!

—Ezetz, segurki!

Bainan muthikoa ohera joan orduko, ostalerek erran zioten dafailari:

—Dafaila, heda hadi!

Eta, berehala, dafailaren gainean, brist eta brast eman ziren sekulako jatekoak eta edatekoak! Eta ez ziren jende hek guti harritu!

Berehala, dafail hura bertze hala halako batean trukaturik, ichil ichila, atseginez chochotuak, joan ziren gero ohera.

Biharamunean, ostatutik urrundu zeneko, ogi gosetua ere baitzen gure muthikoa, arbola baten pean hedatu zuen dafaila, erranez:

—Dafaila, heda hadi!.

Baina, erran eta erran hura arizana gatik, dafail-basa hutzik gelditu zen, eta gure muthikoa, bere bihotz-minarekin zozotua, etcherat itzuli zen, fortunarik egin gabe.

Personajes de los cuentos

Princesas, reyes y reinas

"El invierno". Marc Chagall.

Hermosura que maravilla

Llevaba puesto un vestido
todavía más hermoso que el del día anterior.
El rey estaba embobado con la hermosura de aquella joven
y no la abandonaba.

Liluratzen duen edertasuna

Ematen du arropa bat,
bezperakua bañion ederragua geihago.
Erregea zoratuba da haren edertasunaz
eta ez du kitatzen.

Printzesak, errege eta erreginak

Hermosura y riqueza

Cuando llegó el día de la boda vino la reina.
Trajo, vestido de diamantes para el día de la boda.
Para el día siguiente de oro, y para el tercer día de plata.
Imaginaos qué hermosa estaba
con su joya de diamante y su ropa de diamantes.

"Marigorribeltz". Daniel Txopitea.

Edertasuna eta aberastasuna

Ezkontzeko eguna ethorri zenian erregiña arribatu zen.
Ekharri zuen espos eguneko arropa diamantezkoa.
Biharamuneko urrezkoa eta hirugarren eguneko zillarrezkoa.
Pentsa zazue zein ederra zen bere bista diamantarekin
eta arropa diamantarekin.

Príncipe



* * *

Al poco, el segundo hijo le dice a la madre:

—Madre, haz pronto panecillos, para que vaya luego a hacer fortuna.

La madre hace los panecillos, y el hijo va de camino en camino.

En la misma orilla se encuentra, aquél también, con el Señor Jesús y San Pedro.

El Señor Jesús le grita:

—Dime, muchacho, a cambio de un pago, ¿nos llevarás al otro lado?

—¡Que sí, seguro!. Y nuestro muchacho los llevó al otro lado.

El Señor Jesús, entonces, le da como pago un burro, diciendo:

—Ten, coge este burro. Todas las veces en que estés en necesidad de dinero, dile a este burro:

—¡A trabajar, burro mío! y ese burro, enseguida, te hará oro a borbotones.

Nuestro muchacho, alegrado de que ha hecho fortuna, parte seguidamente hacia casa.

Por la tarde llega aquél también a la posada a la que había ido el hermano mayor, y, al ir a dormir, les da el burro a sus manos, diciendo:

—Cuidado con decirle a este burro, por favor: ¡A trabajar, burro mío!

—¡Que no, seguro!

Pero, en cuanto el muchacho se fue a la cama, los posaderos le dijeron al burro:

—¡A trabajar, burro mío!. Y, enseguida, les empieza el burro a hacer y hacer oro a borbotones. Y no se sorprendieron poco aquellas gentes.

Enseguida le cambian aquel burro por otro parecido, y callando-callando, luego van a la cama.

Al día siguiente, en cuanto se alejó de la posada, le dice al burro nuestro muchacho:

—¡A trabajar, burro mío!

Pero, a salvo vosotros (con perdón), el burro le hizo de lo otro, a borbotones. Y nuestro muchacho, que no había hecho fortuna, atontado (apenado) volvió a casa.

* * *

Al poco, el tercer hijo le dice a la madre:

—Madre, haz pronto panecillos, para que yo vaya a hacer fortuna.

La madre hace los panecillos, y el hijo va de camino en camino.

En la misma orilla de siempre, se encuentra, aquél también, con el Señor Jesús y San Pedro.

Habiéndoselo pedido así el Señor Jesús, llevó a los dos al otro lado, y el Señor Jesús le dio como pago una vara, diciendo:

—Si en algún lado alguna vez te sale algún enemigo, dile a esta vara: ¡Sacude, María, sacude! y verás lo que verás.

* * *

Handik laster, bigarren semeak erraiten dio amari:

—Ama, egitzu laster opilak, joan nadin gero fortuna egitera.

Amak egiten ditu opilak, eta semea badoa bidez-bide.

Ur-bazter berean, kausitzen ditu, harek ere, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak oihu egiten dio:

—Errak, muthikoa, saritan truk, eremanen gaituk bertze aldera?.

—Baietz, segurki!. Eta gure muthikoak ereman zituen bertze aldera.

Jesus Jaunak, orduan, saritzat emaiten dio asto bat, erranez:

—To, harzak asto hau. Diru beharretan haiteken guzian, errok asto huni:

—Lanari, ene astoa! eta asto horrek, berehala, urhea eginen dauk purrustaka.

Gure muthikoa, fortuna egin duela loriatua, abiatzen da kuchean etche-alde.

Arratsean, heltzen da hura ere, anaia zaharrena joan zen ostatura, eta, oherakoan, astoa emaiten diote eskuetara, erranez:

—Asto huni ez gero erran, othoi: Lanari, ene astoa!

—Ezetz, segurki!.

Bainan, muthikoa ohera joan orduko, ostalerek erran zioten astoari:

—Lanari, ene astoa!. Eta, berehala, hasten zaiote astoa, urhea egin eta egin purrustaka. Eta ez ziren jende hek guti harritu!

Berehala asto hura bertze hala halako batean trukatzen diote, eta ichil ichila, gero, badoazi ohera.

Biharamunean, ostatutik urrundu zeneko, astoari erraiten dio gure muthikoak:

—Lanari, ene astoa!

Bainan, salbu zuek eta, bertze hartarik egin zion astoak, purrustaka. Eta, gure muthikoa, fortunarik ez zuela egin, zozotua itzuli zen etcherat.

* * *

Handik laster, hirugarren semeak erraiten dio amari:

—Ama, egitzu laster opilak, ni joan nadin fortuna egitera.

Amak egiten ditu opilak, eta semea badoa bidez-bide.

Bethi ur-bazter berean, kausitzen ditu, harek ere, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak hala galdaturik, ereman zituen biak bertze aldera, eta Jesus Jaunak, saritzat eman zion makila bat, erranez:

—Nihun sekulan etsaiik atheratzen balimbazauk, makila huni errok: Zafra, Maria, zafra! eta ikusiko duk ikusiko dukana.

Agur eta milesker, arratseko heltzen da muthikoa, bere bi

Adiós y mil gracias, para la tarde llega el muchacho a aquella misma posada en que desplumaron a sus dos hermanos.

Al ir a dormir, les dice a los posaderos:

—Guardadme, por favor, esta vara hasta mañana por la mañana. Pero, en vuestro bien, cuidado no le digáis: ¡Sacude, María, sacude!

— Que no, seguro.

Pero, en cuanto el muchacho fue a la cama, los posaderos, cogiendo la vara, le dicen:

—¡Sacude, María, sacude!

¿Ah, sí? La vara les empieza, allí mismo, kiski, kaska, sacude y sacude, reventando a las gentes y las cosas, destrozándolo todo. Ay, por aquí, atch, por allá, empiezan los posaderos. ¡Y no podían hacer parar la vara de ningún modo! Pegar y pegar, así seguía siempre aquélla.

Al fin, por el tumulto se levanta nuestro muchacho; y, enloquecidos, los posaderos le empiezan gritar:

—¡Por favor, por favor, haz parar la vara! Y, ¡Extiéndete, mantel! y ¡A trabajar, burro mío!, te los devolveremos todos.

Nuestro muchacho, diciendo,

—¡Quieta, María, quieta!, hizo parar la vara; y encima de A trabajar, burro mío y Mantel, extiéndete debajo del brazo, con Sacude, María, sacude en la mano volvió a casa.

Y con su madre, y con los dos hermanos, vivió rico, ¡Dios sabe por cuánto tiempo!

Si vivieron bien, de la misma forma murieron.

• Jean Barbier

Nuestra fuente: Légendes Basques. Edit. Elkar, pág. 64.
Trad. J.A.

anaiak larrutu zituzten ostatu hartara berera.

Oherakoan, erraiten diote ostalereri:

—Altcha zadazue, othoi, makila hau, bihar goiz arte. Bainan, zuen onetan, ez zaiozuela gero erran: Zafra, Maria, zafra!.

—Ezetz, segurki.

Baina, muthikoa ohera joan orduko, ostalerek, makila harturik, erraiten diote:

—Zafra, Maria, zafra!.

Ah! baia? Makila hasten zaiote, hantchet, kiski, kaska, zafra eta zafra, jendeeri eta gauzeri zapartaka, oro chehatu beharrez. Ai! hemendik, atch! handik, hasten dire ostalerak. Eta, makila nihundik ezin geldiaraz! Jo eta jo, hura bethi ari!

Azkenean, harramantzetara jeikitzen da gure muthikoa; eta, erhotuak, ostalerak hasten zaizko oihuka:

—Othoi, othoi, geldiaraz zazu makila! Eta «Heda hadi, dafaila! eta Lanari, ene astoa! oro itzuliko dauzkitzugu.

Gure muthikoak,

—Geldi, Maria, geldi! erranik, geldiarazi zuen makila; eta Lanari Astoaren gainean, Dafaila, heda hadi beso azpian, Zafra, Maria, zafra eskuan itzuli zen etcherat.

Eta bere amarekin, eta bi anaiekin, aberats bizi izan zen, Jainkoak daki zombat luzaz!

Ongi bizi izan baziren, arabera hartarat hil ziren.

• Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 64. or.

Tres hermanos criados o Makilakixki

(J.M.B.)

563. La mesa, el asno y el palo

En una casa vivía un padre con tres hijos.

El hijo mayor fue de criado muy lejos.

Cumplido el año, su amo le dio un asno como soldada: ese asno hacía oro cuando alguien le decía *ei'zak urrea* «haz oro».

Cuando volvía a su casa con el asno, se le hizo noche y quedó hospedado en un mesón.

Al retirarse a dormir, dijo al mesonero:

—No digáis a mi asno «ei'zak urrea».

Pero, en cuanto el muchacho se retiró, el mesonero dijo al asno:

—Ei'zak urrea.

Y el asno le hizo oro abundante.

Entonces el mesonero sacó de allí aquel asno y en su lugar puso otro que se le parecía.

Hiru anai morroi edo Makilakixki

(J.M.B.)

563. Mahaia, astoa eta makila

Mundûn asko bezela, etxe batên aitte iru semekiñ bizi ementzan.

Seme zârrena morroi jûn ementzan oso urrutia.

Urtea bete ondoenên, soldata orden asto'at eman ementzioên; eta asto orrek, beâri ei'zak urea esa'ezkeo, urrea eitte ementzôn.

Ala, bê etxea zêtorrela, gau batên ostatuz urrutiko etxe batên geatu ementzan.

Eta oiakôn ostalariri esa'ementzion:

—Ez geo nê astôri «ei'zak urrea» esan.

Baño motille oia jûntzaneko, ostalarrik eitte ementziôn astôri:

—Ei'zak urrea.

Eta astôk urrea galanki eiñ ementzion.

Urdûn ostalarrik asto aren tokîñ ue bezelako besta asto at jarri ementzôn.

A la mañana siguiente, el muchacho tomó el asno del mesonero creyéndole suyo y se encaminó hacia su casa.

Contó a su padre y hermanos qué clase de asno traía. Colocó extendida en el suelo una sábana y en medio de ella a su asno. Le dijo a éste:

—Ei'zak urrea.

Pero allí no aparecía oro.

Volvió a decirle

—Ei'zak urrea.

El asno llenó de estiércol la sábana.

* * *

El segundo hijo fue también de criado.

En cuanto cumplió el año, su amo le dio una mesa. Si alguno decía *ei'zak bazkarie* «haz la comida» a la mesa, ésta presentaba al instante la comida.

Cuando el muchacho volvía a su casa, se le hizo noche en el camino y quedó hospedado en la misma posada en que robaron el asno a su hermano.

Al retirarse a la cama, dijo al mesonero:

—No diga a esta mesa «bazkarie jar zak» «prepara la comida».

Poco después el mesonero dijo a la mesa del huésped

—Bazkarie jar zak.

Y la mesa presentó una comida espléndida.

Entonces el mesonero retiró aquella mesa del sitio en que estaba y puso en su lugar otra mesa semejante a aquélla.

A la mañana siguiente, el muchacho tomó la mesa del hostelero y regresó a su casa.

Cuando llegó a estar con su padre y hermanos, les contó que traía una mesa que producía comida. Para mostrárselo dijo a la mesa:

—Bazkarie jar zak.

Pero la mesa no presentaba nada.

El muchacho, como no es de extrañar, quedó muy triste.

* * *

Después fue de criado el hermano menor.

Cuando cumplió el año, su amo le dio un palo. Este poseía una propiedad maravillosa: si se decía delante de él la palabra *makilakixki*, empezaba a golpear incesantemente a cuantos hubiese alrededor, menos al propietario (el muchacho).

El joven criado partió hacia su casa paterna. Como en el camino se le hizo noche, quedó como huésped en la misma posada en la que estuvieran sus hermanos.

Después de cenar, cuando se disponía a retirarse a dormir, dijo al hostelero:

—No digáis a mi palo *makilakixki*.

Pero en cuanto el muchacho fue a su habitación, el ladrón del hostelero tomó en su mano el palo y le dijo:

—Makilakixki.

Urrungo goizên, artu ostalarîñ astoa berea zôlakôn, eta motille oso alai bê etxea jun ementzan.

Esa'ementziên, bâ bê aittêeri ta anaiêi nolako astoa zêkarren. Eta ala, lurrên zâlduta izara aundi'at jarri ementzoên, eta aren erdiñ gue asto ori, antxe urrea ein zezan.

—Ei'zak urrea —esa ementzion motillek.

Baño urreik ez ementzan azaltzen an.

—Ei'zak urrea —beiz ê.

Ta urrea nun eingo zôn ze, izara guztie simaurtu ementziên.

* * *

Geo seme bigârrena jun ementzan morroi.

Ta urten bete ondoenên, mai bat ema'ementzion bê nausîk.

—Jartzak bazkârie eo aparie esa'ezkeo, mai orrek bazkârie eo aparie bertan prantatze' —emetzôn.

Ala bâ, motill oi bê etxea zêtorrela, gau batên, anaie zârrenâri astoa lapurtu zioên etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Ta oiakôn ostalariri esa'ementzion:

—Ez geo mai oni «jartzak bazkârie» esan.

Baño ue oia jûn zan urduko, ostalarîk

—Jartzak bazkârie —esa ementzion mai orri.

Ta maiek bertan bazkârie prantau ementzôn.

Ta urdun ostalarik mai ue izkutau ta ue bezelakoxe beste mai bat, aren tokîñ jarri ementzôn.

Urrungo goizên motill arek, artu ostalarîñ maie berea zôlakôn eta aldeiñ ementzôn.

Etxea jûn zanên esa 'ementziên bê aittêi ta anaiêi nolako maie zêkarren, ta ala, mai orri, danan aurrên, deadar eitte ementzion:

—Jartzak bazkârie.

Baño maiek ez ementzôn eze prantatzen.

Motill gizâjoa, ez da arritzekoa ta, oso triste geatu ementzan.

* * *

Geo anaie gaztêna jun ementzan morroi.

Ta urtea bete zônên, bê nausik makilla'at ema'ementzion. Makilla orrek ba ementzôn adur ikus garri'at. Beân aurrên *makillakixki* esa'ezkeo, motill oi ez beste inguruko guztîk joka txikitu bearrên astê ementzan.

Ala, gue motill oi ba ementzeotorren bâ etxea, eta gau batên beste anaiei lapurreta ein ziên etxe artan bertan ostatuz geatu ementzan.

Apalondôn, lotâ abîtu zanên, ostalariri esa'ementzion ze:

—Geo nê makillêi ez esan *makillakixki*.

—Ez, ez, —eantzu ementzion ostalarîk.

Baño ue oia jûn zaneko, artu makillea eta

—Makillakixki! —deadar eiñ ementzion ostalari lapurrek.

Al instante el palo empezó a golpear a todos, al hostelero y a sus familiares. Allí se armó una baraúnda. El mesonero, acribillado, se acercó al dueño del palo y le rogó que mandara pararse el palo.

Pero el muchacho contestó que no lo haría mientras no le devolvieran el asno y la mesa que robaron a sus hermanos.

El pícaro hostelero devolvió el asno y la mesa que había robado.

Entonces nuestro muchacho fue a su casa con su palo, asno y mesa.

(Contado en el año 1921 por Felipe de Apalategui, del caserío Munduate, en Atáun).

- José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: Mitología de Pueblo Vasco II - Euskal Herriaren Mitologia II. Edit. Etor-Ostoa, pág. 394.

Fuente original: J.M. de B., O.C. II, pág. 269.

Baitta makilla oi asten da baztar guztîk txikitu bearrên, danak joka, ostalarie eta etxeko beste guztîk. ¡Arek atâ ementzôn an ixki-millea!

Urdûn ostalarie, estu ta larri, makillên jabeâna jûn da, makilla oi geatu âzin zezan erregu eiñ ementzion.

Baño bestêk ezetz, eantzu'ementzion, alik eta aren anaiêi lapurtutako astoa ta maie eman artên etzôla geatu âzingo makillaik.

Ta ala, ostalari pikaro arek astoa ta maie biurtu emen ziotzan.

Urdûn gue motill oi bê makill, asto ta mai, etxea jûn ementzan.

Andi aurrea danak ondo bizi ize'ementzien».

Oi ala bazan sartu deilla kalabazan.

(Ataunen, Munduate baserriko Felipe Apalategik, 1921. urtean kontatua).

- Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: Mitología de Pueblo Vasco II - Euskal Herriaren Mitologia II. Etor-Ostoa Argitaletxea, 394. or.

Jatorrizko iturria: J.M. de B., O.C. II, 269. or.

566. THE THREE MAGIC OBJECTS AND THE WONDERFUL FRUITS

•

566. LOS TRES OBJETOS MÁGICOS Y LAS FRUTAS MARAVILLOSAS (FORTUNATO)

Dos huevos y tres prendas maravillosas

(J.M.B.)

566. Los tres objetos mágicos y las frutas maravillosas (Fortunato)

Este cuento también pertenece a los tipos
567. El corazón mágico del pájaro
y 569. La mochila, el sombrero, y el cuerno

Como muchos en el mundo, una mujer viuda tenía dos hijos.

Esa madre estaba de criada en casa de un muchacho mayorazgo.

Estos hijos, desde niños, acudían a la escuela.

Yendo a la escuela, hallaron el nido de un pajarito. En aquel nido había dos huevos.

Estos dos huevos tenían estas letras. Uno ponía: el que me coma será obispo; y el otro: el que me coma será rey.

Tomaron los huevos, los llevaron a casa.

Refirieron a la madre qué letras tenían aquellos huevos, y (le rogaron) que se los preparase a fin de comerlos ellos.

La madre informó a su señor acerca de lo que pasaba.

566. HIRU OBJEKTU MAGIKOAK ETA FRUTA MIRAGARRIAK (FORTUNATO)

Arrautza bi eta iru tresna arrigarri

(J.M.B.)

566. Hiru objektu magikoak eta fruta miragarriak (Fortunato)

Ipuin hau
567. Txoriaren bihotz magikoa eta
569. Motxila, kapela eta adarra motatan sailkatzen da

Munduan asko lez, andra alargun batek seme bi zituen.

Ama ori mutil maiorazgo baten etxean otzain egon zan.

Seme ok gaztetxutatik eskolara ebizen.

Eskolara dabizela, txoritxo bateri topau eutzien abie. Abi atan arrautze bi egozan.

Arrautze bi ok eukiezan letrok. Batak: ni yaten nauena obispo izengo da; ta besteak: ni yaten nauena izengo da errege, ipinten eurien.

Artu eutzesan arrautzak, eroan eurezan etxera.

Amari esa' eutzien aiek arrautzak zelango letrak eukiezan, da ifinteko eurek yateko.

Amak esa' eutzen beren uesabari zer pasetan dan.

El señor le dijo que aquellos huevos se los sirviese a él. pues se casará con ella.

La madre le dijo: usted promete, sí; pero usted no se casará conmigo después que coma esos (huevos).

El señor le dijo: guarde estos huevos; entrambos los comeremos en cuanto nos casemos.

Aiek arrautzak berari ifinteko esa' eutzen uesabak, beragaz ezkonduko dalata.

Amak esa' eutzen: zuk esan bai; baya zu ez zara nigaz ezkonduko orreik yan ezkero.

Uesabak esa' eutzen: arrautza ok gorde; ezkonduten gareanean, biok yanguz.

Cuando fueron a casarse, encargaron a la cocinera que para cuando ellos volvieran casados a casa, preparase aquellos dos huevos.

Después los muchachitos, cuando (la cocinera) preparó estos huevos, sin advertirlo la cocinera, los comieron.

El amo, al volver a casa y saber lo que había pasado, despachó de casa a estos muchachitos.

Ezkonduten yuan zireanean, esa' eutzen kozinereari eurek ezkonduta etxera etorri orduko aik arrautze bik prestetako.

Gero mutikoak, arrautza ok prestau zituenean, kozinereak ez dakiela, yan ei eutziesan.

Uesabak, etxera etorri zanean, ta zer paseu zan yakin euenean, mutikok etxetik atera zituen.

Los muchachitos, yendo en el camino, hallaron a tres hombres que discutían.

Y preguntaron a los hombres: ¿qué les ocurre?

—Aquí peleamos. Tenemos tres prendas en sociedad. Un sombrero: si el hombre lo pone en la cabeza, no se ven ni el hombre ni el sombrero. Una capa tenemos: si en ella se envuelve uno, todo lo que ella toca lo transporta o donde uno señala. Y otra bolsa, que nunca se agota. Y andamos sin acertar a repartirnos esas cosas.

—Si ustedes lo quieren, eso lo haremos en seguida.

—¿Cómo, pues?

—Váyanse a galope hasta el árbol que de aquí se divisa y que aquél que primero vuelva, escoja lo que él quiera. Y el que vuelva en segundo lugar, que (tome) de las cosas que queden la que quiera. El tercero, lo que hayan dejado los otros.

—Está bien.

Así, estos hombres partieron a galope.

Y estos muchachos, habiéndose apoderado de la bolsa y del sombrero, huyeron envueltos en la capa.

Mutikoak, bidean doiazala, iru gixon topau zituzan debatean.

Ta gixonai preguntau eutzien: zer dabizue ba?

—Emen gabizek. Iru prenda yeukusek soziedadean. Sombreru bat: gixonak burun imini ezkero, ez dok ikusten gixonik bez ta sombrerorik bez. Kapa bat yeukuk; beragaz batu ezkeitiño, berak ikututen deutzen guztie, noberak señeletuten dauen lekure eruaten dau. Ta beste bolsa bat, sekule akabatan eztana. Ta orreixek partidu ezinde gabixek.

—Zeuek gure ba-dozue, ori ensegida eingu.

—Zelan ba?

—Emetixek agiri dan arbolaraño zoazie galapan ta lenango datorrenak berak gura dabebena artu deiela. Ta bigarren datorrenak, gelditutten danetatik gure dabena. Irugarrenak, besteak itzi dabena

—Ederto yaok.

Alan gixon ok galapan urten zirian.

Ta mutil ok bolsea ta sombrerua artu ta kapan-batute eskapau eurien.

Llegaron a una ciudad y luego se les ocurrió emprender la carrera, y uno dijo al otro: yo me haré obispo, y dame una cantidad de dinero.

Se lo dio, y después ese muchacho se hizo obispo.

Uri batera allegau zirian, ta gero akordau yakien karrereari goatutea, ta batek besteari esa' eutzen: neu eingo nok obispo, ta diru zati bat ekak.

Emo' eutzen, ta gero mutil ori obispo ein zen.

Ese otro empezó a hacer diligencias para casarse con la hija del rey.

Y la hija del rey le dijo:

—¿Usted qué capital tendrá?

—Yo tengo una bolsa que nunca se agota.

—Tráigala, pues, para ver cómo es.

Cuando se la llevó para ver, esa hija del rey se la quitó.

Beste ori asi zen erregen alabeagaz ezkonduteko bideak eiten.

Ta erregen alabeak esa' eutzen:

—Zuk ze interes eukiko dozu ba?

—Nik ba-dauket bolsa bat, sekule agortuten eztana.

—Ekarrixu ba zelangoa dan ikusteko.

Ikusteko eruan ebanean erregen alaba orrek kendu eiotzen.

Después ese muchacho, con su sombrero y capa, penetró en el sitio donde la hija del rey estaba durmiendo. Y envolviéndola en esa capa la llevó a un monte que él quiso. Y allí en el monte la muchacha le dijo:

—¿Cómo me ha traído usted aquí? Y ¿Cómo se ha metido en nuestra casa?

Gero mutil ori bere sombrero ta kapeagaz erregen alaba lo egoan lekura sartu zen. Ta kape orregaz batu ta eroan eben berak gure eben mendi batera. Ta an mendien neskeak esa' eutzen:

—Zelan ekarri nauzu ba ona? Ta gure etxera zelan sartu zara?

—Aquí tengo un sombrero, en poniéndolo en la cabeza ninguno me ve; y tengo una capa que transporta al sitio que yo señale todo lo que ella toca.

—Esa. muchacha se los pidió para ver cómo eran.

Cuando se los dio, esa muchacha, dejándolo allí, se escapó con su sombrero y capa.

Ese muchacho, yendo a pie en el camino, vio unos higos. Y preguntó a ver de quién eran aquellos higos.

Y le contestaron que aquellos higos eran malos higos. Que, comiendo aquellos higos, al que los come le sale un cuerno por cada uno que coma.

—¿Cómo se quitan tales cuernos?

—Esos se quitan fácilmente: esos se quitan con el líquido que segregan estos mismos árboles.

Ese muchacho tomó unos higos, y se fue a su casa, y encargó a un su compañero que aquellos higos los venda a la hija del rey; y que no se los venda a otro, sino a ella, porque son malos.

Esa hija del rey compró estos higos, y los llevó para comerlos.

Después los comieron el rey, la reina y la hija.

Les salió un cuerno a cada uno en la frente.

Empezaron a decirse mutuamente:

—¡Oh, padre! !Qué cuerno tiene usted!

La otra:

—¡Oh, madre! ¡Qué cuerno tiene usted!

—Oh, hija! ¡Usted también!

Después se fueron (a encargar) se trajese pronto al médico.

Ese muchacho les preguntó a ver qué les pasaba.

Le dijeron que les habían salido cuernos.

—Eso se cura en seguida; yo conozco el remedio de eso.

—Venga, pues —le dijeron.

El muchacho fue a la casa del rey.

Primeramente se lo quitó al rey. Después a la reina.

A la hija le preguntó a ver de dónde tenía su bolsa y sombrero y capa.

—Mientras no me los devuelva, deberá tener usted ahí ese cuerno.

Se los trajo, y después se casaron entrambos.

Si así fue, o de otro modo.
Métase en la calabaza.
Y salga de Durango en la plaza.

(Contado en 1935 por Claudio Pujana, de 59 años, natural y vecino del caserío de Bernaola-goikoa, del barrio Indusi, en Dima).

• José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca III. Edit. Auñamendi, pág. 136.

—Emen dauket sombrero bat, a burun imini ezkero iñok enau ikusten; ta kape bat dauket, berak ikututen daben guztia neuk señalatuten doan lekure eroaten dabena.

—Neske orrek eskatu eutzen zelangoak direan ikusteko.

Emo' eutzesanean, bera an itzi eta neska orrek bere sombrero ta kapeagaz etxera eskapau eutzen.

Mutil orrek, oñez bidean etorrela, iko batzuk ikusi zituen. Ta preguntau eben ia aik ikoak noiñak dirian.

Ta esan eutzien aik ikoak iko txarrak diriala. Aik ikoak yan ezkero, yaten dan bakotxeko adar bat urteten deuela yaten deuenari.

—Adar ok zelan kenduten dira ba?

—Orreik fazil kenduten dire: orreik arbol ok eurok botaten deurien uregaz kentzen dira orrek.

Mutil orrek iko batzuk artu zituen, ta beren etxera yoan zan, ta bere lagun bateri esa' eutzen aixek ikoak saldu deiozala erregen alabeari; ta besteri ez deiozala saldu arexeri baño txarrak diriala-ta.

Erregen alaba orrek erosi zituen iko ok, ta yateko eroan zituen.

Gero yan zituzan erregek, erregiñek ta alabeak.

Urte' eutzien adar bana bekokien.

Asi zirean arkali esaten:

—Ai aite, zuk daukosu adarra!

—Ai ama, zuk daukosu adarra! —besteak.

—Ai alaba, zuk be bai!

Gero yoan zirean, medikue arin ekarteko.

Mutil orrek preguntau eutzien ea zer pasetan yakien.

Adarrak urten deutziela, esa' eutzen.

—Ori ensegida pasetan da; neuk dakit orren erremedioa.

—Ba etorri zaite, esa- eutzen.

Mutille yoan zan erregenetxera.

Lenengo erregeari kendu eutzen. Gero erregiñari.

Alabeari esa' eutzen ea non deukezan beren bolsea da sombrerue ta kapea.

—Orreik niri atzera ekarri arte ori adar or euki bearkosu.

Ekarri eutzezan, eta gero alkarregaz ezkondu zirean.

Alan bazan. olan bazan.
Sartu zerilla kalabazan.
Eta urten deiela Durango'ko plazan.

(Diman, 59 urtetan, Indusi auzoko Bernaola-goikoa baserriko Klaudio Pujanak 1935ean kontatua).

• Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: El mundo en la mente popular vasca III. Auñamendi, 136. or.

Personajes de los cuentos

Hilanderas

"La rueca. Hilandera". "Gorua. Irulea". Txopitea.

Ipuinetako pertsonaiak

Iruleak

567. THE MAGIC BIRD-HEART

•

567. EL CORAZÓN MÁGICO DEL PÁJARO

Dos huevos y tres prendas maravillosas

(J.M.B.)

567. El corazón mágico del pájaro

Este cuento también pertenece a los tipos
566. Los tres objetos mágicos y las frutas maravillosas (Fortunato)
y 569. La mochila, el sombrero, y el cuerno

→ Ver el texto en la pág. 333.

567. TXORIAREN BIHOTZ MAGIKOA

Arrautza bi eta iru tresna arrigarri

(J.M.B.)

567. Txoriaren bihotz magikoa

Ipuin hau
566. Hiru objektu magikoak eta fruta miragarriak (Fortunato)
eta 569. Motxila, kapela eta adarra motatan sailkatzen da

→ Ikus testua 333. or.

569. THE KNAPSACK, THE HAT, AND THE HORN

•

569. LA MOCHILA, EL SOMBRERO, Y EL CUERNO

Dos huevos y tres prendas maravillosas

(J.M.B.)

569. La mochila, el sombrero, y el cuerno

Este cuento también pertenece a los tipos
566. Los tres objetos mágicos y las frutas maravillosas (Fortunato)
y 567. El corazón mágico del pájaro

→ Ver el texto en la pág. 333.

569. MOTXILA, KAPELA ETA ADARRA

Arrautza bi eta iru tresna arrigarri

(J.M.B.)

569. Motxila, kapela eta adarra

Ipuin hau
566. Hiru objektu magikoak eta fruta miragarriak (Fortunato)
eta 567. Txoriaren bihotz magikoa motatan sailkatzen da

→ Ikus testua 333. or.

A la espera del remedio mágico

En otro tiempo, la hija del Rey estaba enferma, y nadie la podía curar. Médicos, hechiceros y brujas, todos andaban allí ansiosos, y siempre en balde. No había remedio para la chiquilla.
Y todos los días cada vez más debilitada, sin una sonrisa jamás, siempre decaída-decaída, iba consumiéndose hacia la tumba.

Sendagai magikoaren zai

Bertze orduz, Erregeren alaba eri zen, eta nehork ez zezaken senda. Mediku, azti eta sorgin, oro han zabiltzan errabiaturik, eta bethi debaldetan. Sendagailurik ez zen neskatcharentzat. Eta hiratua egun guziez gehiago, hirri bat gabe sekulan, ilhun ilhuna bethi, ahituz bazoan hobirat.

571. TODOS QUEDAN PEGADOS

La reina riente

Et la reine riait!...
(J.B.)

571. Todos quedan pegados

En otro tiempo, la hija del Rey estaba enferma, y nadie la podía curar. Médicos, hechiceros y brujas, todos andaban allí ansiosos, y siempre en balde. No había remedio para la chiquilla. Y todos los días cada vez más debilitada, sin una sonrisa jamás, siempre decaída-decaída, iba consumiéndose hacia la tumba.

Ahí, no sabiendo a qué agarrarse, el Rey manda hacer proclamar: que dará a su hija a aquél que haga hacer una sonrisa a esa hija...

Viviendo en una vieja chabola, había tres hermanos. Habiendo conocido el mandato del Rey, deciden entre sí: que tienen pues que verla, a ver si no le van a hacer de alguna manera hacer una sonrisa a la enferma.

* * *

El mayor coge pues con él un cesto lleno de manzanas rojas-rojas, y va.

Mientras va así en camino, caída allí en un agujero de brujas, ve a una vieja mujer –bruja– que no podía salir de ningún modo de aquel agujero. Pidiendo ayuda, se le pone a gritar pues la vieja. Pero, sin siquiera mirarla, nuestro muchacho va adelante.

Entra en el Palacio del Rey; lo llevan delante de la enferma. La enferma mira a las bonitas manzanas, y enseguida las aparta con las dos manos, mientras está más decaída que nunca.

El segundo hermano, habiendo cogido unas flores bonitas-bonitas, las lleva al Palacio.

En el mismo agujero de brujas ve aquél también a la vieja. Pero no la mira mejor que el mayor, y va adelante. Cuando está (llega) al Palacio, le ofrece sus bonitas flores a la enferma. Pero, sin siquiera mirarlas los más mínimo, se las aparta con las manos la joven Reina.

Sin coger nada consigo, va entonces el hermano más joven. Pidiendo ayuda desde el agujero de brujas, ve a la vieja y enseguida la saca de allí.

Muy alegre, le empieza entonces la bruja:

—¿Qué premio te puedo dar ahora como pago? ¿Quieres hacer fortuna?

—¿No voy a querer hacerla? Si he partido para eso de casa, queriendo hacer provocar una sonrisa a la hija del Rey, para luego casarme con ella.

—Ten pues este cordero negro. Cógelo contigo y llévalo siempre contigo, y no lo sueltes a cambio de nada de tus brazos ni una vez.

571. DENAK ELKARRI ITSASIRIK

Erregina hirriz

Et la reine riait!...
(J.B.)

571. Denak elkarri itsasirik

Bertze orduz, Erregeren alaba eri zen, eta nehork ez zezaken senda. Mediku, azti eta sorgin, oro han zabiltzan errabiaturik, eta bethi debaldetan. Sendagailurik ez zen neskatcharentzat. Eta hiratua egun guziez gehiago, hirri bat gabe sekulan, ilhun ilhuna bethi, ahituz bazoan hobirat.

Hor, zeri loth ez jakinez gehiago, Erregek oihu eginarazten du: bere alaba emanen diola ezkontzaz alaba horri hirri bat eginarazten dionari...

Etchola tchar batean bizi, baziren hiru anaia. Erregeren agintza jakinik, beren buruarekin egiten dute: behar dutela bada ikusi, eian ez othe diotenez eriari hirri bat nolazpeit eginaraziko.

* * *

Zaharrenak hartzen du beraz berekin sagar gorri gorriz betherikako otharre bat, eta badoa.

Bidean hola doalarik, sorgin-zilo batean eta harat eroria, ikusten du atcho chahar bat —sorgina— nihundik zilo hartarik ez baitzitaken athera. Laguntza galdez, oihuka emaiten zaio beraz atchoa. Bainan, tuntik behatzen ere ez diola, badoa aintzina gure muthikoa.

Erregeren Jauregian sartzen da; baderamate eriaren aintzinerat. Eriak behatzen diote sagar pulliteri, eta berehala, bi eskuez baztertzen ditu, sekulan baino ilhunago bera dagola.

Bigarren anaiak lore pullit pullit batzu harturik, baderamazka Jauregirat.

Sorgin-zilo berean ikusten du harek ere atchoa. Bainan ez dio zaharrenak baino hobeki behatzen, eta badoa aintzina. Jauregirat denean, bere lore pullitak eskaintzen diozka eriari. Bainan, behatzen ere ez diotela den gutienekorik, eskuez berehala baztertzen diozka Erregina gazteak.

Deus berekin hartzen ez duela, badoa orduan anaia gazteena. Sorgin-zilotik laguntza galdez ari, ikusten du atchoa, eta, berehala ere handik atheratzen.

Dena loriatua, hasten zaio orduan sorgina:

—Zer sari eman dezazuket orai ordainez? Nahi duzu fortuna egin?

—Ez dut bada egin nahi? Hortarakotz abiatua naiz eta etchetik, Erregeren alabari hirri bat eginarazi beharrez, harekin gero ezkontzeko.

—Ori beraz bildotch beltch hau. Harrezazu zurekin eta zurekin atchik bethi, deusezetan truk ez duzula besoetarik uzten behin ere.

* * *

Con su cordero en brazos, va pues el joven muchacho, y para la tarde llega a una posada del pueblo del Rey. Pide una cama para pasar la noche. Pero le responden que no tienen nada de sitio, y que tiene que ir a casa del párroco, que allí podría tener todas las cosas que necesita.

Va pues deprisa a casa del párroco y, como dicho, la criada del párroco lo acoge muy bien: teniendo todo lo que hacía falta de hierba (para la cama) y de forraje, que pondrán el cordero en el establo, y que le darán una habitación a él. Aquél que no, que tiene que tener el cordero consigo. Se sorprende el pobre cura, pero se obstina también nuestro muchacho. Al final, (pensando) que podía ser un chiflado, le aceptan todas las cosas, y van cada uno a su habitación, el joven muchacho con su cordero en brazos.

Por la mañana, sin embargo, el señor párroco no estaba más dentro de la piel (tenía mucha curiosidad), queriendo saber algo del cordero misterioso. Primero mira por el agujero de la cerradura, pero no podía ver nada. Despacio-despacio, sin (hacer) nada de ruido, entra entonces en la habitación. El muchacho estaba bien dormido, con su cordero siempre en brazos. El párroco agarra el cordero por una oreja. El animal empieza a balar, despierta el muchacho, el cura se espanta y parte que debe (queriendo) huir... ¡Ya quisieras!... ¡No puede de ninguna manera soltar la oreja del cordero!...

—¡Socorro! ¡Socorro!

Empieza a gritar entonces y a chillar.

Despertada por aquellos gritos, ahí llega corriendo la criada, los pelos huecos-huecos, un gran agujero en el medio-medio del gran vestido que se ha puesto a toda prisa. Queriendo ayudar a su amo, agarra la otra oreja del cordero, y no la puede soltar más. El muchacho, tirando, tirando también de él el párroco y la criada, van los tres hacia afuera atropelladamente...

Al pasar por la huerta, avergonzada de sí misma, la criada coge una gran hoja de berza y la pone en la parte de atrás, para tapar el agujero del vestido. Y van, enfurecidos, por el pueblo, hacia el Palacio.

Y ahí, advirtiendo la berza y apeteciéndoles, les vinieron tres enormes cabras del borde del camino. Tan pronto como tocan la hoja de berza, quedan atadas a ella, y atropelladamente van luego con la criada, el cura, el cordero y el muchacho.

Más lejos, pues el bollero-panadero estaba levantado para entonces y estaba allí en la puerta, le gritan:

—Ven, por favor, y sepáranos. Va el panadero, y él mismo se les une allí mismo.

Ven a un herrero trabajando en su taller y le piden socorro a gritos:

—¡Pues eres hombre fuerte, ven a separarnos!. Corriendo va el herrero, y él también se les une.

Un poco más lejos, sus escobas en la mano, charlando delante de la puerta, había dos mujeres. En cuanto ven toda aquella caballería llegando en tropel, las dos viejas empiezan a reír y reír. La criada les grita:

* * *

Bere bildotcha besoetan, badoa beraz muthil gaztea, eta, arratseko heltzen da Erregeren herriko ostatu batetara. Ohe bat galdetzen du gauaren iragaiteko. Bainan, ihardesten diote tokirik ez dutela batere, eta joan behar duela jaun erretoraren etcherat, han baduzkela behar dituenak oro.

Badoa beraz aire berean erretoraren etcherat, eta, erran bezala, arras ongi hartzen du erretoraren gelariak: ihaurkiz eta bazkaz behar zen guzia izanez, heian ezarriren dutela bildotcha, eta gambara bat emanen diotela berari. Harek ezetz, berekin behar duela bildotcha. Harritzen da aphez gaizoa, bainan thematzen ere gure muthikoa. Azkenean, choro bat zitekela, onhartzen diozkate oro, eta badoazi zoin bere gambaralat, muthil gaztea bethi bere bildotcha besoetan.

Goiz alderat bizkitartean, jaun erretora ez zagoken gehiago larruaren barnean, bildotch michteriozkoaren berri zerbeit jakin nahiz. Gako-chilotik behatzen du lehenik, bainan ez zezaken deusik ikus. Pulliki pulliki, harrabotsik batere gabe, sartzen da orduan gambaran. Muthikoa lo zagon ederki, bere bildotcha bethi besoetan. Bildotchari beharri batetarik lotzen zaio erretora. Marrakaz hasten da alimalea, muthikoa atzartzen, apheza harritzen eta ihes egin behar duela abiatzen... Baduk hoberik!... Nihundik ez dezake utz bildotcharen beharria!...

—Hel! Hel!

Oihuka hasten da orduan eta karrasiaka.

Oihu hetarat atzarririk, lasterka hor heldu da gelaria, harro harroa ileak, zilo handi bat tarrapatan ezarri duen soineko tzarraren erdi erdian. Bere nausia lagundu beharrez, bildotcharen bertze beharriari lotzen da, eta ezin diro utz gehiago. Muthikoa bildotchari tiraka, tiraka hari berari erretora eta gelaria, kampora badoazi hiruak trumilka...

Baratzean iragaitearekin, bere buruaz ahalketurik, aza-hosto handi bat hartzen du gelariak eta emaiten gibel-aldean, soineko ziloaren estaltzeko. Eta badoazi, furfarian, herrian harat, Jauregiko alderat.

Eta horra, azari oharturik eta hartaz gutiziaturik, heldu zaizkotela bide-bazterreko hiru ahuntz alimale. Aza-hostoa hunkitu orduko, hari lothuak gelditzen dire, eta zipoteka abiatzen gero... gelari, aphez, bildotch eta muthikoarekin.

Urrunago, nola bolanjer-okina jeikia baitzen orduko eta hantchet baitzagon athean, oihu egiten diote:

—Zato, othoi, eta berech gaitzatzu!. Badoa okina, eta bera hantchet lotzen.

Harotz bat bere lantegian ari ikusten dute eta hel egiten diote karrasiaka:

—Gizon hazkarra baitzare, zato gure berechtera!. Lasterka badoa harotza, eta bera lotzen hura ere.

Urruntchago, beren erkatzak eskuan, athe-aintzinean kalakan ari, baziren bi emazteki. Zapartakan heldu, kabaleria hura guzia ikusi duteneko, hirri eta hirri hasten dire bi atsoak. Gelariak oihu egiten diote:

—¡En vez de acogernos riendo así, haríais mejor que vinierais a separarnos!.

—¿A separaros? ¡Mira, mira!

Y en ese momento con sus escobas empiezan a pegar y pegar a la larga cuerda (hilera) de gentes y animales... ¡Ah! ¡Bueno! Las escobas se unen allí mismo, en el mismo primer golpe, y sus dueñas luego a las escobas.

En una curva, tras un perro y unido a aquél, iba un ciego. Al pasar nuestra enfurecida sokadantza[1] a su lado, el perro se pone a ladrar y ladrar, mordiendo a las viejas. Aquél también se une inmediatamente, y el ciego luego con él.

Y, zumbando, ahí van todos, mientras se acercaban al Palacio del Rey.

* * *

Sin poder dormir levantada ya, tan decaída como siempre, la pobre Hija del Rey estaba medio tumbada junto a una gran ventana...

Cuando los vio llegar unidos entre sí, y en una sokadantza tremenda... el joven muchacho, el cordero, el cura, la criada, la hoja de berza, las cabras, el panadero, el herrero, las dos mujeres, el perro, el ciego, la pobre Reina joven empezó a reír y reír. Y no podía parar más de reír, siempre riendo a carcajadas como una chiflada...

El Rey vino atropelladamente, pues se alegró primero de ver a su hija riendo así por primera vez en mucho tiempo. Pero luego, en cambio, se asustó, con temor de que no pararía de reír más. Y pronto se puso en gran enfado, piafando contra aquellas gentes que siempre estaban frente al Palacio, (diciendo) que hacían enloquecer a su hija. Dio el mandato de hacer a matar a todos, y los soldados ya iban corriendo, los cuchillos en la mano...

De repente, el joven muchacho se paró bruscamente, y todos los que venían corriendo tras él fueron de bruces unos encima de otros, pero desde entonces también separados entre sí. Y luego, con un gran grito le mandó a la hija del Rey:

—¡Ya basta así!...

El cordero también empezó a balar, y a la joven Reina se le paró la risa tonta inmediatamente. Estaba curada de una vez y para siempre, y (convertida en) encantadora-encantadora...

* * *

Sin pasar un mes, como prometido por el Rey, la Reina se casó con el joven muchacho, y tuvieron muchos niños.

Nota:

(1) Sokadantza: Nombre genérico de varios bailes vascos en que los danzantes forman una hilera cogidos de la mano o de un pañuelo (N. del T.)

- Jean Barbier

Nuestra fuente: Légendes Basques. Edit. Elkar, pág. 136.

Trad. J.A.

—Hirriz hola artzeko orde, hobeki egin ziniote, gure berechtera heldu bazinezte!

— Berechtera?... Huna, huna!

Eta beren erkatzekin, jo eta jo hasten zaizko jende eta alimalezko soka luzeari... Ah! baia! Erkatzak lotzen dira hantchet, lehen ukaldian berean, eta heien jabeak gero erkatzeri.

Bihurgune batean, chakur baten ondotik eta hari estekatua, bazoan itsu bat. Gure dantza-korda errabiatua aldean iragaitearekin, chakurra sainga eta sainga emaiten da, asikika atsoeri. Lotzen da berehala hura ere, eta itsua gero harekin.

Eta, firrindilaka, badoazi oro, Erregeren Jauregirat ari zirela hurbiltzen.

* * *

Lorik ezin-eginez jadanik jeikia, bethi bezen ilhun, Jauregiko leiho handi baten ondoan erdi-etzana zagon Erregeren Alaba gaichoa...

Elgarri lothuak, eta soka-dantza lehergarri batean heldu, ikusi zituelarik... muthil gaztea, bildotcha, apheza, gelaria, aza-hostoa, ahuntzak, okina, harotza, bi emaztekiak, chakurra, itsua, hirri eta hirri hasi zen Erregina gazte gaichoa. Eta hirri egitetik ez ziteken geldi gehiago, choro bat bezala karkaraka ari bethi...

Zalapartaka ethorri zen Errege, loriatu baitzen lehenik, bere alaba hirriz hola lehen aldikotz ikusirik aspaldiko orde. Bainan gero berriz, izitu zen, beldurrez eta hirri egitetik ez zitzakion geldi gehiago. Eta hasarre gorrian eman ere zen laster, putinka Jauregi aintzinean bethi ari ziren jende heien kontra, bere alaba erhoarazten ziotela. Guzien hilarazteko manua eman zuen, eta soldadoak jada lasterka bazoazin, kanitak eskuan...

Betbetan, muthil gaztea tankez gelditu zen, eta haren ondotik lasterka heldu ziren guziak muthurka joan ziren elgarren gainerat, bainan elgarren ganik berechiak ere zirela ordutik. Eta gero, oihu handi batean manatu zion Erregeren alabari:

—Aski hola!...

Bildotcha marrakaz hasi zen hura ere, eta Erregina gazteari bere hirri choroa baratu zitzaion berehala. Sendatua zen behin bethikotz eta maite maitea egina...

* * *

Hilabethea gabe, Erregek hitzeman bezala, muthil gaztearekin ezkondu zen Erregina, eta haur hainitz izan zuten.

- Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 136. or.

592. THE DANCE AMONG THORNS

•

592. LA DANZA ENTRE ESPINAS

Kukubel

(R.M.A.)

592. La danza entre espinas

Kukubel era huérfana y, además, pastora y buena muchacha, muy aficionada a la música.

Tenía mucha maña para hacer instrumentos de junco, encina y boj. ¡A cuántos pájaros les hizo cantar alegremente con silbos, silbatos y flautas hechos por ella!

Mientras pastoreaba en los prados con las ovejas, no dejaría de rezar un Ave María, cada vez que oyera la campana de alguna iglesia.

Una vez, a continuación de su rezo, se le apareció la Virgen. en persona y, amorosamente, le dirigió estas palabras:

—Muchacha, ¿qué deseas como premio?

—Yo quisiera un silbato que hiciera bailar al que lo oiga.

Al momento surgió en su mano ese instrumento. Llena de alegría, comenzó Kukubel a tocarlo, y al oírlo, tanto las ovejas como los corderos se pusieron a bailar.

En aquel mismo día, como en muchísimos otros, llegó a aquellas inmediaciones el sacerdote, cazador, y estaba oculto entre matorrales, acechando la llegada de la liebre. Kukubel, sin darse cuenta de lo que iba a suceder, empezó a tocar su nuevo silbato, y el clérigo estuvo bailando hasta que rasgaron su carne y vestidos las agudas espinas del matorral. ¡Cómo se enfureció al cesar de tocar el silbato! Antes de anochecer, la delató a Kukubel, diciendo:

—Que era bruja y que tenían que llevarla a la horca.

Y los del pueblo la apresaron y la tuvieron atada.

Al día siguiente, cuando la llevaban a la horca, le seguía todo el pueblo. En esto, Kukubel les pidió un favor: que, aunque tuvieran que matarla, le soltaran las manos, pues las tenía sin fuerza. Cuando el sacerdote vio libres las manos de aquélla, dijo:

—Señores, por si acaso, atadme al eje de un martinete

En cuanto le ataron, sacó Kukubel de la faltriquera aquel silbato y estuvo sin cesar, silba que silba.

Al oír su dulce sonido, todo el pueblo empezó a bailar. El mismo sacerdote, aun estando atado, no cesó de moverse y de reír a carcajadas.

A Kukubel, en cuanto dio fin a aquella música tan sonora y agradable, la dejaron suelta y libre.

María Martina Maruri, de Murelaga.

• Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 205.

592. ARANTZA ARTEKO DANTZA

Kukubel

(R.M.A.)

592. Arantza arteko dantza

Umezurtza zan Kukubel, artzaina ta neskato ona gainera; musikazale utsa.

¡Zii ta arte ta ezpelezko istrumentuak (yoareak) egiten mutila zan gero bera! Ak egindako zinburrun, txistu, txilibitu ta txirulak ¡amaika txori pozez kantaritu ta zoratu eroezan!

Ardiakaz larra ta bedartzetan ebilenartean, elizaren bateko txilinak ots egiten eben bakotxean ezeban itxiko Agur Maria bat esan bagarik.

Bein bere errezu-ostean, Andra Maria andi-andirik agertu dakon eta maiterik itz onek zuzendu eutsazan:

—Neskato, ¿zer nai don saritzat?

—Nik txilibitu bat nai neuke, entzun dagianari dantzan eragiteko txilibitua.

Berealaxe eskuan istrumentutxu (joaretxu) ori sortu dakan. Pozarren asi zan Kukubel bera joten eta ardi ta bildots, txistuak entzunda, triska ta triska dantzan ebiltzan.

Egun atantxe, beste asko ta askotan lez, abade eizaria inguru aretaraxe eldu zan ta sasi-artean egoan ostenduta, erbia noiz etorriko. Kukubel, zer yazo bear eban burutan artu bagarik, bere txilibitu barria yoten asi zan; ta elizgizona triska ta triska sasitzako lar zorrotzak soineko ta aragiak urratu-arte dantzan ibili zan. ¡Aren asarrea, txilibitua isildu zanean! Gaua ganera etorri baino lenago Kukubel

—Sorgina zala ta urkamendira eroan bear ebela —esanda, errikoak baitu ta loturik euki eben.

Biaramonean urkamendira eroela, erri guztia bere inguruan yoian. Onetan Kukubeltxuk mesede bat eskatu eutsen: il bear baeben bére, eskuak askatu egioezala, indarga eukazala-ta. Abadeak aren eskuak jara (libre) ikusi ebazanean,

—Gizonak, bada ezpada lotu nagiozue ni gabi-ardatz batí -esan eban.

Lotu ebeneko, Kukubeltxuk, arako txilibitua zarpatik atarata, txiruliruli jo ta jo ziarduan.

Bere ots gozoa entzunda erri guztia irradan (dantzan) asi zan. Abadea bera, lotuta egonarren, tauntaunka ebilen eta barrên barrez ito-bearrik.

Kukubel, soiñu luze zoli eztia amaitu ebaneko, lokabe ta deslai itxi eben.

María Martina Maruri, Murelaga.

• Resurreccion Maria Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 205. or.

612. THE THREE SNAKE-LEAVES

612. LAS TRES HOJAS DE LA SERPIENTE

Ezkabi el leproso

(W.W.)

612. Las tres hojas de la serpiente

Éranse una vez, como otros tantos en el mundo, una madre y un hijo. Nació con lepra y por eso siempre le llamaban Ezkabi. Todo su recurso eran un huerto y un trozo de tierra. Vendían lo que sacaban del huerto y así vivían justo, justo.

Cuando aquel chico llegó a los veinticuatro años, le dijo a su madre que quería marchar a recorrer mundo para ver si podía hacer algo más. La madre no quería, pero al final le tuvo que dejar ir. Le entrega todos los dineros que pudo recoger y parte.

Después de mucho andar llega hasta a una ciudad y al pasar por delante de la iglesia, ve que unos hombres estaban golpeando algo. Pregunta qué era lo que hacían. Le responden que pegaban a un muerto, puesto que había dejado deudas. Y seguirían así hasta que alguien los pagara. Da todo el dinero que llevaba para que no le pegaran más.

Va más adelante y va ir, ir,ir. Llega a un gran desierto oscuro. Tan triste estaba que no sabía si avanzar o retroceder.

Estando así rezando se le aparece una vieja mujer que le pregunta qué hacía allí. Nuestro Ezkabi le contesta que busca un puesto de jardinero, pero aunque había salido de casa con esa intención, ahora no sabía por dónde seguir. La vieja le dice que le cogerían como jardinero en casa del rey de la próxima ciudad; también le dijo que su dolor de cabeza se curaría si limpiaba la cabeza con la orina del primer burro que encontrara, pero debía de mantener la cabeza siempre bien arrimada. Y cuando fuese el jardinero del rey, arrancara la primera noche todos los árboles y ornamentos que allí se encontraban.

En esto, salió pues Ezkabi y anduvo ir, ir, ir. Se encuentra con un burro, se limpia con su orina y se cura.

Llega más tarde a una gran ciudad. Se queda en una pequeña posada y pregunta allí si necesitaban algún jardinero en casa del rey. Sale el amo enseguida a preguntar a casa del rey. Allí le responden que sí que lo necesitan. Y va Ezkabi. Como era tarde, se va a la cama.

Al día siguiente, empieza a sacar todo de raíz. El rey y su hija después de comer le miraban desde la ventana. Cuando ve el rey que estaba haciendo Ezkabi, grita a su guardia que atrapen a aquel hombre y lo maten.

612. SUGEAREN HIRU ORRIAK

Ezkabi

(W.W.)

612. Sugearen hiru orriak

Baziren, asko munduan bezala, ama bat eta seme bat. Sortu zen ezkabiarekin[1] eta beti Ezkabi erraten zioten. Baratze eta lur puska bat zuten beren erresurtsa[2] guzia. Saltzen zituzten baratzekariak[3] eta hala bizi ziren doi doia.

Ogoi eta lau urtetarat arribatu zenian mutil hura, erran ziguen bere amari gan nahi zubela munduz mundu zerbeit gehiago egiteko. Amak ez zuben nahi, bainan azkenian utzi behar izan zuen. Ematen diozka bildu ahal zituen sos guziak eta partitzen da.

Gan, gan, gan, arribatzen da hiri baterat eta elizako aintzinian pasatzian ikhusten ditu gizon batzuek zinpi eta zanpa hari zirela. Galdetzen du zer egiten duten. Erraten diote hil bat jotzen dutela zeren zorrak uzten dituen. Eta norbeitek pagatu arte hola joko dutela. Ematen ditu zituen diru guziak ez dezaten gehiago jo.

Piska bat gan eta badoha gan, gan, gan. Arribatzen da desertu[4] handi beltz baterat. Arras tristatua ez zakien heian aintzinerat ala gibelerat ganen zen.

Hala zagoelarik othoitzian, agertzen zaio atxo xahar bat, erraten dio zertan den han. Gure Ezkabik erraten dio baratzezain plazatu nahi lukela, hala ilki dela etxetik bañian ez dakiela norat gan. Erraten dio atxoak lehenbiziko irian, erregeren etxean hartuko zutela baratzezain eta bere buruko miña sendatua izanen dubela lehenbiziko atzematen duen asto pizarekin buruba garbitu eta, bañian beti buruba igual arrimatuba atxikitzeko. Eta erregeren baratzezain izanen denian, lehenbiziko arratsean atera detzala han diren arbola eta edergalu[5] guziak.

Badoha gure Ezkabi, gan, gan, gan. Eta atzematen du asto bat; garbitzen da haren pizaz eta sendatua da.

Arribatzen da iri handi batean. Arrastatzen da ostatu ttiki batean eta galdetzen du iyan erregeen etxean baratzezainik behar duten. Eta badoha berehala nagusia jakiterat erregeren etxerat. Erraten diote behar dutela, baietz. Badoha Ezkabi. Berandu baitzen badoha ogerat.

Biharamunian abiatzen da denen atheratzen errotikan. Errege eta bere alaba bazkal onduan leihotik zagozin. Ikhusten duenean erregek zer obra iten duen Ezkabik iten diote oihu bere gardiari[6] har dezatela gizon hura eta hil.

La hija le dice:

—Padre, no mandes que lo maten, por favor. Ya pensaremos algo después.

Y le dejaron vivo.

Al día siguiente, se sorprendieron de ver un jardín maravilloso. Si antes era hermoso, ahora lo era más. Estaban contentos de verlo así. Ezkabi tenía una hermosa cara. Y ésta gustaba mucho a la hija del rey. Ezkabi después de comer, solía salir siempre a descansar debajo de un mismo árbol. La hija del rey solía verlo desde la ventana de su habitación. Lo veía allí todos los días y le parecía que allí había un resplandor. Ésta tenía que ver de qué se trataba, va entonces y ve debajo del pañuelo algo que resplandecía como el oro.

Al cabo de unos días dice a su padre que tenía que casarse con Ezkabi. El padre le responde que no. La hija que sí, aunque tuviera que comer hierba, que lo haría con él. Se casa pues. El padre no le da más que una parte muy pequeña de sus bienes en el desierto, muy lejos y allí vivieron vendiendo verduras y cuando a Ezkabi le crecía el pelo, vendiendo aquello.

Cierto día oyen que el rey había declarado la guerra. Ezkabi al oír la noticia, le dice a su mujer que debía de ir a donde su padre y le propusiera que él también iría a la guerra. Va ella pues a donde su padre y le hace saber que su marido quería ir a la guerra. El padre le responde:

—¿Para qué le queremos? No sabe más que matar lombrices. No lo necesitamos.

Había allí un viejo general, y le dice:

—Si él quiere venir, no lo rechaces, será uno más.

Y así llega nuestro Ezkabi. Le dan un viejo y manco caballo que apenas se tenía de pie. También le dieron una espada totalmente enroñada y unas horribles ropas y parte de este modo. No anduvieron más que un pequeño trecho cuando el caballo se cae y no quiso levantarse más. Allí se encontraba triste y sin saber qué hacer.

De nuevo se le aparece aquella vieja mujer y le cuenta sus desdichas.

—Si no es más que eso, eso no es nada.

Y le da un hermoso caballo, hermosas ropas, una hermosa espada y una ampolla que podía resucitar a los muertos. Además le dice que aquella guerra estaría pronto ganada. Así como antes marchaba el último, ahora Ezkabi marchaba en primera línea después de adelantar a todos. Tal como le dijo la vieja, después de hacer algunos disparos, el enemigo escapa atemorizado y como Ezkabi estaba bien vestido y llevaba consigo un buen caballo, después de hacer los arreglos, Ezkabi coge los papeles y se dirige a su casa.

Al cabo de cierto tiempo, oyen que el rey ofrecía un banquete y que habría festejos en la corte. Manda a su mujer a decirle al padre si quería que fuesen aquellos días a transportar leña o para ayudar en cualquier trabajo. El padre le responde que no, que ya tenían suficiente gente, que no necesitaban de nadie más.

Alabak erraten dio:

—Ez hil araz othoi, aita. Ikhusiko dugu gero zerbeit naski.

Eta uzten diote bizia.

Biharamunian espantituak dire ikhusteaz baratze bat xoragarria. Lehen ederra zen, bañian orai hala ere ederrago. Kontent ziren hala ikhusteaz. Ezkabik arras bisaia ederra zuen. Erregen alabari arras gustatzen zitzaioen. Bazkal ondo guziez Ezkabi gaten zen pausatzerat[7] bethi arbola beraren azpirat. Erregeen alabak ikhusten ahal zuen bere gelako leihotik. Ikhusten zuen egun guziez han eta iduritzen zitzaioen bazela argitasun bat han. Ikusi behar duela zer den, badoha eta ikhusten du mokanesaren azpian zerbeit urria[8] bezala distiratzen.

Zenbeit egunen buruan erraten du bere aitari Ezkabiekin behar duela ezkondu. Aitak erraten dio ezetz. Alabak baietz, belarra janen badu ere, harekin iñen dela. Ezkontzen da beraz. Aitak ez dio ematen ontasun ttiki ttiki bat bertzerik, desertuan, urrun eta han bizi dire baratzekariak salduz eta Ezkabiri ilia handitzen zaioenian, hura salduz.

Aditzen dute egun batez erregek gerla bat egin behar duela. Ezkabik erraten dio bere emaztiari gan behar duela bere aitarenganat eta erran behar digoela gan nahi lukela Ezkabik ere gerlarat. Badoha bere aitarenganat eta erraten dio nola haren senharrak gan nahi duen gerlarat. Aitak erraten dio:

—Zertako dugu hura? Ez daki zizari hiltzen bertzerik. Ez dugu haren beharrik.

Bazen han jeneral xahar bat. Erraten dio:

—Nahi badu ethorri, ez zazula gibela. Bat gehiago.

Eta gure Ezkabi arribatzen da. Ematen diote zamari xahar bat maingua, doi doia zagoen xutikan. Ezpata bat dena erdoilduba, arropa itsusi batzuek eta hala partitzen da. Bide piska bat in orduko erortzen da zaldi hura eta ez du nahi gehiago zutitu. Han zagoen beraz tristeki ez jakinez zer in.

Agertzen zaio berritz atxo hura eta erraten diozka bere malhurrak.

—Hori bertzerik ez bada, ez da deusik.

Eta ematen dio zamari eder bat, arropa eder batzuek, ezpata eder bat eta anpolla[9] bat hillak piztuko duena. Eta erraten dio irabaziko dutela gerla hura laster.

Lehen, azken beitzen gure Ezkabi, orai, denak pasaturikan badoha lehenbizi. Atxoak erran bezala zenbeit tiro tiratu onduan etsaiak izitu eta badohaz iyesi eta Ezkabi ederki beztitua beitzen eta zamari eder bat beitzuen ere harekin, iten dituzte antolamenduak eta Ezkabik berekin hartzen ditu paperak eta badoha bere etxerat.

Handik zenbeit denboraren buruban aditzen dute erregek ematen duela bazkari handi bat eta izanen direla bestak kortean. Egortzen du bere emaztea erraterat bere aitari iyan nahi lukeen egur garraioko eta bertze zerbeit lanetako zuazin lagun, egun hartako. Aitak erraten dio ezetz, badirela aski jende. Ez dutela nihoren beharrik.

Esta vez, como la vez anterior el viejo general le dice que les dejara venir, que ellos también ayudarían, y así llegaron. Nada más llegar, empiezan los dos a trabajar.

Lehen bezela, jeneral xahar harek erran zuen uzteko bada ethortzerat, laguntza iñen dutela heiek ere eta heldu dire. Arribatu eta ematen dire biak lañian.

Después de haber comido bien, todos los nobles empiezan a contar sus historias y sus hazañas. Ezkabi que andaba alrededor de éstos por allí, cuando oye lo que éstos contaban, les dice que también él tenía historias que contar.

—Sí, tú dirás cuantos lombrices has matado. ¡No!, ¡no! No vale.

Aquél viejo general volvió a hablar:

—¿Quién sabe lo que contará? Tenemos que oírle.

Entonces el rey le permite hablar. Ezkabi le dice:

—Cuando yo empiece a hablar, nadie deberá decir nada y aquél que hable será muerto con mi espada.

Ungi bazkaldu direnean hasten dire jaun guziak beren historiguaren kondatzen, edo beren balentriak. Ezkabi han zabillan heien ingurutan. Hori aditzen duenian erraten diote harek ere balukeela historigua kondatzeko.

—Bai, hik erranen duk zenbat xixari hil dukan. Ez! Ez! Ez dik balio!

Jeneral zahar harek erraten dio:

—Nork daki zer erranen duen. Aditu behar dugu.

Eta erregek uzten du orduan. Erraten dio Ezkabik:

—Ni hasten naizenian mintzatzen nehork ez du deusik erran behar, eta erraten duena, hilla izanen da nere ezpatarekin.

Cuando empezó a hablar su mujer le dijo:

Dando un golpe sobre la cabeza, con lo cual le quitó y le echó el pañuelo a Ezkabi.

Entonces todos ven su valiosa cabeza, lo cual embellecía todavía más su cara.

—¿Qué sabrás tú?

Nada más decir esto, Ezkabi mata a su mujer.

Hasten denian bere emazteak erraten dio[9b], ematean buru gañean kolpe bat zeñek kentzen eta etxatzen[10] beitu Ezkabiren mokanesa.

Denek ikusten dute orduan haren buru baliosa eta oraino haren bisaia ederrago egiten zen.

—Hik zer dakik?

Hori erran orduko hiltzen du bere emaztea.

Entonces empieza a contar las cosas que habían pasado durante la última guerra. Nadie sabía mejor que él, pues él era el primero en la línea y era él quien tenía todos los papeles, que enseñó a todos. Estos nobles están extrañados de todo lo que había hecho en la guerra y ven que eran ciertas todas las cosas que decía, pues tenía con él todos los papeles.

Cuando acabó, tomó su ampolla y le devuelve la vida a su mujer. Están todos sorprendidos de las buenas obras que ha realizado y ven que se trataba de un hombre maravilloso con su pelo dorado y hermoso rostro. El mismo rey esta afectado y quitando su corona, le dice a Ezkabi:

—Lo has ganado mejor que yo.

Y se lo coloca sobre su cabeza. Estaba sumamente elegante con aquella corona.

Y no volvieron más a su pequeña casa del desierto. Vivieron bien en la corte. También mandaron llamar a su madre.

Y si bien vivieron, bien murieron.

Hasten da kondatzen azkeneko gerlan zer pasatu zen. Nehork ez zakien harek bezen ungi, zeren Ezkabi beitzen lehenbizi eta harek beitzituen paper guziak. Irakusten ditu jaun hek guzieri. Arrituak dire harek zenbat gauza in duen gerla hartan eta ikhusten dute erraten dituenak egiak direla zeren paperak han dituen.

Finitu duenean hartzen du bere anpolla eta ematen dio bizia bere emazteari. Denak arritubak dire harek egin duen obra ederraz eta ikhusten dute gizon miragarria dela hura bere hille urrearekin eta bisaiya ederrarekin. Errege bera ukitua da eta erraten dio Ezkabiri erregek, bere buru gañetik kendu ta bere korua:

—Nik bañion obekiago irabazia duzu.

Eta ematen dio buru gañian. Ederra zen gogotik korona harekin.

Ez ziren gan gehiago beren desertuko etxe ttikirat. Kortean bizi izan ziren ederki. Ekhar arazi zuten ere bere ama.

Eta ungi bizi izan baitziren, ungil hil ziren.

Hiztegia:

1 ezkabi: azaleko gaisotasuna; 2 erresurtsa: ondasun, baliabidea; 3 baratzekari: hortuko mozkinak; 4 desertu: basamortu; 5 Honela testuan; 6 gardia: zaintzalea; 7 pausatu: deskantsatu; 8 urria: urrea; 9 anpolla: bonbila; 9b Beheragoko «Hik zer dakik?» da erraten diona, buruan kolpea emanaz; 10 etxatu: bota.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide edizioa. Edit. Kriselu, pág. 129.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: Agertzekoa «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 120.

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 129. or.

Jatorrizko iturria: Agertzekoa. Beha ere «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 120. or.

Oficios en los cuentos

Campesinos, herreros, sastres



En busca de una oveja perdida.
El eco de una parábola

Advierte Ellande que le falta una oveja del rebaño. ¿Qué hace? Mete todas sus ovejas en la chabola, y parte, justo a medianoche, tras su oveja extraviada.

Ardi galdu baten bila. Parabola baten oiartzuna

Ohartzen da Ellande, ardi bat eskas duela arthaldetik. Zer egiten du? Bere ardi guziak sartzen ditu etcholan, eta abiatzen da, gauaren-gauerdi, bere ardi errebelatuaren ondotik.

Baserritarrak, herrementariak eta jostunak

El bastón de Hamalau

Le dice el padrino:

—Te tengo que hacer pues un regalo; ¡a ver, qué deseo tienes, dime!

—Quiero una vara de hierro.

Hamalauren makila

Erraten dio aitautxik:

—Egin behar haut bada present bat; eian zeren gutizia dukan, errak!

—Makil bat nahi dut, burdinezkoa.



La herrería de Patxi

Una mañana, ese diablo se presentó en la herrería de Patxi.

Allí estaba Patxi trabajando: de vez en cuando martillando sobre el yunque y, otras veces, tirando del fuelle, sacudiendo las ascuas, introduciendo en la fragua hachas, rejas de arado y otras herramientas de hierro.

Patxin sutegia

Deabru oi goiz batên Patxin sutegiñ agertu ementzan.

Patxi an ai ementzan lanên: aldin bein txingura gañen malluka ta besta aldiñ beiz aspôri eraiñ, txingarrak astindu, aizkora, besâraortz ta ôlako burnî tresna ʻatzûk sutan sartu, ta ôla ai ementzan.

Los carboneros en Palacio.

Ikazkinak yauregian.



Ezkabi-Fidel

(W.W.)

612. Las tres hojas de la serpiente

(Este cuento también pertenece al tipo
314. El joven transformado en caballo)

→ Ver el texto en la pág. 114.

Ezkabi fidela

(W.W.)

612. Sugearen hiru orriak

(Ipuin hau,
314. Zaldi bihurtutako gaztea motan ere sailkatzen da)

→ Ikus testua 114. or.

El pastor rey

Le berger fait roi
(J.B.)

612. Las tres hojas de la serpiente

Hace mucho-mucho, la hija de un Rey estaba muy enferma.

Parece que le habían estado (ido) médicos de todos lados, bien Español, bien Inglés, bien Francés, ¡y ni unos y otros la podían curar! La hija del Rey iba siempre cada vez peor, y los alrededores estaban tristes en todo el pueblo.

En todos (los lados) se extendió la fama, en todos los montes, campos y recovecos, y el Pastor Ellande mismo lo sabía en lo alto de su montaña. Y, aquél también, como todos los demás, tenía mucho dolor de corazón (estaba muy afectado). ¡Y diablos, no poder hacer nada!...

* * *

Un día, la hija del Rey siempre en mente, mientras andaba de aquí allá en el monte, advierte Ellande que le falta una oveja del rebaño. ¿Qué hace? Mete todas sus ovejas en la chabola, y parte, justo a medianoche, tras su oveja extraviada.

A una hora desde la medianoche (a la una), mientras iba por un cerro, de repente, ahí, oye un estruendo tremendo... Se pone a mirar y mirar; pero, como estaba muy oscuro, no ve nada. Va más lejos; el estruendo todavía más grande. Se asusta, y sube encima de un árbol que tenía al lado...

En cuanto Ellande (sube) arriba, en un viento terrible, ahí llegan las brujas encima de las brujas (muchas). En mitad de ellas, Sorgin-Nausia o la Bruja Mayor, (con) un gran libro en el regazo. ¡Se paran justamente debajo del árbol donde estaba el Pastor Ellande! Su sorpresa (qué sorpresa la suya).

Todas las brujas veneran inmediatamente a su ama. Le traen un sillón rojo-rojo, y se sienta el Ama. Todas besan el libro, y enseguida empezó el Akelarre o Noche de las brujas.

Dando sus órdenes, empieza pues la Bruja Mayor:

—¡Vosotras, Katero y Hamala, a tal y tal, tal y tal mal!

—¡Vosotras, Niñika y Katalin, en tal y tal casa, destruid a tal y tal gente!

Y Katero, Hamala, Niñika y Katalin fueron enseguida, encima de un mango de escoba, cada una por su lado.

Artzaina errege

Le berger fait roi
(J.B.)

612. Sugearen hiru orriak

Duela aspaldi aspaldi, Errege baten alaba arras eri zen.

Alde guzietako medikuak izanak omen zitzaizkon, zela Español, zela Angles, zela Frantses, eta batzuek ez bertzeek ezin senda! Erregeren alaba bethi geroago eta gaizkiago zoan, eta bazterrak ilhun ziren herri guzian.

Denetan fama barraiatua zen, mendi, zelai eta choko-moko guzietan, eta Ellande Artzainak berak bazakien bere mendi kaskoan. Eta, harek ere, bertze guziek bezala, hainitz bihotz-min bazuen. Eta futcho, deusik ezin egin!...

* * *

Egun batez, Erregeren alaba bethi gogoan, harat hunat bazabilarik mendian, ohartzen da Ellande, ardi bat eskas duela arthaldetik. Zer egiten du? Bere ardi guziak sartzen ditu etcholan, eta abiatzen da, gauaren-gauerdi, bere ardi errebelatuaren ondotik.

Gau-erditik oren bateko heinean, mendichka batean zoalarik, bet-betan, hor, sekulako burrumba aditzen du... Beha eta beha emaiten da; bainan, nola arras ilhun baitzen, ez du deusik ikusten. Urrunago badoa; burrunba are handiago. Izitzen da, eta ondoan zuen arbola handi baten gainerat igaiten...

Ellande sekulan gainerat orduko, izigarrizko haize batean, hor heldu dira sorginak sorginen gainean. Heien erdian, Sorgin-Nausia, liburu handi bat galtzarpean. Ellande-Artzaina zagon arbolaren azpian gelditzen dire hain chuchen! Haren harritzea!

Sorgin guziek agur egiten diote berehala beren Nausiari. Jar-alki gorri gorri bat ekartzen diote, eta jartzen da Nausia. Denek musu emaiten diote liburuari, eta berehala hasi zen Akhelarre edo sorginen Zaba.

Bere manuen emaiten ari, hasten da beraz Sorgin-Nausia:

—Zuek, Katero eta Hamala, holako eta halakoari, holako eta halako gaitza!

—Zuek, Niñika eta Katalin, holako eta halako etchean holako eta halako jendea suntsi!».

Eta Katero, Hamala, Niñika eta Katalin joan ziren berehala, erkatz-gider batzuen gainean, zoin bere alde.

Y luego, a las otras brujas les pregunta la Bruja Mayor, en un áspero grito:

—¿Y vosotras, habéis hecho las cosas dichas por mí?

Y todas, haciendo un saludo (reverencia) hasta el suelo, le responden:

—Sí, Ama, las hemos hecho todas.

—Bien así. Iros pues ahora, y descansad por unos días.

Y en ese mismo momento se dispersó el Akelarre de aquella noche. Todas las brujas, inclinándose nuevamente hasta el suelo, adoraron a su Ama, y besaron el libro. Luego, frun, frun, frun, la Bruja Mayor pasó a través de las nubes, y allí mismo desapareció inmediatamente...

En todo aquel tiempo, Ellande estuvo totalmente asustado encima de su árbol, puies y puies[1] a todos lados. Habiendo visto ir mientras tanto a la Bruja Mayor con su gran libro, se repuso siquiera un poco. Pues hasta entonces las brujas no le advirtieron, ¿acaso no podía ir (estar) con un poco menos de miedo?

Una por una ya se iban por otra parte las brujas demonios, y habían quedado dos ahora, allí, debajo del árbol. Y he aquí cómo las dos empiezan a charlar:

—¡Di! ¿Sabes, sin duda, cómo la hija del Rey está muy enferma?

—¿De dónde no (por supuesto)?... ¿Es que le has dado tú el mal?

—Yo se lo he dado, ciertamente. ¿No está todavía curada, no?... Y sin embargo, en la casa misma tendría el remedio.

—¿Qué tendría pues que hacer?

—Mira, enfrente de su casa el Rey tiene un arroyo escondido. En aquel arroyo escondido hay una tortuga; le bastaría a la enferma beber tres veces del caldo hecho con aquélla para curarse.

—¡Nada más que eso! Pues entonces tiene mal hasta morir....

El amanecer se estaba acercando. Un gallo, allí, lejos, hizo: Kukuruku! Y sin que Ellande se diera cuenta en absoluto, desaparecieron las dos últimas brujas...

* * *

Después de que hubiera aclarado bien, nuestro Ellande bajó de encima del árbol, y mientras miraba frecuentemente atrás, se alejó deprisa. Con la misma ligereza iba a casa del Rey.

Ir, ir, siempre ir, llegó al fin. En cuanto entra en la calle, alto-alto oye decir: que la hija del rey está en los últimos alientos. Pero, sin mirar a nadie, deprisa-deprisa va al Palacio. Allí había enormes soldados, y a uno le dice Ellande:

—¿Se puede ver al Rey?

—¿Ver al Rey? ¡Anda ya! ¡Ya tiene otros quehaceres esta mañana! Pues se le está muriendo la hija.

—¡Para eso mismo debo ver al Rey! La hija de aquél que tiene el aliento justo-justo, yo curaré a la enferma...

—Hombre, ¿tienes cabeza? ¡Si los médicos de estos tres reinos no pueden hacer nada!...

—¿Qué importa eso, si yo puedo lo que aquéllos no pueden?

Eta gero, bertze sorgineri galdegiten diote Nausiak, oihu latz batean:

—Eta zuek, egin ditutzea nik erranak?.

Eta guziek lurreraino agur eginez, ihardesten diote:

—Bai Nausia, egin ditugu denak.

—Ongi hola. Zoazte beraz orai, eta deskantsa zaizte zombeit egunez.

Eta ordu berean barraiatu zen gau hartako Akhelarre. Sorgin guziek, berriz, lurreraino kurturik, adoratu zuten beren Nausia, eta musu eman liburuari. Eta gero, frun, frun, frun, hedoietan barna igan zen Sorgin-Nausia, eta hantchet suntsitu berehala...

Arte hartan guzian, ikhara gorrian zagon Ellande bere arbolaren gainean, puies eta puies alderdi guzietara. Sorgin-Nausia bere liburu handiarekin gaki ikustearekin bizkitartean, pizkortu zen denik ere pichka bat. Ordu arte ez zitzaizkonaz geroz sorginak ohartu, batetarat ez othe zoan gutichago beldurtiturik ere?

Bederazka bederazka bazoazin bertzalde sorgin debruak, eta biga ziren orai geldituak, han, arbolaren azpian. Eta biak huna non hasten diren solasean:

—Erran! Badakin, dudarik gabe, Erregeren alaba nola arras eri den?

—Nondik ez?... Badere, hik emana dion gaitza?

—Nik emana zioinat, segurki. Ez zagon behin oraino sendaturik, no?... Eta bizkitartean, etchean berean liken sendagailua!

—Zer luke bada egitekorik?

—No, bere etche-aintzinean badin Erregek erreka-estali bat. Erreka-estali hartan badun apho-harmatu bat; harekin eginikako saldatik hiru aldiz edatea aski bailuke eriak, sendatzeko.

—Horitchet baizik ez! No, orduan badiken hilarteraino gaitz!...

Argi-urratzea hurbilduchea bide zen. Oilar batek, han, urrun, egin zuen: Kukuruku! Eta, Ellande batere ohartu ere gabe, suntsitu ziren azken bi sorginak...

* * *

Ongi argitu zuelarik gero, arbola gainetik jautsi zen gure Ellande, eta maiz aski gibelerat behatzen zuela, haia haia urrundu zen. Aire berean bazoan Erregeren etchera.

Gan, gan, bethi gan, heldu zen azkenean. Karrikan sartu deneko, gora gora erraiten aditzen du: azken hatsetan dela Erregeren alaba. Bainan, nehori behatu ere gabe, zalu zalua badoa Jauregira. Sekulako soldadoak baziren han, eta bati erraiten dio Ellandek:

—Errege ikus diteke?

—Errege ikus? Bai, zera! Badu bertze egitekorik goiz huntan! Alaba hiltzen ari zaio eta!

—Hortako bereko dut ikusi behar Errege! Hatsa doi-doia duen ber haren alabak, nik sendaturen dut eria...

—Gizona, baduzu burutik? Hiru erresuma hautako medikuek deus ezin egin dute eta!...

—Zer munta du gero, nik badezaket hek ez dezaketena?

—Zato orduan, eta berehala; banoa Erregeren bilha».

—Ven entonces, y enseguida; voy en busca del Rey.

Va el soldado aprisa y aprisa, e inmediatamente llega el Rey, deshecho en llanto.

—¡Saludos, Señor Rey! ¿Aún vive tu hija?

—¡Vivir sí, pero justo-justo!

—¡No desesperes así, Señor Rey! Tu hija está a salvo, si quieres hacer las cosas dichas por mí, seguro.

—Ya tengo hechas algunas cuantas hasta ahora, y todas siempre en vano... pero, ¿a qué no podría agarrarme aún otra vez? Vamos, dime, ¿qué tengo que hacer?

—Debes abrir enseguida-enseguida el arroyo escondido de enfrente del castillo...

—¿El arroyo escondido de enfrente del castillo?

—¡Sí, Señor Rey, y enseguida-enseguida, por bien de tu pobre hija!

* * *

El rey, el Pastor y los soldados, van todos deprisa.

Ellande abre el arroyo escondido y, allí, encuentran una tortuga enorme.

—He ahí lo que nosotros necesitamos y aquél mismo. Tu hija debe beber del caldo hecho con esta tortuga, tres días seguidos. Al cabo de tres días me veréis venido a saber noticias, y verdad de alma (corazón) que me daréis buenas noticias.

* * *

A la buena ventura, pasara lo que pasara, hicieron pues lo dicho por Ellande por tres días, y ¡¡para el tercer día, la hija del Rey estaba curada, totalmente curada!!...

El tercer día, llegó también Ellande, para conocer las noticias que bien conocía.

Y, he ahí, el Rey le hizo una magnífica bienvenida. Le mandó sus soldados de la corte a mitad del camino. Carrozas encima de carrozas (muchas). En la puerta del Palacio, mirando a Ellande, allí estaban el mismo Señor Rey y su hija. Cogiéndole de la mano, lo llevaron los dos a un gran interior de comer (comedor); y le hicieron (ofrecieron) una magnífica comida allí, pues la comida duró hasta el día siguiente...

Y, al terminar todo, como era adecuado, la hija del Rey se casó con Ellande, y, allí mismo, vivieron en felicidad plena, Dios sabe por cuántos años.

Nota:

(1) Puies: Voz para ahuyentar al demonio, las brujas, etc. (N. del T.)

• Jean Barbier

Nuestra fuente: Légendes Basques. Edit. Elkar, pág. 134.
Trad. J.A.

Laster eta laster badoa soldadoa, eta berehalakoan heldu da Errege, nigarrez urtua.

—Agur, Jaun Erregea! Bizi da oraino zure alaba?

—Bizi ba, bainan doi-doia!

—Ez hola etsi, Jaun Erregea! Salbu da zure alaba, nik erranak egin nahi balimbaditutzu segurik.

—Bakarrak baditut eginik orai arte, eta denak bethi alferretan... Bainan, hala ere, zeri loth ez ninditake berriz oraino? Hots, errazu zer dutan egitekorik?

—Jauregi aintzineko erreka-estalia behar duzu berehal berehala urratu...

—Jauregi aintzineko erreka-estalia?

—Ba, Jaun Erregea, eta berehal berehala, zure alaba gaichoaren onetan!

* * *

Errege, Artzain eta soldado, oro badoazi lasterrez.

Ellandek urratzen du erreka-estalia, eta, han, atchemaiten dute apho-harmatu bat gaitza.

—Huna guk behar duguna eta hura bera. Apho-harmatu hunekin eginikako saldatik edan behar du zure alabak, hiru egunez segidan. Hiru egunen buruan ikusiko nauzue berrien jakiterat ethorria, eta, arimaz egia, berri onak emanen dazkidatazuela.

* * *

Huts edo kausi, zer nahi gertha, Ellandek errana egin zuten beraz hiru egunez, eta hirugarren eguneko, Erregeren alaba sendatua zen, sendatua osoki!!...

Hirugarren egunean, heldu zen ere Ellande, ongi zakizkan berrien jakitera.

Eta, horra nun, Erregek egin zion sekulako ongi-ethorria. Bidez-erdi igorri ziozkan bere gortheko soldadoak. Karrosak karrosaren gainean. Jauregiko athean, Ellanderen beha egoki, hantchet ziren Errege Jauna bera eta haren alaba. Eskutik harturik, ereman zuten biek jateko-barne handi batetara; eta ikaragarriko bazkaria egin zioten hantchet, biharamun arte iraun baitzuen bazkariak...

Eta, ororen buruan, hala ongi ere zen bezala, Erregeren alaba Ellanderekin esposatu zen, eta, hantchet, zorion bethean bizi izan ziren, Jainkoak daki zombat urthez.

• Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 134. or.

613. THE TWO TRAVELERS (TRUTH AND FALSE HOOD)

•

613. LOS DOS VIAJEROS (LA VERDAD Y LA FALSEDAD)

El traidor castigado

La trahison punie

(J.F.C.)

613. Los dos viajeros (La verdad y la falsedad)

Dos muchachos jóvenes caídos en desgracia partieron como soldados juntos y al mismo cuerpo. Pasaron todo el tiempo de servicio juntos y tuvieron a la vez la orden de regresar a casa. Como del jornal de los soldados no engordaron mucho la bolsa, no sabían cómo iban a atravesar el camino sin dinero, y acerca de ello hacían mil pensamientos.

Al final, pues la miseria empuja al hombre a muchas cosas, aquellos dos chicos deciden tirar a suertes, y según qué caía (a quién le tocaba), aquél tendría los ojos cegados, y uno ciego, el otro lazarillo, así vivirían los dos.

Hicieron ese trabajo y pidiendo limosna a la gente iban hacia casa.

Legaron, después de dos días, a una ciudad. Tocaron a la puerta de una buena casa (y) pidieron algún tentempié. Una mujer de buen corazón les dio pan con carne. Pero nuestro lazarillo hizo su parte primero, y comió toda la carne con tanto pan como pudo. Le dio el resto al ciego, quien no quedó contento, porque sintió contento el olor de la carne.

En aquella ciudad aquellos hombres reunieron bastante dinero.

El lazarillo, viendo que tenían una buena bolsa, tuvo la idea de hacer desaparecer a aquel ciego, a fin de que fuera (quedara) libre. Una noche le hace ir a un bosque y allí deja al pobre ciego.

Éste, no sabiendo qué hacer, (pues) por lo menos debía escapar del diente de los animales que pudieran ir a aquel bosque, busca palpando un gran árbol y sube arriba.

Allí estaba triste y desgraciado cuando oye un grito. Aquel grito tuvo respuesta de dos lados y enseguida fueron reunidos debajo de aquel árbol el mono, el oso y el lobo.

—¿Qué sabéis (que sea) nuevo? —se preguntaron aquellos animales entre sí.

El mono habló primero, y dijo:

—Sé un gran secreto, pero aparte de nosotros nadie lo debe saber. La segunda piel de este gran árbol tiene la virtud de conceder la vista al ciego: basta con acariciar los ojos con ella.

El oso dijo luego:

—Pues esta zona se está perdiendo por la sequía, si se talara el castaño que hay en el cementerio del pueblo, podría llover, las tierras se podrían mojar y podría ser un año abundante.

613. BI BIDAIARIAK (EGIA ETA FALTSUKERIA)

Traidore punitua

La trahison punie

(J.F.C.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

Bi muthil gazte xortean eroriak phartitu ziren soldado elgarreki eta gorphutz bererat. Zerbitzuko denbora elgarreki dena pasatu zuten eta etxerat itzultzeko ordrea[1] batean izan zuten. Nola soldadoen jornaleti ez beit zuten moltsa arras loditu, ez zakiten bidea nola behar zuten igaran sosik gabe, eta horren gainetik mila phentsaketa egiten zuten.

Ondarrean, miseriak phusatzen[2] bait du gizona hanitx gauzatara, bi muthil hek[3] dezidatzen dute xortean thiratuko zutela, eta zein ere erortzen bait zen, harek izanen zituela begiak itsu erazirik, eta bata itsu, bestea itsu-gidari, biziko zirela birak.

Egin zuten lan hori eta amoina[4] jenderi galdeginez bazoatzin[5] beren ustez[6] etxerat.

Arribatu ziren bi egunen buruan hiri batera. Etxe on baten bortan[7] jo zuten (eta) eskatu zerbeit bizigarri. Emazte bihotz on batek eman zeeten[8] ogia haragiarekin. Bainan gure itsu-gidariak bere phartea egin zuen lehenik, eta jan haragi guzia ahal zian[9] ogiarekin. Ondarra eman zian itsiari[10], zoin ez bait zen kontent izan, zeren senditu beit zuen kontent haragiaren usaina.

Hiri hartan hanixko sos bildu zuten bi gizon hek[3].

Gidariak ikustareki moltxa on bat bazutela, hartu zuen ideia itsu haren gal eraztekoa, amoreagatik[11] libro izan zadin. Gau batez juan erazten du oihan batera eta han uzten du itsu gaxoa.

Honek ez jakinez zer egin, bederen espakatu behar zuela oihan hartara jiten ahal ziren animaleen hortzari, xerkatzen[12] du hunkituz[13] arbola handi bat eta igaiten da gainera.

Han zagon triste eta malerus[14] noiz eta ere entzuten bait du oihu bat. Oihu harek izan zituen bi aldetarik arrapostu eta hain sarri[15] izan ziren bildiak[10] arbola haren azpira ximinoa, hartza eta otsoa.

—Zer dakizie berri? —galdegin zuten animale hek[3] elgarri.

Ximinoa mintzatu zen lehenbizikorik, erraiten zuelarik:

—Segretu bat handia badakit, bainan gutarik kanpo nihork[16] ez du behar jakin. Arbola handi hunen bigarren axalak badu bertutea itsuari bistaren emaitekoa: aski da hartaz begien pherekatzea[17].

Hartzak erran zian[9] gero:

—Kartier[18] hau idorteak[19] galtzen ari bait du, herriko hilherrian den intxaorrondoa phika[20] baledi, euri egin lezake, bazterrak trenpa[21] leitezke eta urthe abondant bat izan leiteke.

El lobo dijo en su turno:

—La hija del rey de Italia está enferma en cama desde hace mucho tiempo, y no será curada si no sacan un sapo que hay en el colchón de su cama y lo queman vivo.

Tras esas nuevas, aquellos animales se separaron, juraron guardar el secreto y dieron la palabra de que al final del año se reunirían en el mismo lugar.

El pobre ciego rápidamente empezó a sacar la segunda piel del árbol, tocó con ella los ojos y en ese mismo momento vio la luz.

Baja del árbol y corre luego a las autoridades de aquel pueblo; y les dice que tiene el poder de hacer venir a la lluvia, que hará aquel milagro si le quieren dar una carroza con dos hermosos caballos y todo el dinero que pueda llevar.

Aceptaron aquellas condiciones, y por orden del soldado el castaño del cementerio fue talado. Enseguida comenzó a llover y mojó toda la tierra.

Habiendo comprado ropa de médico, sentado en su carroza, partió luego nuestro ex-soldado hacia Italia. Se acercó al palacio del rey, y como iba demasiado adelante, le cogieron preguntándole quién era y qué hacía allí. Les respondió que supo que la hija del rey estaba enferma, que era médico y que había llegado a hacerla curar.

Al oír tal nueva el rey hizo entrar enseguida a aquel nuevo médico y le hizo ir frente a la enferma. Manda enseguida que saquen a aquella enferma de la cama y vacíen el colchón. Tal y como dijo el lobo, había dentro de aquél un sapo. Lo quemaron vivo y en el mismo momento la hija del rey fue curada. El rey le ofreció como premio al médico la riqueza que quisiera y, con ello, la mano de la hija.

La boda fue celebrada grandemente. Luego los recién casados partieron hacia Francia a hacer un viaje.

Cuando arribaron a aquella primera ciudad, allí encontraron a aquel lazarillo leal, (vestido) con ropa vieja.

Se atrevió a preguntar a aquel hermoso príncipe cómo veía así, con la vista, (y era) rico y pujante. El anterior (que fue) ciego le dice qué le ocurrió la noche en que él lo dejó y cómo supo los secretos y después se enriqueció. Le dijo entonces:

—Hoy precisamente se cumple el año. Ve, ponte en la punta de aquel árbol: encontrarás a los anteriores mono, oso y lobo y tú también sabrás algo.

Aquel hombre que andaba golpeado por la miseria va rápidamente a aquel bosque y encima de aquel árbol. Los señores del bosque no faltaron de venir, tal y como habían apalabrado, cuando se cumplió el año. Pero los tres estaban en cólera y se decían mutuamente:

—¿Quién ha sido entre nosotros aquél que ha desvelado el secreto? Pues el pueblo ha sido saciado.

Los tres mantenían firmemente que no habían desvelado el secreto.

—Si eso es así –dice el mono– aquí había alguien que nos estaba mirando.

Otsoak erran zian[9] bere aldian:

—Italiako erregeren alhaba ohean eri[22] da aspaldian, eta ez da izanen sendatia[10] non ez duten atheratzen haren oheko lastuntzian den apho bat, eta hura bizirik erra[23] arazten.

Berri hoietarik landa animale hek[3] elgar kitatu[24] zuten, juratzen zutelarik segretiaren[10] begiratzea, eta hitz emaiten zutelarik urthearen buruan lekhu berera berriz juntatzea.

Itsu gaxoa fite hasi zen arbolaren bigarren axalaren idekiten[25] hunkitu[13] zituen(a) hartaz begiak eta memento berean ikhusi zian[9] argia.

Arbolatik jautsi, eta laster egiten du gero herri hartako gehienetara[26]; eta erraiten deete[27] baduela botherea euriaren jin erazteko, eginen duela mirakulu hura nahi badeete[27] eman karrosa bat, bi zaldi ederreki eta thira[28] ahal diru.

Topatu[29] ziuzten kondizione hek[3], eta soldadoaren ordrez[1] hil herriko intxaorrondoa izan zen phikatia[20-10]. Hain sarri euria hasi zen eta busti zian[9] bazter guzia.

Mediku baten arropak erosirik, bere karrosan jarririk, phartitu zen gero gure soldado-ondoa[30] Italierat. Hurbildu zen erregeren palaziuri, eta nola aitzinaxegi beit zuen[31], hartu zuten(b) galdegiten zeelarik[32] eia nor zen eta han zer ari zen. Eman zeen[33] arrapostia[10] nola jakin zuen erregeren alhaba eri[22] zela, mediku zela eta haren sendo araztera heldu zela.

Berri horren entzuteareki erregek berehala sar erazi zuen mediku berri hura eta juan erazi eriaren aitzinera. Manhatzen du berehala eri[22] haren oheti khentzea eta lastuntziaren hustea. Otsoak erran zuen bezala bazen haren barnean apho bat. Erra[23] zuten bizirik eta memento berean erregeren alhaba izan zen sendatia[10]. Erregek eskentu[34] zakon[35] medikiari[10] saritako nahi zuen aberastarzuna eta, hareki, alhabaren eskuia[10].

Ezkontza izan zen zelebratia[10] ederki. Gero ezkont berriak phartitu ziren Frantziarat itzuli baten egitera.

Arribatu zielarik lehengo hiri hartara, han harrapatu zuten itsu-gidari leial hura, arropa xar batean.

Ausartatu zen galdegitera printze eder hari eia nolaz ikhusten zian[9] hala, bixtareki, aberats eta puxant[36]. Lehengo itsiak[10] erraiten dako[37] harek utzi gauian[10] zer arribatu zakon[35] eta nola segretia(k)[10] jakin zituen eta gero aberastu. Erran zakon[35] oraino:

—Gaur preziski[38] duk urthe burua. Habil, eman hadi arbola haren phuntan: fjnen dituk ohiko ximinoa, hartza eta otsoa eta zerbeit hik ere jakinen duk.

Miseriak joa zabilan gizon harek laster egiten du oihan hartara eta arbola haren gainera. Oihaneko jaunek ez zuten faltatu jitea, hitz hartu zuten bezala zuela urthea. Bainan koleran ziren hirurak eta erraiten zuten elgarri:

—Zoin izan da gutarik segretia[10] barreatu[39] diana?[40] Ezi[45] herria izan da sendatia[10.]

Hirurek atxikiten[41] zuten fermoki ez zutela segretia[10] barreatu[39].

—Hori hala bada –erraiten du ximinoak– heben norbeit bazen gure beha[42] zagona.

Enseguida mira al árbol y allí ve a un hombre.

—¡He ahí! ¡Ahí está quien nos ha traicionado! No nos lo hará otra vez.

En ese momento el mono subió encima del árbol y echó abajo a aquel hombre desgraciado, que fue hecho pedazos por el lobo y el oso.

Transcrito por el señor Constantin.

Espioia - El espía

Enseguida mira al árbol y allí ve a un hombre.

—¡He ahí! ¡Ahí está quien nos ha traicionado! No nos lo hará otra vez.

Hain sarri so egiten du arbolari eta han ikhusten du gizon bat.

—Horra! Horra gu trahiztu gaituena! Ez gaitu berriz eginen.

Ángel Vadillo

Notas:

Véase DASENT, «True and Untrue»; LUZEL, GRIMM, «Le tailleur de bonne humeur»; WEBSTER, «The Witches at the sabbat».

Véase también J.M. Barandiaran «Petralandan» y «Abadelanetan» en op. cit. pág. 90-94.

- Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 99.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 95 (IV, 48-52) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 436.

Hain sarri[15] so egiten[43] du arbolari eta han ikhusten du gizon bat.

—Horra! Horra gu trahiztu gaituena! Ez gaitu berriz eginen.

Ber denboran ximinoa igan zen arbolaren gainera eta botatu zuen beheiti[44] gizon malurus[14] hura, zoin izan bait zen phuskatan emana hartzaz eta otsoaz.

Constantin jaunak transkribaturik.

Hiztegia:

1 ordre: agindu; 2 phusatu: bultzatu; 3 hek: haiek; 4 amoina: limosna; 5 zoatzin: zihoazen; 6 uste: asmo; 7 boita: ate; 8 zeeten: zien; 9 zian: zuen; 10 -(u)ia: -ua; 11 amoreagatik: afin (de) que; 12 xerkatu: bilatu; 13 hunkitu: ikutu; 14 malerus: zori gabe; 15 hain sarri: berehala; 16 nihor: inor; 17 pherekatu: igurtzi; 18 kartier: auzo; 19 idorte: legorte; 20 phikatu: ebaki; 21 trenpa: busti; 22 eri: gaiso; 23 erra: erre; 24 kitatu: utzi; 25 ideki: atera; 26 gehienak: nagusiak; 27 deete: diote; 28 thira: atera; 29 topatu: onhartu; 30 -ondo: -ohi; 31 zuen: zoan, zihoan (?); 32 zeen: zioten; 33 zeen: zien; 34 eskentu: eskaini; 35 zakon: zion; 36 puxant: ahaltsu; 37 dako: dio; 38 preziski: hain zuzen; 39 barreatu: zabaldu, sakabanatu; 40 diana: duena; 41 atxiki: eutsi; 42 beha: adi; 43 so egin: begira; 44 beheiti: behera; 45 ezi: ezen, zeren

Oharrak:

Ikus DASENT, «True and Untrue»; LUZEL, «Trégont à Baris»; GRIMM, «Le tailleur de bonne humeur»; WEBSTER, «The Witches at the sabbat».

lkus ere J.M. Barandiaran «Petralandan» eta «Abadelanetan» in op. cit. orr. 90-94.

Transkirpzioa: (a) zituen: orig. zian (zuen); (b) zuten: orig. zuan (ez da ulertzen).

- Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 99 or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 95 zb. (IV, 48-52) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 436. or.

Akelarre

Por aquellos años les dio por reunirse en Petralanda, los sábados por la noche, a todas las brujas de los alrededores.

Akelarre

Urte aretan Petralandara zapatugabetan inguruetako sorgin guztiak yokeräa artuta euken.

Las brujas en el akelarre

(W.W.)

613. Los dos viajeros (La verdad y la falsedad)

(Este cuento también pertenece al tipo 503. Los regalos de la gente pequeña)

→ Ver el texto en la pág. 247.

Sorginak akelarrian

(W.W.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

(Ipuin hau, 503. Jende txikiaren opariak motan ere sailkatzen da)

→ Ikus testua 247. or.

Historia de un hombre pobre

Histoire d'un homme pauvre
(M.A.)

613. Los dos viajeros (La verdad y la falsedad)

Un hombre pobre-pobre tenía un hermano muy rico, y aquel pobre recogió espigas de maíz, y fue adonde su hermano rico a ver si le prestaba un celemín para medir sus espigas de maíz.

Y el hermano rico se lo negó, (le dijo) que seguro que no se lo daría.

Totalmente desesperado, aquel hombre pobre fue a un gran bosque, corriendo.

Para pasar la noche, fue encima de un gran árbol.

Y ocurrió que vinieron debajo de aquel gran árbol unos hombres, con sus atabales, txirulas y todos los instrumentos; y, debajo de aquel gran árbol, se plantaron debajo de él, se plantaron, ellos también con la intención de pasar la noche allí.

Habiendo empezado a charlar, conversaron (comentaron) que el hijo del Rey estaba muy enfermo, nadie lo podía curar, todos los médicos perdida la esperanza; y que aquellos sabían el remedio para curarlo: que un cura debía dar su primera Misa en su habitación, para curarlo.

El de encima del árbol se quedó totalmente callado.

Cuando clareó, los otros se fueron y aquel hombre miserable bajó del árbol, y fue a casa del Rey.

—Aquí tenéis a alguien enfermo, tenéis al hijo del rey muy enfermo, y yo conozco el remedio para curarlo: un cura debe dar su primera Misa en su habitación, para curarlo.

Nadie le quería creer.

Pero, al final, decidieron que debían hacerlo; y dieron la Misa.

Y, enseguida, el hijo del Rey hizo a mejor, y pronto se curó.

Todos estaban contentos.

No sabiendo qué dar a aquel hombre pobre como premio, le dieron un enorme montón de oro.

El hombre, en la gloria, fue a casa; y fue otra vez adonde su hermano rico, a pedirle el celemín.

—A ver, ¿para que quería el celemín?

—Pues, para medir oro.

—¿Tú, oro, de dónde tienes (has sacado) oro?

—Pues, así y así: ir al monte, entrar a un bosque, y llegar junto a un gran árbol. Subir arriba, para pasar la noche, y venir debajo algunos hombres con toda clase de música. Y aquellos conversar que el hijo del rey estaba enfermo, y qué había que hacer para curarlo.

Yo escuchar, e ir a decírselo a los de la casa del rey. Curarse el hijo del rey y, a mí, el rey darme un montón de dinero.

El hermano rico estaba asegurado; pero aún quería enriquecerse más.

Y le dijo (preguntó) al hermano dónde estaba aquel árbol.

Gizon pobre baten ixtorioa

Histoire d'un homme pauvre
(M.A.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

Gizon pobre-pobre batek bazuen anaia arras aberats bat, eta arto buruxkak bildu zituen pobre harek, eta gan zen bere anaia aberatsaren ganat eian gaitzirua prestatuko zion bere arto buruxken negurtzeko.

Eta, anaia aberatsak errefusatu zion, segurki etziola emanen.

Arras desesperatua, gizon pobre hura gan zen oihan handi baterat, kurri.

Gau pasa, gan zen arbola handi baten gainerat.

Eta suertatu ziren etortzia arbol handi haren azpirat, gizon batzuek, beren atabal, xirol eta errementa guziekin; eta, arbol handi haren azpian, plantatu ziren haren azpian, plantatu ziren, hek ere gaua han pasatzeko beren ustez.

Solasean hasi eta, konbertsatu zuten bazela Erregearen semea, arras eri zena, nihork ezin senda, midiku guziek etsia emana; eta, hek bazakitela haren sendatzeko erremedioa: Apez batek behar zuela bere lehenbiziko Meza eman haren ganbaran, hura sendatzeko.

Arbola gaineko hura ixil ixila gelditu zen.

Argitu zenean, bertzeak gan ziren eta gizon miserable hura jautsi zen arbolatik, eta gan zen Erregearen etxerat.

—Hemen bauzue norbeit eri, erregearen semea arras gaizki duzue, eta nik badakit haren sendatzeko erremedioa: Apez batek behar du bere lehenbiziko Meza eman haren ganbaran, hura sendatzeko.

Etzioten nihork sinetsi nahi.

Bainan, azkenean, deliberatu zuten egin behar zutela; eta eman zuten Meza.

Eta, bereala, Erregearen semeak onerat eman zuen, eta laster sendatu zen.

Denak kontent ziren.

Ez jakin zer eman gizon pobre hari, saritzat, sekulako urre pila eman zioten.

Gizona lorietan, gan zen etxerat; eta berritz gan zen anaia aberatsaren gana, gaitzirua galdetzerat.

—Eian, zertako zuen gaitzirua?

—Ba, urren negurtzeko.

—Hik, urrea, nondik duk urrea?

—Ba, hola ta hola, mendirat goan, oihan batean sartu, eta ailiatu arbola handi baten ondorat. Haren gainean upatu, gauaren pasatzeko, eta, azpirat etorri gizon batzu zernahi musikekin. Eta, hek konbertsatu bazela erregearen semea eri, eta zer egin behar zen haren sendatzeko.

Nik aditu, eta goan erraterat erregearen etxekoeri. Erregearen semea sendatu, eta, niri, erregeak zer nahi diru eman.

Anaia aberatsa zen segurki; bainan, gehiago nahi zuen oraino aberastu.

Eta anaiari erran zion eian non zen arbola hura.

Y, guiado por el hermano, fue a hallar aquel árbol, que aquél también oiría algo.

Y, aquellos hombres se apercibieron de que alguien los había oído, y que aparentemente había alguien escondido encima del árbol.

Y, otra vez, vinieron debajo de aquel gran árbol, y trajeron petróleo en un gran recipiente lleno.

Rociaron todo el entorno de aquel árbol con petróleo, y mojando entero el propio árbol, le dieron fuego.

Y nuestro rico allí mismo se quemó, desapareció.

Dicho por el carpintero Mattin Harostegui, a los 60 años, el 18 de marzo de 1931.

Lo aprendió de la anciana Xaneta Xulano.

• Mayi Ariztia

Nuestra fuente: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Edit. Elkar, pág. 94.

Trad. J.A.

Eta, anaiak gidatuz, gan zen arbol haren atxematerat, harek ere zerbeit adituko zuela.

Eta, gizon hek ere ohartuak ziren norbeitek aditu zituela, eta aparantziaz arbolaren gainean bazela norbeit gordea.

Eta, berritz ere, etorri ziren arbol handi haren azpirat, eta ekarri zuten petrola untzi handi baten bete.

Arbola haren inguru guzia arrosatu zuten petrolaz, eta arbola bera dena busti eta, su eman.

Eta, gure aberatsa hantxe erre, suntsitu zen.

Mattin Harostegui zurginak errana, 60 urtetan, 1931ko Martxoaren 18an.

Xaneta Xulano xaharrarekin ikasia zuen.

• Mayi Ariztia

Gure iturria: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Elkar Argitaletxea, 94. or.

El curioso castigado

Se enfurecen todos, lo buscan y lo encuentran escondido en el árbol.
Le hacen bajar enseguida y lo cosen a patadas y lo dejan allí.

Kuriosa punitua

Denak asaldatzen dira; xerkatzen dute eta mutila atxeman bere arbolean kukutua.
Jaust arazten dute berehala, ostikoz josi eta han uzten.

Kuriosa punitua

El curioso castigado
Le curieux puni
(J.F.C.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

Bi anaiek fortuna egitera munduz mundu ibiltzea erabaki zuten.

Bainan zaharrenak esan zion gazteari:

—Ni joanen nauk lehenik, eta itzultzen naizenean ene esperientziaz baliatuko haiz.

Zaharrena urrun joan zen; hainbestenarekin gauak harrapatu zuen oihan baten erdian. Goiza arte zer egin eta, arbol batera tera ¡gotea pentsatu zuen. Hain zuzen, oihan hartan biltzen ziren sorginak beren akelarrea ospatzeko. Mutilak alde guzietarik heldu zirela ikusi zituen, denak kontent, eginak zituzten gaiztakeriak elgarri konda.

Maingu zahar batek zion:

—Nik erregeren alabari eritasun bat igorri diot, eta elizako eskilaren kordan hamabi korapilo egin dut: korapilo horiek desegiten ez dituzteno, erregeren alaba ez da osatuko.

Mutilak bere baitan esan zuen:

—Zozoa haiz ez baduk segreto hori baliatzen.

Erregeren etxera egin zuen laster, midiku handi bat zela eta, ongi pagatzen bazuten, printsesa sendatuko zuela erranez. Haren proposamena onartu zuten. Orduan, edozein erremedio emanik, korapiloak askatzera joan zen; eta ordu berean printsesa osatu zen. Erran bezala ordaindu zioten.

Etxera itzuli zelarik bere abentura kondatu zion anaiari. Hau, deus erran gabe, etxetik jalgi zen eta akelarreko arbolara jo.

Gauerdiz sorginak etorri ziren. Maingu zaharra biziki kexu da eta oihukatzen du taldearen segretuak salatuak izan direla, printsesa sendatua izan dela; beraz, norbaitek zelatatu eta aditu izan dituela.

Denak asaldatzen dira; xerkatzen dute eta mutila atxeman bere arbolean kukutua. Jaust arazten dute berehala, ostikoz josi eta han uzten. Eguna argitu zenean, gaixoa dena mindua, ahal bezala irten zen harri eta berroen artetik, eta etxerantz jo zuen; baina denbora luzeren buruan baizik ez zen heldu, eta betiko helbarritua. Anaia zaharrenak erregeren sosarekin lagundu zuen.

• Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 132 or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 95 zb. (IV, 54) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

Personajes de los cuentos

Mendigos



Desde aquel día encargó a sus familiares diesen limosna a todos los mendigos.

Limosna

Egun atatik eskale guztiai limosna emateko manatu zien etxekoai.

La compasión

Un viudo tenía una hija muy dadivosa.
Entre sus muchas virtudes ésta era la que más destacaba: la compasión.
Muchos pordioseros tenían costumbre de acercarse a la puerta de su casa.
Nadie salió nunca de allí sin algo en la mano.

Errukia

Gizon alargun batek alaba bat eban guztiz eskuzabala.
Auxe zan bere ontasun askoren artean agiriena: errukia.
Euren etxeko atarira eskeko askok euken yokerea artuta.
Batek ezeban inoiz andik urten eskuetan zerbait bagarik.

Un regalo mágico

Y no ganaba nada, y, el pobre, vivía muy necesitado.

Un día llamóle a la puerta un mendigo.

No tenía más comestible que un pan.
Con todo, entregó al pordiosero ese pan todo entero.
¡Tan compasivo era, el pobre!

Entonces el mendigo le ofreció un sombrero, diciéndole:
acepta este sombrero, y mientras lo uses, no habrá para ti cosa secreta,
todo lo adivinarás.

Erregali magikoa

T'ez ementzôn ezer ê irâzten, eta gizâixoa osa beartuik bizi ementzan.

Eun batên eskale'atek atea jo ementzion.

Ez ementzeuken ogi'at beste jan-gauzaik. Alâre ogi oi, oso-osoik;
jainkôn-izenekôri ema'ementzion. Aintxen errukitsue izen gizâixoa.

Urdûn eskalek somprallu'at eskiñi ementzion, esanez:

tori somprallu au, ta, orrekiñ zailtzen artên,
ez da zûtzat gauza izkutukoik izengo, danai igarriko diezu.

Mendigo delante de la casa,
Ludwig Richter (1803-1884).

El castigo de la pobreza

Una vez, estando comiendo, pidió limosna su hermano en la puerta. Conociendo su voz, dijo a la criada:

—Iré yo mismo; esté usted ahí.

—Muchacho, ¿tú pidiendo limosna? ¿Dónde tienes las catorce mulas?

—He perdido todas.

Txirotasuna gaztigu

Bein bazkaltzen zelarik, bere anaiak atean limosna eskatu zuen. Bere mintzoa (boza) ezagutuz, mirabeari esan zion:

—Nerau yoanen naiz, zaude or.

—Mutil, ¿i limosna eskatzen? ¿Non dituk amalau mandoak?

—Oro akabatu ttiat. ¿Ik nola duk emen egoteko zoria?

Las brujas y los tontos

Las brujas y los idiotas
The witches and the idiots
(W.W.)

613. Los dos viajeros (La verdad y la falsedad)

Éranse una vez dos hermanos, uno tonto y necio el otro. Éstos tenían una madre muy, muy viejita.

Un día salió el hermano mayor al amanecer al monte con su rebaño dejando en casa a su hermano el necio cuidando de la anciana madre y antes de partir le dice a éste:

—Yo le daré ahora el chocolate a la madre y tú le darás un baño caliente, caliente a su tiempo.

A continuación parte al monte con su rebaño.

El segundo hijo puso a calentar el agua y le pegunta a su madre:

—Madre, el agua está ya caliente. ¿Qué baño quieres?

Y ésta le respondió:

—Un baño de la calderada.

Y le puso delante de la cama un baño con agua que estaba hirviendo. Pero la madre no se levantaba de la cama y éste le dijo:

—¿Quieres tomar caldo?

Ésta le respondió que sí.

—Madre, levántese deprisa.

Pero, ésta no se levantaba. Y él mismo le dio el baño cuando el agua estaba hirviendo y la pobre madre allí se asa y le dice:

—Madre, levántese el baño no se ha enfriado todavía.

Pero ella no le da ninguna respuesta.

Anocheció y vuelve el otro hermano y le pregunta:

—¿Cómo está la madre?

—Está bien.

—¿Le has dado el baño?

—Que sí. Pero todavía sigue allí dormida.

Y le dice:

—Vete a mirar si todavía duerme.

Va a verla y dice al volver:

—No, está sonriendo.

Va el otro hermano y vio a la madre totalmente muerta.

Y éstos no sabían que hacer.

Se dirigen los dos al huerto a hacer un agujero grande y el hermano menor metiendo a la madre en la punta de la horca la echa al agujero. Y van los dos a casa asustados.

En esto, ¿que hace el segundo hermano? Se le metió en la cabeza (se le puso en el espíritu) que debía coger algo de entre las muchas cosas de aquella casa. Y dejan todos los animales, muebles y todas las piezas de lino y coge solamente una puerta al hombro.

Cuando marchaban por el bosque suben los dos a la cima de un árbol y hacia la medianoche oyen a las brujas en Akelarre y los dos estaban del todo asustados.

Sorginak eta ergelak

Las brujas y los idiotas
The witches and the idiots
(W.W.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

Behin batez baziren bi anaia, bat ergela eta bertze bat enuxentina. Bazuten ama xahar xahar bat.

Eta goiztiri[1] batez abiatzen da seme zaharrena mendirat arthaldiarekin eta uzten du enuxenzko hura etxian bere ama xahar xaharrarekin eta erraten dio:

—Orai nik amari emanen diot xokoleta eta zuk emanen diozu maño[2] bat bero beroa trenpoan[3].

Eta partitzen da mendirat bere arthaldiarekin.

Bigarren semiak ematen du ura berotzen eta erraten dio bere amari:

—Ene ama, ura bero beroa da. Zer maño nahi duzu?

Eta erraten dio:

—Brazadazeo[4] maño bat.

Eta ematen dio ohe aintzinerat maño irakitzen hari zuena. Eta ama ez baitzen jeikitzen erraten dio:

—Nahi duzu salda ematia?

Erraten dio baietz.

—Ama, jeiki zaite fite.

Eta ez zen jeikitzen. Hartu eta ematen du berak maño irakitzen hari zenian eta ama gaixoa han egosten da eta erraten dio:

—Ama, altxa zaite, oiño ez zaitzu mañoa hoztu.

Eta ez dio jeus errepustarik[5] ematen.

Arratsa ethorri zen eta bertze anaia arribatzen zaio eta erraten dio:

—Nola duk ama?

—Ongi duk.

—Eman diok mañua?

—Baietz. Bainan oiñon han lo ziauk.

Eta erraten dio:

—Ikusak heia lo den.

Badoha eta erraten dio:

—Ez. Erriz ziagok.

Badoha bertze anaia eta ikusten du ama arras hila eta ez zakiten zer egin.

Badohazi biak baratzerat eta han iten dute zilo handi bat eta anaia gaztenak sagardiaren[6] puntan sartu eta botatzen du zilorat. Eta biak etxera gan eta izitzen zien.

Zer iten du anaia bigarrenak? Hartzen du izpirituan behar dutela zerbeit hartu zeinetarik gauza hainitz baitzen etxe hartan. Eta uzten dituzte alimal guziak, muble eta puxketa liña[7] guziak, eta hartzen du athe bat bizkarrian.

Oihanian zohazilarik igotzen die biak arbola punttarat eta gauerdiko iñ[8] hartan aditzen dituzte sorginak akhelarrian eta biak arras izituak zien.

Le dice un hermano a otro:

—¡Ay! ¡Yo no me puedo quedar aquí!

Y han llegado las brujas debajo del árbol de éstos y uno decía:

—La hija del rey está muy enferma y no se curará hasta que coma el corazón de un buey.

Y estando allá éstos así (hablando) cuando uno de los hermanos echó un trozo de (barro) cieno y una bruja lo coge y dice:

—¡Ah! La comida de Dios, comámoslo todos!

Lo recogen y lo comen.

Al poco echó un reguero de agua.

—¡Ah! ¡Vino, es vino! ¡Bebamos!

Luego estaba muy cansado con su puerta y la deja caer encima de todos. Uno (decía) ¡Ay!, y el otro !Oy¡ Alborotando se marcharon todos, con gran alboroto.

Y se van los dos hermanos al palacio del rey. Y se encontraron con la joven enferma muy mal. Y se extrañan de cómo andaban por allí los dos hermanos. El criado del rey les pregunta:

—¿Qué quieren?

—Ver al rey.

¿Y qué hace éste? Pues, que se lo dijo al rey, pero éste no quería creerle al criado:

—Sois tontos, id y despedirlos

Pero como no querían marcharse, llegó el rey y les dijo:

—¿Tú, qué queréis?

—Usted tiene una hija enferma

Y les dice:

—¿Tu, qué vais a hacer vosotros?

—¿Queréis saber el remedio para que se cure?

Y le dice que sí.

—Pues bien (Entonces), haga matar el buey más hermoso de esta ciudad, y dele el corazón asado al horno para comer.

Y el rey hacía todo cuanto le decían para curar a su hija. Y hace tal como éste le dice.

Para cuando comió (Nada más comer) el corazón de buey, empieza su joven hija a mejorar. Y se curó rápido y el rey le cogió al chico para su casa (le eligió como continuador de la casa) y se casó con su hija y le dieron todo el palacio para él, con dinero y todas las pertenencias.

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

* Publicada en: «Cuentas de Duendes», de esta misma editorial (N. M E.).

(3) Es decir, un baño de salvado, o de hierbas, o de cenizas, o sólamente con agua.

(4) M. Cerquand presenta este relato en su totalidad, Parte II, págs 10 y 11. Los incidentes están levemente cambiados.

Erraten dio anaia batek bestiari:

—Oi! Ni ezin naukek[9] hemen!

Eta sorginak heldu dire hen arbolaren azpirat eta batek erraten zuen:

—Erregeren alaba eri duk hainitz eta ez dun sendatuko idi baten bihotza jan arte.

Eta han hala zaozilarik hek, anaia batek botatzen du basa[10] puxka bat eta sorgin bat hartzen du:

—Ai! Jainkoaren errakia[11]! Jan dezagun guziek!

Bildu ta jaten dute.

Handik istantian botatzen du ur xorta bat.

—Ai arno, arnoa! Edan dezagun!

Gero bere athiarekin arras hunatua[12] zen eta uzten du guzien gainerat. Batek ai! eta bertziak oi! Tarrapataka guziak badohaz.

Eta badohazi anaia hek biak, erregen palaziorat. Eta atzematen dute andre gazte hura hain txar. Eta estonitzen dire, mutil hek biak nola dabiltzan han. Erregeren zerbitzariak galdetzen diote:

—Zer behar duzue?

—Errege ikusi.

Eta zer iten du? Erraten dio erregeri bainan ez zuen sinetsi nahi zerbitzari hura:

—Zozuak zirezte, hoik eta egorratzu handik.

Eta ez baitzuten gan nahi, errege heldu da eta erraten dio:

—Zer behar duk?

—Zuk alaba bat baduzu eri.

Eta erraten dio:

—Hik ze ari behar duk?

—Nahi duzu jakin horren sendatzeko erremedioa?

Eta erraten dio baietz.

—Ebien. Hiri huntan den idirik ederrena hil araz zazu eta haren bihotza labian erretua emozu.

Eta errege harek aditu guziak iten zituen bere alabaren sendatzeko. Eta iten du harek erran bezala.

Idi bihotza jan zueneko, bere andre gaztia hari zen pullikitzen. Eta sendatu zen fite eta mutil hura errege harek hartu zuen bere etxerat eta bere alabarekin ezkondu eta xato guzia eman zioten beretzat, diru eta izate guziekin.

Hiztegia

1 goiztiri: eguzkia agertuko denean; 2 maño: bainu; 3 trenpoan: aro, era onean; 4 brazadazeo: suontzi; 5 errepusta: erantzuna; 6 sagarde: sarde; 7 liña: oihal; 8 iñ: hein, neurri; 9 naukek: nagokek; 10 basa: lohi; 11 erraki: erradaki; 12 hunatu: nekatu.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. znb.

* Argitalpen honetan bertan: «Cuentas de Duendes» delakoan argitaraturikoa , (M E. Oh).

(3) Zahi-, belar-, errauts- edo ur-bainu bat, besterik gabe, alegia.

(4) Cerquand jaunak oso-osorik agertzen du kontakizun hau, II. zatia, 10 eta 11 or.ak. Gertakariak apur bat aldatuak daude.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 43.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 67.

→ Ver Apéndice, pág. 428.

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 43. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 67. or.

→ Ikus Eranskina, 428. or.

Dos o tres sesiones en Petralanda

(R.M.A.)

613. Los dos viajeros (La verdad y la falsedad)

Petralanda es el aquelarre de Bizkaya. Este lugar de brujas está en Arratia, jurisdicción de Dima. En un pueblecito de sus inmediaciones (¿en Dima? ¿Yurre? ¿Arantzazu?) vivía una dama rica, prendada de sí misma, orgullosa. Lo que es costumbre en otras muchas iglesias, se practicaba también en la iglesia de aquel pueblecito: repartir pan bendito durante la misa mayor entre los feligreses.

También a esta rica, daba su correspondiente pedacito de pan bendito el sacristán. Una vez se le cayó de la mano y, no queriendo inclinarse de puro orgullo, dejó allí su pedacito.

En los días siguientes, cada vez se sentía ella más débil, con menos salud, sin que nadie supiera de dónde y de qué clase era su mal.

Por aquellos años les dio por reunirse en Petralanda, los sábados por la noche, a todas las brujas de los alrededores. Una de entre ellas tenía de criado a un muchacho listo y curioso, ¿y pues no le surgió una vez, ignorando su señora, el deseo de entrar en una sesión de brujas?

Llegó allá mucho antes de la media noche. Subido a un roble bravío, allí estaba el muchacho, esperando a que diera comienzo la reunión. Hacia la media noche, una por una parte y otra por otra, se reunieron las brujas. En aquella sesión, además de alguna otra cosa, mencionaron la acción vanidosa que llevó a cabo el último domingo la mujer rica, orgullosa y presumida.

El oyente, que estaba sobre el roble bravío, se hizo bien cargo de lo que entonces dijo una bruja:

—Esa orgullosa no se curará mientras no lama con la lengua el lugar donde estuvo el pedazo de pan.

A continuación de la sesión, y después de dividirse y esparcirse cada cual a su casa, bajó el muchacho del roble, y en un dos por tres llegó a casa algo antes que su ama.

Al día siguiente, llamó a la puerta de la dama rica, diciendo que tenía una orden secreta, y cuando le admitieron, dio cuenta a la señora de su grave dolencia.

Fue a la iglesia sin pérdida de un día, se acercó a la sepultura de su familia e, inclinándose con toda humildad, lamió lo mejor que pudo con la lengua el sitio donde estuvo el pan bendito. Al salir de la iglesia la dama, no parecía la misma. Iba a su sitio fuerte y airosa.

Petralandako batzar bi edo iru

(R.M.A.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

Bizkaiko Akelarre da Petralanda. Arratian, Dimako lurrean, datza sorgintegi au. Bere inguruko erritxo baten (¿Diman? ¿Igorren? ¿Arantzazun?) dama aberats bat bizi zan, buru-eritxia, arroa. Beste eliza askotan oi dana, egiten zan erritxo atako elizan bere: meza nagosi-bitartean otondo bedinkatuak eliztarren artean banatu.

Aberats oni bére emoten eutsan sakristauak ogi bedinkatu-zatitxoa. Bein eskutik jausi dakon ta arrokeriaren arrokeriz makurtu nai ez ta bertan itxi eban bere otondotxoa.

Ganeko egunetan geroago ta mekoago, makalago, osasun bakoago egoan bera, bere gatxa nondikoa ta zelakoa zan inok ezekiala.

Urte aretan Petralandara zapatugabetan inguruetako sorgin guztiak yokeräa artuta euken. Euren arteko batek morroitzat mutiko bizkor jakingura bat eukan ¿ta etxakon bâ bein, ugazabandrearen isilik, sorginbatzarrera yoateko gogoa biotzean sartu?

Gaberdia baino asko lenago eldu zan bertara. Aritz tantai batera igonda, an egoan mutila, batzarra noz asiko. Gaberdi inguruan, bat orti, bestea andi, batu ziräan sorginok. Batzar atan, beste zerbaitez ganera, andra aberats arro burueritxiak azken domekan eginiko arrokeria aitatu eben.

Sorgin batek orduan esan ebana ondo artu eban burutan aritz tantai ganean egoan entzuleak:

—Arro putz ori ezta osatuko, otondoa egon zan lekua miiñaz igortzi eztagian artean.

Batzarra amaitu ta bakotxa bere etxera banatu ta zabaldu-ondoan, mutila bere aritz-ganetik yatsi ta beingo baten ugazabandrea baino lentxoago etxeratu zan.

Biaramonean dama aberatsarenean atea yota, isileko mandatu bat eukala ta, barrura sartu ebenean, etxeko andreari bere gatx andi aren barri emon eutsan.

Egunik galdu bârik elizara yoan, bere etxekoen sepulturara urreratu ta apal-apal makurtuaz ogi bedinkatua egon zan unetxoa miiñaz al ebanik ondoen igortzi eban. Damâak elizatik urtenda etzirudian lengoa. Sendo ta bizkor yoêan bere lekura.

De lo que más se habló en la sesión del sábado siguiente de Petralanda fue esto: la inopinada curación de la rica orgullosa. Una bruja expuso su sospecha, que la dieron por buena o la aceptaron otras muchas: que algún espía oyó en la sesión anterior lo que allí se dijo y enseñaría el remedio a la dama. De otra manera, no podría curarse aquélla.

Entre varias brujas registraron todos los rincones, orillas y zarzales: nadie aparecía. En una de éstas, una bruja que miraba arriba, dijo:

—Aiko an, aiko an (Miradle allí, miradle allí).

Por cierto que allí estaba nuestro muchacho espía. ¡Buena paliza le arrearon! En un momento feliz se le ocurrió al pobre muchacho el nombre más terrible para las brujas: «Jesús».

Al oír esto, le dejaron absolutamente solo al muchacho en Petralanda.

Antonia Zugazaga, de Gorozika.

- Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 295

Urrengo zapatuan Petralandako batzarrean auxe zan aotan geien erabili ebena: aberats arroaren uste uste bagako sendatutea. Sorgin batek esan eta beste askok aintzat artu eben bere susmoa: azken-batzarrean salatariren batek an yazo zana entzun eta dameari osapidea erakutsi izango eutsala. Bestela arek bere burua ezin osatu zeikean.

Zokondo ta baztar ta sasipe guztiak aratu zituen sorgin batzuen artean: ta inor agiri ez. Alako baten gora begira ebilen-sorgin batek:

—Aiko an, aiko an –esan eban.

An egoan, izan bére, gure mutil salataria. ¡Areri emon eutsezan emotekoak! Zorionen baten otu dakon gizagaixoari sorginen kontrako berbarik indartsuena esatea: «Jesus».

Au entzunda, bakar-bakarrik itxi eben mutila Petralandan.

Antonia Zugazaga, Gorozika.

- Resurreccion Maria Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 295. or.

Brujería y brujas en Petralanda,...,...

(J.M.B.)

613. Los dos viajeros (La verdad y la falsedad)

Eran dos hermanos y no (eran) concordes en sus juicios, y uno (decía) que primero era oír misa y el otro que el viaje.

Y el que fue a oír misa, emprendió el viaje hacia otra región, y (en el camino) todo era bosque tras bosque, y allí se le hizo noche, y subió a un roble y allí pasó aquella noche.

Y se reunieron las brujas debajo de aquel roble y dijeron que la hija del rey estaba enferma y también (dijeron) cómo se podría curar: que debajo de la pila de agua bendita de la iglesia se halla un sapo y que este sapo tiene en la garganta el pedacito de pan bendito que la hija del rey dejó caer y que, si lo comiese, se curaría.

Ese muchacho va luego a buscar al sapo y después que lo halla y lo mata, quítale el pan bendito de la garganta, y guardándolo bien en un pañal, fue al palacio adonde el rey.

Pide autorización para ir al sitio donde se hallaba la hija del rey.

Habiendo, pues, llegado al sitio donde se hallaba la enferma, le dijo:

—Ea, si comes este trozo de pan él te curará.

Cuando comió el pan, alcanzó la salud desde luego y se curó de una vez.

Después el rey enriqueció a este muchacho.

Sorginkeria eta sorgiñak Petralandan,...,...

(J.M.B.)

613. Bi bidaiariak (egia eta faltsukeria)

Anaje bi ziran eta eretxiz ez bardiñak, eta ezpaian batak mesia entzuntia oba zala eta bestiak biajea beñagoa.

Eta mesatara juan zanak artu eieban beste alde badera juatekoa, eta dana eizan basoa eta basoa, eta antxe gautu eikoion eta areis gane batera igon eiuen ta antxe paseu eion gaba au.

Ta zorgiñek batu ziran areist azpi atara eta ezan eben erregeren alabia be geizorik dagoala eta baite zelan osatu leyen be: eleizako urbedeinkatu-untziyaren beian dagon arri loza'ren azpian dagola zapo bat eta zapo onek daukola zaman erregeren alabiak jaurtineiko ogi bedeinkatu zatitxua eta axe jango baleuke, ozatu'ko litzekela.

Mutill ori gero juan da zapo billa, ta topeu ta ilda gero kendu dautzo zama'ko ogibedeinkatue ta ondo gorde zapi baten da juan zan erregegana Jauregira.

Ezkatu dau baimena erregen alabie eguan lekura juateko, berak ozatu'ko ebala ta.

Elduta ba gaizoa eguan toki'ra, ezan eutzan:

—Ara ogi bildartxu au jaten badon berak ozatuko eu.

Ta ogia artu ebanian, bertatik artu eiban ondazune ta ozatu zan beingo baten.

Gero erregeak mutill au aberastu egin eban.

Después, al saber el otro muchacho cómo se había enriquecido su hermano, conoció que (habiéndose hallado éste) en la necesidad de hacer noche en Petralanda, supo cosas para enriquecerse. Fuese en el viernes siguiente, y estando sobre el roble, dijeron las brujas: también otra vez nos han oído aquí, y tal vez esté (aquí) alguien. Y hallaron a ese muchacho y lo maltrataron.

(Contado en 1922 a D. Juan José de Bastegieta por Pedro Mari de Olarte, de Orozko).

- José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca I. Edit. Auñamendi, pág. 90.

Gero beste mutillak be, jakin ebanian zelan bere anajea aberastu zan, ezagutu eban Petralandan gaua igaro biarrian, jakin zituala gauzak aberastu'teko. Juan zan urrengo barikuan eta areist ganian eguala, zorginek ezan euden: len be emen entzun dauskuez ta batenbat egon biar leuke. Da topeu euden mutill ori ta dana urrutu-urrutu ein euden.

(Orozkoko Pedro Mari de Olartek Juan Jose de Bastegieta jaunari kontatua 1922an).

- Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: El mundo en la mente popular vasca I. Auñamendi, 90. or.

Por oír misa

Voy a insertar aquí una variante de la leyenda anterior que copio de un manuscrito inédito del insigne erudito D. Federico de Baráibar, que me ha sido proporcionado por D. Carlos de Baráibar, digno continuador de la labor de su ilustre tío. La leyenda está escrita a continuación de otros datos folklóricos recogidos en los alrededores de Salvatierra. Se halló en una carpeta que contenía escritos de los años 70 al 74 del siglo pasado. Dice así:

Dos arrieros apostaron sus mulas sobre el refrán «por oír misa y echar cebada=no se pierde jornada».

Uno oyó misa; el otro no. Éste adelantó muchísimo a su amigo, que perdió la jornada y por tanto la apuesta. Cuando se volvía triste a su casa, le sorprendió la noche y se perdió en un monte. No sabiendo dónde cobijarse se subió a un árbol y al dar las doce de la noche, vio que del tronco salían muchas brujas y bailaban alrededor del diablo besándole en salva la parte. Cuando se sosegaron dijo una de ellas:

—Amigas ¿sabéis lo que pasa a la infanta María que es tan orgullosa?

—No, contestaron.

—Pues bien, fue el otro día a comulgar y se le cayó un pedacito de la hostia y como es tan orgullosa no quiso abajarse a cogerlo, y vino un sapo y se lo llevó en la boca. El sapo está escondido debajo de la sepultura de la infanta, y ésta está a la muerte y no saben qué mal tiene y hasta que maten al sapo no se curará.

Después se marcharon las brujas. El arriero fue al palacio del rey y curó a la infanta, y le dieron mucho dinero.

El otro arriero que lo supo fue al mismo árbol. Mas las brujas que sospechaban, porque se había puesto buena la infanta, que alguno las escuchaba, registraron todo, lo descubrieron y lo mataron a arañazos y pellizcos.

De modo que así se ve cómo

«Por oír misa y echar cebada,
no se pierde jornada».

- José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca I. Edit. Auñamendi, pág. 90.

621. LA PIEL DEL PIOJO

Piojo real

(R.M.A.)

621. La piel del piojo

Una reina tenía una hija pequeñita, y en una ocasión en que la estaba peinando, le cogió un piojo. Resolvieron que, en lugar de matar, debían guardar y criar aquel piojo en alguna parte, para ver cuánto crecía.

Y así; yendo días y viniendo días, el piojo se hizo como un gorrino de unos tres a siete meses. Pero se envejeció y después murió. De eso sintieron una gran aflicción la reina y la hija, Y con objeto de tener algún recuerdo del piojo, despojándole de la piel, hicieron un tambor. Cuando se les antojaba, dicen que tocaban el tambor y les servía de recuerdo del piojo.

Estando tocando en una ocasión, dijo la hija a su madre:

—¿Quién será capaz de adivinar que este tambor se ha hecho con piel de piojo?

—Nadie adivinaría –contestó la madre.

Cuando esa conversación llegó a oídos del padre, se le ocurrió que le podría servir esto de medio para ganar algún dinero. Prometió un gran premio para quien acertara de qué cosa se había hecho aquel tambor. Los demás, los que no podían acertar, tendrían que dar alguna cantidad de dinero. En la creencia de que ganarían el dinero prometido, muchos hombres y mujeres se fueron a donde el rey.

—Con piel de zorro está hecho –dijo uno.

—Es de piel de gato –otro.

—Lo han hecho con piel de gallina –otro.

Nadie podía acertar.

Por aquellos días, no lejos de allí, había un hombre que tenía alguna falta en la cabeza. No queriendo permanecer sujeto a los padres y diciendo que tenía que recorrer el mundo, salió de casa. Yendo por el camino encontró a un hombre tumbado, con el oído en la tierra, le preguntó qué hacía.

—Estoy oyendo cómo nace la hierba.

—Parece que no tienes mal oído. ¿Por cuánto vendrás como criado mío?

—Por tanto.

—Pues sígueme.

Yendo ambos juntos en su camino, encontraron en un bosque a otro hombre, que, cogiendo con la mano, sacaba de raíz árboles grandes y vigorosos, cual si fueran hierbecillas. Admirados los otros de las fuerzas de éste, le preguntaron qué deseaba hacer.

—Quisiera hacer una gran carga con doce docenas y llevarlos al pueblo del rey para venderlos.

621. ZORRIAREN AZALA

Errege-zorria

(R.M.A.)

621. Zorriaren azala

Erregina batek alaba ttipitto bat zuen eta bein batez orren orraxtatzen ari zelarik zorri bat arrapatu zion. Zorri hura il-bearean nonbait gorde ta azi bear zela erabaki zuten, zenbat aunditzen zen ikusteko.

Eta ala egunak gan ta egunak etorri, zorria bargosta bat bezalatsukoa egin zen. Bainan zagartu ere egin zen ta gero il. Atsekabe aundia artu zuten ortaz erreginak eta alabak. Eta zorriaz zerbait oroitzapen in bear zutela ta larrua kenduz danbore bat egin zuten. Gogoak ematen zabelarik danborea yotzen omenzuten ta zorriaz oroitu.

Bein batez yotzen ari zelarik, alabak bere amari erran zion:

—¿Nork igarri bear luke danbore au zorri-larruz egina dela?

—Eluke ez neork igarriko –inardetsi zion amak.

Solas ori aitaren begarrietara eldu zenean, ortan diru puskaten irabazteko bidea izain zuela bururatu zitzaion. Sari aundi bat eskaini zuen danbore ura zertaz egina zen igarriko zuenarentzat. Bertzeak, igarri ezin zuketenak, diru zerbait eman bear izain zuten. Eskainitako diru hura irabaziko zutelakotz, aunitz gizaseme ta emakume erregerengana gan ziren.

—Axeri-larruz egina da –erran zuen batek.

—Gatu-larruzkoa da –bertze batek.

—Oilo-larruz egin dute –bertzeak.

Neork ezin asmatu zezakean.

Egun aietan, ez andik urrun, bazen gizaseme bat burutik zerbait makur zuena. Gurasoen menean ez egon naiz, munduz mundu gan bear zuela erranik, etxetik atera zen. Bidean zoaielarik gizon bat etzanik arkitu zuen, begarriz lurrari emanta zagola. Zer ari zen galde egin zion.

—Belarra nola sortzen den entzuten ari naiz.

—Ez bide tuzu begarri txarrak. ¿Zenbatean torriko zara nere mutil?

—Unenbertzean.

—Yarraiki bada neri.

Biak beren bidean zoazilarik bertze gizon bat oian batean arkitu zuten, arbola andi azkarrak, belarrizpiak baliran bezala, eskuz artu ta erroetatik ateratzen zituela. Unen indarrak ikusten bertzeak arrituz zer egin gogo zuen galde egin zioten.

—Amabi dozenaz zama aundi bat egin ta errege-irira saltzera eraman nai nuzke.

Le dijo aquel loquillo que si le quería seguir le daría buena retribución. Se fue con él.

A otro le hallaron lavándose la cara[1].

—¿Qué haces?

—Aquí, mudándome algún tanto, preparándome para ir al pueblo. Necesito ir allá para la hora de comer.

—¡Para la hora de comer! ¿No es algo tarde?

—Aunque haya camino de algunas horas, con estas mis grandes piernas llegaré en un cuarto de hora.

—¿Quieres también ser tú mi criado?

Contestó afirmativamente, e iban juntos.

Cuando llegaron al pueblo no había allí otra conversación sino que el rey tenía un tambor que nadie podía acertar de qué se había hecho. Esos cuatro hombres entraron en una fonda próxima a la casa del rey y aquel amo extravagante hizo ponerse en una ventana que da a la casa del rey a aquel criado de oído fino, encargándole que oyendo las conversaciones de la casa del rey, le contase o diese cuenta de ellas. A la caída de la noche, oyeron estas conversaciones:

—¡Qué dineral hemos recogido con este nuestro tambor!

—¡Y lo que recogeremos todavía, pues no es posible que nadie acierte que este tambor está hecho con piel de piojo!

El criado dio cuenta de estas conversaciones a su amo, y éste, al día siguiente, se fue al palacio del rey a dar, como otros muchos, su parecer acerca de la materia con que estaba hecho aquel tambor. Y desde el principio dijo:

—Señor rey: este tambor está hecho con piel de piojo.

Entonces no le bastaron al rey todos los dineros que había recogido hasta el momento, para dar el premio que había prometido. Que le diese el dinero que podía soportar un hombre y que lo restante le perdonaría, le dijo al rey. El rey se avino, pero el otro llevó a aquel muchacho vigoroso y el rey no tuvo suficiente dinero en todos los rincones del palacio para poder cargar cuanto pudiese levantar aquel muchacho.

(Cruz Goieneche, de Elbetea Baztán).

Entre los cuentos del Balkan, de la colección alemana Die Märchen der Weltlitteratur (Los cuentos de la literatura universal), hay uno titulado Der Teufel, derdas Flohfell erkannte (El diablo que conoció la piel de la pulga). Tiene alguna pequeña conexión con este nuestro Errege-zorria.

Un zar tuvo un piojo encerrado en una gran botella, habiéndole cebado varios años. Creció el piojo y llegó a ser tan grande como un becerro. Luego le mató, le quitó el pellejo y, llenándole de paja, lo colgó en la puerta del palacio. Hizo después que anunciaran en todo su reino que aquél que acertase de qué procedía su piel tendría por esposa a la hija del soberano...,

Nota:

(1) Hacia el Baztán se usa el verbo ikuzi para significar el lavar la ropa y la colada; y garbitu para indicar el lavado de la cara.

- Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 125.

Erosta (zoroxka) arek berari yarraiki nai bazion sari ona emanen ziola erran zion. Arekin gan zen.

Bertze bat aurpegia garbitzen[1] arkitu zuten.

—¿Zer ari aiz?

—Ementxe puxkat aldatuxe, irira gateko gertutzen (prestatzen). Bazkalorduko arat gan bearra naiz.

—¡Bazkalorduko! ¿Berankara ezalduk?

—Zenbait orduko bidea bada ere, nere zango aundi okin ordu-laurden batez sartuko naiz.

—¿Ik ere nere mutil izan nai alduk?

Baietz erran ta alkarrekin zoazin.

Iriratu ziranean etzabilen an bertze solasik erregek danbore bat bazuela, neork zertaz egina zen etzakiena. Lau gizon oriek erregeren etxe-ondoko ostatu batean sartu ziren eta nausi erosta arek bere mutil begarri-ernea erregen etxe-aldeko leio batean yarrarazi zuen, erregen etxeko solasak entzun eta ari errateko aginduz. Gau-erortzean solas ok entzun zabezten:

—¡Au diruketa geren danbore onekin bildu duguna!

—¡Eta oinik bilduko ditugunak! Bada neork eztezake asmatu danbore au zorri-larruz egina dela.

Solas oriek mutilak nagusiari erran zition eta au biaramunean erregein yauregira gan zen, bertze aunitz bezala, danbore hura zertaz egina zen eritzia ematera. Eta lenbiziko alditik erran zuen:

—Errege yauna: danbore au zorri-larruz egina da.

Orduan Erregek anarteraino bildu diru guziek etzituen aski eskaini zuen saria emateko. Gizon batek yasanala diru emanez geroz bertzea barkatuko ziola erran zien Erregeri. Errege untaratu zen; bainan bertzeak mutil azkar hura eramanik, arek yasanala diru ornitzeko etzuen Erregek yauregi-xoko guzietan aski izan.

(Cruz Goieneche, Elbetea Baztan).

Die Märchen der Weltlitteratur (Literatura unibertsaleko ipuinak) bilduma alemaniarreko Balkan-en ipuinen artean, Der Teufel, derdas Flohfell erkannte (Zorriaren azala ezagutu zuen deabrua) izeneko bat dago. Gure Errege-zorriarekin lotura txikiren bat badu.

Tsar batek zenbait urtetan galkatuz zorri bat eduki zuen boteila batean. Zorria txekor bat bezain handia izateraino hazi zen. Gero hil, azala kendu eta lastoz bete ondoren jauregiko atean zintzilikatu zuen. Haren azala zerena zen asmatzen zuena erregearen alabarekin ezkonduko zela jakinarazi zuen erreinu osoan...,

Oharrak:

(1) Baztan-aldean lixua ta oialak urez ikuzi egiten dire, aurpegia garbitu.

- Resurreccion Maria Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 125. or.

La hermana y los siete hermanos

(W.W.)

621. La piel del piojo

(Este cuento también pertenece al tipo
451. La doncellas que busca a sus hermanos)

→ Ver el texto en la pág. 203.

Arreba eta zazpi anaiak

(W.W.)

621. Zorriaren azala

(Ipuin hau, 451. Bere anaiak bilatzen dituen dontzeila
motan ere sailkatzen da)

→ Ikus testua 203. or.

Narraciones de sobremesa

Después de haber comido bien, todos los nobles empiezan a contar sus historias y sus hazañas. Ezkabi que andaba alrededor de éstos por allí, cuando oye lo que éstos contaban, les dice que también él tenía historias que contar.

Bazkalondoko kontakizunak

Ungi bazkaldu direnean hasten dire jaun guziak beren historiguaren kondatzen, edo beren balentriak. Ezkabi han zabillan heien ingurutan. Hori aditzen duenian erraten diote harek ere balukeela historigua kondatzeko.

650-699 SUPERNATURAL POWER OR KNOWLEDGE

650-699 PODER O CONOCIMIENTO SOBRENATURAL

650-699 NATURAZ GAINDIKO BOTERE EDO EZAGUTZA

«El golpe maestro del cortador de hadas». Richard Dadd.

650A. JUAN EL FUERTE

El osezno

Le fils d'Ours
(J.F.C.)

650A. Juan el Fuerte

En otro tiempo, una chica que iba del pueblo de Mendibe a Ochagavía por el bosque de Irati, se encontró con un oso.

Si le hubiera mirado directamente habría intimidado al oso, pero al verlo, asustada dirige los ojos al suelo. Viendo su dulzura, el oso se le arrima y la pone a su espalda, y la lleva a una cueva. Cuando llegan el oso siente que era hembra y hacen una cría.

Si hubiera sido hembra el oso quizás no hubiera sufrido (soportado) a la muchacha, pero como resultó ser macho, la conservó.

En aquella cueva vivieron los padres y el hijo hasta que el crío tuvo seis años. Todos los días examinaba el niño la piedra de la cueva, y la levantaba cada vez más. Le dice a su madre:

—Poco a poco levantaré ésta.

Un día la levanta y la madre y el hijo escapan.

Se encontraron con un vaquero, y el vaquero cogió a aquel chico y lo crió con una vaca: le daba leche de una vaca para que él bebiera.

El chico creció así por un tiempo, y el vaquero y los vecinos temieron que les hiciera algo malo. Acuerdan que debían hacerlo morir con los pastores de una cabaña, quienes tenían unos perros pastores que querían despedazar a todas las gentes.

Pues por la tarde se les murió (apagó) el fuego, lo mandan en busca de una antorcha. Le azuzaron los perros.

Cogió una simple vara y turbó y pegó a los perros; los pastores huyeron y el mismo chico, habiendo cogido la antorcha, va adonde el padre, porque así llamaba al vaquero.

Aquél pensaba que había sido muerto por los perros, (y) se asombró y asustó y los vecinos también. (Decidieron) que aún debían hacerlo morir, no porque fuera malo, pues era muy fiel, sino por temor ya que tenía gran fuerza.

Habiendo visto el vaquero que cinco o seis lobos estaban alrededor de la chabola al olor de unos terneros, lo envía diciéndole:

—Recógeme esos terneros.

Yendo corriendo, saca de raíz un haya de doce años con las manos, y recoge a los lobos en la chabola. Tras ence-

650A. JOAN INDARTSUA

Hartz kumea

Le fils d'Ours
(J.F.C.)

650A. Joan Indartsua

Bertzorduz Iratiko oihanean Mendibeko herritik eta Otxagabiarat zohalarik neskato bat, errekontratzen dizu[1] hartz bat.

Xuxen-xuxena so[2] egon balitzako[3] hartza ahalgeturen[4] zizun[5], bainan hura ikhustearekin, iziturik begiak lurrerat aurthikitzen[6] ditizu[1]. Ikhusirik haren eztitasuna, hartza arrimatzen ziakozu[7] eta bizkarrean ezartzen dizu, eta eremaiten zilo batera. Hara direnean hartzak senditzen dizu urrixa[8] zuela eta ume bat egiten dizie[9].

Emea izan baliz menturaz hartzak ez zizun sofrituren neskatoa; nola gerthatu izan bait zen arra, kontserbatu zizun.

Zilo hartan ama-semeak bizi zitzun[10] umeak sei urtheak arte hartan. Egun guziez ikhertzen zizun haurrak leizeko harria, eta geroago eta guxiago[11-a] altxatzen zizun. Erraiten diakozu[12] amari:

—Emeki emeki hau altxaturen dizut[13].

Egun batez altxatzen dizu eta ama-semeak eskapatzen dituzu[14].

Ulhai[15] bat errekontratu zizien[16], eta mothiko hura ulhaiak hartu eta behi batean hazi zizun: behi baten esnea emaiten ziakozun[17] berak edan zezan.

Mothiko hori hala hazi zizun zenbait denbora, eta ulhaiak eta auzoak beldurtu zitzun berer[18] makhur[19] zerbait eginen zuela. Hitzartzen dizie[9] behar zutela meskaba[20] arazi auzoko etxola bateko artzainekin, zeinek bait zuztien[21] artzan hor[22] batzu jende guziak xahuturik[23] nahi ziuztenak[21].

Arratsean suia[24] hil zitzarela[25], haziaren xerkha[26] igorten[27] dizie. Xakurrak hazikatu[28] ziazkozien[29].

Xaharo[30] xar bat har eta xakurrak ahaztoratu eta zafratu[31]; artzainak ihesi juan , zitzun[10] eta mothikoak berak su-hazia harturik juaiten duzu[14] aitagana, hala deitzen beit zuen ulhaia.

Harek uste xakhurrek galdia[24] zen, estonatu[38] eta izitu zuzun[10] eta auzoak ere bai. Orano behar zutela meskaba arazi, ez makhurra[39] zelakoz, arras[32] fidela bait zen, bainan beldurrez indar handia zuelakoz.

Bospasei[33] otso ikhusirik ulhaiak, bordaren ondoan aretxe[34] batzuen usainera zaudela, igortzen dizu erraiten dakolarik[35]:

—Aretxe horiek bilzkidak.

Lasterka juaiten zelarik, phago ondo bat eskuietaz[24] atheratzen dizu hamabi urthetan, eta otsoak biltzen ditizu[1]

rrarlos en la chabola fue adonde el vaquero al que llamaba padre y éste le dice:

—¿Los has metido?

—Sí, los he metido.

El vaquero, pues sabía que tenía los terneros allí, se asusta y va a ver.

El chico dejó al vaquero a su modo (sin ayuda de nadie), y va adonde nadie sabe.

Contado por Jean Etxemendi, de Mendibe.
Transcrito por el señor Prat.

Notas:

Véase CARNOY, «Jean de l'ours» en Melusina, col. 110; COSQUIN, «Jean de l'ours» en Romania 1876 (en dicho artículo se mencionan las versiones del Tyrol, Errusia y Hannover). GRIMM «La caverne des voleurs», «Le jeune géant». Tanto en los Pirineos como en los Alpes existe la creencia de que los osos secuestran a mujeres; la misma creencia se ha encontrado en Gabon, sobre las gorilas, DU CHAILLU.

Las hazañas y la fuerza del osezno (sacar los árboles de raíz) se encuentran en la mitología clásica (Teseo, el recién nacido Apolo), así como en la francesa (Gargantua, Pantagruel). Nuestro osezno está especialmente y muy alimentado, como aquellos. Tal como Paris y Edipo, fue encontrado por un pastor.

Véase BARBIER, op. cit., cap. 111 nº 5. AZKUE, op. cit. ll tomo, nº 69. BARANDIARAN, op. cit. III tomo, nº 136, 137.

Topografía

El camino de Mendibe a Otsagabia: subiendo por Salbatore, pasa por el collado de Burdingurutzeta (1135 m), y atravesando siempre el bosque río abajo, hay que pasar el monte Abodi para llegar a Otsagabia; es un camino salvaje y largo (unos 25 Km. más o menos).

- Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 84.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 81 (IV, 111-112) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 436.

bordarat. Bordan hetsi ondoan johan zuzun aita deitzen zuen ulhaiagan eta hunek erraiten diakozu[12]:

—Sarthu dituka[36]?

—Bai, sarthu ditzit[13].

Ulhaiak bait zakien aretxeak han zituela, izitzen duzu eta juaiten duzu ikhustera.

Utzi zizun mothikoak bere gisa ulhaia, eta juaiten duzu nehork ez ziakizu[37] norat.

Mendibeko Jean Etxemendik kondatua.
Prat jaunak transkribatua.

Hiztegia

1 dizu / ditizu: du / ditu (alok,); 2 so: begira; 3 balitzako: balitzaio; 4 ahalgetu:lotsatu; 5 zizun: zuen (alok.); 6 aurthiki: jaurtiki; 7 ziakozu: zaio (alok.); 8 urrixa: eme; 9 dizie: dute; 10 zuzun / zit(u)zun: zen / ziren (alok.); 11 guxiago: gehiago (?); 12 diazoku: dio (alok.); 13 dizut / dit(i)zit: dut / ditut (alok.); 14 duzu / dituzu: da / dira (alok.); 15 ulhai: unai, behi zain; 16 zizien: zuten (alok.); 17 ziakozun: zion (alok.); 18 -er: -ei; 19 makhur: oker; 20 meskaba(tu): xehatu, istripu izan; 21 zuztien, ziuzten: zituzten; 22 hor: zakur; 23 xahutu: garbitu; 24 -(u)ia, -ie: -ua, -ue; 25 zitzerela: zitzaiela; 26 xerkha: bila; 27 igorri: bihaldu; 28 hazikatu: xaxatu, akuilatu; 29 ziazkozien: zizkioten; 30 xaharo: makila, adar; 31 zafratu: jo; 32 arras: guztiz; 33 bospasei: bost edo sei; 34 aretxe: txahal; 35 dako: dio; 36 dituka: al dituk; 37 ziakizut: daki (alok.); 38 estonatu: harritu; 39 makur: oker

Oharrak:

Ikus CARNOY, «Jean de l'ours» in Melusina, col. 110; COSQUIN, «Jean de l'ours» in Romania 1876 (artikulu horretan Tyrol, Errusia eta Hannover-eko bertsioak aipatzen dira). GRIMM «La caverne des voleurs», «Le jeune géant». Pirene eta Alpesetan hartzek emazteak bahitzen dituzten sinesmena da; DU CHAILLU-k sinesmen bera aurkitu da Gabon-en, gorilei buruz.

Hartz-kumeren balentriak (arbolak deserrotzea) eta indarra, mitoIogia klasikoan aurkitzen dira (Teseo, Apolo sortu berria), bai eta frantsesean ere (Gargantua, Pantagruel). Haiek bezala gure hartz-kumea janari berezi eta kantitate handiz elikatua da. Paris eta Edipo bezala, artzain batek aurkitua da.

Ikus BARBIER, op. cit. 111 kap. 5 zb. AZKUE, op. cit. ll tomo, 69 zb. BA RANDiARAN, op. cit. III tomo, 136, 137 zbk.

Hizkuntza

(a) Bilduma honetan askotan agertu da «guxiago» hitza, «gehiago» esannahiarekin. Galdezkatu ditudan jendeetarik bakarrik Altzaiko batek esan dit harentzat berdintsu zela (formula horietan «gehiago» ala «guxiago», eta arras ongi ulertzen zituela esaldi horiek; beste galdezkatu guzientat aldiz, forma harrigarriak ziren, nahiz eta ulergarriak, kontestoari esker. Hona hemen bi tomoetan agertzen diten kasuak: «ezin guthiago» (19), «zoin guthiago» (39), «guxiago ikhusi» (53), «idoki ahal ukhen guxiagorik» (74), «laminen guxienska» (80), «geroago eta guxiago» (102).

Topografia

Mendibetik Otxagabiarako bidea: Salbatoretik gora, Burdingurutzetako lepotik (1.135 m) pasatzen da, eta bati ibaia behera oihana zeharkaturik, Abodi mendia iragan behar da Otxagabiara heltzeko; bide basa eta luzea (25 bat km. airetik).

- Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 84. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 81 zb. (IV, 111-112) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 436. or.

Hamalau (Catorce)

(J.F.C.)

650A. Juan el Fuerte

Catorce era un joven muchacho. Le dieron ese sobrenombre porque comía tanto como catorce (personas). Como sus padres no podían proveer lo suficiente para él, pues tenía un tremendo apetito, lo pusieron fuera de casa, para que fuera a algún lugar a ganarse la vida.

Catorce va a una casa de labradores. Toca la puerta. El ama de casa sale a la ventana y pregunta quién hay allí. Le responden:

—Catorce.

El ama de casa empieza a mirar a todos lados y no aparece en ningún sitio más que uno. Pregunta otra vez:

—¿Quién hay ahí?

La misma respuesta:

—Catorce.

En aquella casa tenían el trigo de un campo por cortar, y estaba a punto de ser hecho por catorce personas. Debían empezar al día siguiente. El ama de casa baja y va a abrir la puerta: entra Catorce. El ama de casa le pregunta qué es lo que quiere. Catorce:

—Había venido a saber si teníais necesidad de algún mozo, si queréis yo os serviré.

El ama de casa le dice:

—Sí, bien, tenemos necesidad de trabajadores; mañana también tenemos un campo de trigo para cortar por catorce personas en un día.

Catorce le dice:

—Yo te lo cortaré todo; no tienes que buscar a ningún trabajador, tienes bastante con preparar el desayuno como si los catorce estuvieran allí.

El ama de casa hace quedar a Catorce sin conocimiento del marido, pues estaba fuera. Al día siguiente Catorce va al campo, con una gran guadaña a la espalda.

El ama de casa, como prometido, prepara el desayuno de catorce, y va adonde el trabajador, siete horas después. Lo encuentra tumbado y todavía sin empezar a trabajar. Se enfada y le dice:

—¿Qué estás haciendo? ¿Crees que yo te he cogido para estar vago? ¡Bien merecida tienes la comida, sí! Así pues, si no haces parte de ese trabajo para el mediodía, ya hablaremos tú y yo...

Catorce le dice:

—No te enfades, trae la comida aquí, luego ya veremos.

El ama de casa se la trae y Catorce come como catorce.

Al mediodía manda aún traer la comida de catorce. El ama de casa aún murmuró un poco y se fue. Catorce se tumba otra vez y duerme hasta las once. Entonces se levanta y empieza a trabajar. Para el mediodía hace la mitad.

Hamalau

(J.F.C.)

650A. Joan Indartsua

Hamalau muthil gazte bat zen. Eman zioten izengoitiko hori zeren jaten bait zuen hamalauek bezein bertze. Haren burhasoek[1] ez bait zuten fornitzen[2] ahal aski harendako, izigarri apetito gaitza bait zuen, etxetik kanpo ezarri zuten, joan zedin norabait biziaren irabaztera.

Hamalau joaiten da laborari[3] etxe batera. Bortha[4] joiten du. Etxekanderea leihora agertzen da eta galdegiten du nor den han. Arraposta emaiten diote:

— Hamalau.

Etxekanderea bazter guzietara soz[5] hasten da eta nehon[6] ez bat baizik ageri. Berriz ere galdegiten du:

—Nor da hor?

Ber errepostua:

—Hamalau.

Etxe hartan bazuten alhor[7] bateko ogia[8] phikatzeko, eta hamalau lagunek egiteko heinean zen. Biharamenean hasi behar zuten. Etxekanderea jausten da eta bortharen zabaltzera joaiten: Hamalau sartzen da. Etxekandereak galdegiten dio heia[9] zer nahi duen. Hamalauek:

—Heldu nintzen jakitera heia muthil beharrik bazinutenez, nahi baduzue ni zuen zerbitzuko naiz.

Etxekandereak erraiten dio:

—Bai, ontsa, langile beharra badizugu[10]; bihar ere badizugu landa bat ogi phikatzeko hamalau lagunez egun batez.

Halamauk erraiten dio:

—Nik hura dena phikatuko dizut[11]; ez duzu batere langile xerkatu[12] beharrik, aski duzu hamalauak han balire bezala askariaren[13] prestatzea.

Etxekandereak geldi arazten du Hamalau, senharraren jakinik gabe, zeren kanpoan bait zen. Biharamenean Hamalau joaiten da alhorrerat, sega handi bat bizkarrean.

Etxekandereak hitzeman bezala prestatzen du hamalauen askaria, eta joaiten langileagana, zazpi orenen[14] heinean. Idireiten[15] du etzana eta oraino lana hastekoa. Samurtzen[16] da eta erraiten dio:

—Zer hari[17] izan zira? Uste duzia[18] hartu zaitudala nik alfer egoiteko? Askaria ontsa merezitua duzu bai! Hargatik, ez baduzu eguerdiko egiten lan hortarik pharte, mintzatuko giutzu[19] zu eta ni...

Hamalauek erraiten dio:

—Ez zaitela[20] samur, emazu askaria hunat, gero ikhusiko dugu.

Etxekandereak emaiten dio eta Hamalauk jaten du hamalauek bezala.

Manhatzen du oraino eguerditan ekhartzeko hamalauen bazkaria. Etxekanderea, oraino puxi bat murmuratu eta juan zen. Hamalau berriz etzaten da eta egiten lo hameka orenak draino[21]. Orduan jaikiten da eta lanean hasten. Eguerdiko egiten du erdia.

Episodios de cuentos

Ilustraciones de Tillac



El curioso castigado

Se enfurecen todos los brujos, lo buscan y lo encuentran escondido en el árbol. Le hacen bajar enseguida y lo cosen a patadas y lo dejan allí.

Kuriosa punitua

Gizasorgin denak asaldatzen dira; xerkatzen dute eta mutila atxeman bere arbolean kukutua. Jaust arazten dute berehala, ostikoz josi eta han uzten.

Ni en el infierno

Iba pues nuestro pobre hombre hacia el infierno. Pero, he ahí que le salen al camino unos tremendos demonios, con sus tridentes afilados en la mano, gritando:

—¿Adónde crees que vienes? ¿Al infierno? ¡Siendo como eres! Hace algunos años, nos has matado a nuestro padre en la tierra. ¡Vete de aquí, y pronto, si tienes prudencia!...

Inpernuan ere ez

Bazoan beraz gure gizon gaichoa ifernura buruz. Bainan, huna non biderat atheratzen zaizkon sekulako debruak, beren sardi chorrotchak eskuan, oihuka:

—Norat jin uste duk? Ifernurat? Haizen bezalakoa! Orai zonbeit urthe, gure aita hil daukuk lur-gainean. Hoa hemendik, eta laster, zuhur balin baduk!...

Trentekutxilo

Uno de los hombres maravillosos

Metida su rueda de molino por el agujero de en medio en su muñeca, allí iba «brrr» girándola, vuelta y vuelta, en el aire;

Gizon arrigarrietako bat

Bere errota harria, erdiko xilotik, esku-muturrean sarturik, bazailan «brrr» birindaka, itzul eta itzul, airean;

Viejo soldado

Una vez que el Señor Jesús
y San Pedro andaban por el País Vasco,
se encontraron frente a frente, un día,
con un hombre que, habiendo andado
de soldado estaba bastante herido,
andaba mendigando.

Soldado zaharra

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri Eskual-herrian zabiltzalarik,
buruz buru egin zuten, egun batez, soldado ibili eta,
puchka bat kolpatua zelakotz, eske zabilan gizon batekin.

El ama de casa viene con la comida. Esta vez está contenta con Catorce y con el trabajo hecho por él. Catorce empieza a comer y come las partes de catorce.

Le dice al ama de casa que traiga la merienda como a catorce. Alrededor de cinco horas después el ama de casa viene con la merienda; encuentra a Catorce tumbado y que desde el mediodía no ha tocado el trabajo. Le dice:

—¿Tú crees que nosotros tenemos necesidad de alguien como tú? Porque, ahora en un instante va a oscurecer, y cómo quieres terminar el trabajo para entonces?

Catorce le responde:

—Sí lo haré, sí. Dame la merienda, estoy bien hambriento.

Catorce come otra vez como catorce y se tumba hasta las siete. El ama de casa, en cambio, fue a casa bien enfadada. A lasa siete se levanta nuestro Catorce y en una hora pone todos los trigos en el suelo (los corta).

Va a cenar, y el ama de casa, al ver todo el trabajo hecho, le da de comer abundantemente. Mientras tanto arribó el amo y el ama de casa le contó (habló de) la habilidad y fuerza de Catorce.

Al día siguiente el amo y los dos van a cortar los helechos; para la tarde Catorce mismo pone al ras (corta) todo el helechal.

Así pasó mucho tiempo; Catorce hizo casi él (solo) todos los trabajos de aquella casa, pero como tenía que comer mucho, el amo quería librarse de él. Catorce le dice:

—Sí, yo aquí estoy bien y me agrada, no iré a ningún otro sitio.

Al fin, los amos acuerdan que deben hacerlo desaparecer, porque temen que él los mate, si un día le dicen lo más mínimo. Había por aquellos pagos, pero lejos, un bosque lleno de lobos y osos. Le dicen a Catorce:

—Oye, tienes que uncir las vacas e ir a tal bosque en busca de una carga de madera.

Catorce lo cree y parte. Cuando ha llegado allí, ata las vacas a un árbol, se tumba en el suelo y se duerme. Cuando despierta, no ve más que una vaca. Se dice para sus adentros que seguro que la han comido algunos osos. Va, pues, tras los osos y encuentra uno que está dormido; lo coge por la oreja y lo trae, quiera o no quiera lo unce con la otra vaca y, puesta una gran carga, vuelve a casa. Las gentes de casa empiezan a gritar asustados, que por favor deje escapar a aquel animal terrorífico. Pero Catorce les dice:

—No, no. ¿Por qué ha comido mi vaca? Lo debo domar y acostumbrar a trabajar.

Al día siguiente, va otra vez con su vaca y su oso al bosque, que debe traer otra carga. Habiéndolos atado contra un árbol, otra vez se duerme, y en ese tiempo los osos le comen la otra vaca. Tras despertarse, ¡falta la otra vaca! Entra dentro del bosque y encuentra un oso; cogiéndolo de la oreja lo trae adonde su igual. Unce a los dos en el lugar de las vacas y los carga hasta arriba. Dirían (se diría) que habían cogido todo el bosque consigo. ¡Imaginaos!

Etxekanderea jiten da bazkariarekin. Oraiko aldian kontent da Hamalauez eta haren lan eginaz. Hamalau bazkaritan da eta jaten hamalauen pharteak.

Erraiten du etxekandereari ekhartzeko bezpeia[22] hamalaui bezala. Bortz orenen inguruan etxekanderea jiten[23] da bezpeiarekin; idireiten du Hamalau etzana eta eguerdiz geroz ez duela hunkitu[24] lana. Erraiten dio:

—Uste duzuia[18] guk beharrik ba dugula zu bezalakorik? Zer, orain ixtantean ilhuna, eta nola nahi duzu lana finitu orduko?

Hamalauk erresponditzen dio:

—Bai eginen dizut, bai. Emazu bezpeia, ontsa gosetua bait niz.

Hamalauk berriz jaten du hamalauek bezala eta etzaten zazpi orenak artino. Etxekanderea, aldiz, juan zen etxerat ontsa samur. Zazpi orenetan gure Hamalau jeikitzen da eta oren batez ezartzen ditu ogi guziak lurrean.

Afaritara juaiten da, eta etxekandereak ikhustearekin lan guzia egina, emaiten dio gogotik jatera. Arte hartan nagusia arribatu zen eta etxekandereak khondatu zuen Hamalauen abiltasuna eta indarra.

Biharamenean nagusia eta biak juaiten dira iratzeka[25]; arratseko Hamaluek berak arrasatzen du iraztorra[26] guzia.

Holaxik[27] pasatu zen hainitz denbora; Hamalauek egin zituen kasi berak etxe hartako lan guziak, bainan nola hainitz jan behar bait zuen, nagusiak nahi izan ziren hartarik debarrasatu[28]. Hamalauk erraiten diote[29]:

—Bai, ni hemen ontsa naiz eta laket[30] naiz, ez naiz bertzetarat juanen.

Afin, nagusi horiek hitzartzen dute behar dutela gal arazi, zeren beldur dire berak hilen ditiela[31], egun batez erraiten badiote demendrena[32]. Bazen ingurune hetan [33], bainan urrun, oihan bat otsoz eta hartzez bethea. Erraiten dute Hamalaui:

—Orizu[34], behiak uztartu eta juan behar duzu holako oihanera egur karga baten xerka[12].

Hamalauek sinhesten du eta phartitzen da. Hara heldu denean, estekatzen[35] ditu behiak arbole bati, etzaten lurrean eta loak hartzen. Iratzartu denean, ez du ikhusten behi bat baizen[36] Bere baithan erraiten du segur hartz zenbaitek jan duela. Juaiten da, beraz, hartzen ondotik eta idireiten du bat lo dagona; beharritik[37] har eta ekhartzen du, nahi edo ez nahi uztartzen du bertze behiarekin eta, karga handi bat ezarririk, jiten da etxerat. Etxengo jendeak hasten dire iziturik oihuz, animale izigarri hura othoi utzi dezen espakatzera. Bainan Hamalauek erraiten diote[29]:

—Ez, ez. Zertako jan du ene behia? Behar dut hezi eta kostumatu[38] lan egitera.

Biharamenean, bere behi eta hartzarekin juaiten da berriz oihanerat, behar duela bertze karga bat ekharri. Hek [33] estekaturik arbole bati kontre, berriz ere loak hartzen du, eta arte hartan bertze behia hartzek jaten diote. Iratzartu ondoan, bertze behia eskas[39]! Sartzen da ohianean barna eta kausitzen du hartz bat; beharritik harturik ekhartzen du bere lagunaganat. Behien plazan biak uztartzen ditu[a] eta kargatzen gain gainetik. Erranen zuten oihan

Esos dos osos, bramando en el camino, hacían tronar todos los rincones y traían la carga por los aires (rápidamente).

Los de casa, en esta ocasión, se asustan el doble. Están sorprendidos de qué van a ver con (pueden esperar de) aquel hombre: no tiene miedo de nada; los osos también los maneja como (si fueran) pájaros. En tal lugar había un tartalo muy rico; tenía hermosas vacas, en ningún sitio (había) como aquéllas, y no podía ver a los cristianos: comía a todos los que atrapaba. Envían, pues, a Catorce adonde el tartalo, a comprarle un par de vacas, seguros de que esta vez por lo menos no escapará. Catorce va adonde el tartalo. El tartalo le dice:

—Mira, tenemos que hacer una partida de barra, y luego, si me ganas, te daré el mejor par de bueyes de aquí.

Catorce acepta la partida. El tartalo no creía que hubiera en el mundo un hombre tan fuerte como él, y no tenía dudas de que seguro que le ganaría a Catorce como (si fuera) una mosca. Pero encontró al rival más fuerte de lo que creía. Catorce se le impuso.

El tartalo, como prometido, le dio el mejor par de vacas; no con gusto, porque le dolió saber que había alguien superior a él. Catorce parte a casa con sus vacas. El tartalo, en cambio, pues no estaba aún contento, le sale al camino y le dice a Catorce:

—Espera, tenemos que hacer una prueba, (a ver) quién de nosotros es el más fuerte.

Catorce consiente y echa al tartalo al suelo. Lo quiere matar, pero pues el tartalo le suplica que le deje (guarde) la vida, no le hace daño. El tartalo ve que no tiene bien (le aprovecha) atacarle más; así pues deja a Catorce ir tranquilo a casa.

Catorce, después de arribar, les dice:

—¡Bien, bien! Que yo no iba a traer más vacas, que yo no iba a traer vacas: ahí están, mirad bien!

Los amos están asombrados y asustados; ¡hasta entonces nadie se le había escapado al tartalo, y Catorce fue superior para aquél también!

Lo envían otra vez al infierno a hacer una comisión, adonde un viejo demonio. Catorce dice (que) irá, sí, pero que él no tiene miedo de aquel demonio. Manda hacer a un herrero un par de zuecos de hierro, unas tenazas y una barra de hierro. Habiéndolos cogido, va a la puerta del infierno. Un muchacho joven le viene y le dice:

—Escápate rápidamente, porque si viene el viejo demonio, te hará parar aquí. Nosotros también hemos estado aquí, engañados como tú, y desde entonces aquí estamos.

Mientras conversa, arriba el viejo demonio. Al ver a Catorce, le dice:

—¡A, estás ahí, Catorce! Ya había oído de ti, y hace mucho que deseaba conocerte. Pero ahora, pues te tengo entre las manos, tienes que saber quién soy yo, no vas hacer hablar al mundo nunca más.

Dicho eso (y) agarra a Catorce. Catorce le aprieta la nariz con sus tenazas, y con la barra le rompe las piernas. Luego, habiendo acabado con el viejo demonio, torna a casa.

guzia heldu zutela berekin. Phentsa! bidean bi hartz horiek marrumaz, bazter guziak aranatzen[40] zituzten eta airean ekhartzen zuten karga.

Etxekoak, oraiko aldian, dobleska izitzen dire. Harrituak dire zer ikhusi behar duten gizon harekin: deusen ez da beldur; hartzak ere, xoriak bezala irabiltzen ditu. Bazen holako tokian tartaro bat biziki aberatsa; bazituen behi ederrak, nehon ez halakorik, eta giristinoak ez zituen ikhusten ahal: atxeman guziak jaten zituen. Igortzen [41] dute, beraz, Hamalau tartaroagana, behi pare baten erostera, segur oraikoan bederen ez dela espakatuko. Hamalau juaiten da tartaroagana. Tartaroak erraiten dio:

—To, behar diagu barraka[42] partida bat egin, eta gero, irabazten badeitak[43], emanen deat hemengo behi parerik ederrena.

Hamalauk azetatzen du partida. Tartaroak ez zuen uste hura bezein gizon azkarrik bazela munduan, eta ez zuen dudarik segurki Hamalaui irabazteaz uli bati bezala. Bainan uste baino azkarrago kausitu[44] zuen partida[60]. Hamalau nagusitu zakon[45].

Tartaroak, hitzeman bezala, eman zakon behi parerik ederrena; ez gogotik, zeren gaitzitu[46] bait zakon jakitea bazela haren nagusia. Hamalau bere behiekin etxerat abiatzen da. Tartaroa, hatik, ez bait zen oraino kontent, bidera jalkiten[47-b] zako[45] eta erraiten dio Hamalaui:

—Ago, behar diagu egin iseiu[48] bat, zoin garen azkarrena.

Hamalauk kontsentitzen du eta botatzen lurrera tartaroa. Hil nahi du, bainan tartaroak othoizturik uzteko bizia, ez dako[49] minik egiten. Tartaroak ikhusten du ez duela hoberik hura atakaturik gehiago; hortakoz usten du Hamalau trankil etxerat juaitera.

Hamalauk, arribatu ondoan, erraiten diote[29]:

—Ha, ha! Nik ez nuela gehiago behirik ekharriko, ez nuela behirik ekharriko: horra hor, so egizue ontsa!

Estonatuak[50] eta izituak dire nagusi horiek; orai artino tartaroari nehor[6] ez eskapatu, eta Hamalau harendako ere nagusi!

Ifernurat igortzen dute berriz komisione baten egitera, debru zahar batera. Hamalauk erraiten du, juanen da bai, ez dela hura debru haren beldur. Egin arazten du arotz[51] bati espalakoin pare bat burdinaz, trukesa bat eta burdin barra bat. Hek [33] harturik, juaiten da ifernuko borthara. Muthil gazte bat jiten zako eta erraiten dio:

—Espaka zite[20] fite[52], zeren debru zaharra jiten bada, hemen geldi araziko zaitu. Gu ere hemen izan giutzu[19], zu bezala tronpatuak[53], eta geroztik hemen egoiten giutzu.

Elheketan[54] ari direlarik, debru zaharra arribatzen da. Ikhustearekin han Hamalau, erraiten dio:

—A, hor iza[5], Hamalau! Banian bethi hire entzutea, eta aspaldian desiratzen nuian hire ezagutzea. Bainan orai, eskuen artean beit hut[56], behar duk jakin ni nor naizen, ez duk gehiago mundua mintza araziko.

Hori erran eta lotzen da Hamalaui. Hamalauk, bere trukesekin sudurra tinkatzen dio, eta barrarekin zangoak hausten. Gero, debru zaharra kaliturik[57], etxerat turnatzen da.

Ahora, los amos ven que es inútil intentar más de (seguir intentando) hacerlo desaparecer: ¡vence a todos! Aquellas gentes, pues no tenían hijos, hicieron a Catorce su primogénito, y de allí en adelante vivieron felices.

Contado por Pierre Ithurbide (80 años).
Transcrito por el señor Jauregi, maestro de Larzabale.

Catorce acepta la partida. El tartalo no creía que hubiera en el mundo un hombre tan fuerte como él, y no tenía dudas de que seguro que le ganaría a Catorce como (si fuera) una mosca.
Pero encontró al rival más fuerte de lo que creía.
Catorce se le impuso.

Hamalauk azetatzen du partida. Tartaroak ez zuen uste hura bezein gizon azkarrik bazela munduan, eta ez zuen dudarik segurki Hamalaui irabazteaz uli bati bezala. Bainan uste baino azkarrago kausitu zuen partida. Hamalau nagusitu zakon.

Notas:

El nombre «Hamalau» recuerda la consigna (Seis, de golpe) que aparece en el cinto de «Jostun txiki ausarta». Pero la leyenda vasca es satírica. El secuestro de las vacas (después de una competición) y el bajar al infierno, se parecen a la lanza de Hércules. La lucha con el oso también hace pensar en la lucha del héroe solar con el monstruo.

Véase BARANDIARAN, op. cit. lll tomo, nº 137. BARBIER, op. cit.lll cap: nº 5 (el diablo vencido); AZKUE, op. cit. Il tomo, nº 69.

- Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 78.
Trad.J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 61 (III, 43-51) 1876-1877. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 438.

Orai, nagusiek ikhusten dute gehiago iseiatzea[48] haren gal araztera inutil dela: denak garhaitzen ditu! Jende hek, ez bait zuten haurrik, egin zuten Hamalau beren primu[58], eta handik harat urus[59] bizi izan ziren.

Pierre Ithurbidek (80 urte) kondaturik.
Jauregi jaunak, Lartzabaleko errientak, transkribatua.

Hiztegia

1 burhaso: guraso; 2 fornitu: eman; 3 laborari: nekazari; 4 bortha: ate; 5 so: begira; 6 nehon / nehor: ¡non / ¡nor; 7 alhor: soro; 8 ogi: gari; 9 heia: ea; 10 dizugu: dugu (alok.); 11 dizut: dut (alok.); 12 xerkatu: bilatu; 13 askari: gosari; 14 oren: ordu; 15 idiren: ¡doro, aurkitu; 16 samurtu: hasarretu; 17 hari: ari; 18 duz(u)ia: al duzu; 19 giutzu: gaituzu, gara (alok.); 20 zite: zaitez; 21 -draino: -ra¡no; 22 bezpeia: merienda?; 23 jin: etorri; 24 hunkitu: ikutu; 25 -ka: -tara, bila; 26 iraztorra: iratze leku; 27 -xik: -xek; 28 debarrasatu: libratu; 29 diote: die; 30 laket: atsegin; 31 ditiela: dituela; 32 demendrena: den txikiena; 33 hetan / hek: haietan / haiek; 34 orizu: aizu; 35 estekatu:lotu; 36 baizen: baizik; 37 beharri: belarri; 38 kostumatu: ohitu; 39 eskas: falta; 40 aranatu: durundatu; 41 igorri: bihaldu; 42 barraka: barra-ka; 43 deitak: didak; 44 kausitu: aurkitu; 45 zako / zakon: zaio / zitzaion; 46 gaitzitu: minberatu; 47 jalgi: irten; 48 iseiu, iseiatu: sa¡o, saiatu; 49 dako: dio; 50 estonatu: harritu; 51 arotz: erremintari; 52 fite: arin; 53 tronpatu: engainatu; 54 elheketan: hizketan; 55 iza: haiza, al haiz; 56 hut: haut; 57 kalitu: akabatu; 58 primu: maiorazgo, heredero; 59 urus: zoriontsu; 60 partida: etsai

Oharrak:

«Hamalau» izenak «Jostun txiki ausarta»ren gerrikoan agertzen den kontsigna (Kolpe batez, sei) oroit arazten du. Bainan euskal legenda satirikoa da. Behien bahiketak (lehiaketa baten ondoan) eta inpernura jausteak, Herkules-en lanekin antza dute. Hartzarekiko borrokak ere eguzki-heroea eta zeruko monstruaren arteko borrokaz pentsa arazten du.

Ikus BARANDIARAN, op. cit. lll tomo, 137 zb. BARBIER, op. cit. lll kap: 5 zb. (debrua garaitua); AZKUE, op. cit. Il tomo, 69 zb.

Hizkuntza: (a) ditu, orig. du.

Transkripzioa: (b) jalkiten, orig. jaukiten.

- Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 78. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 61 zb. (III, 43-51) 1876-1877. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 438. or.

Pelea

—Espera, tenemos que hacer una prueba, (a ver) quién de nosotros es el más fuerte.

Catorce consiente y echa al tartalo al suelo. Lo quiere matar, pero pues el tartalo le suplica que le deje (guarde) la vida, no le hace daño. El tartalo ve que no tiene bien (le aprovecha) atacarle más; así pues deja a Catorce ir tranquilo a casa.

Burruka

—Ago, behar diagu egin iseiu bat, zoin garen azkarrena.

Hamalauk kontsentitzen du eta botatzen lurrera tartaroa. Hil nahi du, bainan tartaroak othoizturik uzteko bizia, ez dako minik egiten. Tartaroak ikhusten du ez duela hoberik hura atakaturik gehiago; hortakoz usten du Hamalau trankil etxerat juaitera.

La infancia de Roldán

Roland enfant
(J.F.C.)

650A. Juan el Fuerte

El vaquero de Garrüze-Eskiula llevaba todos los años, en primavera, un rebaño de vacas con sus terneros al monte, al lado de Roncesvalles. Allí cuidaba de los terneros en los alrededores de la chabola y las vacas pacían lejos en los bosques y en algunos espinales.

Un día se da cuenta que de que un ternero está enflaqueciendo y que su madre llega del bosque ordeñada. En los días siguientes también (la misma cosa. Va detrás de la vaca) para ver qué milagro pasa.

Queda asombrado al ver a un niño que, saliendo de un espinal, corre a lado de aquélla y la empieza a ordeñar. Se acercó a aquel niño, lo acarició y lo llevó consigo a la chabola.

Cuando el amo de Eskiula fue a aquella chabola con la comida, el vaquero le enseñó el niño, y le contó cómo lo cogió. El amo se lo lleva consigo a Garrüze y allí le dan el nombre de Roldán. Lo llevan a la escuela.

Era buen amigo con los otros escolares, pero cuando lo irritaban demasiado, con un golpe de dedo los lanzaba en dos o cuatro pasos al suelo.

El niño creció así. El amo entonces lo envió a aquellos mismos montes de Roncesvalles como mozo cuidador de vacas. Un día, el vaquero principal fue lejos con las vacas y le dio a cuidar los terneros a Roldán. Por la tarde, cuando regresó, descubrió a Roldán llorando.

—Unos perros rojos me han comido un ternero –le dijo Roldán.

—¿Qué perros rojos? –le respondió el vaquero.

—Ahí están, ahí, en la chabola. Y mientras andaba sin poder agarrarlos he tirado de raíz esas hayas.

Y el vaquero vio que eran unos lobos. En todo el País Vasco supieron de aquella hazaña de Roldán. Su fama se extendió, y no hablaban más que de su fuerza.

Los gentiles tenían a todo el País Vasco atemorizado, sobre todo en Izpura-Laustane, Azme-Latsaga, Jutsi-Larramendi y Larzabale-Donamaria. Roldán se encargó de hacerles guerra y echarlos. Cogió como compañeros a Olivier y Sansón.

Ganaron una gran guerra y echaron a los gentiles por los montes hacia España.

Roldán, terriblemente cansado, fue presa de una gran sed cerca de Roncesvalles. Con su gran espada, dividió en dos una roca y era (se convirtió en) una fuente. Roldán bebió mucho de aquella agua. Lo agarró un resfriado y allí mismo murió.

Así pues, Roldán tuvo como lugar de muerte el mismo que el lugar de nacimiento.

Arrolanen haurtzaroa

Roland enfant
(J.F.C.)

650A. Joan Indartsua

Garruze Eskilako unhaiak[1] eremaiten zitien[2] urthe oroz, primaderan, behi saldo[3] bat bere aretxekin[4] bortialat[5-6-7], Orreaga ondorat. Han zaintzen zitien aretxeak borda inguruneta(n) eta behiak bazkatzen ziren urrunean, oihanetan eta elhordoi[8] batzuetan.

Egun batez ohartzen da aretxe bat mehatzen ari dela eta haren ama bathia[9] heldu dela oihanetik. Ondoko egunetan ere (gauza bera. Behiaren ondotik joaten da)[a] ikhusteko zer mirakulu pasatzen den.

Estonatia[6] gelditzen da ikhustearekin haur bat elhordoi batetarik atherarik lasterka behi haren ondora juanik, batzen[9] hasten zakola[10]. Hurrantu[11] zen haur hari, karesatu zien eta berekin ereman bordarat.

Eskilako nagusia jatekoekin juan zenean borda hartara, unhaiak erakatsi zioen haurra, eta kondatu nola arrapatu zien[2]. Nagusi horrek eremaiten du berekin Garruzerat eta han emaiten dakote[12] izena Arrolan. Eskolan erabiltzen dute.

Lagun huna[13] zen beste eskolieren, bainan sobra hirritatzen zutenean, erhi[14] ukhaldi[15] batez aurdikitzen[16] zitien bizpalaur[17] urhatsetan lurrerat.

Haurra hola handitu zen. Nagusiak ordian egorri[18] zien Orreagako mendi hetarat[19] beretarat behizain muthil. Egun batez, unhai nagusia urrun juan zen behiekin eta eman zazkon[20] zaintera aretxeak Arrolani. Arratsean, itzuli zenean, arrapatu zien Arrolan nigarrez.

—Xakhur gorri batzuek jan dautade[21] aretxe bat –erran zakon [20] Arrolanek.

—Ze xakhur gorrik? –ihardetsi zakon unhaiak.

—Hor dira hor, bordan. Eta heiek ezin arrapatuz ari nintzelarik errotik aurdiki ditut phago horiek.

Eta unhaiak ikhusi zien otso batzu zirela. Heskual Herri guzian jakin zuten Arrolanen balentria[22] hori. Haren fama hedatu[23] zen, eta ez ziren mintzo haren indarraz baizik.

Heskual Herri guzia mairiek[6] ikharan zaukaten, sustut[24] Izpura Laustaneko, Azme Latsagako, Jutzi Larramendiko eta Lartzabale Donamariako. Arrolan kargatu zuten heier[25] gerla emaiteaz eta heien kasatzeaz[26]. Hartu zitien laguntzat Olivier eta Samson.

Gerla handi bat irabazi zuten eta kasatu mairiak[6] bortietan[6] aitzina, Espainian barna [27].

Arrolan biziki akhitia[28-6], egarri handi batek hartu zien Orreagako ondoan. Bere ezpata handiaz, ukhaldi bakhar, arroka bat erditik egin zien eta iturri bat zen. Arrolanek hur[29] hartarik ainitz edan zuen. Infredidura[30] batek hartu zien eta han berean hil izan zen.

Beraz, Arrolanek hil lekhutzat ukhen zien sor lekhu bera.

De allí en adelante, una vez al año, el caballo de Roldán aparece en la punta de un puente de una ciudad de España, y allí (hace) un gran relincho. Entonces los gentiles entran apresuradamente dentro de sus cuevas.

Contado por Et. Hargindegi (76 años).

El caballo de Roldán

Arrolanen zaldia

Notas:

Ver la nota del anterior. Sacar los árboles de raíz: ver «Hartzkumea» (nº 102); Orlando Furioso (cap. XXII); Pantagruel (cap. XVI).

En esta historia los mairu se parecen a las lamias, puesto que ellas serán las constructoras de hermosas casas. Las mencionadas casas de Izpura y Jutsi no son «castillos moros» pero si palacios, aunque hoy se encuentren en ruinas. Estos mairu, así como las lamias, viven en simas y en ella entran cuando oyen al caballo de Roldán. En una historia que Cerquand publico solamente en frances (Ver el suplemento, «La cólera de Sansón») las lamias ocupan el lugar de los mairu; y en la leyenda de «El palacio de los mairu» (nº 72) aparecen juntas las dos clases de «razas». En una leyenda de BARBIER (op. cit. / cap. Nº 4.) el palacio de Laustane fue construida por las lamias. BARANDIARAN hace la misma mención respecto a Larramendi de Latsaga y Jutsi (Juxue) de Izura (Azme) (op. cit. IV tomo, nº 147) Ph. VEYRIN (Le Pays Basque, Paris, 1955, pag. 235). También Laustana lo menciona, diciendo que ahora está derruido; pero que de cualquier forma, fue construido por las lamias, tanto Larramendi y Latsa, como los puentes de Ligi y Ezpez en Zuberoa. Si a los vascos se les pregunta que diferencia hay entre una lamia y un mairu, responden que estos últimos son más malos.

Topografía

- Eskila: casa, en el camino entre Donapaleu (Saint-Palais) y Garruze (Garris) (I. G.N. 122/324,7).
- Laustanea: casa de Izpura, a orillas del río Errobi; el último siglo todavía conservaba las almenas (I. G.N. 111,8/322,4).
- Latsaga: el castillo de Azme (I. G.N. 111,8/322,4).
- Larramendi: la casa de Jutsi (Juxue) (I. G.N. 110,3/325,4).
- Donamaria: la casa de Lartzabale (I. G.N. 109,6/320,1).

• Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 88.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» (IV, 114-115) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 437.

Handik hunat, urthean behin, Arrolanen zamaria[31] agertzen da Espainiako hiri batetako zubi baten phuntan, eta han irrintziri handi bat. Ordian mairiak[6] tarrapaka sartzen dira bere leizen barnean.

Et. Hargindegik (76 urte) kondatua.

Hiztegia

1 unhai: behi zain; 2 zien / zitien: zuen / zituen; 3 saldo: talde; 4 aretxe: txahal; 5 bortu: mendi; 6 -ia, -ie: -ua, -ue; 7 -alat: -rat; 8 elordoi: elorrieta; 9 bathü: jaitzi; 10 zako: zaio; 11 hurrantu: hurbildu; 12 dakote: diote; 13 hun: on; 14 erhi: atzamar; 15 ukhaldi: kolpe; 16 aurdiki: jaurtiki; 17 bizpalaur: bi edo lau; 18 egorri: bihaldu; 19 hetarat: haietara; 20 zakon / zazkon: zion / zizkion; 21 dautade: didate; 22 balentria: egitehandi; 23 hedatu: zabaldu; 24 sustut: batez ere; 25 heier: haiei; 26 kasatu: kanpora bota; 27 -n barna: -n zehar; 28 akhitu: nekatu; 29 hur: ur; 30 infredidura: hotzeria; 31 zamari: zaldi

Oharrak:

Ikus aurrekoaren nota. Arbolak errotik ateratzea: ikus «Hartzkumea» (102 zb); Orlando Furioso (XXII k.); Pantagruel (XVI k.).

Istorio honen mairuek laminen antza dute, haiek bait dira etxe ederren egileak. Izpurako eta Jutsiko aipatu etxeak ez dira «gaztelu moroak» bainan bai jauregiak, nahiz orain ondamenetan. Mairu hauek, laminak bezala, leizetan bizi dira eta hara sartzen dira Arrolanen zaldia entzutean. Cerquand-ek frantsesez bakarrik ematen duen beste istorio batean («Samsonen kolera», ikus eranskina) laminek hartzen dute mairuen lekua; eta «Mairuen jauregia» legendan (72 zb) ere elkarrekin agertzen dira bi «enda» mota horiek. BARBIER-en legenda batean (op. cit. / kap. 4. zb.) Laustaneko jauregia laminek egina zen. Gauza bera dio BARANDIARAN-ek Izurako (Azme) Latsaga eta Jutsiko Larramehdiri buruz (op. cit. IV tomo, 147 zb.) Ph. VEYRINek (Le Pays Basque, Paris, 1955, 235 orr.) ere Laustana aipatzen du, orain eroria dela esanez; dena den, laminek eraiki omen zuten, hala nola Larramendi eta Latsa, baita Ligiko eta Ezpezeko zubiak ere Zuberoan. Euskaldunei galdetzen bazaie zer diferentzia den lamina eta mairuen artean, azken hauek gaiztoagoak direla erantzuten dute.

Transkripzioa

(a) Parentesi artekoa nik gaineratu dut, zentzuaren eta itzulpenaren arabera.

Topografia

- Eskila: etxea, Donapauletik Garruzeko bidean (I.G.N. 122/324,7).
- Laustanea: Izpurako etxea, Errobi ibaieren baztarrean; joan den mendean almenak omen zituen oraino (I.G.N. 111,8/322,4).
- Latsaga: Azmeko gaztelua (I.G.N. 111,8/322,4).
- Larramendi: Jutsiko etxea (I G.N. 110,3/325,4).
- Donamaria: Lartzabaleko etxea (I.G.N. 109,6/320,1).

• Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 88. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» (IV, 114-115) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 437. or.

La infancia de Roldán

Roland enfant
(J.F.C.)

650A. Juan el Fuerte

Un vaquero de Basabürüa, mientras un verano estaba cuidando vacas en el monte, encontró a un niño recién nacido. Cría a aquel niño haciéndole mamar de una vaca, y para los cuatro años era grande y extraordinariamente listo. Le dio el nombre de Roldán.

Un día, el padrastro lo envía a la chabola del campo en busca de las vacas. Reúne las vacas en el cercado, pero no pudo llevar (reunir) un ternero con sus iguales. Al fin, al saltar una valla lo agarra por la cola, y asido por la oreja lo lleva a casa, y lo ata entre las otras vacas.

Le dice al padrastro que no ha recogido un ternero demasiado fácilmente, que ha tenido que cogerlo por la cola al saltar una valla y traerlo tirando de sus orejas. El vaquero va a ver qué ternero era y encuentra un lobo atado al abrevadero.

Se sorprende (negativamente) qué tendrá que ver con aquel niño, cuando con cuatro años era tan listo; y cuenta a los pastores de las chabolas vecinas cómo el niño le trajo un lobo al establo.

Los pastores acuerdan que deben hacer desaparecer a aquel niño, y dicen al vaquero que el día siguiente por la mañana se lo envíe a ellos a la chabola, en busca de una antorcha. Al día siguiente por la mañana va el niño a la cabaña a buscar el fuego.

Como los pastores tenían grandes perros pastores, le azuzan los tres (perros). Roldán agarra a uno por la cabeza, y pegando a los otros dos con aquél, los mata. Los pastores, asustados, le dan la antorcha muy calladamente (sin rechistar). Pero como no estaba contento con lo dado por ellos, coge un madero del fuego y se lo lleva con él.

Después de unos días, los gentiles se llevan las vacas de aquel vaquero; y ve cómo los gentiles, con las vacas delante, van hacia España. Le dice a Roldán cómo le han robado las vacas, y le muestra a los gentiles yéndose con las vacas por delante. Roldán va corriendo; atrapa a los gentiles sin ir demasiado lejos; los mata a todos y trae las vacas consigo.

Un día Roldán le dice al vaquero:

—Padrastro, veo que tienes miedo de mí y que no vives tranquilo conmigo; tienes que mandar hacer para mí una vara de hierro del grosor de una columna, ya que quieres que me vaya de aquí.

El vaquero va adonde el herrero; con el carro de vacas trae una vara de hierro del peso (máximo) que pueden tirar las vacas. Con aquella vara parte hacia España. Llega a la ciudad llamada Roncesvalles y entra como soldado en las tropas de Carlomagno.

Un día los enemigos se presentan a hacer la paz con una rama de laurel en las manos cada uno, y hecha la paz, Carlomagno fue a su campamento; sin pensarlo (esperarlo) en absoluto los enemigos se le vienen encima, y le

Arrolanen haurtzaroa

Roland enfant
(J.F.C.)

650A. Joan Indartsua

Basabürüko ülhain[1] batek, üda batez bortian[2-3] behi zain zelarik, ediren[4] zizün[5] haur sorthü berri bat. Behi bati egosk araziz hazten dizü[6] haur hura, eta laur urthetakoz handi eta estraordinari azkar züzün[7]. Eman ziozün[8] Arrolan izena.

Egün batez, aitañoak[9] igorten[10] dizü olha[11] sohoala[12-13] behien xerkha[14]. Behiak biltzen ditizü[6] xehelala[15-13], bena xahal bat ez zizün biltzen ahal lagunetarat. Gerokoz zerrailü batetarik jauzteareki hatzamaiten dizü büztanetik, eta beharritik[16] loth eta eramaiten dizü etxerat, eta estekatzen[17] beste behien arthean.

Aitañoni[9] erraiten diozü[18] ez diela[19] xahal bat aisegi[20] bildü, behar ükhen diela zerrailü batetarik jauztean büztanetik atzaman eta beharriti thiraz ekharri. Ulhaina juaiten düzü[21] zer xahal zen ikhustera eta edireiten dizü otso bat manjeteran[22] estekatürik.

Harritzen düzü zer ikhusi behar dian[19] othe haur hareki, laur urthetan hain azkar zenean; eta khuntatzen dizü olha aizoko[23] artzainer[24] nula haurrak atso bat ekharri zeion[a] barrükiala[26-13] .

Artzainek hitzartzen dizie[27] behar dutela haur hura gal erazi, eta erraiten diezü[28] ülhainari igor dizen[29] biharamen goizan olhala[11-13], sü-haziaren txerkha. Biharamen goizan juaiten düzü Haurra olhala süka[30].

Artzainek hor[31] artzanho[32] beit zuten, haxitzen[33] dietzü[34] hiruak. Arrolanek bat hartzen dizü bürütik, eta beste biak harez joz, ehaiten[35] dietzü[36]. Artzainak izitürik, ixil ixila emaiten diezü[28] sü-hazia. Bena ez beit zen hek[37] emanaz kuntent, hartzen diezü[38] -sükhübela[39] eta eramaiten berarekila[40].

Egün zunbaiten bürian[3], mairiek[3] eramaiten dietzü[34] behiak ülhain hari; eta ikhusten ditizü[6] mairiak[3] behiak aitzinean Espainialat[13] gaintitzen[41] ari. Erraiten diozü[18] Arrolani nula behiak ebasten[42] deitzen[43], eta erakusten diotzü[18] mairiak behiak aitzinean juaiten[44]. Arrolanek lasterra hartzen dizü; atzamaiten ditizü mairiak[3] net[45] hürrün gabe; oro ehaiten ditizü eta behiak berareki ekhartzen.

Egün batez Errolanek erraiten diozü[18] ülhainari:

—Aitañon, ikhusten dit[46] enetako lotsa[47] zirela eta ez zirela eneki trankil bizi; behar deitazu[48] sumer[49] baten loditarzüneko bürdün makhila bat egin erazi, ezi[50] nahi nüzü[67] juan hebeti[51].

Ulhaina juaiten düzü arotzeala[52-13]; behi orgeki[53] eta behiek thira ahal bezain phezüko bürdün makhila bat ekharten diozü[18]. Makhila hareki phartitzen düzü Espainialat. Heltzen düzü Orreaga deitzen den hiriala[13] eta Charlemagnaren tropetan soldado sartzen düzü.

Egün batez etsaiak erramü adar bedera[54] eskietan[3] presentatzen dütüzü[21] bakearen egitera, eta bakea eginik, Charlemagna bere kartielat[55-18] heltü züzün; batere phentsatü gabe etsaiak jiten[56] zietzü[57] gaina, eta sei mila gizon

matan seis mil hombres. Entonces Roldán coge la espada dada por Carlomagno, y así como un segador de hierba corta la hierba, abatía a los hombres, y mata a todos los enemigos.

Pero se cansó tanto que, debilitado por la sed, sin otro remedio estuvo (descansando) debajo de un árbol. Carlomagno llega hacia él y, viendo su sed, le dice:

—¿No sabes que tu espada tiene muchos poderes? Métela en esa gruta y te saldrá agua de la roca.

Roldán mete la espada en la gruta hasta el mango, y le sale una fuente abundante y fresca del agujero de (hecho por) la espada. Pero siendo su sed tan grande, bebió demasiado de aquella fría agua y allí mismo reventó.

Hoy en día también aquella fuente es llamada la fuente de Roldán.

Transcrito por el señor Karrikart.

ehaiten diezü[38]. Ordian Arrolanek hartzen dizü Charlemagnak eman ezpata, eta belhar epaile batek belharra muzten dian[19] bezala, egoizten[58] zitizün[5] gizonak, eta etsaiak oro ehaiten ditizü.

Bena hanbeste züzün akhitü[59], nun egarriak failitürikó[60], zühainó[61] baten pean beit zaguan ezin bestean. Charlemagna heltzen ziozü[62] eta, ikhusirik haren egarria, erraiten diozü:

—Ez dakika[63] hire ezpatak badiela photere hanitz? Sar zak harpea hortan eta jalkhiren[64] zaik[6] hur[65] harrokatik.

Arrolanek sartzen dizü ezpata ondoala[66-13] artino harpen, eta elkhitzen ziozü[62] ezpataren zilotik üthürri abondant eta fresko bat. Bena bere egarri handian hur, hotz hartarik sobera edan zizün eta han berean lehertü züzün.

Egün ere orano üthürri hura deithürik düzü Arrolanen üthürria.

Karrikart jaunak transkribatua.

Hiztegia

1 ülhain: unai, behi zain; 2 bortü: mendi; 3 -ia: -ua; 4 ediren: idoro, aurkitu; 5 zizun / zitizün: zuen / zituen (alok.); 6 dizü / ditizü: du / ditu (alok.); 7 züzün / zütüzün: zen / ziren (alok.); 8 ziozün: zion (alok.); 9 aitaño(n): ugazaita; 10 igorri: bihaldu; 11 olha: txabola; 12 soho: soro; 13 -ala(t): -ra(t); 14 xerkha: bila; 15 xehela: hesi, langa; 16 beharri: belarri; 17 estekatü:lotu; 18 diozü / diotzü: dio / dizkio (alok.); 19 dien, dian: duen; 20 aise: errez; 21 düzü / dütüzü: da / dira (alok.); 22 manjatera: aska; 23 alzo: auzo; 24 -er: -ei; 25 zon: zion; 26 barrükü: korta; 27 dizie: dute (alok.); 28 diezü: diote? (alok.); 29 dizen: diezaien; 30 süka: su bila; 31 hor: zakur; 32 artzanho: artzain zakur handi; 33 haxi(ka)tu: txakurrak akuilatu, xaxatu; 34 dietzü: dizkiote? (alok.); 35 ehain: hil, erahil; 36 dietzü: dizkie? (alok.); 37 hek: haiek; 38 diezü: die (alok.); 39 sükübel: sutondoko egur; 40 berarekhila: berekin; 41 gaintitu: iragan, joan; 42 ebatsi: lapurtu; 43 deitze: dizkiote; 44 juan: eroan; 45 net: osoki, guztiz; 46 dit (dizut): dut (alok.); 47 lotsa: beldur; 48 deitazu: didazu; 49 sumer: habe; 50 ezi: ezen, zeren; 51 hebeti: hemendik; 52 arotz: erremintari; 53 orga: gurdi; 54 bedera: bana; 55 kartie(I): kuartel, kanpamendu; 56 jin: etorri; 57 zietzü: zaizkio (alok.); 58 egotzi: lurrera bota; 59 akhitü: nekatu; 60 failitü: ahuldu; 61 zühain: zuhaitz; 62 ziozü: zaio (alok.); 63 dakika: al dakik; 64 jalkhi: irten; 65 hur: ur; 66 ondo: eskutila, kirten; 67 nüzü: naiz (alok.)

Notas:

En este relato y en las siguientes la historia se ha convertido en leyenda. Roldan es un niño vasco; y su prodigioso nacimiento anuncia un héroe solar, pero también tiene una similitud con algunos personajes históricos (con el rey Ziro de Persia, con Rómulo de Roma), o con Orlando Furioso, de ARIOSTO.

Las proezas escolares de Roldan (Ver el siguiente relato, nº 104) y las de frente a los grandes perros, las hemos encontrado en la niñez del héroe Cûchulainn de Irlanda (J. MARKALE, L'épopée celtique d'Irlande, Paris, 1979). Véase también «Jean de l'ours» (en Melusine, 110); DASENT, «La ceinture bleue»; Pantagruel, XXIX.

El bastón de hierro: la niñez de Cûchulainn; GRIMM, «Le jeune géant»; RALSTON, «Ivan Cendrillon».

La decisión de los pastores: GRIMM, «Le Jeune géant»; «Hamalau» (nº 101).

Es interesante la explicación que se da en este relato sobre la lucha de Roncesvalles, que es la consecuencia del robo de una vaca: es sin duda una de las muchas que pueden ocurrir entre lboyeros de los Pirineos; es preciso mencionar que las más célebres epopeyas de Irlanda (Tain Bô Cualnge = Ataque de bueyes de Cualnge) tuvieron por causa la misma historia.

En lo referente a los mairu, está claro que los vascos creyeron por largo tiempo en la interpretación del poema «Chanson de Roland», es decir que fueron los mairu los vencedores de Roldan, y no los vascos.

Oharrak:

Kondakizun honetan eta hurrengoetan historia legenda bilakatu da. Arrolan euskal haur bat da; haren jaiotzaren miresgarriak eguzki-heroea iragartzen du, baina pertsonai historiko batzuenaren antza ere du (Ziro Pertsiako erregearena, Romulo Erromakoarena), edo ARIOSTOren Orlando Furiosorena.

Arrolan haurraren balentriak eskolierren (ikus hurrengo kondakizuna, 104) eta zakur haundien aurrean, Irlandako Cûchulainn heroearen haurtzaroan aurkituko ditugu (J. MARKALE, L'épopée celtique d'Irlande, Paris, 1979). Ikus ere «Jean de l'ours» (in Melusine, 110); DASENT, «La ceinture bleue»; Pantagruel, XXIX.

Burdinezko makila: Cûchulainn-en haurzaroa; GRIMM, «Le jeune géant»; RALSTON, «Ivan Cendrillon».

Artzainen erabakia: GRIMM, «Le Jeune géant»; «Hamalau» (101 zb).

Interesgarria da ipuin honetan Orreagako borrokaz ematen den azalpena, behi lapurketa baten ondoria dela: dudarik gabe Pirenetako unaien artean askotan gertatu direteken bezalakoa; esan behar da Irlandako epopeia ospetsuenak ere (Tain Bô Cualnge = Cualnge-ko idien razzia) kondatzen duen borroka luzeak, arrazoin bera izan zuela.

Mairuei dagokienez, argi agertzen da euskaldunek luzez sinestu dutela «Chanson de Roland» poemaren interpretazioa, Roland-en garaileak mairuak -eta ez euskaldunak- izan direla, alegia.

Topografía

- Basabürü: Parte montañosa del límite de Zuberoa.
- Arrolanen üthürria: no lo he encontrado.

• Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa, pág. 86.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» (IV, 116-117) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 437.

Transkripzioa

(a) zion, orig. zon; (b) zaik, orig. aic.

Topografia

- Basabürü: Zuberoko muga ondoko alde menditsua.
- Arrolanen üthürria: ez dut aurkitu.

• Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 86. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» (IV, 116-117) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 437. or.

Samsonen kolera

Sanson furieux

(J.F.C.)

650A. Joan Indartsua

Samsonek bere kusia Arrolanen behiak pazkatzen zituen Donaixtiko mendietako alagietan. Behi haietarik bat Arrolanen «inudea» zen.

Udaberriko egun batez behiak alatu eta, bide luzeak akiturik, arbola baten gerizan etzan zen Samson. Laster lokartu zen, behiez ahantzirik. Bainan laminak barrandan ziren; tropaka heldu ziren, behiei kebestru ezarri eta berekin eraman zituzten urrunera, gostuan jateko.

Iratzartu zenean behirik ez ikustean, kolera bizian jaiki zen Samson. Mendiz mendi, ibarrez ibar, ikaragarriko lasterrean joan zen oihaneko bazter desertueneraino. Han hartzak bizi ziren, inork uhertzen ez zituelarik. Samsonek, koleraz eroturik, behitzat hartu zituen, denak elgarri estekatu eta olara eraman; hura izan zen arramantza, hartzak jazartu nahiz, orroka eta ausikika, kordatik tiratzen. Hezitzeko- Samsonek pago bat errotik atera eta hartaz jotzen zituen; horrela olaraino eraman eta han sar arazi zituen.

Biharamenean Arrolan jin zen bere inudea ikusteko irrikaz; eta harriturik geratu zen, harengatik behiek egiten zituzten marruma eztien lekuan, hartzen orugu eta begi odoltsu izigarriak atxematean. Berehala deitu zuen Samson, ea zer zen hori. Baina hura ez zen deusetaz oroit, bakarrik menditik behiak , ekarri zituela.

Orduan Arrolan azti batengana joan zen. Harek esan zion laminek zituztela behiak hartu eta haietaz asekatzen ari zirela. Haiengana jo zuen Arrolanek, eta tripa bestaren erdi erdian harrapatu zituen. Denak lehertu zituen, emazte ala haur berdin, harrika.

Geroztik ez da gehiago laminarik Pirenetan.

• Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 141 or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 83 zb. (IV, 119-120) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

Hamalaur (Catorce)

(W.W.)

650A. Juan el Fuerte

(Este cuento también pertenece al tipo 330. El herrero engaña al diablo)

→ Ver el texto en la pág. 158.

Hamalaur

(W.W.)

650A. Joan Indartsua

(Ipuin hau, 330. Arotzak deabrua engainatzen du motan ere sailkatzen da)

→ Ikus testua 158. or.

Episodios de cuentos

Caballos, perros y pájaros

"Pleamar, poema del Atlántico", 1921-1922. Néstor Martín Fernández de la Torre.

El pez y el anillo

Éste le pide al pez de antes que por favor le ayude. Se le aparece el pez; le dice que, él por lo menos, no lo ha cogido; sin embargo puede que sus amigos lo hayan encontrado. Aparece un viejo pez muy brillante, con un hermoso anillo en la boca. Se lo da al pez del que estamos hablando y éste se lo da al instante al joven.

Arraina eta eraztuna

Hunek othoizten du leheneko arraina, othoi balia dakion.
Arraina agertzen zako; erraiten dio harek bederen ez duela hatxeman, hargatik baditekela haren lagunek idiren duten. Jin arazten ditu denak.
Agertzen da arrain xahar bat argi argia, erhaztun eder bat ahoan.
Erremetitzen du erran delako arrainari eta hunek emaiten du ixtantean gizon gazteari.

Un pájaro mágico

En cierta ocasión éste supo que un rey tenía un mirlo blanco, el cual devolvía la vista.

Ilustración de Lainez para "Xorinoa kaiolan" de Larralde.

Txori magikoa

Jakindu zuen egun batez bazuela errege batek xoxo xuri bat zeinak bista ematen beitzuen.

"El pájaro de fuego". Kandinsky.

Txoriaren kantua ikasi

Eta arribatzen da seme hura. Bere aitak kusian galdez heia zer ikhasi duen eskolan:

—Hori, aita: xori kanta.

—A ene semea, xori kanta! Xori kanta! Zato, zato enekin untzian.

Eta ereman zuen.

Aprender el canto del pájaro

Y cuando llega el hijo su padre enseguida empieza a preguntarle qué era lo que había aprendido en la escuela:
—Padre, esto he aprendido: el canto del pájaro.
—¡Ya! ¡Hijo mío, hijo mío! ¡El canto del pájaro! Ven, ven conmigo al barco.
Y se lo llevó.



"Pajarero". Beorlegui.

Ipuinetako gertakizunak

Zaldiak, txakurrak eta txoriak

Caballo mágico

Le dio el amo un caballo blanco; que fuera encima del caballo blanco, y que le llevaría el caballo blanco al lugar que necesitaba.

Zaldi magikoa

Eman zion nausiak zaldi xuri bat; goan zadila zaldi xuriaren gainean, eta eremanen zuela, zaldi xuriak, behar zuen lekurat.

Jinete. Yo también paseaba, en aquel tiempo, joven y alegre con un hermoso caballo.

Zalduna. Ni ere, denbora hartan, gazte eta alegera zaldi ederrarekin, promenatzen nintzen.

Perros

El cazador azuzó contra él sus perros.

Los canes le arrancaron cuatro cabezas y el cazador con su arma las otras tres. Así quedó muerto el monstruo.

Txakurrak

Baitta motillek zákurrek axâtu.

Bi zákurren artan lau buru kendu ementziotzên, eta eiztárik bê eskupetêkiñ besta iruek begiz. Artan iraunsuegea akâtuta geatu ementzan.

Lobo

Esta vez le llega un lobo. Lo mismo que al oso, lo agarra de las narices, lo tira al suelo y le retuerce el cuello.

Otsoa

Heldu zaio berritz otso bat. Hartza bezala hartzen du sudur mizpiretarik, botatzen du lurrerat eta lepua bihurtzen dio.

Transformaciones mágicas

Por el poder de su vara el animal se convirtió en agua, el chico en pez y la chica en pescador.

Antzaldaketa magikoak

Beren xaharoaren berthutez aberea jarri zen hur, muthikoa arrain eta nexkatoa arrantzale.

"Los corceles de Neptuno". Walter Crane.

653. THE FOUR SKILLFUL BROTHERS

•

653. CUATRO HERMANOS HÁBILES

Cuatro huérfanos y un bien

(J.M.B.)

653. Cuatro hermanos hábiles

En una casa quedaron huérfanos cuatro hermanos. Su padre, al morir, no les dejó como herencia más que un pan.

Los cuatro decidieron salir al mundo a buscar su pan.

Partieron de casa y, al llegar a una encrucijada, se dijeron:

—Hemos de partir este pan en cuatro pedazos y hemos de separarnos hacia cuatro lados: a los siete años, tal día como hoy, a las dos de la tarde, hemos de volver aquí.

Partieron, pues, cada cual por su camino.

Andando por su camino, uno de los huérfanos encontró a un hombre que era astrónomo.

Éste le preguntó:

—¿A dónde te encaminas, muchacho?

—Somos cuatro hermanos y, al quedarnos huérfanos, como el padre no nos dejó de herencia más que un pan, hemos salido al mundo, cada uno buscando su pan.

—Yo soy astrónomo. Si te gusta mi oficio, te daré de comer.

—Sí, me gusta.

Así quedó con el astrónomo.

El segundo huérfano encontró a un sastre.

—¿A dónde vas, jovencito? –le preguntó el sastre.

—Somos cuatro huérfanos que hemos quedado con sólo un pan como herencia que nos dejaron nuestros padres. Yo voy a ganar mi pan.

—Yo te daré el pan y te enseñaré mi oficio si te gusta –le dijo el sastre.

—Sí, me gusta –le contestó y se quedó con él.

El tercer hermano encontró a un cazador.

—¿A dónde vas, joven? –le dijo el cazador.

—Somos cuatro hermanos y, como hemos quedado huérfanos, voy a ganar mi pan.

—Yo te daré pan, si quieres aprender mi oficio –le dijo el cazador.

—Sí, me gusta.

Y el tercer huérfano se quedo con el cazador.

653. LAU ANAIA TREBEAK

Lau umezurtz eta ondasun bat

(J.M.B.)

653. Lau anaia trebeak

Munduan beste asko lez, lau anaie umezurtz geatu zirean. Aitek, il zan denporan, ogi bet baño ez eutzien itxi laureri.

Akordau yakien yoan bear enriela euren ogie irabazten.

Urten euren etxetik eta bidekurutz batera allegau zireanean, arkali esa' eutzien:

—Ogi au lau zati egin eta ementxe partidu egin beaiuk lau lekutara: emendik zazpigarren urtean gaurko egunez ordubitarako onaxe etorri bear dogu.

Urten euen bakotxak bere bideti.

Batek topau euen astronomo bat.

—Nora ator, mutil? –preguntan eutzen astronomoak.

—Ba lau anai izan gara eta umezurtz geaturik, aitak ogi bat baño ez euskun itxi, eta onantxe bakotxak bere ogia topetan gabis.

—Ni astronomoa naz eta nire bearlekue gustetan baiatzu, yaten emongo deutzut.

—Bai, gustetan yat.

Eta alan beragaz geratu zan.

Bigarrenak sastre bat topau eban.

—Nora zoaz, umetxoa? –preguntau eutzen sastreak.

—Ba lau anai gara, eta aita ta ama il ein yakus eta, neure ogie irabaztera.

—Neuk emongotsut ogie eta ofizioa erakutsi, gustetan baiatzu.

—Bai, gustetan yat.

Eta a be bertan gelditu zen.

Irugarrenak kazari bat topau eban.

—Nora zoaz, semetxoa? –preguntau eutzen kazariak.

—Ba lau anai gara, eta umezurtz geratu gara eta, neure ogie irabaztera noa.

—Neuk emongotzut ogie, neure ofizioa ikasi gura badozu.

—Bai, gustetan yat.

Eta an gelditu zan beragaz.

El cuarto hermano encontró a un ladrón en el camino.

—¿A dónde vas, jovencito? –le dijo el ladrón.

—A ganar pan, pues se nos han muerto el padre y la madre.

—Si quieres yo te enseñaré el oficio que tengo.

—¿Qué oficio?

—Yo soy ladrón y yo te enseñaré a robar.

—Eso no me gusta. A nuestro padre y a nuestra madre les oía que esa costumbre es mala.

—Aun cuando yo te lo enseñe, si quieres robarás y, si no, no. Aprendiendo el oficio, podrías coger cosas que no tienen dueño.

—Si así es, lo aprenderé.

El cuarto huérfano quedó, pues, con el ladrón.

Laugarrenak lapur bat topau euen bidean.

—Nora zoaz, semetxoa? –preguntau eutzen.

—Ni neure ogie irabazten, aite ta ama il yataz-da.

—Ba zeuk gura badozu, nik neuk daukadan ofizioa erakutsiko dotzut.

—Ze ofizio deuko ba?

—Ni lapurra naz, eta nik lapurretan erakutsiko deutzut.

—Orixe etxat gustetan-ba. Neure aitek eta amak orixe ekandu ori txarra dala esaten eustien-da.

—Nik erakutsi arren, zeuk gura badozu ostuko dozu, eta ezpabe ez. Ikixi ezkero, iñok jauberik ez deukien gauzak ostu zeinkez.

—Olan bada, orduen ikasi eingo dot.

Alan, bertan gelditu zen.

En el año séptimo se reunieron los cuatro huérfanos en el sitio convenido. Y empezaron a contar sus andanzas.

Al primero le preguntaron:

—¿Tú qué has hecho?

—Yo he aprendido el oficio de astrónomo. Y el amo me ha dado un aparato para ver todas las cosas que yo quiera.

—¿Qué has hecho tú? –le preguntaron al segundo.

—Yo he aprendido el oficio de sastre. Mi amo me ha dado una aguja con la que coso cualquier cosa.

—Y tú ¿qué has hecho? –preguntaron a tercero.

—Yo he aprendido a cazar y el amo me ha dado una escopeta que mata todo lo que apunta.

—¿Y tú? –le preguntaron al cuarto.

—Lo mío apenas puede decirse.

—¿Qué te impide, pues, decirlo, aun cuando seas ladrón? –le dijo el astrónomo.

—Es precisamente eso lo que he aprendido.

El hermano astrónomo les dijo:

—Ahora debiéramos hacer una cosa. Un dragón ha secuestrado la hija del rey. Este ha dicho que quien le traiga su hija será rey. Yo sé dónde está.

—Si yo supiera dónde está ya la robaría – dijo el ladrón.

—Si yo veo al dragón, le mataré –dijo el cazador.

Le dijeron al sastre los tres que esperaban tomar parte en aquella nueva aventura.

—Puesto que tú también eres hermano nuestro, ven con nosotros, pues hace tiempo que no hemos estado juntos, no es justo que nos separemos tan pronto.

Los cuatro se dirigieron luego al palacio real.

El astrónomo dijo al rey que él sabía dónde estaba su hija; pero que, siendo necesario ir por mar, era precisa una embarcación para liberar a la secuestrada y traerla.

El rey les proporcionó un barco y en él se trasladaron los cuatro hermanos hasta la costa de la comarca donde vivía el dragón.

Zazpigarren urtean laurek batu dira esandako lekuan. Eta an asi dira euren gauzak esaten.

Batek esa' eutzen besteari:

—Ik zer egin dok?

—Ba nik astronomo ikasi. Eta uesabak emon yeustek aparato bet neuk gura doan gauza guztiak ikusteko.

—Ta ik zer egin dok ba?

—Nik sastre ikasi yoat, eta nere uesabak edozein gauza yosten dauen orratz bat emon yeustek.

—Ik zer egin dok? –preguntau eutzien irugarrenari.

—Nik kazan ikasi yoat, eta uesabak emon yeustek eskupeta bat, apuntetan dana ilten dabena.

—Eta ik? –preguntau eutzien laugarrenari.

—Ba nirea esan be ezin leik.

—Zer yeukek ba esateko, lapurr izan-da be? –esa' eutzen astronomoak.

—Ba mutill, ortxe.

—Ba oiñ gauza bat egin bear yoguk. Erregeari alabea ostu yotxek dragoi batek, eta erregek esan yok a alabea ekarten deuena errege izango dala. Nik bayakiat non dagoen.

—Nik non dagoen banenki ostuko neuzkiok, –diñotzo lapurrek.

—Ba nik dragoia ikusten bayoat ilgo yoat, –esan euen kazariek.

—Anaie az i be bai, ta geugaz etorri adi, aspaldin ez kosak arkalegaz be egon-da, –esan eutzien sastreari.

Gero erregeagana yoan zirean.

Eta astronomoak esan eutzen erregeari berak ba-dakiela aren alabea non dagoen; baya itxasoz yoan bear dala eta barku bet bearko deuriela bera ekarteko.

Erregek, eurek gura deurien barku bet, emon eutzien.

Yon zirean barku ortan.

El astrónomo señaló al ladrón el sitio en que se hallaba cautiva la hija del rey.

—Vete, róbala y tráela aquí –le dijo.

Subió el ladrón muy silencioso y robó al dragón la cautiva.

Al tiempo en que el ladrón y la cautiva entraban al barco, se despertó el dragón y bajó hacia el barco.

El cazador le mató a tiros.

La sacudida que al morir dio el dragón al barco, lo abrió y lo puso en peligro.

Entonces el sastre tomó su aguja y compuso el barco que se hundía.

Condujeron a la hija del rey al palacio real.

El astrónomo dijo al rey:

—Habré de casarme con su hija, puesto que yo la encontré y organicé su liberación y traída.

El ladrón dijo al astrónomo:

—Yo tengo que casarme con la hija del rey, porque yo la liberé del dominio del dragón.

El cazador, a su vez, dijo a sus hermanos y al rey:

—Si yo no hubiera matado el dragón, éste os hubiera comido a todos. Por lo tanto, a mi me toca casarme con la hija del rey.

Finalmente, el sastre dijo:

—Si yo, con esta mi aguja, no hubiese reparado el barco, todos nos hubiéramos ahogado. Por lo tanto, a mí me toca casarme con la liberada.

El rey no sabía cómo acceder a los cuatro y optó por dar a cada uno de los héroes un montón de dinero.

(Contado en 1935 por Claudio de Pujana, de 59 años, de Dima).

• José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: Mitología de Pueblo Vasco II - Euskal Herriaren Mitologia II. Edit. Etor-Ostoa, pág. 419

Fuente original: J.M. de B., O.C. II, pág. 336.

Dragoia egoan inguruko itxasbazterrera allegau zireanean, astronomoak esa' eutzien lapurrari:

—An yakok, eta ostuik, geu emen egongo, gozak eta.

Joan zan lapur ori ixil-ixilik, eta ostu eutzen dragoari erregen alabe ori.

Barkura sartu zanaz batera, itxartu zan dragoia eta barku orretarantza etorri zan; baya barku ondora etorri zaneko, kazariak tiroz il euen.

Ilteko denporan emon eban astinduagaz barkua zulotu eben.

Orduen sastreak, barku ori ondatutera doiala ikusi ebanean, orratza artu-te yosi eban.

Eroan deure erregeagana alabe orri.

Astronomoak diñotzo erregeari:

—Ba orain nik ezkondu bearko dot zeure alabeagaz, neuk topau dot eta.

Lapurrek diñotzo:

—Neuk ezkondu beayoat, neuk ostu neuntzan dragoiari-ta.

Kazariak diño:

—Eta nik il ezpañoan dragoia? Danok ak yan. Neuk ezkondu beayoat ba.

—Eta nik neure orratz onegaz barkue yosi ezpañoan, danok ito eingo gintzoazen. Neuk ba ezkondu beayoat.

Erregea iñori errazorik emon ezin-da geatu zan.

Gero bakoitzari diru pilo andi bana emon eutzien.

Alan bazan, ezpazan,

Sartu zerilla kalabazan,

Eta urten deiela Durango'ko plazan.

(Klaudio Pujana, 59 urtekoak, Diman 1935ean kontatua).

• Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: Mitología de Pueblo Vasco II - Euskal Herriaren Mitologia II. Etor-Ostoa Argitaletxea, 419. or.

Jatorrizko iturria: J.M. de B., O.C. II, 336. or.

El hijo que oía voces

El niño que oía voces
(W.W.)

671. Las tres lenguas

Había una vez un hombre y su mujer como muchos otros en el mundo. Tenían muchos hijos.

Tenían un hijo al que no querían, pues decía que con mucha frecuencia solía oír una voz. Dijo también que la voz le había dicho que unos padres llegarían a ser criados (servidores) de su hijo, sin decir que se refiriese a ellos.

La madre cuando oyó eso se enfadó mucho, porque lo tomó (como dicho) para ella. Eran muy ricos. Y tenían dos criados. Aquella madre dijo a estos criados que debían ir con el hijo, y que tenían que matarlo y para traerle (que le trajeran) su corazón.

Al día siguiente, le dice a su hijo que tiene que ir a pasear a tal sitio con los criados, y que puede quedarse hasta el mediodía. El chico va todo tranquilo con sus criados. Cuando han andado un buen trecho, los dos criados empiezan a discutir.y se enfadan de ganas (mucho). Se acerca (el chico) y ve cuál es la discusión entre ellos: uno quiere matarlo, y el otro no. Empiezan a pegarse y el que no quiere matarle vence, y dicen que matarían un perro grande que tenían con ellos y que llevarían el corazón de éste a la mujer.

Para cuando llegaron los criados, la madre se encontrada arrepentida y nuestro joven señor ya iba recorriendo mundo.

* * *

Cuando marchaba así piensa (habla con su cabeza) que tiene que ir a Roma(1). Se encuentra con dos hombres. Y éstos le dicen que también ellos van a Roma y que harán juntos el camino. Éstos aprecian mucho a aquel hombre joven, pues ven que tiene algo más que los demás (algo especial).

Llega la noche, y van a una casa que estaba en medio del bosque. Preguntan por cobijo (albergue) para la noche. Le responden que sí, para entrar (que entren). Les dan de cenar muy bien y nuestro joven (personaje) señor oye una voz que le dice:

— Estáis aquí en un sitio de desgracias. Mejor os hubiera sido si no hubieseis venido.

Los otros hombres le preguntan:

— ¿Qué es, qué es?

—Nada de nada. Que mejor nos sería ir a algún otro sitio.

Cuando acabaron, los llevaron a la cama, pero nuestro joven (personaje) señor no cogía el sueño (no se dormía). Oye en medio de la noche grandes ruidos. Llegaron ladrones cargados de dinero. La mujer les dice:

—Andad suave, pues hay aquí tres hombres; uno parece rico.

Bozak entzuten zituen semea

El niño que oía voces
(W.W.)

671. Hiru mingainak

Asko munduan bezela baziren jaun andre batzuek. Bazituzten haur hañitz.

Bazuten seme bat maite ez zutena zeren erraten beitzuen aditzen zuela boza bat arras maiz. Erran zuben ere bozak erran zigoela aita ama batzuek beren semearen mutil izanen zirela, erran gabe hori hekientzat.

Amak aditu zuenean hori, hasarretu zen hañitz, hori beretzat hartu eta. Aberatsak ziren hañitz. Bazituzten bi mutil. Erraten diote ama harek bere mutil hekieri behar zutela gan semearekin eta hil behar zutela eta haren bihotza ekhartzeko.

Biharamunian erraten diote bere semeari gan behar duela bere mutillekin holako tokitarat pasaiatzeko, badagokela egun erdi arte. Mutiko hura badoha trankilki bere mutillekin. Bide puska bat egin dutenian bi mutillak hasten dire hizka eta hasarretzen dire gogotik. Urbiltzen da hekienganat eta ikhusten du zer den hekien makhurra: batek nahi zuen hil eta bertzeak ez. Hasten dire kolpeka eta hil nahi ez zuenak garraitzen du eta erraten dute, hilen dutela berekin zuten zakhur handi bat eta eremanen zutela haren biotza andre hari.

Mutillak ethorri orduko ama hura urrikitan sartua zen eta gure jaun gaztea bazuan munduz mundu.

* * *

Hala zohalarikan egiten du bere buruarekin gan behar duela Erromarat. Errekontratzen ditu bi gizon. Erraten diote heiek ere Erromarat duatzila eta egiñen dutela bidea elkharrekin[1]. Maitatzen dute gizon gazte hura hanitz zeren ikhusten beitute baduela zerbeit bertzek bañion geihago.

Gaba ethorri eta badohazi oihan tartean zen etxe baterat. Galdetzen dute gab artako lehiorra. Erraten diote baietz, sartzeko. Ematen diote ederki afaiterat eta gure jaun gazteak aditzen du boza zeñek erraten beitio:

—Toki malurusean zaizte hemen. Obe zindukete ez baziñete ethorri.

Bertze gizonek erraten diote:

—Zer da? Zer da?

—Deusikan ez! Obeko ginduela bertze norapeit gan.

Finitu zutenean ematen dituzte ogerat, bañan gure jaun gaztea ez zen lokartzen. Aditzen ditu gabaren erditan arrabots handiak. Ohuñiak heldu ziren diruz kargaturik. Emazteak erraten diote:

—Egizue batxe, baitaude hemen hiru gizon, batek iduririk aberatsa.

Nuestro joven (personaje) escucha a éstos, despierta a sus compañeros y saltando por la ventana se escapan.

Aditzen du hori gure jaun gazteak, iratzar arazten ditu bere lagunak eta egiten dute leiotik salto eta badohazi ihesi.

Corren durante todo el día. Cuando llega la noche van a una hermosa casa. Preguntan por un albergue para aquella noche. Les dicen:

—De buena gana (os lo daríamos), es cierto, pero no descansaríais mucho. Tenemos una hija que durante estos últimos siete años está gritando día y noche.

Los compañeros del joven señor le dicen a éste:

— ¿Y no la curaras tú?

Les dice que tratará de hacerlo.

Eran muy ricos (los de esa casa). Cuando se curó, aquel pobre padre le dice:

—Señor, ahora es usted el amo de esta casa. Mande y se hará lo que usted quiera.

Nuestro joven (personaje) les agradece mucho y les dice cómo va a Roma y que no dice (no puede decir) lo que hará después.

Aquella mujer joven tenía un anillo en el dedo. El padre parte aquel anillo por la mitad, y le da una mitad.

Se van y llegan de día cerca de Roma. Y cuando se acercan ellos, las campanas empiezan a repicar por ellas mismas. Todas las gentes salen.

—¿Quién es? ¿Qué pasa? Parece que ha llegado el Papa.

En esto, cogen al joven (personaje) señor y le hacen Papa.

Kurritzen dute orañion egun guzia. Gaba etortzen denian badohazi etxe eder batetarat. Galdetzen dute gab hartako ostatua. Erraten diote:

—Gogotik, segurki, bañian ez zirezte hañitz pausatuko. Badugu alaba bat zazpi urte huntan gabaz eta egunaz marrakaz ari dena.

Gizon heiek erraten diote jaun gazte hari:

—Ez duzu bada zuk sendatuko?

Erraten diote ensaiatuko zela.

Aberatsak ziren hañitz. Sendatu zenian aita gaizo harek erraten dio:

—Jauna! Zu zare orai etxe huntako nausia. Mana zazu eta egiña izanen da zuk nahi duzuna.

Gure jaun gazteak erremesiatzen du hanitz eta erraten diote nola Erromarat duan eta ez duela erraten gero zer egiñen duen.

Andre gazte harek bazuen erreztun bat erhian. Aitak pikatzen du erreztun hura erditik eta ematen diote erdi bat.

Badohazi eta luzian arribatzen dire Erromatik urbil. Eta hekiek urbiltziarekin, ezkillak abiatzen dire bere beitarik errepikan. Jende guziak atheratzen dire:

—Nor da? Zer da? Aita Saindua heldu bide da.

Hartzen dute gure jaun gaztea eta egiten Aita Saindu.

* * *

La madre del joven señor estaba cada vez más triste. Adelgazando y consumiéndose no se le podía reconocer. No le había dicho nunca a su marido qué había hecho, pero le consultó al marido que quería ir a Roma y le dice la barbaridad que había cometido y que cree que allá será perdonada. A ver si quiere seguir con sus dos criados, que también ellos han cometido un pecado.

Llegan a Roma. Era tanta la pena y el dolor de corazón de aquella pobre madre, que quiso hacer su confesión en medio de la iglesia de Roma, alto alto (diciéndolo en voz muy alta). ¡La suerte! (Lo que es la suerte) Su hijo se encontraba en la iglesia. Cuando ha oído eso, ya va con los brazos abiertos y a los brazos de su madre mientras le decía:

—Te perdono. Yo soy tu hijo.

De felicidad y alegría el padre y la madre allí mismo quedan muertos. Hace que le lleven los dos criados a su casa.

Y al que no quiso matarle le da la mitad del anillo de aquella joven dama. Y se casó con aquélla, y vivieron felices en medio de riquezas.

Al otro criado, a aquél que le quiso matar, le dijo que se fuera al monte a hacer de carbonero. Y siempre está allí haciendo carbón. Y este carbón que estás viendo, lo he traído de aquél (carbón).

* * *

Ama, jaun gaztearena, gero eta tristeago zuan. Meatuz eta iraungituz, ezin ezagut ziteken. Ez zigoen behin ere erran bere senarrari zer egin zuen, bañian galdatu zigoen senarrari Erromarat gan nahi zuela eta erraten dio zer izigarrikeria egin duen eta han uste duela izanen dela barkatua. Iyan nahi duen segitu bere bi mutillekin, heiek ere egin dutela bekatu.

Arribatzen dire Erromarat. Ama gaxo harek halako pena zuen eta bihotz miña non, nahi izan zuen bere kobesigua egin Erromako elizaren erdian, gora gora. Suertea! Semea elizan gertatzen zen. Aditu duenian hori badoha besuak zabaldu eta amaren besotarat erraten zigoelarikan:

—Barkatzen zaitut. Ni naiz zure semea.

Loriaz eta bozkarioz aita eta ama hiltzen dire han berian. Bi mutillak ereman arazten ditu bere etxerat.

Ematen dio hil nahi ez zuen hari andre gazte haren erreztunaren erdia eta harekin ezkondu zen, urus bizitu aberastasunen erdian.

Beste mutil, hil nahi zuen hari, erran zigoen zuala mendirat ikhazkin egiterat eta bethi han hari da ikhatz egiten. Eta ikhusten duzun ikatz hau harenganik ekharria dut.

Hiztegia

1 garraitu: garaitu; 2 urriki: erruki; 3 ohuñia: ohoina, lapurra; 4 batxe: baratxe, poliki; 5 bere beitarik: bere baitarik, iñork eer egin gabe; 6 iraungi: itzali, emeki emeki hil; 7 kobesigua: bekatuen aitormena.

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Este es un curioso testimonio de un práctica muy antigua. Los vascos denominan a «La Féte Dieu», el «Día del Corpus Christi», con el nombre «Phestaberria», «La Fiesta Nueva», aunque fue instituida en el siglo XIII.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 185.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 137.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. znb.

(1) Hau, berriz, oso antzinako praktika baten testigantza bitxia dugu. Euskaldunok «La Féte Dieu», «Corpus Christi eguna»-ri, «Phestaberria» izenez deitzen diote, XIII. mendean sortua izan bazen ere

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 185. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 137. or.

El joven escolar

El joven escolar
The young schoolboy
(W.W.)

671. Las tres lenguas

Había una vez un matrimonio que tenía un hijo. Tenía este hijo un padre que era capitán de barco y su madre le mandaba al hijo siempre a la escuela.

Cuando el padre llegaba a casa le preguntaba si había aprendido mucho en la escuela. La madre respondía:

—No gran cosa.

El padre sigue todavía partiendo en barco. Y cuando volvió por segunda vez:

—¿Hijo mío que has aprendido en la escuela?

El hijo no le responde nada. Pregunta éste a la madre si éste no aprendía nada. Así marchó el capitán a preguntar a su director si su hijo no aprendía nada. Éste le responde:

—Me es imposible hacerle entrar nada a ese en la cabeza.

Y cuando llega el hijo su padre enseguida empieza a preguntarle que era lo que había aprendido en la escuela:

—Padre, esto he aprendido: el canto del pájaro.

—¡Ya! ¡Hijo mío, hijo mío! ¡El canto del pájaro! Ven, ven conmigo al barco.

Y se lo llevó.

Marchaban por el camino cuando a proa llegó un pájaro que empezó a trinar.

—Ven hijo mío, ven ya. Como has aprendido el lenguaje de los pájaros en lugar de los estudios para capitán, sabrás decir ahora qué canta este pájaro.

—Sí padre, dice que ahora soy tu subordinado, pero que llegará un día en que dependerás de mi.

¿Saben que hizo entonces aquel capitán? Cogió una barrica, le quita la tapa y allí dentro mete a su hijo. Tapa de nuevo la barrica y lo tira al agua. Hasta que un golpe de ola lo lanzó a la orilla del mar.

Eskolia gaztea

El joven escolar
The young schoolboy
(W.W.)

671. Hiru mingainak

Behin batez bazien jaun andre batzu. Bazuten seme bat eta aita zuen untzietako kapitaina eta seme hura bethi egortzen zuen bere amak eskola hartzerat.

Aita arribatzen zenian galdetzen zioen bere semiari heia hainitz ikasi zuen eskolan. Amak errepusta:

—Ez gauza handirik.

Eta oraino bere aita partitzen da untzietan. Bigarren aldian ethorri zenian:

—Ene haurra zer ikhasi duzu eskolan?

Haurrak jeus errepustarik. Bere amari galdetzen dio ez duen fitsik ikhasten. Kapitaina badoha haren nausiari galdetzerat heia haren semeak ez zuen jeus ikhasten. Ihardesten dio:

—Fitsik ez dut posible horri buruan sar araztea.

Eta arribatzen da seme hura. Bere aitak kusian galdez heia zer ikhasi duen eskolan:

—Hori, aita: xori kanta.

—A ene semea, xori kanta! Xori kanta! Zato, zato enekin untzian.

Eta ereman zuen.

Bidian bazohazilarik heldu zaiote untziaren muturrerat xori bat kantuz ttirrittitti.

—Ene semea, zato ja, zato ja, kapitain eskola hartzeko partez ikhasi baituzu xori kanta, orai badakizu horrek zer kantatzen duen.

—Bai aita, orai zure azpiko naizela, bainan oraino zu izanen zarela ene azpiko.

Zer iten du kapitain harek? Hartzen du barrika bat, khentzen dio burua eta ematen du bere semea haren barnian.

Barrika tapatu eta botatzen du urerat eta tirain kolpe batek botatu zuen itsaso bazter baterat.

Resulta que un rey se encontraba a la orilla del mar y encontró una barrica. Va en busca de unos hombres. Éstos empiezan a golpear la barrica queriendo partirla. Y el muchacho dice desde el interior:

—¡Eee, más despacio! ¡Más despacio! Que aquí dentro hay gente que vive.

Abren la barrica y sale el muchacho de ella. El rey lo lleva a casa y éste se casó con la hija de este rey.

En cierta ocasión, un fuerte viento agarra el barco del padre capitán. Entonces una fuerte oleada despidió al capitán a la orilla del mar.

Éste se dirige a la casa de aquel rey y ve a su hijo. El hijo conoció al momento a su padre, pero éste no le reconoció en nada a su hijo. Y de este modo se encuentra subordinado a su hijo.

Y éste le dice un día:

—¿Me reconoces, sabes quién soy?

—No señor.

—Yo soy tu hijo, aquel que en cierta ocasión arrojaste al mar en una barrica.

Y padre e hijo vivieron juntos en adelante.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 69.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», pág. 136.

Errege bat gerthatzen da itsaso hegian eta atzematen du barrika bat. Badoha gizon batzuen bilha. Hasten die hautsi nahiz eta mutiko harek barnetik:

—Pulliki! Pulliki ee! Jende biziak badie barne huntan.

Bere barrika idekitzen dute eta mutiko hura handik atheratzen da. Errege harek erematen du bere etxerat eta esposatu zen errege haren alabarekin.

Eta egun batez mutiko haren aita kapitainaren untzia hartzen du haize borthitz batek. Kapitain hura orduan tirain korte batek botatu zuen itsaso bazterrerat.

Badoha errege haren etxerat eta ikhusten du bere semea. Semeak aita ezagutu zuen kusian, bainan aitak bere semea ez zuen batere ezagutu. Bere semearen mutil zagoen.

Egun batez erraten dio:

—Ezagutzen nauzu, ni nor naizen?

—Ez jauna!

—Ni naiz zure seme hulako hura, halako orduan urerat barrikan botatu ninduzuna.

Eta aita semeak elgarrekin bizi izatu zien.

Hiztegia

1 tirain: uhin, olatu.

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 69. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 136. or.

La nueva morada

Le dice enseguida que sí. Y:

—¡Pues bien (entonces)!

Nos casaremos los dos.

Se casan. Ella mostró una hermosura mayor todavía y el castillo fue para ellos.

Si bien vivieron, bien murieron.

Egoitza berria

Erraten dio berehala baietz. Eta:

—Ebien!

Biak ezkonduko gare.

Ezkontzen die. Atheatu zuen oraino tualeta ederragokua eta beren xatua berentzat izatu zuten.

Ungi bizi bazien, ungi hil zien.

676. ÁBRETE SÉSAMO

Las riquezas de Lamizulo

(R.M.A.)

676. Ábrete sésamo

Un padre, al morir, dejó dos hijos y para ambos catorce mulas, sin más bienes.

—Cuando andéis de arrieros, si oís la campana de alguna iglesia, os pido que siempre oigáis misa por mi alma.

Jamás olvidó el joven estas últimas palabras del padre. Si al llegar a un pueblo estaban tocando la campana, el más joven siempre había de ir a misa. El más viejo solía atar las mulas junto a la iglesia, pero él generalmente no entraba en ella.

En una ocasión le dijo el más joven:

—Tú no has oído misa.

Se enfadaron y al fin, hicieron una apuesta: si la misa vale más que las mulas, las catorce serán del joven; y si lo contrario, del mayor.

Andando por el camino dieron con un caballero, que resultó ser enemigo de la iglesia. Al preguntarle su opinión, pronunció estas groseras palabras:

—La misa vale mucho; valen más siete mulas.

El joven arriero tuvo que entregárselas al mayor las siete mulas. Se quedó únicamente con las alforjas, y esto gracias a su petición, que fue atendida por su hermano.

De arriero, bajó al grado de mendigo. Después de ocuparse durante el primer día en recoger mendrugos de puerta en puerta, llegó para la noche a un bosque.

Estando medio dormido, doce hombres y doce mulas salieron de un agujero. Asustado, subió sobre un árbol. A la mañana siguiente, desconfiando de la vida, entró en la cueva de aquellos hombres. ¡Qué montones de oro y plata los de allí! Abandonando allí todos los mendrugos recogidos mendigando, salió de la cueva con las alforjas llenas de dinero.

Recibido en calidad de criado en la posada del próximo pueblo, aproximadamente a los cuatro meses, viendo que era rico, le casaron con la hija de la casa. Desde aquel día encargó a sus familiares diesen limosna a todos los mendigos.

Una vez, estando comiendo, pidió limosna su hermano en la puerta. Conociendo su voz, dijo a la criada:

—Iré yo mismo; esté usted ahí.

—Muchacho, ¿tú pidiendo limosna? ¿Dónde tienes las catorce mulas?

—He perdido todas. Tú ¿cómo tienes la suerte de estar aquí?

676. IREKI SESAMO

Lamizuloko aberastasunak

(R.M.A.)

676. Ireki sesamo

Aita batek il zenean bi seme utzi zituen eta bientzat amalau mando, beste ondasunik ez.

—Mandazain zaratelarik elizaren bateko meza-ezkila aditzen baduzue, beti nire arimarentzat meza entzutea eskatzen dizuet.

Aitaren azken-itzok bein ere etzituen gazteak atzendu. Iri batera eldu ta meza-ezkila yotzen ari bazen, gaztena beti yoanen zen mezara. Zarrenak mandoak elizondoan nonbait lotzen zituen, bera ordea etzen maizenik elizan sartzen.

Bein gaztenak erran zion:

—Ik eztuk mezarik entzun.

Asarratu ziren eta azkenean apostu bat egin zuten: mezak mandoak baino yago balio badu, gazteak izango zituen amalau mandoak; bestela zarrenak.

Bidez zijoaztela, zaldun bat arkitu zuten, elizakontrakoa bera. Bere eritxiaren galdea egin ziotenean, ele itsusi ok erran zituen:

—Mezak asko balio du, zazpi mandok geiago.

Mandazain gazteak bere zazpi mandoak zarrari eman bear izan zizkion. Bakar bakarrik alforjak beretzat gorde zituen, anaiak bere eske ta gogoa on artuz.

Mandazain izatetik eskale-mailara yautsi zen. Lenbiziko eguna atez ate otondo-biltzen emanez, oian batera eldu zen gaberako.

Loak erdi arturik zedukala, zulo batetik amabi mando ta amabi gizon atera ziran. Bera ikaraturik zugatzgainera igo zen. Urbilen goizean, bere biziari etsita, gizon eken lamizulora sartu zen. ¡Ango urre eta zilarmetak! Eskean bildutako otondo guziak an utziz, alforjak diruz beterik zituela, atera zen lamizulotik.

Urrengo erriko ostatuan mutil (morroi) artu zuten ta lau bat ilabeteren buruan, aberatsa zela ikusita, etxeko alabarekin ezkondu ere bai. Egun atatik eskale guztiai limosna emateko manatu zien etxekoai.

Bein bazkaltzen zelarik, bere anaiak atean limosna eskatu zuen. Bere mintzoa (boza) ezagutuz, mirabeari esan zion:

—Nerau yoanen naiz, zaude or.

—Mutil, ¿i limosna eskatzen? ¿Non dituk amalau mandoak?

—Oro akabatu ttiat. ¿Ik nola duk emen egoteko zoria?

Le refirió entonces el rico, minuciosamente sus noticias.

A la noche siguiente se encaminó el hermano mayor hacia aquella cueva. Estando en las ramas de un haya aparecieron doce mulas y once hombres, que del interior del antro iban hacia el monte.

A la mañana, penetró él en aquel agujero. En cuanto entró, alguien le cerró la puerta, que por lo visto estaba atada con cuerda.

—No es ésta la primera vez que has venido acá –le dijo el portero.

—Sí; es la primera.

—Si no me dices la verdad, te mataré; de otro modo, vivirás.

Entonces le dijo que su hermano estuvo en aquella cueva y que estaba de hostelero en tal pueblo... En una palabra: le confesó todo lo que sabía. Allí le tenía hasta que vinieron los otros once ladrones. Éstos, a pesar de la promesa del otro, lo mataron.

* * *

Luego, los doce ladrones se fueron a la fonda del otro hermano. Once de ellos metidos en pellejos que tenían agujeros en la punta para poder respirar. El duodécimo, fingiéndose vendedor de aceite, quiso acostarse en el rastel de la cuadra. El amo no consintió, sino que dijo que se acostara en la cama.

De noche, ocupados en los trabajos los criados, dijo el criado a la criada que preparase la cena de brujas (la cena de la media noche).

—No hay aceite.

—Los pellejos que están a la entrada están todos llenos de aceite.

Diciendo:

—Voy en busca –bajó el criado a la cuadra.

Cuando echó mano del primer pellejo, alguien, desde su interior, le preguntó:

—Ea, ea, ¿es hora de ir?

—Aún no –le respondió el criado.

Al agarrar el segundo y tercer pellejo, sucedió lo mismo: los del interior preguntaban si era el momento; y el criado respondía que aún no lo era.

Éste se fue corriendo donde el amo. Trayendo los de casa la justicia a la posada, hallaron en los doce pellejos once hombres, ataron al duodécimo con cuerdas en la cama.

A la mañana siguiente, hicieron fuego en medio de la plaza y quemaron a los doce, y luego trajeron al pueblo todas las riquezas de la cueva.

Oído a una hija de Yabar.

Un cuento parecido consta también en Las Mil y una noches.

• Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 220.

Aberatsak orduan zearo bere berriak eman zizkion.

Urbilen gabean anai zarrena lamizulo artarontz yoan zen. Pago baten adarretan zagola, amabi mando ta amaika gizon agertu ziren, lamizulo-barnetik mendialdera zijoaztela.

Goizean bera sartu zen zulo artan. Barneratu zeneko, norbaitek atea ertsi zion, nonbait sokaz lotua zegoan atea.

—Eztuk au onara etorri aizen lendabiziko aldia –esan zion atezainak.

—Bai, lendabizikoa.

—Egia esaten ezpadidak, ilen aut; bestela biziko aiz.

Orduan bere anaia lamizulo artan izan zela, ain iritako ostalari dela... zekian guzia osoro aitortu zion. Beste amaika lapurrak etorriartio an zoketen. Auek, bestearen eskainia gorabêra, il egin zuten.

* * *

Gero urbilen gaubean beste anaiaren ostatura yoan ziran amabi lapurrak. Beretatik amaika, zagietan sartuta, atsa artzeko, muturrean zulotxo bat zutela. Amabigarrenak, oliosaltzaile iduriz, estrabian etzan nai izan zuen. Nausiak ezetz, goatzera yoan bear zuela.

Gauez neskato ta mutila (mirabemorroiak) lanean ari ziralarik, mutilak neskameari sorgin-afaria gertatzeko esan zion.

—Oliorik etziok.

—Sarrerako zagiak direnak olioz beterik dere (daude). Bila noaie –esanez estrabira (beitira, okulura, kortara...) yetsi zen morroia.

Lendabiziko zagiari eskua ezarri zionean, bere barnetik norbaitek

—Ots, ots, ¿yoan-garaia? –galde egin zion.

—Oraino ez –erantzun zion morroiak.

Bigarren ta irugarren zagiari oratuz ere berdin gertatu zen: barnekoak garaiä ote zen galde, morroiak garaiä oraino etzela erantzun.

Au bizkorrik nausiarengana yoan zen. Etxekoak erriko justizia ostatura ekarriz, amabi zagietan amaika gizon arkituta, amabigarrena goatzean sokaz lotu zuten.

Urbilen egunean plazan su eginda amabiak erre zituzten eta lamizulotik aberastasun guziak errira ekarri ere bai.

Yabar-eko alaba bati entzuna.

Onen antzeko ipuin bat Mila ta bat gauen artean ere bada.

• Resurreccion Maria Azkue

Gure iturria: Euskalerriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco. Euskaltzaindia eta Espasa Calpe, 220. or.



Un universo maravilloso

Unibertso liluragarria

Pulgarcito

Un matrimonio, que era muy pobre, tenía ocho hijos. El último, que se llamaba Gizon Ttipi, era el más listo de todos.

Aquel matrimonio, pues no podía vivir, acuerda que debe llevar a todos los hijos a un bosque y dejarlos en aquel sitio donde sólo había lobo y oso (lobos y osos).

Gizon Ttipi

Senhar-emazte batzuk, arras pobreak zirenek, bazituzten zortzi haur. Azkena, Gizon Ttipi deitzen zena, zen orotarik abilena.

Senhar-emazte hek, ezin biziz bait ziren, hitz hartzen dute behar dituztela haur guziak eraman oihan batera
eta utzi otso eta hartz baizik ez zen lekhu hartan.

700. PULGARCITO

El tartalo y Gizon Ttipi(1)

Le Tartare et Petit-Homme
(J.F.C.)

700. Pulgarcito

(versión de Arhansus)

Un matrimonio, que era muy pobre, tenía ocho hijos. El último, que se llamaba Gizon Ttipi, era el más listo de todos.

Aquel matrimonio, pues no podía vivir, acuerda que debe llevar a todos los hijos a un bosque y dejarlos en aquel sitio donde sólo había lobo y oso (lobos y osos).

Al día siguiente parten todos y van lejos. Cuando llegan al medio del bosque, el padre y la madre dejan a los niños y escapan ellos a casa.

Al ver que llegaba la oscuridad (noche), aquellos niños se inquietan. Gizon Ttipi sube encima de un árbol y ve una casa con una luz. Se dirigen hacia allá.

Aquella era la casa de un tartalo. Piden pasar la noche allí; pero la criada les dice que el tartalo se come a las gentes y que es mejor para ellos que se vayan de allí. Gizon Ttipi dice que se esconderán allí en un rincón; y entran.

Cuando llega el tartalo empieza:

—¡Aquí hay olor a cristiano!

La criada le dice que había ocho niños. El tartalo dice que tiene que desollar a todos para el día siguiente, y se pone tumbado en un banco.

Gizon Ttipi se da cuenta de que está dormido. Coge un asador y se lo mete por el único ojo que tiene en medio de la frente. Allí estaba el tartalo, sin poder guiarse a ningún sitio. En ese momento Gizon Ttipi hace ir a sus hermanos al aprisco, y matan ocho carneros. Luego se tapan con su piel.

Tras venir la mañana, el tartalo se dispone a sacar a los carneros. Gizon Ttipi hace pasar a sus hermanos primero, y él, habiendo cogido un cencerro, queda el último. El tartalo toca a todos al pasar, pero por la manera de sonar adivina que el último no es un carnero. Lo agarra, pero Gizon Ttipi, dejando la piel en la mano del tartalo, escapa.

El tartalo va tras él, pero no puede guiarse. Entonces grita a Gizon Ttipi, que le quiere dar una cosa valiosa. En ese momento le lanza un anillo.

Gizon Ttipi se lo pone en el dedo, pero aquel anillo gritaba:

—¡Aquí, aquí!

700. ERPURUTXO

Tartaroa eta Gizon Ttipi

Le Tartare et Petit-Homme
(J.F.C.)

700. Erpurutxo

(Arantsuseko bertsioa)

Senhar-emazte batzuk, arras[1] pobreak zirenek, bazituzten zortzi haur. Azkena, Gizon Ttipi deitzen zena, zen orotarik abilena.

Senhar-emazte hek[2], ezin biziz bait ziren, hitz hartzen dute behar dituztela haur guziak eraman oihan batera eta utzi otso eta hartz baizik ez zen lekhu hartan.

Biharamenean phartitzen dira guziak eta juaiten dira hurrun. Oihanaren erdira direnean, aitamek uzten dituzte haurrak han eta eskapatzen dira berak[3] etxerat.

Ikustearekin ilhuna heldu zela, haur hek inketatzen dira. Gizon Ttipi igaiten da arbola baten gainera eta ikusten du etxe bat argi batekin. Hara gidatzen[4] dute.

Hura zen tartaro baten etxea. Galdegiten dute gauaren han phasatzea; bainan neskatoak erraiten deete[5] tartaroak jaten ditiala[6] jendeak eta hobe dutela hanti[7] juaitea. Gizon Ttipik erraiten du gordeko[8] direla xoko batean; eta sartzen dira.

Tartaroa jin[9] denean hasten da:

—Hebe[10] bada giristino urrin[11]!

Neskatoak erraiten dako[12] nola baziren han zortzi haur. Tartaroak erraiten du behar dutela larrutu[13] biharamuneko denek, eta jarten da alkhi[14] baten gainean etzanik.

Gizon Ttipi ohartzen da lo dagola. Hartzen du gerren[15] bat eta sartzen dako kopetaren[16] erdian duen begi bakharretik. Tartaroa han zagon, nihorat[17] ezin gidatuz. Gizon Ttipik juan erazten ditu ber denboran bere anaiak barrukira[18], eta hiltzen dituzte zortzi ahari. Heien larriez[19] gero thapatzen dira.

Goiza jin ondoan tartaroa abiatzen da aharien kanporat emaitera. Gizon Ttipik, phasa arazten ditu anaiak lehenik, eta bera, juare[20] bat harturik, gelditzen da azkenik. Tartaroak hunkitzen[21] ditu denak phasatzean, bainan sonatzeko maneratik ezagutzen du ondarra[22] ez dela aharia. Lotzen zako[23], bainan Gizon Ttipi, larria utzirik tartaroaren eskuan, espakatzen da.

Tartaroa abiatzen da ondoti, bainan ez diro[24] gida. Orduan oihu egiten du Gizon Ttipiri, eman nahi dakola gauza bat baliosa. Ber denboran aurthikitzen[25] dako erhaztun bat.

Gizon Ttipik emaiten du ehian[26], bainan erhaztun harek oihu egiten ziar[27]:

—Hebe, hebe!

Y el tartalo llegaba entonces a saltos. Gizon Ttipi, viendo que va a ser atrapado, lanza el anillo al río. El tartalo fue allá corriendo y se ahogó.

Gizon Ttipi fue otra vez a casa del tartalo, y haciendo dar a la criada un saco de oro en nombre del amo, volvió a casa con sus hermanos.

Así ahuyentó toda la miseria de la casa.

La casa de un Tartalo

Aquélla era la casa de un tartalo.
Piden pasar la noche allí.

Tartalo baten etxea

Hura zen tartaro baten etxea.
Galdegiten dute
gauaren han phasatzea.

Notas:

(1) Gizon Ttipi: hombre pequeño (Nota del Traductor)

El comienzo de este cuento es parecido al de «Erpurutxo».

- Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Transcripción de Anuntxi Arana. Edit. Txertoa Argitaldaria, pág. 68.

Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» nº 55 (III, 12-14) 1876-1877. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 438.

Eta tartaroa heldu zen orduan jauzteka. Gizon Ttipik, ikustearekin arrapatia[19] izan behar duela, erhaztuna botatzen du uhaitzerat[28]. Tartaroa juan zen harat lasterrez eta itho zen.

Gizon Ttipi juan zen berriz Tartaroaren etxerat, eta eman erazirik neskatoari zaku bat urhe[29] nagusiaren izenean, etxerat itzuli zen bere anaieki.

Hola kasatu[30] zuten etxeti miseria guzia.

Hiztegia

1 arras: guztiz; 2 hek: haiek; 3 bera: bakarrik; 4 (hara) gida(tu): (hara) jo; 5 deete: die; 6 ditiala: dituela; 7 hanti: handik; 8 gorde: izkutatu; 9 jin: etorri; 10 hebe: hemen; 11 urrin: usain; 12 dako: dio; 13 larrutu: larrutuak izan; 14 alkhi: banku; 15 gerren: burduntzi; 16 kopeta: bekoki; 17 nihorat: inora; 18 barruki: korta; 19 -ia: -ua; 20 juare: zintzarri; 21 hunkitu: ikutu; 22 ondar: azken; 23 zako: zaio; 24 diro: dezake; 25 aurthiki: jaurtiki; 26 er(h)i: atzamar; 27 zian: zuen; 28 uhaitz: ibai; 29 urhe: urre; 30 kasatu: kanpora arazi

Oharrak

Ipuin honen hasiera «Erpurutxo»ren antzekoa da.

Hizkuntza

(a) ditu, orig. dute.

- Jean François Cerquand

Gure iturria: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 2. Anuntxi Aranaren transkripzioa. Txertoa Argitaldaria, 68. or.

Jatorrizko iturria: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» 55 zb. (III, 12-14) 1876-1877. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ikus Eranskina, 438. or.

Pulgarcito

(W.W.)

700. Pulgarcito

Se dice que había una vez un niño muy, muy pequeño. Se llamaba Ukhaitxo (o Baatxuri).

Un día su madre le manda a cuidar las vacas. Empezó a llover y Ukhaitxo se refugió debajo de una berza. Como éste no aparecía, su madre fue a buscarlo. No le veía por ninguna parte. Empezó a gritar:

—¡Ukhailtxo! ¡Ukhailtxo! ¿Dónde estás?

—¡Aquí! ¡Aquí!

—¿Dónde?

—¡Aquí! ¡en la tripa de la vaca!

—¿Cuándo vas a salir?

—En cuando cague la vaca.

La vaca se había tragado a Ukhabiltxo creyendo que era una hoja de berza.

(Sr. Larralde, Lesaka. Senpere 3/12/1875.)

Ukhaitxo (Tom Thumber)

(W.W.)

700. Erpurutxo

Behin omen zen muttiko ttiki ttiki bat. Izena zuen Ukhaitxo (edo Baatxuri).

Egun batez amak bihaldu zuen behizain. Uria asi ta Ukhaitxo gorde zen aza ondo baten azpian. Ukhaitxo ez ageri eta, ama Juan zen bila. Ez zuen nihon ikhusten. Hasi zen oiuka:

—Ukhailtxo! Ukailtxo! Non zara?

—Emen! Emen!

—Non?

—Emen! Behien tripa barnian!

—Noiz ateratuko zara?

—Beiak kakiten duenian.

Behiak iretsi zuen Ukaitxo ustez aza ostua zen.

(M. Larralde, Lesaka. Senpere 1875/12/3).

Notas:

Leyendas Vascas nº 33. Ediciones Miraguano.

Relatos humorísticos o satíricos escritos al estilo de los de Rabelais (N.T.).

Esta versión le fue relatada a M. Vinson, que la publicó en la «Revue de Linguistique», pág. 241. (Enero 1876). Hemos oído hablar después de una version mas larga que se preserva en Rentería, Guipúzcoa.

A éstos quizá debieran añadírseles las versiones latinas de los Dolopathos y «Gesta Romanorum» de los siglos XII o XIII.

- Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 85.

Trad. K.U. y E.A.

Este cuento no fue publicado en inglés por Webster. (Ver también 203).

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. zb.

Humorezko eta satirazko kontakizunak Rabelais-enen estilokoak (Itzul. Oh.).

Bertsio hau M. Vinson-i kontatu zioten, eta honek «Revue de Linguistique» deituan argitaratu zuen, 241. or.(1876 urtarrila). Gerora entzun izan gudu Errenterian (Gipuzkoa) jaso dela bertsio luzeago bat.

Agian hauei erantsi beharrezkoak dira XII edo XIII. mendeetako Dolopathos eta «Gesta Romanorum»-en bertsio latindarrak.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 85 or.

Webster-ek ez zuen inglesez argitaratu (begiratu 203 ere).

Perdidos en el bosque

Al día siguiente parten todos y van lejos. Cuando llegan al medio del bosque, el padre y la madre dejan a los niños y escapan ellos a casa.

Al ver que llegaba la noche, aquellos niños se inquietan.
Gizon Ttipi sube encima de un árbol y ve una casa con una luz.
Se dirigen hacia allá.

Basoan galdurik

Biharamenean phartitzen dira guziak eta juaiten dira hurrun.
Oihanaren erdira direnean, aitamek uzten dituzte haurrak han eta eskapatzen dira berak etxerat.

Ikustearekin ilhuna heldu zela, haur hek inketatzen dira.
Gizon Ttipi igaiten da arbola baten gainera
eta ikusten du etxe bat argi batekin. Hara gidatzen dute.

Mundua Mila pes

(W.W.)

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Arras aberatsak ziren. Bañian pena handi bat bazuten, haurrik ez izatea. Ari ziren bethi othoitzean Jainkoari haur bat izateko. Azkenian badute grazia hori bañian hekien haurra hain da ttikia non sortzean haren buruba heltzaur bat bezen handi baitzen. Etxeko jende guziak hartaz okupatuak ziren. Hala bizi izan zen zazpi urtetaradiño.

Egun batez mutilla bazuan idiekin landarat. Munduan-Milla-Pes-ek erraten diote gan nahi duela harek ere mutilarekin idien zaintzerat. Uzten dute gaterat. Ungi kontutzen du mutillak. Uri sorta batzuek asi eta antolatzen du aza tartetan osto baten azpian eta badoha lasterka parasol baten billa.

Heldu da lasterka gibelerat eta ez du atzematen Munduan-Mila-Pes. Hari da oiuka. Zerbitzariak heldu dire etxetik. Heiek ere ari dire oiuka bazter guzietarat, bañian nihon ez Munduan-Mila-Pes. Azetarat ethorri baitziren idiak, pensatu zuten hekietarikan batek jan bide zuela aza ostuarekin batean. Orduan haren buruba sagar mandaburu bat bezin handia zuen.

Aita eta amak peñ handian ziren eta erraten diote mutilleri hiltzeko berehala idiak. Hiltzen dituzte eta egortzen neskatxak ithurrirat tripekin. Asi direnian, ikhusten dute han dutela Munduan-Mila-Pes. Badohazi lasterka etxerat erraterat han dutela haurra. Heldu direnian gibelerat, atzematen dute tripa guziak janak ohoñ xakur batez.

Buraso gaxo hekiek ez ziren beiñere kontsolatu beren haurra galdurik.

Hiztegia

1 heltzaur: intxaur; 2 mutilarekin: orij. mutilaekin; 3 kontutzea: kontu hartzea, kasu egitea; 4 uri: euri; 5 mandaburu: sagar moeta bat.

- Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 25. or.

Jatorrizko iturria: «Le Folk-Lore Du Pays Basque», 111. or.; «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd», 191. or. (Begiratu 89 ere).

706. THE MAIDEN WITHOUT HANDS

•

706. LA DONCELLA SIN MANOS

Una reina en el bosque

Une reine dans la forêt

(J.B.)

706. La doncella sin manos

Una vez, había un hombre y una mujer ricos.

Tenían una chiquilla, a quien llamaron Maria Valentina.

La madre murió tras quince años, y el padre se casó otra vez.

Pero la segunda mujer resultó muy malvada para la chiquilla. Un día, mientras el padre estaba fuera, la malvada mujer mató un cerdo. Y luego, le dijo a su señor que Maria Valentina había matado el cerdo.

El padre le preguntó a su niña si había matado el cerdo. Ella, —¡que no!

Después de unos días, a su vez, aquella mala mujer mata una yegua, y le dice al señor que Maria Valentina ha matado la yegua.

Otra vez le pregunta a la niña, pues, si ha matado la yegua. Ella, —¡que no!

Y el padre creyó de nuevo a su hija, porque no era nada mentirosa.

La mujer, entonces, con rencor en el corazón, le dijo al señor:

—Veo ahora que todas las cosas hechas por Maria Valentina te parecen bien...

Y la mala mujer, por tercera vez, mató... a su niña, porque tenían una niña, del segundo matrimonio. Luego fue gritando adonde el señor y, como siempre, puso todas las cosas (culpas) sobre Maria Valentina.

Habiendo sido preguntada otra vez por su padre si era ella culpable, Maria Valentina le dijo que no. Pero, aquella vez, enloqueció el padre, que su hija mayor no era (capaz) más que para hacer el mal. Y, ahí, en su enfado, haciéndole poner a Maria Valentina las dos manos encima de una mesa, le corta todos los dedos de aquellas manos con un gran cuchillo. Y luego, la echa de casa, ¡que vaya adonde quiera!

¡La chica lloraba a gritos, las manos ensangrentadas, pidiendo alguna tela, por lo menos lo justo para liar las terrible heridas!...

El padre la expulsó brutalmente. Y Maria Valentina, entonces, alejándose de casa, le dijo esto al aborrecible padre:

—¡Quizás te meterás una espina por la mano, y luego no la sacarás hasta que yo regrese otra vez a casa!

706. ESKURIK GABEKO DONTZEILA

Erregina bat oihanean

Une reine dans la forêt

(J.B.)

706. Eskurik gabeko dontzeila

Behin batez, baziren jaun-andre batzu aberatsak.

Nechka bat izan zuten, Maria Balentina eman baitzioten izena.

Ama hil zen hamabortz urtheren buruan, eta berriz ezkondu zen aita.

Baina, bigarren andrea biziki gaichtoa athera zen neskatcharentzat. Egun batez, kanpoan aita zelarik, cherri bat hil zuen andre gaichtoak. eta gero, bere jaunari erran zion Maria Balentinak hil zuela cherria.

Aitak galdatu zion beraz haurrari, hean harek hil zuenez cherria? —Harek, ezetz!

Zombeit egunen buruan berriz, emazteki tzar harek hiltzen du behor bat, eta jaunari erraiten dio Maria Balentinak hil duela behorra.

Berriz ere haurrari galdatzen dio beraz aitak hean harek hil duenez behorra? —Harek, ezetz!

Eta aitak sinhetsi zuen berriz ere bere haurra, zeren ez zen batre gezurtia.

Andreak, orduan, herra bihotzean, erran zion jaunari:

—Ikusten dut orai, Maria Balentinak egin guziak ongi zaizkitzula...

Eta emazteki tzarrak, hirugarren aldian, hil zuen... bere haurra, ezen haur bat bazuten, bigarren ezkontzakoa. Heiagoraka joan zen gero jaunaren ganat, eta, bethi bezala, Maria Balentinaren gain eman zituen oro.

Aitak berriz ere galdeginik hean hobenduna hura zenez, ezetz erran zion Maria Balentinak. Bainan, aldi hartan, erhotu zen aita, tzarkeria egiteko baizik ez zela gehiago haren alaba zaharrena. Eta, hor, bere hasarrean, Maria Balentinari, bi eskuak mahain baten gainean emanarazirik, esku hetako erhiak oro pikatzen diozka, kanit handi batekin. Eta gero, egortzen du etchetik, dohala nahi duen tokira!

Nigarrez oihuka ari zen neskatcha gaichoa, eskuak odoletan, oihal zerbeiten galdez, zauri izigarrien lotzeko doia bederen!...

Abreki feratu zuen aitak. Eta Maria Balentinak orduan, etchetik urruntzearekin, hau erran zion aita higuinari:

—Elhorri bat agian sarturen duzu eskutik, eta ez gero atheraturen, etcherat ni berriz itzuli artean!

* * *

Y, arrastrándose, ensangrentada, se alejó la desdichada chica.

Va, va, (ir, ir,) siempre llorando, llega a un negro bosque por la tarde, y, en la oscuridad, cae a un gran agujero. Teniendo los dedos cortados, no podía de ninguna manera salir de allí. ¡Pues no podía agarrarse a nada! Y pasó una noche terrible allí mismo, temiendo a los animales salvajes, y mientras sufría cualquier cosa (muchísimo) por sus manos ensangrentadas.

* * *

Al día siguiente, el Rey de aquellos lugares llega a aquel bosque a cazar con sus perros.

Los perros, saltando, entran en el agujero donde estaba Maria Valentina, ¡pues no se sorprendió poco la pobre niña! Pero los perros eran mejores que el padre malvado. Le lamen las heridas amorosamente a la chiquilla, y se van...

Pero, aquel mismo día, los mozos del rey les dieron de comer a los perros y, sin coger bocado para ellos mismos, toda aquella comida se la trajeron a Maria Valentina, a aquel agujero del bosque. Y así hicieron luego todos-todos los días.

Pronto se quejó el rey, que sus perros se le estaban enflaqueciendo. Y mientras tanto, los saciaba como nunca, en su creencia...

Un mozo en algún momento le cuenta que los perros llevan siempre su comida a algún sitio.

Siguió pues el Rey a sus queridos perros... ¿Y quién se sorprendió? El rey se sorprendió, al entrar tras los perros en el agujero del bosque, ¡y encontrar en aquel agujero a una joven muchacha toda (cubierta) en sangre!...

Después de saberlo todo por (boca de) ella misma, llevó a la desdichada chica al Palacio Real. Y, después, quiso a Maria Valentina de tal manera que la hizo casar con su hijo, y se hicieron las (celebraciones de) bodas más hermosas por diez días enteros.

* * *

Al poco, por desgracia, el Rey Padre murió, y el Rey joven fue a la guerra; y su madre, pues le tenía mucho odio a Maria Valentina, desde entonces la pobre Reina fue totalmente desdichada.

Pues, en el tiempo en que el Rey estaba en la guerra, tan pronto como aquél se alejó de casa, Maria Valentina tuvo dos hijos, gemelos, que eran el uno tan bonito como el otro.

La madre le envió el mensaje al Rey inmediatamente, pero (diciendo) que, en lugar de dos niños, la Reina había tenido dos perros.

El Rey, desconfiado, le respondió enseguida: si eran perros los perros, que los criaran bien, hasta que él regresara a casa.

Pero aquella mala madre, guardando el verdadero mensaje del Rey Hijo, les dijo a sus mozos que era mandato del Rey que mataran inmediatamente a la Reina y a sus dos niños.

* * *

Eta, herrestaka, odoletan, urrundu zen neskatcha dohakabea.

Joan, joan, bethi nigarrez, oihan beltz batetara heltzen da arratsean, eta, ilhunpean, zilo handi batetara erortzen. Erhiak moztuak izanez, ez zitaken nehola ere handik athera. Deuseri ezin loth alabainan! Eta gau bat izigarria iragan zuen hantchet, basa ihizien beldurrean, eta zer nahi pairatzen zuela bere esku odolztatuetarik.

* * *

Biharamunean, toki hetako Erregea, ihizirat, bere chakurrekin, heldu da oihan hartara.

Xakurrak, jauzian, sartzen dira Maria Balentina zagon zilo handian, ez baitzen haur gaichoa guti harritu! Bainan aita gaichtoa baino hobeak izan ziren chakurrak. Neskatchari zauriak milikatzen diozkate maiteki, eta badoatzi...

Bainan, egun hartan berean, Erregeren muthilak chakurreri eman jatekoa etan, ahamenik hartu gabe berentzat, jateko hura guzia ekarri zioten Maria Balentinari, oihaneko zilo hartara. Eta, hala hala egiten zuten gero, egun guzi-guziez.

Laster kechatu zen Errege, bere chakurrak mehatzen ari zitzaizkola. Eta bizkitartean, sekulan ez bezala asetzen zituen, bere ustez...

Muthil batek hor noizpeit salatzen dio chakurrek norapeit bethi baderamatela beren jatekoa.

Segitu zituen beraz Erregek bere chakur maiteak... Eta nor harritu? Errege harritu, chakurren ondotik oihaneko ziloan sartu zelarik, eta zilo hartan neskatcha gazte bat dena odoletan kausitu zuelarik!..

Haren beraren ganik oro jakin ondoan, Errege-Jauregirat ereman zuen neskatcha dohakabea. Eta, ondoan, hala maitatu zuen Maria Balentina, non bere semearekin ezkontarazi baitzuen, eta eztei ederrenak egin ziren hamar egun osoz.

* * *

Handik laster, zorigaitzez, Errege Aita hil izan zen, eta Errege gaztea joan zen gerlara; eta haren amak Maria Balentina arras hastio baitzuen, ordutik dohakabe osoki izan zen Erregina gaichoa.

Beraz, Erregea gerlan zen denboran, eta hura etchetik urrundu zeneko, bi haur ukan zituen Maria Balentinak, biitchiak, batto bertzea bezen pullitak baitziren.

Amak berehala mezua igorri zion Erregeari, baizik eta, bi haurren orden, bi chakur izan zituela Erreginak.

Erregeak, jelosturik, ihardetsi zion berehala: chakurrak baziren chakurrak, ongi altcha zitzazten, hura etcherat itzuli artean.

Bainan ama tzar harek, Seme Erregearen egiazko mezua gorderik, bere muthileri erran zioten, Erregeren manua zela, hil zitzaten berehala Erregina eta haren bi haurrak.

¡La pena de los mozos! ¡Querían tanto a su Reina! Fueron pues con Maria Valentina y sus niños. Pero, en lugar de matar a la Reina y a los pobres príncipes, le hicieron a Maria Valentina dos grandes bolsillos en su vestido, y habiendo puesto los niños en aquellos bolsillos, mandaron a la Reina: ¡que se fuera de allí, lejos, muy lejos!

Y luego, habiendo matado allí mismo a tres de sus perros, le trajeron los corazones de aquéllos a la Reina Madre, y engañaron a ésta completamente.

* * *

En cuanto los mozos de buen corazón se alejaron, la Reina vio llegar hacia ella a dos hombres. Se asustó de nuevo, pero también se sosegó pronto, porque aquellos dos hombres eran el Señor Jesús y San Pedro, andando encima de la tierra.

Se acercó pues el Señor Jesús y, como sabía todas (las cosas), no le preguntó nada a la joven Reina, pero sí le dijo conversando cariñosamente las cosas más alentadoras del corazón. Le acarició las terribles manos, y a la Reina enseguida, allí mismo, le surgieron otra vez todos sus dedos.

Luego, habiendo levantado la mano el Señor Jesús, en medio de aquel bosque negro, surgió allí mismo un hermoso palacio de debajo de la tierra, con su bonito jardín y todo. También le dio una linda cabra a la Reina para su leche, y se fueron luego el Señor Jesús y San Pedro. Pero, mientras se alejaba, le mandó a la Reina que, por su bien, no saliera nunca del palacio; que se le caerían los dedos, tan pronto como saliera del palacio.

Antes de alejarse, sin embargo, el Señor Jesús mismo bautizó a los dos niños de la Reina, llamando a uno Iguzkia1 y al otro Ilhargia(2).

* * *

Alguna vez pues, el Rey regresó de la guerra a casa; y enseguida le dijeron cómo la Reina joven y sus dos niños fueron muertos hacía mucho.

El Rey joven se puso a lamentarse. Y, como para olvidar su pena, marchó de bosque en bosque con un amigo, siempre cazando, de noche y de día.

Una noche se perdieron en el gran bosque negro, y advirtiendo una luz a lo lejos, fueron hacia aquella luz. Y así se encontraron en frente del palacio de Maria Valentina.

Pidieron pues refugio para aquella noche, y que sí, les dijo la Reina.

La joven mujer conoció inmediata-inmediatamente a su señor Rey, pero no éste a su mujer la Reina.

Les dio de comer a los dos cumplidamente, y luego fueron pues a dormir.

Pues los dos estaban agotados, pronto se durmieron.

Entonces la Reina, cogiendo a sus dos hijos con ella, los llevó enfrente de la cama del Rey y, callando-callando, les dijo en voz baja que aquel señor era su mismo padre, y así pues que despacio-despacio le dieran un beso. Y,

Muthilen nahigabea! Hainbertze maite zuten bere Erregina! Joan ziren beraz Maria Balentinarekin eta haren haurrekin. Bainan, Erregina eta printze gaichtoak hiltzeko orde, Maria Balentinari egin ziozkaten soinean bi sakela handi, eta sakela hetan haurrak ezarririk, egorri zuten Erregina: zohala handik, urrun, biziki urrun!

Eta gero, beren chakurretarik hiru hilik han berean, heien bihotzak ekarri ziozkaten Erregina-Amari, eta osoki hau enganatu zuten.

* * *

Muthil bihotz onekoak urrundu orduko, haren ganat heldu bi gizon ikusi zituen Erreginak. Izitu zen berriz, bainan sosegatu ere laster, ezen bi gizon hek Jesus Jauna bera eta Jon Doni Petri ziren, lur gainean ibilki.

Hurbildu zen beraz Jesus Jauna, eta, oro zakizkan bezala, deusik ez zion Erregina gazteari galdatu, bainan bai solasetan bihotz-altchagarrienak erran amultsuki. Esku ikaragarriak ferekatu ziozkan, eta Erreginari berehala, han berean, berriz sortu zitzaizkon bere erhiak oro.

Jesus Jaunak gero eskua altchaturik, oihan beltz haren erdian, jauregi bat ederra jali zen hantchet, lurpetik, bere baratze pullitarekin eta ororekin. Ahuntch muñuña bat ere eman zion Erreginari, beren esnearentzat, eta joan ziren gero Jesus Jauna eta Jon Doni Petri. Bainan, urruntzean, Erreginari manatu zion Jesus Jaunak, bere onetan, ez zadin sekulan athera jauregitik; erhiak eroriko zitzaizkola, jauregitik atheratzea bezen chuchen.

Urrundu baino lehen, hatik, Jesus Jaunak berak bathaiatu zituen Erreginaren bi haurrak, Iguzkia deitzen zuela batto, Ilhargia aldiz bertzea.

* * *

Noizpeit beraz, Erregea itzuli zen gerlatik etchera; eta, berehala erran zioten, nola Erregina gaztea eta haren bi haurrak hilak ziren aspaldi hartan.

Auhenetan eman zen Errege gaztea. Eta, bere atsegabearen ahanzteko bezala, oihanez oihan abiatu zen, lagun batekin, ihizin bethi, gauaz eta egunaz.

Ilhuntche batez, oihan beltz handian galdu ziren, eta argi bati urrunera oharturik, joan ziren argi hari buruz. Eta holachet aurkitu ziren Maria Balentinaren jauregi-aintzinean.

Gau hartako atherbea galdatu zuten beraz, eta, baietz, eman zioten Erreginak.

Andre gazteak berehal-berehala ezagutu zuen bere jaun Erregea, bainan ez hunek bere andre Erregina.

Afaltzerat eman zioten ederki bieri, eta gero, joan ziren beraz lo egitera.

Unhatuak izaki biak, laster lokhartu ziren.

Orduan, Erreginak, bere bi haurrak berekin harturik, ereman ziten Erregearen ohe aintzinera, eta, ichil ichila, ahapetik erran zioten, jaun hura heien aita bera zela, eta pulliki pulliki musu eman zezoten beraz. Eta, pulliki, pulli-

despacio, despacio, uno después del otro, le dieron un beso, y se ocultaron los tres.

El rey no se dio cuenta de nada, ya que estaba bien dormido.

Pero el amigo de aquél no estaba dormido, y habiendo visto pues todo, le contó todo al rey. Y entonces, los dos convinieron que de alguna manera debían volver allí mismo aún la próxima noche, a dormir.

Como dicho volvieron; y fingieron que dormían, pues, la noche siguiente. Pero, cuando la Reina joven aun estaba enfrente haciendo dar el beso a los niños, el Rey le tomó el brazo a Maria Valentina, y le preguntó severamente qué andaba así, y quíen era para tomarle así...

Se sorprendió la pobre Reina; pero después, cuando volvió en sí, le confesó todas las cosas al Señor Rey. Se alegró el Señor Rey, (dando) besos y besos a sus niños, besos y besos a su querida mujer a la que desde hacía mucho tenía por muerta.

Les mandó que volvieran con él a casa, e inmediatamente aún; que la Reina madre estaba muerta desde hacía algunos meses, que vivirían en medio de los mayores placeres, olvidadas todas las penas anteriores.

Mientras tanto, sin contar nada de la amenaza mencionada por el Señor Jesús, no quería la Reina alejarse de aquel gran bosque. Pues tenía miedo de que se le cayeran los dedos si salía del palacio... Pero, finalmente, cayó a los ruegos del Rey; y, en el mismo momento en que salió del palacio –sin pizca de sangre, eso sí– ¡se le cayeron los dedos!...

* * *

Mientras iban a casa, en el pueblo natal de Maria Valentina vieron un grupo de gente reunida. Y luego, habiendo preguntado qué era pues (lo que pasaba), les respondieron: que había un hombre que, teniendo metida una espina en la mano, andaba sin poderla sacar.

Les va Maria Valentina, habiendo olvidado totalmente que no tenía dedos más, y les dice a todos:

—¡Dejadme! Yo se la sacaré...

—No lo vas a hacer, ¡si nadie lo puede hacer!

—A pesar de ello...

Se acercó, extendió las manos hacia el hombre, lo tocó, y –¡verdadero misterio!–, le surgieron otra vez sus dedos, y ¡le surgieron para siempre!...

Inmediatamente, allí mismo, le sacó la espina al hombre, y entonces se dio cuenta ¡de que aquel hombre era su padre!...

* * *

Habiendo perdonado al padre, aquel padre y todos fueron pues al Palacio Real, vivieron en plena felicidad, ¡Dios sabe por cuánto tiempo!

N. del T.: (1) Iguzkia: Sol; (2) Ilhargia: Luna

• Jean Barbier

Nuestra fuente: Légendes Basques. Edit. Elkar, pág. 67.
Trad. J.A.

ki, batek bertzearen ondotik, musu eman zioten, eta itzali ziren hiruak.

Errege ez zen deuserik ohartu, lo baitzagon ederki.

Bainan haren laguna ez zagon lo, eta oro ikusirik beraz, oro salatu ziozkan Erregeri. Eta orduan, egin zuten biek, zerbeit gisaz harat bererat jin behar zutela ondoko gauean oraino, lo egitera.

Erran bezala jin ziren; eta alegia eta lo egin zuten beraz ondoko gauean. Bainan, Erregina gaztea haren ohearen aintzinean haurreri musuaren emanarazten ari zelarik oraino, Erregek hartu zion besoa Maria Balentinari, eta zorrozki galdegin zion, zer ari zen hola, eta nor zen hola artzeko?...

Harritu zen Erregina gaichoa; bainan gero, bere beitharatu zenean, oro aithortu ziozkan Errege-Jaunari. Loriatu zen Errege-Jauna, musu eta musu bere haurreri, musu eta musu aspaldi hartan hila zaukan bere andre maiteari.

Manatu zioten berarekin itzul zitezen etcherat, eta berehala oraino; bardin ama ere hila zela, zuela zonbeit hilabethe, atsegin handienen erdian biziko zirela, lehengo atsegabe guziak ahantzirik.

Jesus Jaunak aiphatu mehatchuaz deusik salatu gabe bizkitartean, ez zuen Erreginak oihan handi hartarik urrundu nahi. Erhiak eror beldur zen alabainan, jauregitik atheratzen balin bazen... Bainan, azkenean, Erregeren othoitzetarat erori zen; eta, jauregitik atheratzean berean, –odolik batere gabe, hatik– erhiak erori zitzaizkon!...

* * *

Etcherat zoatzilarik, Maria Balentinaren sort-herrian, jende multzo bat bildua ikusi zuten. Eta gero, galdeginik zer zen bada, ihardetsi zioten: gizon bat zela, elhorri bat eskuan sarturik, elhorri hura ezin atheratuz ari zena.

Badoakote Maria Balentina, erhirik ez zuela gehiago osoki ahantzirik, eta orori erraiten diotela:

—Utz nezazue! Nik atherako diot...

—Ez duzu eginen, nehork ezin egina da eta!

—Halarikan ere...

Hurbildu zen, eskuak hedatu zituen gizonaren gana, hura hunkitu, eta –zinezko michterioa!– bere erhiak berriz sortu zitzaizkon, eta sortu sekulakotz!...

Xitamiru, hantchet, elhorria athera zion gizonari, eta orduan ohartu zen, gizon hura bere aita zuela!...

* * *

Aitari barkaturik, aita hura eta oro joan ziren beraz Erregeren Jauregirat, eta hantchet, zorion bethean bizi izan ziren, Jainkoak daki zenbat luzaz!

• Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 67. or.

Episodios de cuentos

El ogro

Botas mágicas

Los tres hermanos, contentos de haber escapado. Como saben del poder de la bota del tartalo, se acercan a su enemigo, y suavemente, sin hacerle despertar, le sacan las botas.

Vuelven al castillo del tartalo y le dicen a la criada:

—Venimos de parte del señor a entregar sus botas; te manda que nos des a nosotros los dineros de su armario, pues está contento de que nosotros las hayamos encontrado.

La criada hizo como le dijeron, y nuestros chicos fueron a casa cargados de dinero y habiendo hecho fortuna.

Bota magikoak

Hirur anaiak, kontent espakatuz, bazuatzin. Apertzebitzen dute tartaroa lo dagola. Nola beit dakite tartaroaren botaren botherea, hurbiltzen dire bere etsaiarengana, eta eztiki, iratzar arazi gabe, atheratzen diozkite botak.

Turnatzen dire tartaroaren'gaztelura eta erraiten neskatoari:

—Orizu, heldu giutzu jaunaren phartez haren boten errendatzera; igortzen dautzu haren kamineteko diruak guri emaiteko, zeren kontent bait da guk horik idirenik.

Neskatoak, heiek erran bezala egin zuen, eta gure muthikoak etxerat juan ziren diruz kargaturik eta fortuna eginik.

Una reina sin brazos

(R.M.A.)

706. La doncella sin manos

Un viudo tenía una hija muy dadivosa. Entre sus muchas virtudes ésta era la que más destacaba: la compasión. Muchos pordioseros tenían costumbre de acercarse a la puerta de su casa. Nadie salió nunca de allí sin algo en la mano. La bondadosa muchacha acostumbraba dar a los más pobres, desde huevos hasta chorizos.

Una vez llamó una vieja bruja en aquella casa y dio también a aquélla en abundancia alguna cosa, además de dinero. La mala e ingrata vieja fue a la heredad adonde el padre de la muchacha a darle cuenta de la calidad de su hija:

—Es una desmañada, perjudicial, derrochadora. También a mí me ha dado estos pedazos de maíz y de chorizos, además de la limosna, y saque usted las cuentas. Lo que usted gana es poco para sus manos y, ¡pobrecito!, se va usted a arruinar.

Creído el majadero del padre y de allí a poco, diciendo que iba a llevar a la hija a la romería, vistiéndola de día de fiesta, la sacó de casa consigo. En llegando al desierto, la hizo subir a la hija a un árbol y, cortándole allí los dos brazos y atada con una cuerda en una rama, la dejó llorando a la pobre muchacha...

Comenzó a llover. Unos soldados, entre ellos el hijo del rey, pasando por allí en busca de refugio, tomaron descanso debajo de aquel árbol, Viendo caer gotas de sangre y mirando arriba, hallaron una hermosa joven, que se deshacía en lágrimas.

—¿Qué tenéis? –le preguntaron.

Cuando la mujer les dio cuenta de todo lo sucedido, el hijo del rey la llevó a su palacio. Ordenó a los criados que la cuidasen bien. Todos, compadecidos, la querían muchísimo y estaban como enloquecidos por ella.

El hijo del rey le manifestó el deseo de casarse con ella.

—¡Casarme yo, y nada menos que con un heredero del Trono! Se reiría cualquiera al saber que se casa una sin brazos.

—No importa.

Dicho y hecho: se casaron pronto.

Antes de un año tuvo que partir lejos el esposo: a la guerra. Mandó que le trataran bien a la esposa.

Pronto le llegó el parto. Tuvo gemelos: niña y niño muy lindos. Entonces apareció nuevamente aquella vieja bruja, malvada, ingrata, discurriendo cómo perjudicar a la de sin brazos. Los del palacio dirigieron una carta al hijo guerrero, comunicándole «que había tenido hijo e hija». La bruja, sabiendo quién era el comisionado, le quitó esta carta y le entregó otra.

—Su esposa, manca de los dos brazos, ha tenido dos gatitos, y todos estamos llenos de vergüenza.

Habiendo recibido el hijo esta carta, ordenó en su respuesta:

Beso bagako erregina

(R.M.A.)

706. Eskurik gabeko dontzeila

Gizon alargun batek alaba bat eban guztiz eskuzabala. Auxe zan bere ontasun askoren artean agiriena: errukia. Euren etxeko atarira eskeko askok euken yokerea artuta. Batek ezeban inoiz andik urten eskuetan zerbait bagarik. Arrautza ta lukainkaraginokoak ekian neskatila onak beartsuenai emoten.

Bein atso sorgin batek ots egin eban etxe atan ta ari bére diruaz gainera oparo beste zerbait emon eutsan. Atso donga eskergaiztokoa neskatilearen aitagana solora yoan zan, alabea nor eban esatera:

—Ganora bako, etxekalte, ondatzaile bat da. Neuri bére, limosneaz gainera, arto ta lukainka-zati onetxek emon daustaz ta kontuak atara. Zuk irabazten dozuna gitxi da aren eskuetarako ta lur yo bear dozu gizagaixo orrek.

Aita kirtenek sinistu ta arik laster alabea, erromerriara bear ebela-ta, jai-eguneko jantzita beragaz etxetik atarau eban. Basamortura elduta, zugatz batera igon eragin eutsan alabeari ta antxe beso biak moztuta soka batez adar-artean lotuta negarrez itxi eban neskatila errukarria.

Euria asi zan. Gudari batzuk, euren artean erregeren semea, andixek igarota aterpe-bila zugatz aretxen azpian atseden egin eben. Odol-tantak yausten ikusi ta gora begiratueran emakume gazte eder bat negarrez urtuten idoro eben.

—Zer dozu? –itandu eutsen.

Emakumeak yazo zan guztia yakin eragin eutsenean, erregeren semeak bere yauregira eroan eban. Otseinai ondo yagoteko esan eutsen. Guztiak, errukiak yota, maite-maite eben ta zoratuta lez egozan beragaz.

Erregeren semeak emaztetzat artzeko ustea erakutsi eutsan.

—¡Ni ezkondu ta errege izateko bategaz! Barre egingo leuke edozeinek beso bagako bat ezkontzen dala yakitorduan.

—Eztago ardurarik.

Esan ta izan: laster ezkondu ziran.

Arik urte bete baino lenago urrun yoan bear izan eban senarrak, gerrara (gudura).

Emaztea ondo artzeko agindu eban. Laster izan eban onek bere seingintzea. Bikiak izan ebazan: neska-mutikotxo politak. Orduantxe agertu eban barriro bere burua arako atso sorgin donga esker gaiztokoak, beso bagakoari nondik kalte egingo. Yauregikoak seme gudariari karta bat egin eutsan «seme-alabak izan zituala», esaten. Sorginak, mandataria nor zan yakinda, karta au kendu ta beste bat emon eutsan.

—Zure emazte besobakok katakumeak sortu dauz ta lotsa gorritan gagoz guztiok.

Seme orrek karta au artuta:

—Comoquiera que sea, cuiden bien a mi esposa.

—Dan moduan dala, nire emaztea ondo jagoizue, –agindu eban.

Saliendo la bruja al camino al comisionado, guardó esta carta del príncipe y le entregó otra escrita por ella.

—Desde el momento en que se reciba esta carta pueden sacarla del palacio a esa mujer, juntamente con su producto. –Leyeron asombrados el rey y su corte.

—No es posible –decían–. No es tan duro de corazón. No tomemos resolución alguna hasta que él venga. Estos niños, por lo menos hasta que sepan andar, tengámoslos en casa.

